30 MAYO 1978

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la lengua Vasca
Travaux et actes de L'Academie Royale de la langue Basque

Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskera XXII (2. aldia)
1977 (uztailetik-abendura)
BILBO

A. G. ELKAR, S. Coop. Gregorio Balparda, 71-Bilbao
Depósito Legal: BI-1351-1978

JEAN HIRIART URRUTY-REN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

J. HIRIART-URRUTY JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Hazparne-n, 1977, martxoak 27

EUSKALTZAINBURUAREN AGURRA

Hazparneko hauzapez agurgarria,

Euskaltzaindiko gogaideak,

Hazpandar entzuleak, eta hainbeste tokitarik etorritako jaun-andreak:

Egun on digula guztioi Jainkoak!

Hastean neure eskerrik beroenak ematen dizkiot Hazparneko herriari eta bereziki ongi etorria eman digun Larramendi jaunari.

Gerla ondoko garaian egun lehenbiziko aldiz biltzen da Euskaltzaindia, Euskararen Akademia, hemen, Hazparneko herri huntan.

Eta alabaina Hazparne hiri famatua da, euskal literaturan anitzetan aipatua, Lapurdiko hiri handienetakoa, euskara atxiki duten herrietan tarrotuena segurik. Euskal literaturaren historia egitean hamaika aldiz topo egin dut Hazparneko herriaren izenaz. Hemen zen eta da oraino Misionesten etxea, zeinetan bizi izan baita euskal idazleetarik franko. Lasalletarrek ere kolejio bat jarri zuten hemen gazteentzat eta hortik pasatuak dira idazle hoietarik ez gutti. Eta hala beti Hazparneren izenaz topo egiten nuen.

Beste zenbait Hazparnen bertan egonak dira apez.

Eta azkenik beste batzuk Hazparneko bereko semeak dituzue.

Hazparneko Misionest izandakoen artean hor da Haramboure, "Egun Ona" liburuaren egilea. Hor da ere Arbelbide, euskal literatura hainbeste liburu ederrez hornitu zuena.

Hazparneko kolejioan ikasitakoen artean, berriz, euskal idazle mordoa dugu: Laphitz, Barbier, Landerretxe, Monseigneur St. Pierre...

Eta Frère Innocentius bera, Lasalletarra, Hazparneko kolejioko buru, Elissamburu poetaren lehengusua, euskal liburuen egile da hura ere. Ez da mirestekoa hainbeste idazle euskararen amodioan sutuak atera baditu.

Adema euskal poeta ere Hazparnen apez egona da.

"Erroma eta Jerusalem" eta "Hazparneko Kalbarioa" liburuak ere hemengo euskaran eginak dira. Eta hoietan parte hartu zuten Martin Ducq, Arbelbide, Lapeyre, Zanzinena, Choribit, Abbadie, Bastres eta beste batzuek. Hazpandarrak ziren Broussain, Soubelet, Léon Léon.

Baina aparteko modu batean aipagarri da Jean Hiriart Urruty, Hazparnen sortua. Guztiok dakigu nola jaun hau nabarbendu zen kazetaritzan. 1887an "Eskualduna" astekaria sortzen da. Beste anitz gauzatan bezala Iparraldeko Euskal Herria huntan ere aitzindari gertatu zen. Euskal kazetaritzak hemen tradizio luzea izan du. Eta esan gabe doa kazetaritzan aritu diren hoiek lan guztiz ondoriotsua egin dutela euskara trebatzen eta tresna zalui bihurtzen, gure mintzaira zernahitarako erabiliz, eta mintzaira bera arinagotuz.

Lan huntan, beste askoren artean, kapitain eta buruzagi bezala gailurtu zen Hiriart-Urruty, Hazparneko semea. Gaur-egunean, Lafitte jaun eta Jakin argitaldariari esker, badugu jaun hunen horrialderik hoberenen hauta ederra, bi liburutan: "Mintzaira, Aurpegia, Gizon!" eta "Zezenak Errepublikan".

Baina egun beste Hiriart-Urruty baten aldia da. Hazparneko semea hau ere eta bestearen iloba. Hunek egiten du gaur Euskaltzaindian sartzea.

Gertakari pozgarri hau osatzeko etorri da, bada, Hazparnera Euskararen Akademia, Euskaltzaindian izena duen batasuna.

* * *

Ez dakitenen faboretan esan nahi dut elkarte edo batasun hau 1918an jarria dela, eta xede hunekin jarria: euskara, gure mintzaira, begiratzeko, lantzeko eta aitzinatzeko. Bata-

sun hunen galtzarrean daude bildurik euskara lantzen, ikertzen edo nolabait mintzaira hunen alde lan egiten ari diren jaunak. Eta jaun hoik Euskal Herriko eskualde guztietakoak dira, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Zuberoa, Nafarroa Behereko eta Lapurdikoak.

Ororen artean har-eman izanik, nahi ditugu euskararen korapiloak eta hauziak galbaetu eta ahal dela argitu, eta gure mintzaira hau gai bihurtu gaur eguneko bizimolde, arazo eta kulturaren sujetak tratatzeko. Nahi dugu euskarak, gure herriaren ondasun berezi eta balios hunek, etorkizun bat izan dezan, eta horretarako premiazko dela ikusten dugu, toki bakoitzeko mintzatzeko manerak errespetatuz, hoien gainetik euskara molde bat bakarra eta orokorra hedaraztea eskolan, liburuetan eta abar erabiltzekoa. Nahi dugu oinarrizko kultura sendo bat euskaraz egin dadin. Nahi dugu geure euskara herri aitzinatu baten tresna egoki bihur dadin. Hitz batean esateko, euskararen salbamenduko obra nahi dugu bulkatu, sustatu eta aitzina eraman.

Egiteko handia eta amets handia dela hau badakit. Handiegia, ederregia eta egiten gaitza. Ongixko dakigu, bai. Akademia, bera bakarrik, ez da gai obra handi hau bururatzeko. Euskaldunen atxikimendua, zuen guztion laguntza suharra eta ihardespena eta segida nahi eta behar du.

Benetan eta zinez euskaldunok nahi baldin badugu, ordea, eta hortan lan egiten baldin badugu gogotik, egin daitekeen obra dela uste dugu.

* * *

Egungo gure bilkura hunetan, bada, Hiriart-Urruty jaunak euskaltzain edo "académicien" berri bezala ofizialki Akademian bere sartzea eginen du. Hortarako bere hitzaldia irakurriko du, eta ondoan bere aitatxi bezala hartu duen beste "académicien" zahar batek –J. L. Davant jaunak– ihardespenezko hitzaldia egingo du. Eta azkenik, euskaltzain izendatua izan delako ageri edo sinestamendua emango zaio Hiriart-Urruty jaunari.

Eta azkenik, eta finitzeko, beste euskaltzain ohorezko baten hil-berria gaztiatu beharrean gertatzen naiz. Joan den otsailaren azken egunetan itzaldu zen 98 urterekin, Gipuz-

koako Tolosan, Isaak Lopez Mendizabal jauna, euskal letren patriarka zaharra. Ez naiz hasiko hemen hark bere bizitze luzean barna euskararen alde egin zituen lan guztiak banabanaka kontatzen. Baina Lopez Mendizabal jaunak badu sail bat era berezi batean bere-berea duena eta aitortu behar zaiona, hortan aitzindaria izan baita: hots, haurrentzat euskaraz literatura bat egiten bidea zabaldu eta erakutsi du. Eskola liburuak haurrentzat euskaraz egiten aitzindari izan da. Haren liburuetarik batzuk, hala-nola "Xabiertxo" izena duena, anitzetan bir-argitaratu dira.

Edozeinek ikus lezake lan hunen ederra eta beharra. Haurrek gure hizkuntza ikasten ez badute, gure hizkuntzak ez du etorkizunik. Huntan denek egin behar dute lan: gurasoek, eskolak, elizak, herriak. Eta bertzeak bertze, liburuak ere behar dira, haurrentzat berariaz egindako liburuak. Huntan begi ernea izan zuen Lopez Mendizabal jaunak. Gero haren lana beste batzuek hartu eta segida emango diote, baina bera izandu da aitzindaria. Merezimendu hori aipatu beharrezkoa zen.

Euskaltzain bat hiltzen denean haren aipua egiten da Euskaltzaindiaren hurrengo batzarrean. Eta hain zuzen, gaurko hau, Hazparneko hau, da Lopez Mendizabal jauna hil ondoko lehen bilkura. Arrazoi horregatik ere aipamena egin behar zen.

JEAN HIRIART-URRUTY-REN MINTZALDIA

Euskaltzaindiari eta bere herritarreri agurrak eta eskerrak eman ondoan, euskaltzain berriak aipatzen du Louis DASSANCE zena, eta gero Hazpandar idazle eta koblari zonbait.

1. LOUIS DASSANCE

Gazte gaztea nintzalarik egin nituen Luis DASSANCE-n ezagutzak. Euskalzaleen Biltzarretan ikusten nuen bere buruzagi-alkian erne, bere betiko flokañoa lepoan, bere irri goxoa ezpainetan.

Gizon xuta, gizon pollita, gizon fina. Uztaritzeko Azantza familia aipatu hartarik zen, bainan gizonaren izana ez du beti izenak salatzen: azantza guti zuen Louis DASSANCE-k, arras gizon ixila zen.

Ixila, bainan zer langilea! Laborantzako eskola handiak eginak zituen, eta laborantzaren goiti-beheitieri jarraikitzen direnek badakite zonbat lan baduen eginik sail hortan, Euskal-Herriaren onetan.

Bestalde, Uztariztarrek estimu handitan zaukaten, eta luzaz kargutan ezarri dute herrian: hogoi urtez axuant eta hogoi urtez auzapez. Berrogei urte herritarren zerbitzuko.

Bainan egun gehienik aipatu behar dutana da euskalkulturaren alde egin duena.

Gure herriko usaia eta ohidura guzieri errotik atxikia zen. Pilota biziki maite zuen: ez da harritzeko, 1921-ean Jean YBARNEGARAY-ek pilotako Federazionea xutik ezarri zuelarik, DASSANCE ere hortan sartu baitzen.

Euskal dantzetaz ere, lehengo eta oraikoetaz, zernahi bazakien, eta nahi zituen gazteak lagundu ontasun horien begiratzen.

Bainan "ongi pilotan eta oneski dantzatzen" dakienak, egiazko euskaldun izaiteko, behar du ere jakin euskaraz mintzatzen. Euskararen alde da gehienik bermatu Louis DASSANCE.

1921-ean, lagun multxo batekin, agerkari edo errebixta berri bat egin zuten. "Gure Herria" eman zioten izena. Haur sortu-berriaren ohakoaren inguruan, ikusten ditugu: SAINT-PIERRE, BARBIER, MOULIER, ELISSALDE, APESTEGUY, CHORIBIT, DUFAU.

Haurra handituko da. Bainan huna 39-ko gerla. Gerla bururatu orduko, prest dugu DASSANCE agerkariaren berriz abiarazteko.

1925-ean, Euskalzaleen Biltzarra-ren buru ezarria zuten, Jean ETCHEPARE zenaren ordain, eta 32 urtez izanen da, kargu hortan, langile multxo baten gidari eta akulatzaile.

Gerla ondoan, astekari berri bat, "Herria", sortu zen, "Eskualduna" ez baitzitaken ager, gerla denboran hartuak zituen politika-bideen gatik. LAFITTE jaun apezaren lagun hoberenetarik bat izanen da Louis DASSANCE, bere azken egunetaraino.

Holako euskalzalea nola ez zuen Euskaltzaindiak beregana-tuko? 1949-an, Euskal-Herri guzia inarrosi zuten urte nahasien ondotik, muga hori berriz ideki zelarik, eskualde huntako euskaltzainak ere hasi ziren berriz Donostiarat edo Bilborat biltzen. Arras jarraikia zen DASSANCE, on zeno, erran nahi dut beharriak ontsa zitueno. Zorigaitzez, azken urte hautan frango elkortua baitzen, bilkuretako solas-aldietan nekez parte hartzen zuen.

Hoinbeste saili lotua den gizonak, iduri luke baduela horiekin aski. DASSANCE-k ez: 1959-an lagun zonbaitekin batasun berri bat sort-arazten du, "Ikas", eskoletan euskara-ren sar-arazterat azkarki bermatuko dena. Zer bilaka litake alabainan euskara, oraiko mendean, eskolan tokirik ez balu? Etxeko gauza arruntenetako baizik ez den mintzaira, ez dute estimatuko haurrek eta gaztek.

Baionako Euskal Erakustokiari ere arras atxikia zen DAS-SANCE, eta etxe horren laguntzeko egin zelarik "Erakusto-kiaren adixkideen batasuna", hura ezarri zuten buru.

Jaz itzali zaiku Louis DASSANCE, 88 urtetan, bizi luze eta balios bat eremanik.

Badut aski erranik, dener konpreni-arazteko nolakoa izan den galdu berria dugun euskaltzaina.

Euskaltzain berri bati usaiak manatzen baitio bere aintzinekoaren goresmenaren egitea, hitz laburretan dago ene goresmena: Louis DASSANCE, zer gizona eta zer Euskalduna!

2. HAZPANDAR IDAZLE ZONBAIT

Euskaltzaindia egun Hazparnen dugu. Aspaldi du ez zela hunat bildu. Azkenik, naski, 1920-an, Hazpandar euskaltzain baten ehortzetako. Euskaltzain hori zen Pierre BROUSSAIN.

1869-an Barrandean sortua, gero Jauregi-zaharrean bizi izana (orai posta den etxe hortan), Hazparneko auzapez izan zen, MORROXKO-ren ondotik.

Euskaltzaindiaren hastapenean berean, 1917-an, lehenlehen euskaltzainetarik izana zen. Euskal gauzetan arras jakintsuna zen, eta gure mintzairaren begiratzeaz eta batetaratzeaz biziki griñatua.

Beste Hazpandar jakintsun bat ere behar dugu aipatu, gutarik ainitzek ezagutu duguna: MATHIEU jaun apezpikua. Nahiz berak ez duen euskaraz hanbat izkiriatu, eta bere bizitzako urterik aberatsenak hemendik kanpo eman dituen, Akizeko apezpiku bezala, bihotzez Euskalduna zen errotik, eta kuraie handirekin Euskaldunen alde agertu zen, gerla denborako egun hits batzuetan. "Société Internationale des Etudes Basques" deitu batasunak ere bere buruzagitzat hautatua zuen.

Ainitz Hazpandar bada, euskaraz izkiriatzen arizan denik. Ezagutuenak bakarrik ditugu bi hitzez aipatuko, eta hilak direnetan geldituko gira.

Kaseta-egiletan, huna lehenik Jean HIRIART-URRUTY, Joanesederraeneko apeza. Louis ETCHEVERRY Donazaharreko deputatuak sort-arazi zuelarik "Eskualduna" astekaria, HIRIART-URRUTY, orduan Larresoroko semenarioan erakasle zena, harekin hasi zen lanean, eta zonbait urteren buruan bera jarri zen kasetaren buru.

25 urtez, badu zerbait izkiriaturik. Haren artikuluetarik multxo bat badira duela bospasei urte bi liburutan agertuak.

Kasetalarietan gireno, nork ez du gogoan Piarres DUHOUR? Gazte-gazterik hasi zen Eskualdunean izkiriatzen, eta gero Herrian segitu zuen. Hoin berriketari jarraikirik ez baitu naski sekulan ukan kaseta batek. Hazparneko berriak xehe-xehea kondatzen zauzkigun aste guziez xuxen.

Ezagutzen ote duzue Martin DUCQ? 1891-an, liburu bat agertu zuen, "Erroma eta Jerusaleme", berak hor gaindi egina zuen beila baten berri emanez. Hazparneko misionestetarik zen. Aintzin-solasean, ARBELBIDE orduko misionesten buruzagiak zion Hazparneko euskaran egina zela liburua.

Elizako paperen arabera, DUCQ hori sortzez Hazpandarra zen; berak ere dio liburuan, Hazparneko freren eskolan ibilia dela.

Guarda-seme baitzen (harritzeko da euskaltzaleetan zonbat guarda-seme kausitzen dugun!) Hazparneko guarden etxean bizi izana zen: ordu hetan guardak baitziren herrian, geroztik ere Kazerna deitzen den Zelaiko etxe hartan.

Léon LEON apezaren obrarik ezagutuenak dira Ebanjelio Saindua eta Jesu-Kristoren imitazionea, grekatik eta latinetik euskaralat eta zer euskara ederrerat itzuliak. Bainan bestalde badu kaseta eta agerkarietan asko izkiriaturik: oroz gainetik, antzerki, ixtorio eta alegia batzu, ahotik ezin utziak.

Domingo SOUBELET kalonje zenaren prediku gozo eta aberatsez ainitz orroit dira, Hazparnen eta Euskal-Herrian. Liburu parrasta bat ere badu eginik: Petain Marexala, Bihotz Sakratua, San Josep, Andre Dena Maria Lurdekoa, Boulognekoa, Fatimakoa, Maria Goretti, Jesus eta behar-bada beste zonbait ere.

3. KANTU XAHARRAK

Bainan egun ez nindazke jaun handi horietan egon nahi. Nahi nuke zuekin jende xehea entzun, Hazpandar euskaldun xumea, bere arrangurez mintzo, edo herriko gertakariez.

Eta hortako, Hazparneko lehengo kantu xaharren ondotik ibili naiz. Hobeki erraiteko, beste batzu ibil-arazi, heieri zor baitiotet egungo ene mintzaldiaren mamia.

"Lehengo Hazparne" kantutan: horra zer izanen zen ene ametsa. Balitake hor uzta bat ederra biltzeko. Nun kausi



J. H. Urruty-ren Euskaltzaindian sartzea

lehengo kantuak? Lehenik herritarren eta bereziki xaharren orroitzapenetan: loriagarri baita ikustea zonbaitek nola atxikitzen dituzten gogoan bertsu andana gaitzak.

Bestalde, badira ere kasetetan agertu diren kantuak: aizina luken batek, segur naiz zernahi hatxeman lezakela lehengo *Eskualduna* xaharretan.

BORDAXURI

Huna lehenik kantu bat, Euskal-Herri guzian hedatua dena: galerianoarena. Ezagutzen ditugunetan xaharrenetarik da, 1815-ekoa denaz geroz.

Kantu latz eta iluna: sekulako galeretarat kondenatua den gizon batena.

Jean HARITSCHELHAR arizana da paper zaharretan miatzen, bai Hazparnen, bai Pauen, bai Rocheforten, zer zen xuxen auzia.

Martin LARRALDE Plumainean bizi zen (paper zaharrek Plumaienea ekartzen dute, guk beti Plumaainea entzun dugu, Elizaberri xoko hartan duela zonbait urte artio xutik ikusi dugun etxearentzat).

Martin horren aita Bordaxuritik jina zen, eta semeari ere hortarik zaio Bordaxuri izena gelditu. Aita-semeak arras makur ziren etxe partearen gainetik.

1815-eko ekeinaren 27-an, aitak etxe ondoko pentze batetako belarra saldua baitzion Joanes OSPITAL Kaselarrenbordako etxetiarrari, hau jin zelarik belarraren biltzerat, Martin bere aldetik hasi zen beretzat biltzen. Hizkatu ziren. Biharamunean, FRANCHISTEGUY herriko auzapeza jin zen Plumainerat auziaren xuritzerat eta Ospitali eman bere belarraren hartzeko baimena. Ospital belar metaren gainean zagolarik, Martinek tiro bat eman zion eta kolpatu.

Paueko Asisetan jujatu zuten Bordaxuri, eta 1815-eko hazilaren 28-an betiko galeretarat kondenatu.

Pauetik ereman zuten Agen-erat, eta handik Rochefort-erat. Han hilen da, bost urteren buruan, berrogoi urtetan. Bordaxurik bere kantuan ez dauku salatzen zertako kondenatua den: bere etxekoen alderako herra ikaragarria dauku agertzen. Bere burua xuri dauka; hobendun bakarrak: aita, arreba, osaba.

I

Mila zortzi ehun eta hamabortzgarrena
Ni Ahazparnen preso hartu nindutena;
Plumaieneko premu orok dakitena,
Galeretan higatu beharko naizena.

II

Kantatzera niazu alegera gabe
Ez baitut probetxurik trixtaturik ere;
Nehun deusik ebatsi gizonik hil gabe,
Sekulako galerak enetako dire.

III

Ala zorigaitzeko premu izaitea!
Horrek eman baiteraut betikotz kaltea,
Aitari gald'eginik sortzeko partea,
Galeretan eman nau, hau da ene dotea.

IV

Ene aita da gizon kontsideratua,
Semia galeretan du segurtatua.
Nun nahi otoitzean belaunikatua
Saindu iduri, debru madarikatua.

V

Ene lehen kusia Kadet Bordaxuri,
Fagore bat banuke galdatzeko zuri:
Ongi adreza zaite ene arrebari,
Ene saltzeko zonbat ukan duen sari.

VI

Aita aintzinian eta arreba ondoko,
Osaba burjes hori diru fornitzeko;
Ez ordian enetako bi sei liberako
Galeretan bederen leher egiteko

VII

Elizan sartzen dira debozionerekin,
Iduriz badohazila saindu guziekin
Beren liburu eta arrosarioekin
Debruak pesta onik einen du heiekin.

VIII

Zortzigarren bertsua aneiarendako,
Kontseilu bat banikek hiri emaiteko:
Ontsa goberna hadi, ez zauk dolutuko;
Ni baitan etsenplua errex duk hartzeko.

IX

Zuri mintzo nitzaizu, oi Aita zilarra,
Ardura dudalarik begian nigarra;
Zure eta ene arraza Bordaxuritarra,
Galeretan naizeno ni bainaiz bakarra.

X

Kantu hauk eman ditut Paubeko hirian,
Burdinez kargaturik oi presundegian.
Bai eta kopiatu denbora berian,
Orok kanta ditzaten Hazparne herrian.

XI

Hok eman izan ditut ez xangrinatzeko,
Ene ahide adixkidek kuraie hartzeko.
Eta partikulazki, aita, zuretako
Kantu hoik aditzean semiaz orhoitzeko.

.....

Badut obligazione aita eta arrebari,
Bai eta gauza bera oseba jaun horri;
Jaun hori adrezatu da herriko merari
Bai eta eginarazi dirutan zer nahi.

* * *

XETRE

Bordaxuriren kantu dorpearen ondotik, alegeragoko kobla zonbait aterako dauzkute Hazpandar bertsulari xaharrek.

Huna lehenik XETRE. Xetre xaharra dut hemen aipatzen. Xaharretan egonen gira egun, nahiz aipaldi bat mereziko zuten guri hurbilago bizi izan diren zonbaitek: Xetre Lanbertenekoak, Manex Hiriart-ek, bai eta gizonekin koblan artzeko batere lotsa ez zen andere batek: Aña ETCHEGARAY zuen izena. Etchegaray hori nor zitaken ez baitakite behar-bada

Hazpandarrek, berehala konprenituko naute izengoitia erraiten badut: berak barka diezadela zeru gain hartarik: Aña Debrua.

Joanes IRIBARNEGARAY, 1831-an sortua, Lekuine Xetreteitik jina zen Hazparnerat. Hemen Xetre izena jarraiki zitzaion, eta ordu artio Tukutenborda deitzen zen etxeari ere geroztik Xetretea erraiten diogu.

Orduko koblariek estakuru guti aski zuten bertsu zonbaiten moldatzeko. Libertimendu handirik ez zen denbora hetan, ezdeuskeria batekin bazuten zonbait egunez jostatzekoa. Zonbait egunez? Ehun urteren buruan emaiten dira oraino Hazparnen orduko kantuetarik. Huna bat, Xetrek egina: egun batez, Hazketa hortan, Potxoteiko zubian (orai Aldabideko zubia deitzen dugun hortan edo hor nunbait), Hazketa Dorreko nausiq bere astoarekin urerat erori zen.

ARRI ASTO

1. Arri asto triki triki, Hazketa Dorrek erosi,
   Haren gainian behar zela kabalier ibili.
   Johan zelarik airoski, biak urerat erori.
2. Dorre astoaren gainean, zela bridetan lorian,
   Trebukatu izan baitu Potxoiteko zubian,
   Gertatu dira urian, bi-biak mainhuar berian.
3. Dorre hasten da oihuka, otoi jin ziten lasterka.
   Astoari ari zaio lotua tirabiraka,
   Animalia eforka, baina xutik ezin koka.
4. Bildu zenian jendia, han zen gero komedia.
   Atakan zerabilaten gizon miserablia:
   Pagazak mainhu saria, astoaren eta heuria.
5. Dorrek eman arrapostu, abokat gisa mintzatu:
   Ur hura komuna zela, nahi bazuten han sartu.
   Nahiz ederki trenpatu, mainhurik ez du pagatu.
6. Antton eiherazainari saldu zakon asto hori.
   Ederki promenaturik plaza karriketan gaindi,
   Eginik zonbeit itzuli, pilaz goraka nun-nahi.
7. Muse Hiriart goraintzi, konplimendu hau ez gaitzi.
   Dorrek nahiko bailuke behokaño bat erosi,
   Behar dazkotzu igorri hortik zonbait begi gorri.

Hazpandarrek fama bildua dute, tripa-joko hortan arras trebe direla. Fama hori hartze dutenetz, ez dakit. Bainan Xetrek, bera zapetain xume bat izanez, ez baitzuken egun guziez pestarik egiten, ederki trufatzen zituen plazatar jaun horietarik zonbait, ikusiz zer moldetan zabiltzan soberaxko jan eta edan ondoan. Huna Hazketan egin zuten pesta baten berriak.

1

Dugun kanta jaun aipatuen pesta,
Ohoratu daukute Hazketa,
Eginikan mandrein batzuen mustra,
asurtia, asurtia hatxemanik plaza.

2

Joaitean Beskoitzeko aldera,
Orok zuten burua behera.
Itzultzean denek kopeta gora,
Edan-eta edan-eta hola baita moda.

3

Heldu ziren oiuka marrumaka,
Ahideak larretik orroka.
Orok betan segitzen zuten nota,
Maiatzean maiatzean akort baita tropa.

4

Postillun bat hoinbeste karrosekin,
Ordenantza duela berekin,
Zapetain ahotz, bost arrantierekin,
Hor dabila hor dabila zernahi puskekin.

5

Egun hartan postan etzen jaunik,
Hazketan zen graziaz beterik.
Etxean hain inpazienta delarik,
Gostuan zen gostuan zen fortunak emanik.

6

Hola bizi da arrantier dena,
Plazerrekin badu bere pena.
Egun pesta eta bihar tisana,
Tripak ere tripak ere badu bere lana.

Hazketatik goazen Elizaberrirat. Horrat ere biltzen zen jendea. Egun batez, bordetako gain hortan egin zuten lagun multxo batek zikiro pesta bat partikularra.

OIHANIAN JAN DUTE

1

Oihanian jan dute ahuntzen akerra,
Nagusia eritu janikan sobera.
Medikua ekarri lasterka etxera,
Ustez eta zoala hartarik hiltzera.

2

Jaun medikuak gaitza laster ezagutu,
Sukar berri horrentzat sudur ona baitu.
Eria ere dauku laster kontsolatu,
Akerra behar zela purgaz ateratu.

3

Krakada bat bazuten gaztek manatua,
Bildots baten jateko ongi gizendua.
Ordaintzat izan dute aker usaindua,
Zerbitzuak eginik erretretatua.

4

Haragi arradoa aker errakia,
Adarra bezain gogor baitu haragia.
Gizonak nahi badu luzatu bizia,
Atxiki behar luke bere izaria.

5

Zikite bat badute ina bestaldiko,
Eskerren bihurtzerat jiten zireneko.
Arnorik perfetenak haren pusatzeko,
Botikarioan ez da purgarik salduko.

Hazparnetik kanpo ere bazuen arrakasta Xetrek. Zorigaitzez, ez zaiku gauza handirik gelditzen han edo hemen, pesta, eztei edo holakoetan eman zituen kobletarik.

Huna halere haren ateraldi bat: Makean, toberak egin zaizkoten 74 urteko gizon bati, 24 urtetako neskato batekin ezkondurik. Gizon horren alde zen XETRE eta kontra OTXALDE. Xetrek hasi zuen auzia:

"Egungo suietari zer hatxemaiten dakozue hobena?
Bere nahitan dea zaharturik ezkontzen dena?
Ontsa pentsa, afera hoi nungo jujeak dezake kondena?
Ez ote du oilar zaharrak egiten saldarik hoberena?"

OTXALDE ofizioz guarda zen. Gaitzeko bertsularia zela, ez da dudarik. Laneko funtsa haatik, eta bizitzeko planta, hala-hulakoak zituen, eta ez gira batere harritzen egun batez Hazparnen jandarmek preso altxatu baitzuten. Xetrek dionaz, Otxaldek zuen estreinatu jendarmeriako presondegi berria.

HAZPARNEN EGIN DUTE

1

Hazparnen egin dute ganbera berria,
Bidarritik jin zauku estreinatzailea.
Gizon gazte kapable ontsa ikasia,
Orok maite dutena, bertsu emailia.

2

Merkatu arats batez plazan elheketa
Jendez inguratua ari zen josteta.
Debekatua baita tenora paseta,
Polizak ereman du berekin har-eta.

3

Etzanaz ez zen kexu sartu zutenian,
Guarda zen usatua etzaten lurrian.
Gau guzia pasatu hantxet otoitzian
Lagun hoberik ez da bakarrik denian.

ADEMA

Xetrek 23 urte zituen, Hazparnerat jin zelarik bikari, 1854-ean, Senpertar apez gazte bat, Gratien ADEMA. Eskualduna kasetan agertu artikulu batek erraiten dauku denbora hetan bazela Hazparnen "koblari eta ditxolari, gizon bitxi jostakin anitz, batzu jaun, bertzeak deus gabe, bainan omore onez eta irri egin-arazteko ateraldiz oro bardin aberats."

Adéma zenak lehen ezkontza benedikatu zuelarik, jaun Gose eta andere Egarri zituen elgarretaratu.



J. H. Urruty-ren Euskaltzaindian sartzea

Bazen orduan Hazparnen gizon bat arras eleketaria, Manex TTURLA. Eta ezkontza horren ondotik hasi zen kondatzen: "Bikari berri bat badugu gaitza predikaria. Badakizue zer erran dioten egungo esposer? Labur, bainan sarkor: jaun andere espos maiteak, egun hemen enekin duzue egitekoa; bihar goizetik harat, ukanen duzue eiherazainarekin."

Adéma holako ateraldiekin loriatzen zen, eta Xetrerekin laster adixkidetu zen. Egun batez, Xetreri baziozkan bertsu batzu eginaraziak, saria hitzemanez. Bainan ez baitzuen sekulan pagatzen, Xetrek igande batez, Adéma eskearen egiten ari zelarik, galdatu zion bere saria; eta apezak, eskeko xapeletik harturik, bi sos tzar eman. Hortarik egin zituen Xetrek bertsu batzu bipilak. Aski adixkide baitziren, huna, besteak beste, apezari zer erraiten zion:

"Arropa duzularik munduko finena,
Jauna, urrikari dut zure fida dena."

Laster egin zion haatik Adémak arrapostua.

Zernahi kantu badu eginik Adémak, eta mota guzietarik. Nork ez du ezagutzen "Mehetegiko xakurra", eta elizakantuetan "Uholde baten pare"?

Gutik haatik entzun dituzkete Hazparnen ordu hetan egin ziren misionen kantuak. Hor aipatzen dauzkigu Adémak hiru misionest: Deyheralde herriko semea, Xapitaleko apeza, Cottiart, sortzez Barkoxtarra; eta Hiriart: hau zoin zen, nik ez dakit, bi misionest izan baitira denbora berean, izen deitura beretakoak, adin berekoak, bat Lekondarra eta bestea Eiheralartarra.

MISIONESTAK HAZPARNEN

1

Misionestak Hazparnen oihu dolamenez,
Nehor gure artean eririk badenetz.
Hurbil gaiten guziak laster bihotz onez,
Sendaturen gaituzte atsoluzionez.

2

Deyheralde misionest beharren hazlea,
Haren parabolari ez daite enea.
Bera ere baitugu herriko semea,
Makur litake horren hemendik joaitea.

3

Hiriart zer sujeta bere kadiratik,
Zer egia sarkorrak bere predikutik.
Nahi gaitu beiratu guziak galtzetik,
Iduri mintzo dela ifernu zolatik.

4

Nol'utz aipatu gabe oi musde Cottiart?
Harek ere egin du ainhitz Jainkotiar.
Arbolarik harekin ez ditake eihar,
Ez ginuke jaun hori herritik utzi behar.

XUBERRI

Bainan utz dezagun Adéma. Hazparneko bikarietan hasiz geroz, behar baiginuzke aipatu Arbelbide, Zaldunbide, Larzabal, eta beste zonbat?

Xetre eta Adéma baino gazteago zen XUBERRI. 1848 inguru hortan sortua. Deitura DURRUTY zuen. Zelai Xuberri edo Xuhiberrienean bizi zen. 1870-eko gerla denboran, Baionan kaporal baitzen, Espainiarat ihes egin zuen. Bainan bildu zuten eta Baionan preso altxatu. Presondegiko egon-aldia berak kondatzen dauku bertsutan.

Beste kantu bat ere bada, ezagutuagoa: erakusten dauku, ihauteriakari zer ziren orduko jenden balentriak: jela kentze eta holako.

1

Ihauteri edo karnabal, bainan nik beti jelak gal.
Aurten ere eman daitate ene eremuak zabal.
Zertako nauten hoin begietan ez dut konprenitzen ahal.

2

Lehen aldian barkatu, nehor ez dut akusatu,
Bainan bigarren aldi huntan arrazoinekin kexatu,
Hobendunak beharko dira oraitik preso altxatu.

3

Egiten dut ene pleinta, beti aditzalia baita
Joan naiz present ederrekilan, otoi nehori ez aipa,
Egin ahalak egin zitzaten, ahal bazuten arrapa.

4

Gazteria dut partida, holakoer ez naiz fida,
Bainan opinionetarik nehor ez ditake gida.
Bazter guzien nahasteko gezurtari bat aski da.

5

Akusatu dituzunek aise ihardetsi denek:
Gaizkirik iten ez duena ez dute izitzen jaunek.
On daiotela zure partetik milikatu gauza onek.

6

Ukan duzula malurra, hortaz zira arrengura.
Xapeldunak igorri tutzu, bainan kontrako lekura
Jakin eskasian mintzo bazira, tronpa zitazke ardura.

7

Tronpatu zira bortaz, pena behar duzu hortaz,
Inozentak akusaturik egin duzun arraportaz.
Pazko denboran gomitazkitzu oro zonbeit arno xortaz.

8

Otoi ez izan krudela, gauza hoi afruntu dela.
Lehen ere ihauterian ibili da zonbait jela.
Ez dakizuia gazte denboran beti zoroak badirela?

9

Baratzean ainitz lore, ez dakit zenbat kolore,
Artifiziel buketa horri eman dezogun ohore,
Bere parerik hanbat ez duela ote daki berak ere?

10

Lili arrado propria, igortzen dautzut kopia.
Aita holakoa izana gatik, zurekin akortak gia
Aitortu nahi balinbaduzu hori ez denetz egia.

11

Orai gelditzen naiz huntan, beraz hameka bertsutan.
Nik egia errana gatik maleziarik ez ukan.
Arrazoina konprenituta, lana egin dut dirutan.

Asko gertakari mota aipatzen baitaukute lehengo koblariek, bixtan da politika ez dutela bazterrerat uzten. Bozak jitearekin, nola egin ixilik?

Orai, eskuin-ezkerrak baditugu. Lehen, xuri-gorriak bazituzten. Morroxko, St. Martin HARRIAGUE, norbait zen Hazparnen. Gorria zen, haste hartan bederen. Haatik, 1925-ean hilen delarik, HIRIART-URRUTY apezak hartaz izkiriatuko du: "Ez ginuen usteko bertze orduz, duela hamabortz, hamasei urte, egun batez hemen berean, Eskualdun Ona huntan, guhaurek laudatu behar izanen ginuela, guk eta orok orduan, hastapen hartan, gure etsaiekin bat, eskuz-esku zoala, ikusi gizona... Bertzelakoak baitziren orduko itxurak. Bainan geroztik hunat, urak bide egin du, gizonak ere ba."

1889-an, gorri bezala presentatu zen MORROXKO, deputatu bozetan, LABAT-en kontra, eta galdu zuen. Bainan 1893-an berriz agertu zen, kontrakoa apez bat zuelarik, hau xuria: DIHARASSARRY, Ortzaizeko erretora. Aldi huntan, MORROXKO nausitu.

Apez bat molde hortan politikan sartzea ez zen naski denen gostukoa. Huna DIHARASSARRY-ri koblari batek egin bertsuak:

"Musde Morroxkok lagunduren gaitu
munduko behar-orduetan,
Zuk aldiz zeruko bidean,
Zaude zure artaldean."

1889-an beraz, Xuberrik Morroxkoren alde egin zituen kantuak: lehengo errege eta enperadoretarik deus ez du nahi, errepublikan du bere sinestea.

1

Buruilaren hoita bian bozak ditugu Frantzian,
Deputatuen berexteko xuri gorrien artian,
Guk Hazparneko herrian baitugu hemen berian.

2

Izan dira ainhitz errege, bai eta enperadore,
Frantziari ekarri dute kalte eta desohore,
Hek xuriak deitzen dira, fidatu nahi bagire.

3

Orai ditugun xuriak, lehenekoak iduriak,
Ez ditugu ez ahantziak odol gaizki ixuriak,
Utz ditzagun gerlariak, parerik ez du bakiak.

4

Aurten hemeretzi urte orai behar ditu bete,
Errepublika dugu eta aurdiki nahi daukute,
Errege nahi lukete, hark ekar lezake kalte.

5

Oraiko legea da gorri, berma gaiten denak horri.
Ez ginuke behar xuririk ganbaretarat igorri.
Boza eman Morroxkori, gizon gisakoa da hori.

Xuberri zapetaina zen. Beste ainitz Hazpandar bezala, bere gain ari zen lanean. Mutil bat bazuen haatik, Pélié deitua. Hau zapetaina bezain xirularia.

Hazparnen hasi zirelarik lantegi batzuetarat zapetain andana baten biltzen, Xuberriri zer gertatu zitzaion? Nausiek ez zutena hartu nahi izan, ala berak nahiago zuen bere gain gelditu, bainan orduan Hazparnen lanik ez aski? Dena den, bere mutilarekin Baionarat joan zen.

1

Hazparnetik Baionarat huna nun giren jinak,
Nehundik ere ezin eginez nagusi hoien lan finak.
Bixta ere flakatu zauku, hori egin du adinak,
Zeren zaharrak eta gazteak ez baikitazke berdinak.

2

Nagusi guzien artean guretzat ez zuten lanik
Partitzerat bortxatuak, gintuen guziak janik.
Osagarria eta kuraia baitugu Jainkoak emanik,
Beste grazia asko ere ardiesten haren ganik.

3

Lanik gabe nola bizi, izan gira bortxatuak
Norapeit behar enbarkatu utzirik gure lekuak.
Urrunago airatzeko gintuen hegal flakuak,
Lehenbiziko portu huntan gira beraz geldituak.

4

Egun batez partitu ginen, ni eta gure Pelie,
Bai eta ere leku bat hartu "à la rue des Tonneliers".
Mundu huntako malerusenak gu bezala balie,
Gaizkiago bizi denik bada zonbeit baxelie.

5

Lanak eskas egin beldurrez, hartu ginuen xirula.
Badakizue hartan ere joiten badakigula.
Beharrak beti emaiten baitu bururat ainitz karkula,
Batean kantuz, bestean xixtuz, zerbait bilduko dugula.

6

Hirugarren bertsu andana ene suieten gainean,
Lehenbizikoak eman nintuen desertor Espainian,
Bigarrenak Château-Neuf-en, soldado presondegian,
Penen ondotik orai plazerak jinen baitzauzkit agian.

7

Ene izena badakizue, ni naiz eskualdun poeta.
Enplegurik nundik jinen den beti nago gogoeta.
Bihar bertsuak nahi tuenak egun manatu-eta,
Aski du niri erraitea nolakoa den suieta.

MENDIAGUE

Hazparnetik Baionarat, eta beste asko hiritarat, joan izan da, beharrak manaturik, herritar ainitz. Urrunago ere ba: zonbat eta zonbatek ez dute Amerikarat jo!

Horietan aipamen berezi bat hartzen du Jose MENDIAGUEk. Guarda seme zen hau ere, eta Ameriketan zapetaintzatik bizi izan zen.

"Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi" baitzion berak, 1900-ean Buenos-Airesetan agert-arazi zuen kantu andana bat.

Berak ere baditu kantu ederrak moldatuak. Ezagutuenak baitira: "Kantuz sortu naiz" hori, "Eskual-Herria gure ama da" eta "Ezkondua eta donadoa."

Adinean kantxe harat joana, bertsu hunkigarriak igorri zituen Ameriketarik. Zonbait bederen entzun ditzagun.

1

Nere herritik izan ditudan paper batzuek diote
Sortzetik hunat baditudala hiru hogoi'ta zazpi urte.
Denbora batez adin huntara heltzerik ez nuen uste.
Pazientzia hartu behar dut, ez gaitezke beti gazte.

2

Gaztetasuna nik iragan dut bertze ainhitzek bezala,
Ilusionez oro betia ustez bertzerik etzela;
Zango besoak zalu'ta azkar, bero bainuen odola,
Orai ardura etxian nago jarririk umil-umila.

3

Halarik ere iduritzen zaut gazte eta azkar naizela,
Ni zer gizona, ahala banu gogoa dudan bezala;
Bainan nihaurek ezagutzen dut odola hoztu zautala,
Erroak behin eihartuz geroz lurrerat doha arbola.

4

Besoak ere gogortu zaizkit, zangoz ardura herrestan,
Lehen errexki egiten nuen kantu'ta dantza plazetan;
Oraino ere egin nezake banu indarrik zainetan,
Geldi'ta ixil egon behar naiz, zaharturik auhenetan.

5

Soinua nun zen adituz geroz, loriatua jauzika,
Beti prest nintzan harat joaiteko laneko tresnak utzi'ta;
Jauziak oro utzirik orai ahal bezala mainguka,
Alde orotarik mila arrangura, hau dut oraiko musika.

6

Mundua ontsa ezagutzeko urhatsa frango eginik,
Penitentzia nerekin daukat bekatuaren ondotik;
Orduko nere erhokeriak ez ditzazket utz burutik,
Oro ahanztea hobe bainuke indarrak galduz geroztik.

7

Ez nuen nahi bainan behar naiz oraikoan bortxaz zentzatu,
Lehenagoko ene furiak adinak daizkit garhaitu;
Sortzean egin zorra badakit behar dutala pagatu,
Halarik ere bizi naizeno beti eginen dut kantu.

8

Laster mundutik joanen naizela gaztek naute abisatzen,
Uste dutea hori nihaurek ez dutala ezagutzen?
Ihardesteko zinez aiher naiz berek kasu egin dezaten,
Ni baino ainitz gazteagoak ikusi tut goizik joaiten.

9

Hau da lege bat gure Jainkoak guziendako egina,
Mundu huntara sortuz geroztik kunplitu behar duguna;
Huntarik ez da nehor salbatzen ukanik ere fortuna,
Lurrean utzi behar baitugu lurretik izan duguna.

10

Lurra dugula denen nagusi sinhets dezagun ordu da,
Lurrak emaiten tuen fruituak lurrean gelditzen dira;
Lurra da gure azken egoitza lurretik bizi baigira;
Goiz edo berant nahi ala ez lurrean sartuko gira.

11

Norbaitek sarri erraiten badu: "Hustu dik Josek mundua",
Hak bazterretik adi dezake zuzen den arrapostua:
Guk egin behar dugun bezala egin dik bere aldia.
Munduaz ontsa probetxaturik, etzukan atzo sortua.

12

Ni hil ondoan enetzat ez da nihun mezarik emanen;
Hortaz segur naiz, pagatzalerik nihun ez baita izanen;
Adixkideri hau galdatzen dut ez dena mila gostatzen:
Orok bihotzez kanta zazue: Requiescat in pace. Amen!

Euskal-Herria zoin maite duen, euskarari zoin den atxikia, erakusten dauku "Eskual-Heria gure ama da" deitu kantuan.

1

Lapurdi eta Baxenabarre Xubero eta Nabarra,
Gipuzko herri eta Bizkaia, zazpigarrena Alaba.
Guziek elgar atxik dezagun niholere ahal bada,
Aiten kostumak segi ditzagun uka ez dezagun ama.

2

Eskual-Herrian gaizki gabiltza zorigaitzez aspaldian,
Batian frantsesez bestian kastillaz ari gira solasian.
Denen ikastia gizonak on du dabilalarik munduan,
Bainan orduan ikusi zuten zer den eskualdunen kasta

3

Ala Frantzian nol'Espainian etsai batzu errabian,
Gure mintzaira galdu beharrez ari dira solasean.

Ama utz eta amaizuna har gerta litake orduan.
Geldi gaitezen gu amarekin, hoberik ez da munduan.

4

Aitak ezkuaraz galdegin eta semeak arrapostua:
Soy Vascongado pero ahantzi ttipitikan ikasia.
Ez dea bada hoi amarentzat bihotz erdiragarria,
Berak mundurat eman ondoan semeak arnegatzea?

5

Zezar-en manuz tropak jin ziren Eskual-Herrirat milaka,
Kostumatuak denen ibiltzen beren aintzinian lasterka.
Bainan orduan ikusi zuten zer den eskualdunen kasta
Mendi zokoan dagon lehoina handik kentzea neke da.

PETTI

Azkenik aipatuko dugun Hazpandar koblaria: Petti IRIGOIN. Badakiela hunek ixtorioen polliki kondatzen. Zelaiko axeriaren kantuak, beste norbaitek hasiak, Pettik bururatuak omen dira.

1

Gure herrian bada beti zerbait suiet
Huna orai ere bat: erraiten dautzuet:
Zelaian hatxeman da axeritzat Kaiet:
Borta txarrak dituzte hango oilateiek.

2

Plazaren erditik zen axeria joana,
Aintzinetik harturik kaiolaren plana
Abiatu bezala egin balu lana,
Etzen ttipituz joanen axerien fama.

3

Kaiolan sartu eta fite bezain sarri:
Lepoa bihurtzen dio oilo gaixoari
Oiloa karrankaka oihuka zen ari:
Axeria bazela, nagusi jaunari...

4

Nagusia heldu da bere harmarekin:
"Axeriak behar du ikusi enekin"
Kaiolaren ondorat hurbiltzearekin...
Axeria gorde zen: ez jakin zer egin.

5

Gorde lekuan dute axeria hesten,
Bainan laster zakote han nigarrez hasten,
Otoi, otoi, atea ideki dezoten:
Urdandean ez deia axeririk hazten.

6

"Ago ixtan bat, ago, axeri xirtxila;
Ez haiz hik uste bezain gertatu abila
Jadanikan bahuen oiloño bat hila;
Banoak berehala polizaren bilha!"

7

Axeriak akordu diote galdatu...
Astean bortz libera nahi du pagatu.
Nagusiak abian eman arrapostu:
"Nahiago diat nik hi preso altxatu!..."

8

Oren laurden bat gabe argi zen herria,
Oren erdi bat gabe plazan zen berria:
Axeriketa zela juan jandarmeria,
Lekua han zen... bainan falta axeria.

Plaza huntako ihiztariarena ere Pettik egina du: bere adixkideri zer erbi-saltsa ona eman zioten jaterat.

1

Ahotz abil bat bada plazan Bardoztarra,
Ihizin ibiltzeko xakur bat beharra.
Adinez ez delarik oraino zaharra,
Erbi baten hiltzeko da partikularra.

2

Mintzatu izan dute jaun ihiztaria,
Jan nahia zutela harek hil erbia.
Ase ditu eginik saltsa bat handia,
Auzotik ebatsirik gatu bat eria.

3

Gatua zen gaizoa betia negalez,
Ardura etxen zagon ernari izanez.
Debrua ikusi du ezin hatxemanez,
Guardia muntaturik hiru gau egunez.

4

Toki ederrean da Zikite-karrika,
Ihiztariak ere han bere fabrika.
Gatua han zabilan noizean behinka.
Bortan harrapatu du mailu ukaldika.

5

Hil eta ezarri du dilingan krakotik,
Odola zariola beharri zilotik.
Bai eta-re larrutu bortak zerraturik
Nehun ez da holako gatu burregorik.

6

Gatuaren pizua hameka libera,
Laurden bat gehiago ongi pizatzera.
Lau lagunek jateko ez zuten sobera,
Umeak eta oro emanik barnera.

7

Bazen frantses español italianoa,
Azken hunek tiratu baitzuen burua,
Erranez kurritua zuela mundua,
Saltsan kausitu gabe holako gostua.

8

Janari ziren lotu oro harramaska,
Nagusia aintzinian azita beteka.
Undarrik gelditzen zen laguner behaka,
Gatu zahar zikina jan zuten itoka.

Ixtorio kondatzen bezala, badaki ere Pettik gaizki dabiltzan gazte batzuez trufatzen, "Esplikatzen dut egiaz" deitu kantuan, zafraldi ederrik biltzen dute neskato arin eta ergel batzuek.

1

Esplikatzen dut egiaz, nihauren nahikundiaz,
Harritua naiz gure herriko eskualdun jendiaz,
Bietan aurten nola jaz duten urgulu handiaz,
Sekulan beti orroituko naiz joan den igandiaz.

2

Neska gaztiak elizan debozionez zabiltzan,
Hola ikusiz mukera tzarrak asarretu nintzan.

Egunaz zapetaintzan, gauaz mutilen zerbitzan,
Ez ziren beldur gure Jainkoak madarika zitzan.

3

Ateratzian elizatik, erdi erdiko bortatik,
Burua halto, kopeta gora heldu dira hortik.
Diru puska baten gatik ezin kenduak bixtatik,
Trosta ederrik egiten dute jaunxkilen ondotik.

4

Bezperetarik lekora ateratzen dira horra,
Gure neskatxak altxatu zauzku eta zonbat gora.
Aspaldi duke denbora joana dutela tenora,
Voyageurs jauner pagatzeko bizkarreko zorra.

5

Gure andre zapeteinak, zilar kolore botoinak,
Hamabi plegu bederen baitu heiek duten soinak.
Galtzerdietan galtxoinak, bernizak eskalapoinak,
Aker adarra bezain makurrak zapeta takoinak.

6

Badituzte bluzak ere, zaku zimur baten pare,
Aintzinez largo, gibelez hertsi, irringarri dire.
Burutik ontsa balire, behar luzkete erre,
Ohore eta abantail ainhitz balukete bere.

7

Orai azken modakoak, palto-zak direlakoak,
Lepotik eta gerriz beheiti lurrerainokoak.
Handi bada gainekoak gordetzen tu azpikoak,
Jainkoak daki zonbat peraxuz gaineratikoak.

8

Buruko ile luzeak lanak tuzte moldatzeak,
Enbaxadore alaben pare heien treinatzeak.
Nardatzen nau ikusteak sakeletan orrazeak,
Ezin aski juntki atxikiz xori ohantzeak.

9

Suge larruak lepoan urkatzeko hirriskuan,
Iduri dute kondenatuak direla zepoan.
Hau dabilate gogoan: ni naiz ni azken moduan;
Gaur ere segur izanen ditut mutilak onduan.

10

Alon ihiztari jaunak, obedi ene erranak:
Joan behar zaizte oihan zokorat harturikan har-
[mak.
Krabatekin gure damak, bardin hiru haurren
[amak,
Diru ederrik egin behar du azeri buztanak.

11

Ez naiz mintzo guzientzat, bainan bakarrik zon-
[baitentzat,
Beren buruak norbait dauzkaten urgulutsuentzat.
Aberatsa denarentzat, gauza ederrak harentzat,
Gaineratekoak oro sobera langile batentzat.

Horra lehengo Hazparneko kantu zonbait. Jasta baizik ez dautzuet eman. Nik lasterka egin lana beste batek nahi balu funtskiago segitu, baluke hor sail bat ederra.

Ixil ordu dut. Haur bat bataiatzen delarik, aitatxi bat emaiten zaio, gidari eta laguntzaile bezala. Euskaltzaindian sartzen denak ere badu aitatxi bat. Bainan, haur sortu--berriak egin ez dezakena, berak hautatzen du. Nik hautatu dut aitatxi gazte bat, naski Euskaltzaindiko gaztena. Hautatu, sortzez Xuberotarra izana gatik, Hazpandartua delakotz, bai eta aspaldiko adixkidea dutalakotz. Jean-Louis DAVANT-i utziliko diot beraz orai azken hitza.

EUSKALZAIN BERRIARI ERANTZUNA

J. L. Davant

Egun gertatzen zait gauza bat bitxia: apaiz baten ondotik mintzatzea, erran nahi baita azken hitzaren ukaitea. Uste gabeko mirakuilua, egiazki, mementoan zinez estimatzen dutana. Ez ahal zait dolutuko!

Ez dizutet HIRIART-URRUTY jaun apaizaren bizia xeheki kondatuko: nahiz adin gordinean dugun Euskalzain berria, luzegi laiteke; zeren hainbeste lan egin du bere bizi erdian, eta oraino gehiago eginen digu, Jainkoak agian emanen dion beste erdian.

Ez noa ere Bikario jeneral baten laudatzera: hortarako neronek kalonje izan behar nuke den gutienetik.

Baina labur-laburra errango dizuet non eta nola ezagutu nuen Hiriart-Urruty, nolako gizona eta euskalzalea den. Ez dut ahantziko, bistan da, apaiza dela ber denboran gizon euskalzale hau.

Guztiontzat, Hazparnen, Jean Hiriart-Urruty, Hazketa Abittu-eneko seme bat da, Abittu da. Beraz Abittu deituko dut nik ere, halabaina.

* * *

Abittu, Euskaldun Gazterian ezagutu nuen, mugimenduko omonier egon zelarik. Eliza lan hortan sartu zen duela hamazazpi urte, beste Hazpandar baten ordain. Hura zen PXIARRES CHARRITTON, kolejioko buruzagi izendatu zutena. Charritton-en karra zinez estimatu baigenuen gazteek, ez genuen gutiago estimatu Abittu-ren zuhurtzia.

"GAZTE" kazeta, hilabetekaria, zinez erreberritu zigun, freskatu, apaindu, oraikotu. Hortan euskaraz idazten ikasi zuten mutiko eta neska hainitzek. Eta Charritton-ekin ikasten hasiak ginen zaharxagoak, Abittu-rekin trebatu ginen. Besterik ere ikasi genuen gure omonier berriarekin, bistan dena: ez

baigintuen elgarretarik bereizten, ez hark, ez guk, gizontasuna, euskaldungoa eta kristau fedea. Azkenean erori zen, zoritxarrez, "Gazte" kazeta baliosa.

Berantago, duela hamar urte, Abittu "HERRIA" astekarian sartu zen, Piarres LAFITTE kalonjearen ardurapean, kazeta horren buruzagi eta moldatzaile bezala. Hori ere zinez gaztetu zuen, bai axalez, bai mamiz. Idazle berriak usu etgarretara biltzen gintuen, hala nola nihaur eta "Kalakari", orok hemen ezagutzen duzuten Maurice BORTEYRU, Hazparneko euskalzale suharra, langileen zaintzale kartsua.

Orain ere aste guztiez "Herrian" irakurtzen dugu Abittu-ren artikulu bipila, Elizaren irakaspenez eta euskal zuhurtziaz orhatua (J.H.U. izenpetzen du).

Hazparneko Misionesten buru bezala, urte zenbaitez maiz ikusi dut Abittu, biak auzo baiginen, gaineko karrika horren goihenean. Katoliko Ekintzan omonier ukan genuen, "HERRI-EKINTZA" deitzen dugu mugimenduan, Hazparneko multzo batean.

Arte hortan, Baionako Seminario Haundian irakasle egon zen, memento txarrean ere hor gertatu. Eiki etxe saindu hortan, bestetan baino lehen etorri zioten hiruetan-hogei-ta-zortziko Maiatza: hiruetan-hogei-ta-zazpiko larrazkenean, hain zuzen. Udazkena baino lehen Udaberria, ez da hori jokoa! Bere aroan eta denbora ere Primaderarik ez dute ikusten, ez onartzen batzuek. Pentsa beraz beste batzuek sasoin kontra, ordua baino lehen erori zaiotelarik, nolaz ez zuten ukatuko edo gaitzetsiko!

Baionako seminario haundian, euskal Diosesetan ohi den bezala, euskaldungoaz zen auzia. Euskaldunak baitziren, euskara eta euskaldungoa seminarioan finki sartu nahi ukan zituzten apaizgai batzuek. Gaizki hartu zituen buruzagitzak, eta gaizki bururatu zen auzia: batzu kanpoan eman zituzten, besteak aldiz berak jalgi ziren.

Ez zagoken, ez, gazte horien jokabide guztiekin arras bat Abittu, zeren apaiza da osokin. Baina bestalde, horien karra konprenitzen zuen, eta euskaldungoa horiek bezainbat onartzen. Bere erraitekoak buruzagieri erranik, Afrikarako bidea hartu zuen zalapartarik gabe. Burundin misionest egonik, berriz Hazparneko misionestetan ikusi dugu azken urte hauetan.

Azkenekotz, arras berriki —ez du urtea—, Bikario jeneral

izendatu digu Baionako jaun apaizpikuak, ber denboran Diosesako Kazetaren buru emaiten zuela beste apaiz euskalzale bat, GOITY jauna. Zer pentsa? Duela hamabost urte, Diosesako buruzagi batzuek zioten: hogei urte gabe, hilak dira euskara eta euskaldungoa, ez du balio horietaz arta hartzea!

Baina denbora jin, denbora joan, beti hor daude euskara eta euskaldungoa. Gehiago dena, Indar berri bat hartzen dute gazterian. Bizi nahi du Euskal-Herriak, eta euskaldun bezala bizi. Izpiritu Sainduak bere lana egin duke Baionan ere, emeki bada emeki. Agian egun batez Mendekosteko haize galerna batean eramanen ditu gure duda, muda, zalantza, bilintzi, balantza, uzkur, herabe, lotsa eta basa ahalgeak!

Mementoan, ezagut eta estima ditzagun aro berri baten lehenbiziko keinuak. Ez gutiz, ez berantez utz. "Noizbait Hazparneko" errana baita, bestetan ere noizbait dira gertatzen berri onak. Bat eta esperantza...

* * *

Bide nabar ohartzen hasiak gara, pixka bat, nor dugun Abittu. Orain zorrozkixago mia dezagun nolako gizon, apaiz eta euskalzalea dugun, hiruek bat egiten dutela hemen ere.

Abittu, langile semea da, ber denboran lur puska ttipi bat artatzen duen familia batekoa. Holakoa da, parte haundi bat, Hazparneko langileria.

Bai, langileria denek ahoan daukagu, guztiz boz denboretan: batere ez aipatzea baino hobe, segurki. Baina aipatzea aski balitz...

Egiazki langileriaren alde izaitea ez ditaike hain errex: herriko bozetan ikusi da berriki, Hazparnen berean. Ez noa eskualde baten, ez bestearen, are gutiago hirugarrenaren jorratzera. Baina gauzak horrela dira mementoan, zoritxarrez: hiru listetan boz gutienik ukan dutenak dira jende xumeenak, podere gutienik dutenak (langileak, emazteak eta gazteak). Badaiteke beraz gure izpirituan halako huts bat bezala: apaiz banintz, erran nezake, behar bada, bekatuaren harrasto zerbait badugula buru muinetan kokaturik.

Zeren indarra dugu maite, ez zuzena; axala, ez mamia. Kargua dugu nahi, ez karga; poderea, ez zerbitzua.

Jende xehearen laguntzeko, xehe izan behar da, humiltasun haundia behar da: kalitate hori, dohain hori ez da segurki falta Abittu-ren baitan eta Abittu-eneko familian,

Hazparneko familia frangotan bezala, ez baita espantu egilea jende hori.

Usu aipatzen da hazpandarren urgulua. Baina ez tronpa. Ez dira, ez, beren buruaz hartuak Hazpandar gehixenak: beren herriaz dute urgulu, eta ez da arrazoinik gabe.

Beste dohain batzuen artetik, industria bat eraiki duen hiri bakarra da Hazparne, ipar alde hontan, eta guztiz Euskal-Herr barnean, bakarra Maulekin egia erran. Baina Maule baino Euskaldunagoa egon zaigu Hazparne, kontzientziaz ez bada ere, izaitez segurrik. Halere kexatzeko anazoinik ere bada.

Gizon argituak eta omen haundikoak hazi ditu Hazparnek, eta bereiz ki Hazparneko jende laborari eta langileak: horien artean apaiz hainitz, (azkena Dominique CORNU gaztea, Hazparneko langileriaz liburu bat berriki atera duena) eta nagusi zenbait ere. Arras ongi zait hori.

Halere, holako eskas bat sendi dut, Hazparnen bezala bestetan ere. Norbait izaiteko langile batek, edo laborari batek, baitezpada langileriatik edo laborantzatik jalgi behar baldin badu, iduri zait badela zerbait xuxen johan ez denik klase horientzat, eta herri osoaren kaltetan dela uste dut. Zeren urte guti barne, nor da laborari edo lang le egon nahiko duenik? Alta bada, jan beharko dugu denek, eta ez ontutsik ibili.

Ez dut erran nahi, bistan dena, Hazpandar batzuen hobena dela, ezen erroak biziki barna dauzka gaitz horrek mudun zabalean. Baina gogoeta zenbaiten gaia ikusten dut hor. Eta badakit Abittu langileriaren zorteaz arras griñatua dela, bai bihotzez, bai adimenduz. Egia erran, ez du hortan bere buruaren bortxatzerik, bera langile semea denaz geroz, eta ez baitu egundaino ahantzi, ez eta sekulan ukatzekoa.

* * *

Familia euskalzaletik datorkigu Abittu. "Gazte" kazetan euskara ernea, argia, garbia eta gozoa zerabilaten honen arreba Ketty-k eta anaie André-k.

Eta hemen dugu, bistan da, Jan-Battitt, teatrolari ezinago fina eta zirtolari hauta.

Hauek guztiek badute nondik, ezen beste Jean Hiriart-Urruty famatuaren ilobasoak dira. Hazketa Joanesederraenekoa zen, laborari-langile semea eta apaiza hura ere. Duela

ehun bat urte "EUSKALDUNA" izeneko kazeta, "Herria"-ren aitzinekoa, lagun batzuekin sortu zuen. Horren buru eta idazle premiatsu egon zen mende honen hamabosteraino, hil arte. Larresorro-ko seminario ttipian luzaz irakasle izanik, Baionako katedralean kalonje egonik, Hazparnen ehortzirik dago.

Hiriart-Urruty zenaz hauxe zion Aita Lafitte-k, horren hamar bat artikuluz berrogei-ta-lauan josi zuen liburuxka hontan:

"Hiriart-Urruty zen kazeta horren gidatzaile eta aphaintzale: zuhurki ari zen, behar gabetarik ez nahiz irakurleak ez nahasi, ez sumindu, ez ihes igorri; bainan erlisionea, ala eskuara, ala gure ohidurak, ala herriaren ona, nehork hunkituz geroz, ai orduan nehun ez zagoken gizona; eta etsaiari nola ez zion ihardokitzen? Trufa, laido, piko, ausiki, zaharo-aldi ala tiro, denak on zitzaizkon, fitsik ez zitzaion sobera; eta hari baizik ezagutu ez diogun harrigarriko elhasturia batekin bazeraman bere solasa; batean motz eta idor, bertzean luze eta guri; han bil, hemen harro; bethi airos, bethi bizi; gatz, bipher, ozpinak merke; hasarre bulta gehienen artetik ere irria eta zirtoa ithurriaren pare punttakotik bazarizkola!".

* * *

Liburuño horren aitzin-solasean, bere osaba ttikiaren bizia laburki kondatzen digu Jean Hiriart-Urruty gazteak. Geroztik ez da idaztetik gelditu.

Alde batetik, osaba zena bezalakoa dugu Abittu: argia, jakintsua, zuhurra, xehea, zerbitzu egina, langile arauduna. Badaki zer nahi duen: bere xedea bururaino segitzen eta obratzen du, ahuleziarik ez duda-mudarik gabe. Baina bidez tronpatzen dela ohartzen delarik, tematu gabe abian bazter uzten du.

Terrapatarik, ez burrunbarik, ez neholazko harrabotsik ez du. Ixila denik ezin da erran har gatik: bere erraitekoa erraiten du, ele alferrik gabe.

Euskara buru muinetarik jalgitzen zaio, ur Xirripa mendiko harrokatik bezala: euskara garbia, argia, fina; urinik, ez gantzik, ez triparik gabekoa; eta ber denbora ginaritsua, gozoa, herritarra eta herrikoia. Euskara xorrotxa duela erran nezake, hitz horrek ez baldin balu halako ozpin aire bat. Baina ozpinik ez du Abittuk, aldiz gatz eta biperra izarian.

Begia beti argi badu, irria eta zirtoa beti prest, ez da neholaz ere gaiztoa, sekulan, Abittu. Bizia bai, ez bortitza. Erlea, ez leizafina.

Hots, erran nezake oseba ttikiaren dohainak badituela nasaiki Abittuk, haren bortitz aldi hurak gabe.

* * *

Egia erran, Hiriart-Urruty zenaren denboratik, zinez aldatu zaigu aroa. Lehengo bortizkeriari uko egin diote apaiz gehixenek, eta beste arpegi bat hartu digu Jainkoak berak. Ez dut nehor izendatuko, hilak errespetatu behar baitira, eta biziak nolaz ez... Baina aitortzen dut halako Ortzi aire izagarri bat aurkitzen niola lehengo apaiz batzuek presentatzen ziguten Jaun Goikoari, zeruko sua —ala ifernukoa ote?— eskuinean zerabilala, dena ihurtzuri karraska, dunda burrunba eta tzimizta!

Geroztik iduri luke azkenekotz gizon egin zaigula Jainkoa. Ez naiz bakarra erreberritze hori hauteman dutana, Xalbadorren bertsu hau lekuko:

> "Orai ez dakit, Jauna, Zu edo ni aldatu ote naizen,
> Etzira egun ene gogoa lengo itxuraz agertzen;
> Gertatzen denaz, o Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen,
> Gure arteko hoztasun hartaz hasia nintzan aspertzen,
> Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gintezen."
>
> (*Odolaren mintzoa* - Jainkoa eta ni, P. 215)

Kontzilioko apaizetarik dugu Abittu. Elizaren erreberritze hortan kartsuki parte hartu digu, bereiziki Hazparneko beste batzuekin: horietan Aita LARRE, Aiherrako jaun erretora, "Herria" kazetaren buruzagi berria eta euskaltzain osoa; halaber Aita CAMINO, misionesten azken buruzagia, orain Hazparneko erretor duguna eta bulta hontan euskaltzain laguntzailea; Aita LARZABAL, Hazparneko bikario ohia, euskaltzain osoa; Aita IRATZEDER, Belokeko Abadea, euskaltzain osoa; UTHURRY Xiberotar apaiza, Seminario haundian irakasle, euskaltzain laguntzailea.

* * *

Ber denboran, errotik euskalzalea dugu Abittu. Baina gazterian haize berri batzu jeiki baitira Mendealetik eta Hego

aldetik, nola ihardetsi erdihardoki diote Abittuk? Ez da, ez, haizeak nora nahi derabilan hostoa, ez eta elkorrarena egiten duen mandoa. Bere barneko hatsa badu Hazpandar honek: Izpiritu Sainduarena ote? Ala euskal arbasoena? Biak bat, nik uste. Baina badaki horien oraikotzen eta besteen hatsaz lauzkatzen. Beraz horrekin eta Goity beste apaiz euskalzalearekin, euskal aire bat da Baionako apaizpikutegian sartu.

Izpiritu berriak badu bere inportantzia, euskal diosesak elgarretaratu nahiz ari direlarik. Hego aldeko lauek Euskal-Herriko Eliza bat egingo dute laster. Ipar aldekoa ez zaigu agian bazter egonen, Euskal-Herria baita hau ere.

Apaiz eginbidea eta euskaldungoa ez ditu elgarretarik bereizten Abittuk. Alabaina, orain arte, apaizek dute gehienik zaindu euskara, horiek zuten ere hortarako indar gehienik. Euskaltzaindian berean ikusten duguna da: apaiza dugu Euskaltzainburua, Aita VILLASANTE, Arantzazuko Frantxixkotarra. Apaizak ditugu, ipar aldean, zazpi euskaltzainetarik bost.

Baina orain, aldatzen ari zaigu euskaldungoaren aroa. Euskal-Herrian ere, gero eta gutiago dira apaizak, gero eta gehiago aldiz laiko eskolatuak. Beraz laikoeri doakigu auzi horren eskuetan hartzea.

Laikoak aipatzean, herri gizon-emazteri dut pentsatzen bereiziki. Zeren gaurko egunean, ez dago bakarrik familien eskuetan, ez eta kanpañan ere, euskararen geroa. Nihauren esperientziaz aski badakit auzi hortan, beste guztietan bezala, mendratu direla familiaren ahalak, hedatu aldiz sozietate delako gizartearenak. Itsu ez denak ikus dezala: hiru urtetakotz eskolan dira gure haurrak. Eta frantses historiazale batek —Camille JULLIAN zenak— ederki errana du: "Une langue que l'on n'enseigne pas est une langue que l'on tue".

Hortik dakusagu euskara biziarazi nahi baldin badugu, hortaz mintzaira ofizial bat egin behar dugula, frantsesaren pare, eskolan hasirik, bizi publiko guztian: radio, telebista, administrazionean, eta abar... Hots, bilinguismo bat ardietsi behar dugula lehen baino lehen, zakutik edo zorrotik.

Hego aldean egina da, praktikan oraino ez bada ere, teorian bederen. Ipar aldean ere hortara gaitezen, han bezain euskaldunak baigara hemen. Egun, Hazparnen, Herriko-Etxean sartu zaigu euskara. Gero eta laguntza gehiago ukanen duela hemen, segur bezala nago.

Gobernuak ere agian bere eginbidea bete beharko du bihar: hortara hertsa dezagun euskalzale guztiek, eta lehenik hemen gaudenek.

Eta bi mail horien artean, bi hizkuntzetako euskal departamendu bat nahi duen jenderik ere badago barne hontan: ez dut dudarik gure eginbidea bete nahiko dugula denek, eta hortarako akulatzaile bipilak ukanen ditugula gazterian. Horra epe laburreko helburuak.

Bururatzeko:

Euskara gabe, ez da euskaldunik, ez Euskal-Herririk. Gure Herriaren arima da euskara. Baina gorputz bat behar du arimak.

Kar berri bat sortu da gazterian. "Herrian bizi nahi dugu, Lana Euskadin", hara gazteriaren oihu samina.

Herriaren arima eta gorputza, biak batean arta ditzagun. Hori da guztien eginbidea. Hori guztien lana, ez jaun bakar batzuena.

Denena da Herria, denena euskara, ez alderdi batena.

Goazen beraz denak aitzina, nor bere bidetik, elgar jorratzen denbora eta indar gehiegi galdu gabe.

Badakit ez dela erraitea bezain errex. Baina beste gauza bat ere badakit: mendiak tokiz aldatzen dituela Fedeak. Elgarren baitan sinets dezagun. Gure geroan sinets dezagun.

Gora Euskara!

Gora Hazparne!

JUAN MATEO ZABALAREN OMENALDIA

JUAN MATEO ZABALAKOAREN OMENEZ

Bilbon, 1977 - IX - 24

Euskaltzainburuaren agurra

Jaun-andreak:

Egun hauetan bete dira berrehun urte Aita Juan Mateo Zabala jaio zenetik. Hementxe Bilbon jaio eta San Antongo elizan bataiatua izan zen. Euskalari, euskalkilari, gramatikalari, euskaltzale bero, idazle eta abar izan genuen Aita Zabala. Eta haren urte muga gogoratu nahiz, ospakizun hau antolatu du Euskaltzaindiak.

Ikusalde askotako gizona gure Aita Zabala. Ikusalde hoietarik bat edo beste bakarrik ikusi ahal izango da gaur hemen, eta hoik ere pixka bat gainetik

Lehen hitzaldiñoa Aita Agustin Biainek du. Gaia: Zabalaren bizi zertzeladak eta lanak kontatzea.

Frantziskotar izanik Aita Zabala, eta gainera, Zarauzko komentuko buru, gaur komentu hartako buru edo Guardian den Aita Agustin Biain etorri zaigu bere aurreko hunen berriak ematera. Eskerrak ematen dizkiot, egin zitzaion deiari hain ongi eta gogotik erantzun baitu

Bigarren hitzaldiñoa, berak bakarrik dakien maisutasunaz, Aita Lino Akesolok egingo du, Zabalaren euskal idazkera aztertuz.

Hirugarren hitzaldiñoa, berriz, Alfonso Irigoien euskaltzain jaunak, Bilboko hiri hunen euskaltasunari buruz.

Eta azkenik, euskal irakasle tituluaren ageria banatuko zaie azterketetan ontzat emanak izan direnei.

Hau izango da gaurko ospaketa hunen mamia.

Eskerrak eman nahi dizkiot baita ere gure Probintzialari —Tomas Larrañaga—, gure Probintzia zaharreko fraide

baten omenaldia bere presentziaz goratu eta jaso nahi izan baitu. Gainera, zarauztarra dugu oraiko gure Probintziala, eta Zarautzen bizi eta hil zen Aita Zabala.

Ongi etorria eta eskerrak baita ere Zarauzko herriak bidali dituen ordezkariei.

Bilboren euskaltauna dela eta ez dela, esamesak izan dira aspaldidanik gure artean. Batzuek diote Bilbok baztertua eta utzia duela euskera oso aintzinatik

Kresalan bertan horrelako zerbait agiri da. Oihal saltzaile bat azaltzen da han, bilbotarra bera. Euskeraz ez daki eta maite ere ez du, antza. Itsasgizonak esaten dio: "Zuek, bilbotarrok, antxiña galdu zenduen asabien izkera biguna ta antxiñatik zagozie erdaldundurik; eta gañera, zuretzat, salerosketarako ona eztan gauzea ezta iñoiz be ona izango. (Zeuk saltzeko gauzea balitz, ederrenetakoa dala be laster esango zenduke zuk). Baiña jakin eikezu, lenengo, saltzallientzat onak eztiran gauzarik asko badagola lurrean, da bigarren, geure euskerea eztaukagula saltzeko" (*Kresala,* XII, 97).

Ulibarri Galindezek ere bere Gutunliburuan esaldi garratz hau dakar: Uri hau da gure galtzaillea.

Baina beste aldetik baditugu kontrako lekukotasunak ere. Hor dira Mikoleta, Juan Mateo Zabala, Novia de Salcedo, Unamuno bera (1). Hoietan denetan, modu batera edo bestera, euskal kezka bizi-bizia nabari da

Larramendik, bere Diccionario Trilingüe-ren hitzaurrean, Bizkaiko euskalkiaz mintzo denean, hara zer dakarren: "Aunque en Bilbao se habla mal, pero no es así en sus cercanías, donde la propiedad y pronunciación se conservan en su punto, y sucediera lo mismo en el mismo Bilbao, si en este punto se picaran algo más de Bizcainos: ni en esto quiero decir, que no hay en Bilbao quien no sepa bien su dialecto, pues se hallan algunos" (*Diccionario Trilingüe,* § XV, p. XXVIII).

Aita Palacios herri misiolari ospetsuak mixioa predikatu zuen Bilbon 1765. urtean. Eta biografoak hauxe esaten digu: "Predicó también algunos sermones en vascuence". Eta segituan ohar garrantzitsu hau ematen du: "En pueblos de igual naturaleza, donde podía haber oyentes vascongados y castellanos, predicaba en ambas lenguas" (Cf. *Scriptorium Victoriense,* 1961, 82)

Horra garbi aitortua Bilbon ordurako bazela elebitasun bat. Segur aski herri xehea euskaldun izango zen, eta bestea, gizarte goi mailatakoa, erdaldun edo erdaldundua.

Gainera badakigu XVIII. mende hondarrean eta XIX.aren hasieran, urte askotan behintzat, San Frantziskoren eliz komentuan gabonen aitzakiaz bertso paperak argitara ohi zirela euskeraz. Gabonetako bertso paper hoien aipamena Ulibarriren Gutunliburuan ere badator (113 eta 212 orrialdeetan). Gaur ere ezagunak ditugu orri hoietako batzuk.

Edozein modutan ere, ez da hau abagune txarra Bilboren euskaltasuna gogoratzeko. Euskararen geroarentzat Bilbo euskaldun izan edo ez izan, ez da gutti gora-beherako kontua, axolarik handienetakoa baizik. Ez da, beraz, sasoi makala gaurkoa gai huntaz kontzientziako azterketa bat egiteko. Eta horrelako zerbait egingo digu Irigoien adiskideak bere hitzaldiñoan.

El 21 de septiembre se han cumplido los doscientos años justos del nacimiento del P. Juan Mateo de Zabala, ilustre franciscano bilbaino, escritor vasco, gramático, dialectólogo, etc. Con este motivo, Euskaltzaindia, en unión con el Ayuntamiento de la villa de Bilbao, ha querido organizar este acto conmemorativo en su honor.

Gracias a las diligencias del P. Juan Ruiz de Larrínaga conocemos bastante bien la vida y trabajos de nuestro homenajeado (Cf. *El vascófilo franciscano R. P. Fr. Juan Mateo de Zabala. Estudio bio-bibliográfico; con un apéndice de D. Luis de Lezama-Leguizamon;* San Sebastián 1927)

Azkue en su conferencia sobre Fonética Vasca del I Congreso de Estudios Vascos celebrado en Oñate en 1918, afirma lo siguiente: "Los autores que más fenómenos fonéticos de esta naturaleza han mostrado en sus escritos son los bizkainos; tales como los presbíteros Micoleta y Moguel (el mayor) y en especial los religiosos franciscanos Añibarro y Zabala, castizos, de lenguaje fluido y seguramente, por su estilo, los más recomendables de cuantos han cultivado este viejo dialecto. Sería una lástima que no se hiciera un librito con las 36 fábulas del último, copiadas por mí en la Biblioteca Nacional de París, donde yacían ignoradas de todos, y publicadas años después en la Revista Internacional de Estudios Vascos. De

prólogo podrían muy bien servir datos biográficos del sesudo gramático y fabulista bizkaino" (*I Congreso de Estudios Vascos;* p. 478).

Este deseo expresado aquí por Azkue se cumplió cuando en 1934 la colección Euskaltzaleak publicó en tomito aparte las fábulas de Zabala: *Eusko Alegiak, **Zabala tar Matai***, con prólogo de D. José Ariztimuño

Efectivamente, como nos ha dicho Azkue, en Zabala campea un cierto empeño por recoger y reflejar con la máxima exactitud en el escrito los fenómenos fonéticos que se observan en la lengua hablada. Esto no creo que valga en la misma medida para Añibarro, el cual expresamente manifiesta su opinión de que el escritor no tiene por qué recoger en la lengua escrita todo lo que sucede en la hablada. Ambos vivían en el mismo convento de Zarauz, pero no parece tuvieran en todo los mismos puntos de vista. Como tampoco los tenía el P. José Cruz Echeverria, misionero también de Zarauz, hijo de Oyarzun y escritor vasco contemporáneo de Zabala.

* * *

La situación política de la época, sumamente agitada, las guerras, la desamortización y exclaustración general de los religiosos fueron causa de que se dispersaran y acaso se perdieran algunos trabajos de nuestro autor. Desde luego, todo lo que se ha publicado del P. Zabala ha sido después de su muerte. El en vida no llegó a ver nada suyo publicado.

A continuación diremos algo brevemente de sus trabajos conocidos:

1.º En 1848, o sea, ocho años después de la muerte del P. Zabala, se publicó en San Sebastián la obra principal de éste: *El Verbo regular vascongado del dialecto vizcaino.*

Esta obra se editó a expensas de la Diputación de Guipúzcoa. En las Juntas Generales de 1841 el Conde de Monterrón hizo presente que el P. Mateo de Zabala, Misionero franciscano y Guardián del Colegio de Zarauz había dejado a su muerte escrita una obra sobre el Verbo Regular Vascongado. La Junta encargó su estudio a D. Agustín Pascual de Iturriaga y Juan Ignacio de Iztueta, ilustres literatos y amigos del fran-

ciscano muerto. En vista del juicio favorable de los Censores la Diputación imprimió la citada obra (Cf. ***J. I. Lasa,*** *Tejiendo historia,* p. 521).

Aizquibel, a propósito de esta obra, reprocha a Zabala el que en algunas cosas ha hecho demasiado caso a Astarloa, el apologista del vascuence (*De la lengua euskera o de los vascongados;* citado en *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia"*).

Efectivamente el P. Zabala, no obstante su gusto por el método positivo y directo, era admirador de Astarloa, cuya obra *Apología de la Lengua Bascongada,* apareció en Madrid en 1803. No hay que olvidar tampoco que Astarloa tenía un hermano franciscano, que fue Provincial de Cantabria y autor vasco también; sus dos grandes tomos se publicaron en Bilbao en los años 1816 y 1818.

2.º En el archivo del convento de Zarauz existen aún inéditas unas Correcciones del P. Zabala a estas obras del P. Astarloa —el franciscano—: "Correcciones a la obra *Urteco Domeca* del P. Astarloa". De ellas se ocupó el P. Pedro Aranguren en *Egan,* 1957, n.º 5-6, p. 309-327.

Son correcciones puramente lingüístico-estilísticas

3.º También en bibliografía vasca hizo el P. Zabala un trabajo sumamente valioso, continuando o poniendo al día la lista de libros euskéricos que diera el P. Larramendi en su *Diccionario Trilingüe.* Este opúsculo titulado "Noticia de las obras bascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi" lo publicó el Príncipe Bonaparte en San Sebastián el año 1856 como anónimo; pero hoy está fuera de duda que su autor fue el P. Zabala.

Es curioso el procedimiento que adopta el P. Zabala en esta bibliografía para censurar algunos de estos libros. Previamente pone esta *Nota:* "Como varios autores de las siguientes obras aún viven, me abstengo de dar censura a sus obras, si no la merecen buena. Tales son las obras de los números 31, 32, 33, 34 y 46".

Ahora bien, las tres primera obras de esta enumeración corresponden a José Cruz Echeverría, franciscano de Zarauz, la cuarta a Iztueta y la quinta al P. Astarloa, también franciscano; pero a este último, faltando un poco a la norma dada, le

hace una crítica más matizada. Huelga decir que estas censuras se refieren exclusivamente al tipo de euskera que estos autores emplean.

En cuanto al *Esku-liburua* de Añibarro dice que en la reimpresión ha empleado una ortografía singular que no ha gustado a todos "como sucede siempre con lo inusitado". Parece referirse al empleo de la "i" latina en vez de la "y" en voces como *jan, jausi, jo, jagi.*

De la obras del carmelita Fr. Bartolomé de Sta. Teresa hace este juicio: "Si a este autor no tomamos en cuenta algunas voces no vascongadas, en que ha contemporizado con el vulgo de su patria omitiendo sus equivalentes vascongadas castizas, que se entienden claramente en Vizcaya; el no haber hecho uso de las conjugaciones de 2.ª persona de plural y algún otro defecto que pudiera haber corregido con algún rasgo de pluma, no podemos menos de confesar que su vascuence es propio, natural y elegante, a boca llena bueno y comparable no solamente con los mejores de su dialecto, sino aún también con los de otros".

Del libro *Meditazioneak* de Duhalde, escrito en dialecto labortano, escribe: "Hermosísimo vascuence".

Del libro del P. Ubillos (franciscano): "Es vascuence por todos respectos bellísimo". De Juan Bautista Aguirre: "Escrito en muy hermoso bascuence". Etc.

De todo lo dicho se colige que el P. Zabala seguía al día cuanto se publicaba en todos los dialectos de la lengua vasca y tenía criterio propio para enjuiciar el valor lingüístico-literario de los libros.

4.º Después tenemos las fábulas publicadas por Azkue, de las que ya se ha hecho mención.

5.º El llamado *Manuscrito de Ochandiano*, que actualmente creo obra en la biblioteca del Sr. Urquijo (Diputación de Guipúzcoa). Azkue supone que es también del P. Zabala (Cf. *Diccionario Vasco Español Francés*, p. XIV).

6.º Un libro manuscrito de sermones en dialecto vizcaino sin indicación de autor pero con indicación de año y lugares donde fueron predicados. Este libro, a juzgar por su caligrafía, es también del P. Zabala. De él son depositarios los PP. Pasionistas de Irún. (Sobre este libro manuscrito de sermones

del P. Zabala me ocupé brevemente en el trabajo que dediqué a José Cruz Echeverría: cf. *Euskera,* 1975, 290.)

7.° En la biblioteca de Aránzazu se conserva también un tomo de sermones manuscritos sin indicación de autor, pero por la letra y otros indicios de fecha, lugares donde se ha predicado el sermón, etc., pudiera ser del P. Zabala. Al fin de muchos sermones vienen las iniciales O.S.C.S.R.E. El libro se guarda en la biblioteca con la signatura Z 1-5-14.

8.° En la revista *Euskera* de la Academia se publicó aún otro trabajo del P. Zabala: "103 conjugaciones del presente perfecto de indicativo o Muestrario de los 206 presentes de indicativo que da al bascuence D. Pablo Pedro de Astarloa" (*'Euskera* III (1922), n.° 2, p. 36-64).

9.° Ahí está además la interesante correspondencia que el P. Zabala mantuvo con M. Fleury Lécluse. Las cartas de este señor al P. Zabala y algún borrador de las de éste a aquél pueden verse en el opúsculo antes citado del P. Larrinaga. Léclu-se era profesor de literatura griega y secretario de la facultad de letras en Toulouse. Interesado en el estudio del vascuence, tomó al P. Zabala como experto en esta lengua, para hacerle consultas, recibir de él orientaciones, etc. Parece que fue el impresor Mendizábal de Tolosa quien dio a Lécluse el nombre del P. Zabala como el del sujeto más indicado para orientar al sabio profesor en sus empeños. Por lo que se deduce de las cartas, no sólo consultas sino aún ímprobos trabajos se tomó sobre sí el P. Zabala en su deseo de satisfacer las demandas de Lécluse. En alguna de las cartas dice éste al P. Zabala que al principio temió encontrarse con un Zoilo, pero pronto vio que había topado con un Aristarco. Las cartas de Lécluse están en francés y alguna en latín. Lécluse acariciaba el proyecto de hacer un diccionario vasco y andaba a la caza de libros, noticias, etc. que facilitaran su labor.

10.° Finalmente, en el *Gutunliburua* del famoso herrador Ulibarri Galíndez hay una carta del P. Zabala a éste. Ulibarri había escrito al P. Zabala pidiéndole que tradujera al vascuence el Fuero de Vizcaya y que hiciese un diccionario. Zabala da a estas peticiones una respuesta negativa y le da las razones de ello en esta forma un tanto gráfica y pintoresca: "Zer: burua galanto ausi liburuak egin ezinik, urtu orreek argitara aterateko, or, ogeta amar, edo berrogei milla errial,

ta gero, saguak, zedenak, ta autsak yateko: edo dendeetan eurekaz tabakoa edo piperra salduteko? Ezkagoz orren zoroak: eztakit nik zetarako naukan Jaungoikoak; baya orain beintzat eztarabilt alango amesik" (*Gutunliburua,* p. 49).

Naturalmente, este desahogo o salida del P. Zabala no indica que él tuviera desafecto o falta de interés por la promoción de la cultura vasca; al contrario, siendo él superior propició la reedición de varios libros vascos; pero tal vez por eso mismo conocía el paño, como se suele decir. Sabía la indiferencia o el escaso eco que estas iniciativas hallaban en el país. Tenía los pies asentados sobre el suelo y no se prestaba a sueños sin base real.

* * *

Como ya hemos indicado anteriormente, la vida del P. Zabala transcurrió en una época sumamente agitada políticamente y con graves repercusiones para la vida religiosa. Algo de esto se trasluce en sus cartas familiares dadas a conocer por Lezama-Leguizamón.

El año de 1840 moría el P. Zabala, y el mismo año se cerraban todos los conventos de Guipúzcoa, que habían sobrevivido hasta este año, pues los del resto de España sucumbieron antes a la furia desamortizadora.

Así acabó el célebre Colegio de Misioneros de Zarauz, que había sido un plantel de diligentes cultivadores de la lengua vasca no sólo en la predicación sino también por medio de la pluma y por la composición de obras para el estudio y aprendizaje del idioma. Conocido es el elogio que hizo el P. Larramendi de este Colegio: "Ya es tiempo de hacer la excepción que tengo ofrecida. No se puede dudar que, de pocos años a esta parte, se predica en vascuence menos mal que antes, y que hay predicadores que en sermones morales predican absolutamente bien y con limpieza, y con gusto y fruto de los oyentes. Así por lo común en sus sermones, y con especialidad los franciscanos misioneros de Zarauz que, a su mucha virtud y observancia, y al celo de las almas, han añadido el cuidado y trabajo de predicar un vascuence claro, inteligible, limpio y bien ordenado, según el carácter y sintaxis de la lengua, y desmienten con su práctica las quejas mal fundadas de los vascongados holgazanes" (*Corografía,* ed. 1969, p. 291).

También Orixe escribió, refiriéndose a este convento de Zarauz: "Zarautzen badugu komentu bat Euskalerriaren eta euskeraren alde lan poliki egin diguna" (***Orixe***, "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra", *Euskal Esnalea* 1927).

En el Libro Becerro o Crónica de este Colegio de Misioneros de Zarauz, compuesto en su mayor parte por el P. Añibarro y recientemente publicado en *Scriptorium Victoriense*, no deja de haber discretas alusiones o referencias al respecto, sobre todo cuando el cronista hace la semblanza de algunos religiosos predicadores que van muriendo. Así, refiriéndose al P. Sarobe nos dirá que en sus sermones vascos "reluce una naturalidad castiza y pureza de idioma patrio dignas del púlpito. Pasan de una docena sus tomos en octavo". Y del P. Arteta dice también: "Dejó escritos seis tomos en 4.º... Sus doctrinas son muy apreciables por su método, claridad, lenguaje adaptado a la capacidad del vulgo, y opiniones seguras", Etc. ("El Colegio de Misioneros Franciscanos de Zarauz", *Scriptorium Victoriense,* 1974, 318).

Finalmente, hay que recordar que en el archivo de este convento de Zarauz se han guardado y salvado de la pérdida obras importantes de la literatura vasca, que de allí salieron luego a la luz pública, tales como *Peru Abarka* de Moguel, las obras del Dr. labortano Joannes Etxberri de Sara, algunas poesías de Eusebio M.ª Azcue, padre de D. Resurrección, etc.

* * *

Acto seguido se va a proceder a la entrega del título de capacitación para la enseñanza del euskera a los señores que lo han obtenido últimamente después de haber superado el correspondiente examen.

En gracia a los que lo ignoren o desconozcan el dato, debo decir que ésta es la sexta promoción, por hablar de alguna manera, de profesores de euskera. La Academia acostumbra hacer la entrega del diploma acreditativo aprovechando una de estas conmemoraciones o sesiones públicas. La primera vez se hizo en Elgoibar, en la sala del Ayuntamiento de dicha villa, con ocasión del homenaje al escritor Urruzuno. La segunda tuvo lugar en el Ayuntamiento de Lequeitio, con ocasión del centenario de Eusebio Azcue. La tercera en el palacio

Inchausti, de Azcoitia, sede de la Real Sociedad de Amigos del País, en un acto público de confraternización de ambas entidades: Sociedad de Amigos del País y Euskaltzaindia. La cuarta promoción tuvo lugar en Lemona con ocasión del homenaje a D. Juan de Eguzkitza. La quinta en el palacio de la Excma. Diputación Foral de Alava en el acto homaneje a D. Odón de Apraiz, en Vitoria. La sexta, en fin, va a tener lugar ahora en el marco de este acto conmemorativo del ilustre escritor y gramático bilbaino Juan Mateo de Zabala.

Es claro que si la enseñanza del euskera estuviera en una situación normal, la Academia no tendría por qué preocuparse de la formación de personal capacitado para ello, como no se preocupa, por ejemplo, la Real Academia Española. Pero es claro también que, hoy por hoy, no es la misma la situación de la enseñanza en una y otra lengua.

Por otra parte, salta a la vista la urgencia del caso. Sin una escolarización conveniente el euskera no tiene posibilidades de supervivencia en una sociedad urbana, industrial y altamente desarrollada como es la actual. Pero sin maestros no puede haber escuelas.

Por todo ello, y como una solución de emergencia, la Academia pensó que, sin más demora, debía poner manos en el asunto. Al fin y al cabo ella fue fundada por las cuatro Diputaciones del país para velar por la lengua vasca, y ella es la única institución que abarca a todos los dialectos y variedades de la lengua vasca. Y así, y por los motivos dichos, creó el título de capacitación para la enseñanza del euskera.

El título tiene tres grados o niveles: el superior, el medio y el ínfimo. El superior no se ha concedido aún a nadie, el ínfimo lo han obtenido ya muchos, y el medio algunos. La Academia organiza también cursillos para facilitar el estudio y la asimilación de las materias que figuran en el programa. Para todo lo relativo al título dentro de la Academia funciona una Comisión cuyos miembros son todos licenciados en Filosofía y Letras. A cargo de dicha Comisión corre la organización tanto de los cursillos como de los exámenes, la calificación de éstos, etcétera.

Sólo me resta decir que la creación de este título ha constituido un rotundo éxito, dada la acogida entusiasta y la respuesta totalmente favorable que ha tenido por parte del país.

Los diplomas hasta la fecha expedidos ascienden a 1.172 y se reparten por toda la geografía del país, tanto del norte como del sur.

Euskal Irakasle titulua hartzera zoaztenoi, Agur! Zuek zarete euskeraren itxaropena. Zorionik eta eskerrik beroena eman nahi dizuet une huntan, diploma –hau da, zuen gaitasunaren sinestamendua den ageria– jasotzera zoazten unean.

Eta bide batez gomuta edo oroitzapen bat egin nahi dut baita ere, orai baino lehen, beharbada diplomarik gabe baina asmoz eta jakitez eta bihotzeko garrak lagundurik, hementxe, Bilbon, euskara irakasten hainbeste urtetan nekatu eta saiatu diren jaun guztien alde. Esate baterako gogoan dut orai Xabier Peña jaunaren izena. Berarentzat eta lan berean jardun duten guztientzat bihoa gure eskerrona eta txaloa.

JUAN MATEO ZABALARI OMENALDIA

Bilbon, 1977-IX-24

Fr. A. Biain

Jaun-andre agurgarriak:

Gure Aita Juan Mateo Zabala jaio zela berreun urte dirala-ta, Frantzizkotar eta euskaldun ospetsu onetaz itzegiteko eskatu didate. Eta beste ezer baino lehen gauza bi esan nai nituzke: lehenengo, ni ez naizala nor Aita Zabalatzaz itzegiteko. Lantxo hau agindu badidate Zarautzko komentuko nagusitzan haren ondorengo naizalako izan da. Eta bigarren, nahiko lotsa ematen ditala Euskaltzaindiak eratutako billera batean erderaz egiteak, baina honela esan zidaten: beste lan batzuek euskeraz izango zirela eta nik erderaz egingo banu eta laburpen bat esukeraz. Ba horixe da egiten saiatu naizana.

Lengo asteazkenean pasa dira berrehun urte Juan Mateo Zabala jaio zela, emen Bilbon. Aita Bakiokoa zen eta ama, berriz, Areatzakoa, San Anton elizan bataiatu zuten. Gurasoak euskaldunak zitularik, euskera seaskatik zekian gure aita Zabalak. Baina mutikotan frantzizkotar sartu zen eta ikasketak Euskal Herritik kanpora egin zitun. Honegatik euskera asko moteldu zitzaion. Baina Larramendiren liburuak irakurtzean barruan zeramakian euskera sena berriro zuzpertu zitzaion eta geroztik lan honi ekin zion gogotik. Ogeita bost urte zitun orduan aita Zabalak.

Nere lantxo honetan bi alderdi hauek aztertzen ditut batez ere: Juan Mateo Zabala, Frantzizkotar mixiolaria eta euskaldun jatorra. Bere bizitzako bi maitasun aundienak hauek izan zirela esan genezake: lehenengoa, frantzizkotar bizitza zakonki bizi, eta bigarrena, euskera ikasi eta landu.

Lehenengo maitasuna ondo bete zuala esan behar; begira, bestela, zer idatzi zuten gure fraileak hura hil zenean:

..."Guardian zelarik hil zen, 63 urte zitula, 1840 garrengo otsailaren seian. Jakintsua eta santua zen. Lo ta jan-edanian urri eta otoitzean ugalkor"... Nota hauek oso laburrak izan oi dirala kontuan eukita, itz gutxiagotan ezin zitekean gehiago esan.

Euskeraren alde, berriz, asper gabe lan egin zuan. Eta lan neketsu horren emaitzak or dauzkagu: beste balio aundiko lantxo batzuek ahaztu gabe, "Colección de voces y frases bascongadas", —mixioak ematen erriz-erri zebillela bildutako esaldi eta esakerak—, eta batez ere halako ezaguera eman dion lan bikaina: "Verbo regular bascongado vizcaino—", ogehita hamar urte luze zear osatutako lan ikaragarria.

Hauek dira nik emen, lantxo honetan aipatzen ditudan bi gauzak. Barkatu eta entzun, arren.

EN EL SEGUNDO CENTENARIO DEL NACIMIENTO DEL P. JUAN MATEO DE ZABALA, FRANCISCANO, HIJO DE BILBAO Y GUARDIAN DE ZARAUZ. VASCOFILO AFAMADO

Me han pedido que, como Guardián de Zarauz, tenga una breve intervención en este acto de homenaje al Padre Juan Mateo de Zabala, en el segundo centenario de su nacimiento. Lo hago con gusto para ensalzar a este ilustre franciscano, que fue una de las principales figuras que prestigiaron el Colegio de Misioneros de Zarauz.

Voy a referirme primeramente a su vida franciscano-misionera.

Nació en Bilbao el día 21 de septiembre de 1777 y fue bautizado en la parroquia de San Antón. En su casa debió de hablar habitualmente en euskera, como es natural. Pero al entrar en la Orden Franciscana, no sabemos en qué lugar, y durante los estudios de su carrera eclesiástica, realizados en lugares de habla castellana, según dice él, se entorpeció mucho en el uso del euskera. La lectura de las obras del P. Larramendi le despertó la conciencia de su abandono y le orientó al mismo tiempo en sus primeros estudios de su lengua materna. Por entonces leyó también la Apología de Astarloa, que le encendió más la admiración y el amor al euskera; pero a pesar de lo mucho que estimó a Astarloa, y de todo lo

que le preocuparon sus atisbos geniales a lo largo de su vida, no se dejó arrastrar de sus idealismos exagerados.

Terminada su carrera y hecho sacerdote, ya le tenemos a nuestro P. Zabala de Lector de Filosofía para estudiantes seglares en el convento de Bilbao. Tenía entonces 27 años.

En 1815, a sus 38 años, llegó al Colegio de Zarauz, y aquí vivió 25 años, hasta su muerte ocurrida el día 6 de febrero de 1840, a los 63 años de edad.

Sigu endo los pasos de su vida y el campo de sus actividades, podemos descubrir con facilidad cuáles fueron los grandes amores a que se consagró. Primeramente, la realización de su vocación franciscana; y en segundo lugar el estudio y cultivo de su lengua materna, el euskera.

La Orden Franciscana, desde sus orígenes y siguiendo las inspiraciones y ejemplos de su fundador, Nuestro Seráfico Padre San Francisco, se consagró de un modo especial a la evangelización de los pueblos en que vivían y en sus comarcas vecinas, así como a la de pueblos paganos de todo el mundo. Ha sido notable siempre, y sobresaliente en muchas épocas, la presencia franciscana en los lugares más apartados y difíciles del mundo pagano. Pero refiriéndonos ahora particularmente a los pueblos católicos en que tenían sus principales conventos y donde se recibían los candidatos y se preparaban para el apostolado, uno de los principales trabajos de los numerosos frailes que llenaban los conventos, era el apostolado de la evangelización constante, instruyendo a las gentes en la doctrina cristiana y exhortándoles a la penitencia y recepción de los santos sacramentos. Así fueron tomando cuerpo y organizándose con el tiempo las misiones populares, que han llegado entre vaivenes de mayor o menor esplendor hasta nuestros días. Entre los muchos misioneros sobresalientes de nuestra Orden Franciscana que podrían citarse al efecto, tenemos al insigne S. Antonio de Padua, en el siglo XIII, a los igualmente insignes S. Bernardino de Sena, S. Juan Capistrano y S. Jácome de la Marca, en el siglo XV, y a S. Leonardo de Puerto Mauricio en el siglo XVIII. Para la atención más cuidada de estas misiones populares llegaron con el tiempo a establecerse en España y también en otras naciones los Colegios de Misioneros Apostólicos populares. Cada Provincia Franciscana tenía de ordinario su Colegio, donde se hacía una vida parti-

cularmente austera, vida de penitencia, oración y estudio. Su tarea principal solía ser la predicación de las misiones populares, que duraban muchas veces 20 y 30 días. Y, dado que el ingreso en estos Colegios Misioneros era completamente voluntario, cabe afirmar en alabanza de los que en ellos se inscribían, que estaban inflamados por un deseo y afán de acercarse más al ideal de perfección religiosa que legara a los suyos nuestro Seráfico Padre.

Y como apuntaba antes, ésto debió de ser lo más fundamental en nuestro P. Mateo Zabala: quería ser franciscano de cuerpo entero, y para lograrlo, quiso adscribirse a un Colegio Misionero.

Estuvo primero en el Colegio Misionero de San Antonio de Herbón, donde permaneció dos años; y después, pasó a nuestro Colegio de Zarauz. Y en este Colegio transcurrió el resto de su vida, a saber, 25 años, desde 1815 hasta 1840 en que murió. En este período, fue por un trienio guardián, es decir, superior; y durante su trienio llevó a cabo en la Iglesia y en el Convento obras importantes, que han perdurado en buen estado hasta nuestros días. Al convento le dotó de un Oratorio en el claustro superior. Y en la Iglesia hizo el retablo nuevo del altar mayor, que fue la obra principal de su trienio. E hizo también los cuatro altares colaterales del crucero de la Iglesia, tal como se han conservado hasta nuestros días; dos —el de Sto. Cristo y el de San Antonio—, situados al frente del crucero y los otros dos, a los costados del crucero, que son los del hermoso tríptico pintados por el flamenco BLOCKLAND.

Un año antes de su muerte fue elegido nuevamente guardián. Era una época difícil aquella; guerras y revoluciones que repercutían enormemente en los conventos.

En el "Libro Becerro" de aquel tiempo, que se conserva en el Archivo de nuestro Convento, se lee la nota necrológica de nuestro Padre Mateo, breve y escueta, pero rica y concluyente, para quien quiera entender: "Murió, dice, siendo guardián, de edad de 63 años a seis de febrero de 1840. Era sabio y santo: era de poco comer y poco beber, de poco sueño y de mucha oración". Es elocuente esta bella contraposición entre el poco y el mucho, este dar poco al cuerpo y dar mucho al espíritu. Teniendo en cuenta que estas notas necrológicas, sobrias y concisas, suelen recoger lo más medular de la opi-

nión de los que conviven en el convento, el haber consignado que el P. Mateo Zabala era sabio y santo y las otras particularidades que he dicho, equivalen a los extensos elogios de una oración fúnebre. Creo por ello que esta nota final del "Libro Becerro" nos autoriza a afirmar que el P. Mateo Zabala debió de vivir plenamente el espíritu de perfección religiosa dentro de la Orden Franciscana.

Y entremos ahora a un comentario breve de su dedicación al euskera, que es el aspecto que le ha dado fama. Ya he apuntado antes cómo hacia el fin de su carrera eclesiástica se dió al estudio de su lengua nativa, que durante años la tenía descuidada. Y este deseo de hacerlo bien pudo influir algún tanto en su decisión de incorporarse al Colegio Misionero de Zarauz, dejando el de San Antonio de Herbón en Galicia, donde estuvo primeramente por dos años; pues los misioneros de Zarauz tenían fama de que sobresalían sobre los demás predicadores por su buena expresión en euskera y por los libros devotos que publicaban, según testimonio nada despreciable del P. Larramendi.

En el Colegio de Zarauz debieron de hacer mucha estimación de las dotes del P. Zabala, pues ya casi desde el principio figura en plana mayor de la casa para lo relativo a la economía doméstica; además le confiaron el cargo de Vicario y dos veces el de Guardián o Superior. En su primera Guardianía hizo notables obras y mejoras en la Iglesia y convento. A la muerte del P. Añíbarro, que era el cronista del Convento-Colegio, confiaron al P. Zabala dicho cargo. De su puño y letra escribió el P. Zabala en la crónica del Colegio la necrología del P. Añíbarro.

En la lista de las misiones predicadas por los Padres del Colegio figuran bastantes predicadas por el P. Zabala. Preocupado como estaba por el estudio del vascuence, el P. Zabala aprovechaba sus correrías misionales para anotar las variedades léxicas, poéticas, etc. de la lengua. Así pudo recoger una *Colección de voces y frases bascongadas* oídas en las misiones de Vizcaya, que el año 1828 envió al profesor Leclu-se de la Universidad de Toulouse. El Sr. Azkue, en el prólogo de su Diccionario, habla de un vocabulario que le regaló el cura de Ochandiano y que cree es obra del P. Zabala, pero ninguna noticia más ni explicación de ello. No sabemos el actual paradero de este vocabulario, ni si coincidirá con la

"Colección de voces y frases vascongadas" enviada al Sr. Lecluse (1).

La obra maestra que le ha dado fama es el estudio del *verbo regular bascongado vizcaino*, que no se publicó hasta 8 años después de su muerte. En la lectura de la *Apología de la lengua bascongada* de Astarloa debió concebir el primer propósito de esta obra, por lo que él mismo dice en el prólogo, pero no se dejó seducir por su filosofía, sino que adoptó una postura objetiva y realista. Refiriéndose a este particular y alabando la valentía de esta postura, escribía D. Carmelo Echegaray: "...no obstante vivir en los días en que el Romanticismo se apoderaba con más avasallador imperio de las almas, y dejaba marcada su huella no sólo en la esfera puramente literaria, sino en construcciones pseudo-científicas en que los fueros que más se respetaron fueron los de la imaginación, supo abstenerse a la presión del ambiente..." Es esta obra un estudio extenso y reposado, largamente elaborado y no apto para los principiantes inquietos y apresurados, pues es seguro que, si empiezan a hojearlo sin orden, reciban la impresión de que entran en una intrincada maraña, pero es la impresión falsa del imprudente que se lanza a un bosque dejando el camino abierto que lo atraviesa. El autor da en el prólogo unas advertencias previas que aclaran y facilitan la comprensión de todo el estudio, que es explica en cinco Asuntos, desarrollados en 10 capítulos, en cuyos sumarios aparecen claramente clasificados y ordenados los distintos elementos de la conjugación. Labor tan ardua a la que se entregó por más de treinta años, según confesión propia, tenía dos fuertes estímulos: uno era llegar a la mayor perfección posible en el dominio y uso del lenguaje que había de emplear en sus actuaciones apostólicas; y el otro estímulo era el de los nuevos descubrimientos que iba logrando en su constante estudio del mecanismo tan delicado y tan lógico de la conjugación del verbo vascongado.

También tuvo notable actuación como bibliófilo preparando una noticia de las obras bascongadas que habían salido a la luz después de las que da cuenta el P. Larramendi. Esta obra publicó el Príncipe Bonaparte en 1856. Le había precedi-

(1) Sobre el manuscrito de Ochandiano escribió el H.° Berriochoa. Véase BAP XVIII (1962), 80-82.

do el P. Larramendi con una lista de diez obras euskéricas, pero Zabala compone un repertorio nuevo con cincuenta y dos libros más. Recoge tanto los de este lado como del otro del Pirineo, y además, se permite un juicio valorativo crítico, que solamente lo omite cuando el autor vive todavía.

Es muy de notar también como prueba de la sabiduría y competencia que se le atribuían al P. Zabala en asuntos de euskera, la copiosa correspondencia epistolar que mantuvo con el vascófilo francés Mr. Lecluse, de la Universidad de Tolosa de Francia, quien acudía al P. Zabala en consulta y solución de los puntos difíciles y oscuros que encontraba en sus estudios sobre el euskera.

Otra faceta interesante del P. Zabala son sus fábulas. Dicen de éstas, que son tan correctas y finas en su lenguaje, como frías y faltas de gracia. Fueron, tal vez, escritas por presentar ejemplos del empleo de la conjugación familiar del verbo, que tanto admiraba y estimaba él, y en cuya composición en los paradigmas debió de írsele la mano algunas veces en su afán de completar lógicamente los vacíos, para los que no halló suficientes pruebas en el habla popular.

En la Revista "Euskera" de la Academia de la Lengua Vasca se publicó otro trabajo del P. Zabala, titulado "103 conjugaciones del presente perfecto de indicativo o muestra de los 206 presentes indicativos que da al bascuence don Pedro de Astarloa". Estas flexiones o conjugaciones se refieren a las que indica Astarloa en sus *Discursos Apologéticos.*

Y en el archivo de Zarauz se conserva un manuscrito del P. Zabala, que lleva por título *Correcciones a la obra Urteco domecac* del P. Astarloa. Las correcciones del P. Zabala son en sentido purista generalmente, y también en el empleo del verbo.

En la biblioteca de Aránzazu se guarda también un libro fuertemente encuadernado, que en su lomo dice: "Folletos sobre vascuence". Contiene cinco folletos de tipo polémico, aparecidos por aquellos años, y que el P. Zabala coleccionó poniéndoles algunas anotaciones de su mano.

Puede decirse que no tuvo el P. Zabala en su vida problemas de contrarias interferencias que le estorbaran en su labor ordinaria de predicar misiones con todo detenimiento y de aprovechar el tiempo para sus estudios y aficiones en las

horas libres de su vida conventual. Pero sí debemos recordar que dificultades, y no pequeñas, tuvieron él y todos los religiosos del convento, provenientes de la situación precaria en que se encontraron por entonces, por motivo de las guerras y sus consecuencias, y por fin, el de la exclaustración. El mismo confiesa haber sido llevado entre bayonetas a Guetaria por dos veces y tenido preso con centinela a la vista por estar Zarauz insolvente en sus contribuciones, y aún otras dos por medio de oficio. Nos cuenta también que dos veces fue saqueado el convento en irrupciones que hicieron los cristinos desde Guetaria.

Del conjunto de su vida y de sus escritos, y principalmente de la lectura de su gran obra "El verbo bascongado" deducen los entendidos cómo era el carácter del P. Zabala: un intelectual frío y sesudo, que todo lo analiza con exactitud matemática, que no se permite nada de construcciones fantásticas a priori, sino que se atiene rigurosamente al método positivo de observación de los hechos.

Voy a mencionar unos datos curiosos que ilustran pintorescamente esta semblanza del P. Zabala, como hombre sesudo y humorista, que sabe bien la tierra que pisa.

— En el epistolario inédito de José Pablo de Ullibarri y Galindez, herrador de Abando y vascófilo amartelado, hay correspondencia del P. Zabala en vascuence. Ullibarri vivió hacia 1823, era un gran entusiasta del vascuence, y en esta lengua escribía sus cartas; mantuvo correspondencia con muchos personajes, entre otros con el P. Zabala y con Iztueta. Ullibarri se dirige al P. Zabala rogándole que pusiera el Fuero en vascuence, que escribiera una gramática y dos diccionarios. El P. Zabala le contesta que a ver quién comprará tales libros. Después que el autor se fatiga tanto en escribir un libro —y algo de esto debía de saber el P. Zabala por su compañero el P. Añibarro—, tiene que invertir muchos miles de reales en imprimirlo, y para qué? Para que en el camarote lo coman los ratones, o la polilla o el polvo; o para que en las tiendas lo empleen para envolver tabaco o pimientos. "No estamos tan locos", dice el P. Zabala al buen herrador. Por mí el Fuero seguirá estando en castellano". Y añade: "Si hubiera más compradores, ciertamente saldrían más libros; pero el vascuence no recibe más que patadas y mordiscos de los mismos vascos".

— En una carta escrita en 1820 desde Barambio (Alava) a su hermana, le dice: "Ayer me entregaron una tuya, en que me preguntas si yo he tomado la proclama de Aragón. Dígote que no, ni he padecido la más leve tentación sobre el particular. Si hubiera sido alguna proclama en buen vascuence, o aunque hubiesen sido unos medianos villancicos, tal vez hubiera tenido alguna tentación por traerla, por ver si traía alguna voz, frase o expresión que me hiciera al caso; pero por proclamas, y de constitución, no; porque sé cuanto me pueden decir todos los proclamadores y un punto más; puesto que en esta materia soy ya perro viejo que he visto, oido y observado mucho; y al, perro viejo no hay tus tus".

— Y por fin un dato precioso que descubre ese fondo de sensatez que había en el P.Zabala, es este breve juicio que emite sobre las obras del abate D'Iharce de Bidasouet en carta a Lecluse: "No he visto la obra del Abad D'Iharce y no he podido hacerme cargo de sus aciertos o desaciertos; pero su prospecto, que lo tengo, no me satisfizo, y me pareció que podríamos tener en él no un segundo Astarloa sino un segundo Sorreguieta, falto de lo que en los talentos del hombre llamamos juicio (y es aquel peso con que damos a cada razón su propio mérito), o peso con que graduamos el mérito de las razones y damos a cada una su propio lugar".

Así fue el gran Padre Juan Mateo de Zabala, que dejó grata memoria de su paso en el Colegio de Misioneros de Zarauz por su vida austera y de mucha oración, y por sus fervorosas misiones predicadas por los pueblos de Vizcaya, y un profundo sentimiento de gratitud y admiración en toda Euskalerria por su dedicación incesante al euskera, y particularmente por su estupenda obra "El Verbo Regular Bascongado "Vizcaino".

He dicho.

BILBO ETA EUSKARA

Bilbon, 1977-IX-24

Alfonso Irigoyen

Agur Jaun andreak, Deustuko Unibertsitateko erretore jauna, Bilboko Alkatea, Bizkaiko Diputazioko ordezkaria eta Euskaltzainkideak:

Juan Mateo Zabala euskal idazle eta hizlaria Bilbon jaio zen 1777-garreneko irailaren 21-an San Antongo bataio liburuan agiri denez. Horregatik egun, berrehun urte geroago, Euskal Akademiak jaioterrian bertan ohore egiten dio.

Ni ere Bilbon jaioa naizenez gero, zazpi kaleen inguruan ez bada ere, 1890-garrenean Bilbora iragan zen Abandoko eremuan bederen, parte hartzera gomit egin didate.

Aita Biain-ek Juan Mateo Zabala-ren biografiaz ihardungo omen zuen eta Aita Lino Akesolo-k haren literatura lanez, eta hala ihardun dute ihardun ere. Beraz, ni ez natzaie egun hemen gai horiei lotuko, *Bilbo eta euskara* gaiari baino.

Bilbo eta euskara diodanean ez dut esan nahi Bilbon euskara administrazio hizkuntza bezala, merkatari euskaldun batzuen arteko harremanetan izan ezik, paperetan aurkitzeko esperantzarik dudanik, Euskal Herriko gure historian halakorik ez baita gertatu herrixkarik txikienetan ere, inoiz frase bakarren batzuk aurkitzen ditugunean bitxi erizten baitiogu eta berehala arretarik handienaz bildu eta argitaratzen baititugu zerbait baliotsurekin topo egin dugulakoan. Ez, ez da hori. Esan nahi dudana da Bilbon jendalde arrunt baten artean euskaraz egin izan dela neurri batean edo bestetan eta egin ere gure egunotararte, norbaitzuk gehiegi arduratu gabe bestela uste izateko joera badute ere. Ez dut ukatzen, jakina, —eta nola uka daiteke?— reboluzio industriala dela kausa joan den mendean, bereziki foruak galdu zirenetik aurrera, lehenik meatzetara eta pizkanaka pizkanaka gero eta azkenik

Franko-ren garaiean samaldaka erdaldun asko eta asko etorri dela lan bila —eta euskaldunak ere bai— Bilboko hibai osoaren ugertzetara eta baita Euskal Herriko beste alderdi batzuetara ere, eta gertaera horrek gutxiengoa nabarmenean utzi gaituela gu euskaldunok, beste hiri handi batzuetan ere, gehiago edo gutxiago, halatsu izatera iritsi diren bezala.

Euskalzale albistarian 1898-garreneko urriaren 27-an argitaraturikako alean "Euskerea Bilbon" artikuluan "lauta-rik batek euskeraz dakien erri"-a dela esaten da. Lehenago oraindik gehiago zela pentsatzea ez da amets hutsa.

Baina lot nakion gaiari kronologiari jarraiturik eta ditudan datoak azalera atera ditzadan.

Bilboko hiria, ezaguna denez, Bizkaiko Jaun Diego Lopez Harokoak bizkaitar guztien atseginez sorterazi zuen 1300-garren urtean Begoña-ko alderdian, Bilboko portua zeritzan lekuan, Logroño-ko forua oinharritzat emanik (1). Iturriza-k dioenez (II, 53 orr.), ikus nota (14), Juan Iñiguez de Ibargüen aipaturik: "poblándola... varios pescadores y venaqueros que vivían en Ascao y Meazábal, y comerciantes venidos de Bermeo". Hiria sortzearen izkribuan ere "et omes bonos de Bermeo" agertzen da argitasun gehiago eman gabe. Emiliano Arriaga-k (35-36 orr.), ikus nota (30), dio: "Iñiguez de Ibargüen cita un acuerdo del Señorío fechado en 1300 en la iglesia juradera de Santa Eufemia de Bermeo, en que se ofrecía jornal de 16 maravedís a los canteros y carpinteros que fuesen a trabajar en la nueva villa".

XVI-garren mendera itzuli behar dugu, ordea, gugana iritsi den eta gure hizkuntzari dagokion aztarrenik zaharrenaz iharduteko. Bilbon argitara zen 1596-garren urtean Betolaza-ren dotrina erdaraz eta euskaraz: *Doctrina christiana en Romance y Basquence, hecha por mandado de D. Pedro Manso, Obispo de Calahorra, y la Calçada, y del Consejo del Rey nuestro señor, para las tierras Bascongadas de su Obispado, reducida por el Doctor Betolaça, à lenguaje mas comun, y mas vsado y que con mas facilidad se entiende en todas ellas, para bien, y vtilidad de sus obejas de aquellas partes,*

(1) Ikus sortzearen izkribua, Valladolid-en emana, Teofilo Guiard Larrauri-ren lanean: *Historia de la Noble Villa de Bilbao*, tom. I, Bilbao 1905, 9 orr. Bigarren tomoa 1906-garrenean agertu zen, hirugarrena 1908-garrenean eta laugarrena 1912-garrenean.

que por largos años las apaciente, y govierne, à gloria, y honra de Dios nuestro Señor, Amen. Impressa con licencia en Bilbao, por Pedro Cole de Ybarra, impressor de este muy noble, y muy leal Señorio de Vizcaya. Año de 1596 (2).

Ez da orainarte argitu nongoa zen Betolaza, ezta non zegoen apez ere. Ez dut posible izan Bilboko Kabildokoa zen ala ez jakitea orduko dokumentazioaren faltaz, Santiagon izan banaiz ere. Bilboko apezen artekoa baldin bazen bertan jaioa izan behar zuen, zeren hiriko ponteetakoak besterik ezin izan baitzitezkeen Bilboko eta Begoñako elizetako apez. Erdaraz *beneficiados pilongos* zeritzen. Guiard-ek dioenez *Betolaza* deitura Bilboko lehenengoetarikako dokumentazioan agertzen da. Hain zuzen ere Txintxilla-ren 1483-garreneko kapitulazioen inguruan *Diego de Betolaza* dugu, beste batzuen artean, Bilboko hiriaren izenean (3).

Frantzisko Mendieta, Bizkaiko Diputazioan, euskarazko irakurgaia duela, orainarte gorde den eta Gernikara, kopia bat utzirik ordez, eraman duten pinturaren egilea bilbotarra zen. Honela dio irakurgaiak: *Au da nola milla ta laureun ta yruroguetaamasei urteetan Garagarrilen ogueta amargaren egunean erregue jaun Fernando bostgarrena (sic) guernicaco ardolen (sic) bean bizcaitarrai confirmadu eguinezan euren foruac ta eurac bera jauntçat ecutea.* 1556-garren urtean jaio zen eta pinturak 1609-garreneko fetxa darama. Mendieta, gainera, Bizkaiko Historian ere murgildu zen eta esku izkributan utzi zuen lana. Juan Carlos Guerra-k argitara zuen Donostian 1915-garrenean *Quarta parte de los Annales de Vizcaya que Francisco de Mendieta, vecino de Vilbao, recopiló por mandado del Señorío* (4). Lana erdaraz badago ere bertan iragan da guganaino Jaun Peru Abendañokoren euskarazko kanta, XV-garren mendeko erdialdean Aramaion gertaturikako egintzez diarduena (5). Bilbon ere ahorik aho edaturikako kanta zela pentsatzea berezkoa dirudi. Gure epikaren diztira bat da edozein modutan ere.

---

(2) Luis Mitxelena-k argitara eman zuen hitzaurre batekin. Ikus "La Doctrina Cristiana de Betolaza (1596)", *BRSVAP*, XI (1955), 81-100 orr.

(3) *Beneficiados pilongos* direlakoetarako begiratu nota (8). Besterako Teófilo Guiard Larrauri, *Historia de la Noble Villa de Bilbao*, I, Bilbao 1905, 6 eta 137 orr.

(4) Ikus A. Irigoyen "Estudio de un texto arcáico del vizcaino antiguo", *I Semana internacional de Antropología Vasca*, Bilbao 1971, 455-474 orr.

(5) Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*, Madrid 1964, 79 orr.

Bilbotarra zen Ràfael Mikoleta ere, 1653-garren urtean euskaraz ikasteko metodoa izkribatu zuena (6). San Antongo Elizan bataiatu zuen Martin Arrieta batxillerrak, 1611-garreneko azaroaren 19-an jaio zela (7). Bilbokoa zenez gero posible izan zuen bertako Kabildokoa izatea, kanpokorik ezin izan baitzitekeen orduko legearen arauera (8). Edward S.

---

(6) *Modo breue de aprender la lengua vizcayna compuesto por el licenciado Rafael Micoleta, presbytero de la muy leal y noble Villa de Bilbao, 1653,* Sevilla 1897. Edward Spencer Dodgson-ek argitaratua. Bigarren argitaraldia dela dio, baina geroago berak argitu zuen hirugarrena zela, ikus *RIEV* II (1908), 255 orr.: "Rafael Nicoleta y Sir Thomas Browne".

(7) Camilo Villabaso, "El doctor Rafael Micoleta", *RIEV* VII (1913), 568-569 orr.: "El Dr. Rafael de Micoleta fué bizcaino y bilbaino, de nacimiento oriundés, habiendo nacido en esta villa en 19 de Noviembre de 1611: fueron sus padres Martin Rafael de Micoleta y D. Maria Ochoa de Zamudio y le bautizo el Bachiller Martin de Arrieta en la iglesia de San Anton. La familia Micoleta por las dos líneas paterna y materna era de las mas acomodadas y distinguidas de la población, y especialmente por la parte de su madre estaba ligada con el noble y opulento linage de los Zamudios".

Fidel Fita, "Rafael de Micoleta", *RIEV* VII (1913), 570 orr.: Julio Urkixo-k eskura zion bataio agiria ematen du eta guraso bezala Martin de Micoleta eta Maria de Çamudio agertzen dira. Han dion *Miñ* ez da, dudarik gabe, *Martin* izenaren laburpena besterik.

(8) Ikus Andrés Eliseo de Mañaricua, *Santa María de Begoña en la Historia espiritual de Vizcaya,* Bilbao 1950.

Honela dio: "Desde la lejanía remota en que se pierde la memoria hasta el siglo pasado, siempre han estado atendidas las parroquias de Bilbao y Begoña por un único cabildo". "En el privilegio otorgado en 1331 por doña María se hace ya mención de ello prohibiendo a los abades o abadesas sucesores el separar "del servicio a los sobredichos clerigos de Santiago, por ningun achaque del mundo... nin puedan, nin hosen traer a ningun clerigo extraño, para en servicio de la Iglesia sobredicha de Santa Maria, tirando a estos clerigos de Santiago de su servicio", 167-168 orr.

"El que hubiese de ser el cura de Begoña miembro del cabildo de Bilbao, daba lugar a una situación anómala. Era entonces norma corriente que sólo los hijos naturales del pueblo pudiesen obtener sus beneficios parroquiales, que por ello eran calificados de patrimoniales. Siendo necesario para obtener beneficio en Bilbao ser natural de la Villa, quedaban excluídos del Cabildo y, por lo tanto, de la posibilidad de ser cura de Begoña los hijos de la Anteiglesia" "Según el sínodo de 1410, se consideraban hijos naturales aquellos cuyo padre o madre, abuelo o abuela –en 1411 añadieron bisabuelo o bisabuela– hubiesen vivido diez años de que naciese "faziendo vezindad" y diezmando según debían y a los nacidos y bautizados en la parroquia y lugar viviendo su padre o madre como vecinos. (*Const. Syn.* ms. Vitoria, fol. 80-81)". "En 1474, el Ordinario de Calahorra sentenció que los clérigos y beneficiados de la Villa se estimasen patrimoniales de Begoña. Cfr. *Iunguito.* Por D. Juan de Larragoiti, fol. 3", 168 orr.

"El 1 de Julio de 1528, el Cabildo eclesiástico llegó a un acuerdo con el concejo, justicia y regimiento de la Villa sobre las condiciones que debían reunir los aspirantes a beneficiados. Las establecidas fueron: 1.ª Ser nacido en la Villa e hijo de vecino morador en ella o en sus arrabales y cuyos padres hubiesen conservado su vecindad hasta que el hijo solicitara el ingreso en gradera. 2.ª Se admitía a los

Dodgson-ek dioskunez metodoan agertzen diren elkar hizketak bestek erdaraz eginikakoetarik itzuliak dira: "traducción Biscaina del primer diálogo Castellano de Juan Minsheu, publicado en Londres en 1623" (9). Beraz ez da egia inork iturririk seinalatu ez dionik. Eta hori hala baldin bada ez digu argitzen Bilboko pertsonen arteko harremanik XVII-garren mendean, ezta nola jazten ziren, zer jaten zuten eta abar ere, esan den bezala (10). Bai, ordea, Bilboko euskaraz nola mintzatzen zen, alderdi batera utzirik itzulpena izateak eman ziezaiokeen kutsua. Duen zahar itxuragatik lekukotasun ezin utzizkoa dugu euskal hizkuntzaren historiarako.

Oso baliotsua da guretzat, gainera, ondo esan den bezala, euskal poesiaz argitzen diguna. Beste berririk ezean, dioskun apurra urrearen pareko bihurtzen zaigu.

Badirudi, eta diodana hipotesis hutsa besterik ez da, Mikoleta-ri inglesen batek eskatu ziola metodoa egin zezan, Londresen argitaratua zegoen erdarazko elkar hizketa hartu baitzuen oinharri euskarara itzultzeko. Hala esplikatuko litzateke Sir Thomas Browne orain Londresen gordetzen den esku izkribuaren jabe izatera iristea (11). Hau ez da batere harrigarria. Beherago ikusiko dugunez Bilbon bazeuden orduan merkatari inglesak eta euskaraz mintzatzen entzuten zioten hirian inguruko jendeari. Ikasteko gogoa sortzea zeharo normala dela deritzat, bereziki kanpotarrak izanik eta lati-

---

accidentalmente nacidos fuera de Bilbao, v. gr. por destierro de sus padres o por haber ido la madre a su propio caserío a dar a luz, siempre que hubiesen sido moradores de Bilbao. 3.ª Habían de ser bautizados en alguna de las iglesias de Bilbao, de no haberlo impedido peste, guerra u otro caso análogo. Se admitía a los bautizados en otra iglesia por devoción de sus padres. 4.ª Para conocer la naturaleza del pretendiente se habían de fijar edictos en las parroquias de Santiago y San Antón y en el ayuntamiento por seis días". "*Arch. Sant.* 1, 1, 18. *Arch. Mun.*, 10, 1, 12". Eta 1594-garren urteko datoetarako "*Arch. Sant.* 1, 4, 54", 279-280 orr.

(9) Edward S. Dodgson, "Rafael Nicoleta y sir Thomas Browne", *RIEV* II (1908), 256 orr.

(10) Luis Michelena, *Historia de la Literatura Vasca,* Madrid 1960, 63 orr. Emiliano de Arriaga, *Lexicón bilbaino*, segunda edición aumentada, Madrid 1960, Luis Mitxelena-ren hitzaurrea, 6 orr. Bertan dio: "No es sólo el vascuence de Bilbao el que conservó particularidades arcáicas. Su romance, mucho más antiguo y arraigado, no es el castellano descolorido de San Sebastián, mejor provisto de cultismos y vulgarismos recientes que de voces castizas". Baieztatze hauek oinharria Mikoleta-k euskarara itzulirikako erdarazko elkar hizketetan baldin badute, oinharri sendorik ez dute. Hala ere honek ez du esan nahi erromantze zaharrak euskaldunen artean non nahi eta bereziki hiri inguruetan arrastorik utzi ez zuenik.

(11) Edward S. Dodgson, "Rafael Micoleta: no Nicoleta", *RIEV* VII (1913), 564-567 orr.

naren eta mundu romanikoaren prestijio ukatu ezina gora behera inglesa nagusi atera zutenak, ordurako sortua baitzen Shakespeare, Hego Euskal Herrian halakorik ez genduen bitartean.

Mikoleta-k bere metodoa egin eta hiru urte geroago, 1656-garrenean, Bilbon argitara zen Martin Otxoa Kapanagako lizentziatuak euskarara itzulirikako dotrina, erdarazko testoa ere aldamenean zuela. Itzultzailea Mañarian zegoen apez eta bertan jaiorikakotzat hartzen da (12).

Badugu 1683-garreneko proba bat ere. Urte haretan Bilbotik Fermin Basabilbaso merkatari bizkaitarrak Donibane Lohitzuneko Joanes Callo-ri —agian deituraren haserako *c* letrari azpiko arrastoa falta zaio eta *ç* da— izkribaturikako karta iritsi da guganaino, bialdu nahi zion sardina multzoa kendu egin baitzioten frantsesena zenaren aitzakian eta arrazoi horregatik egin ziren paper mordoarekin batera gorde baitzen karta ere. Nik neuk argitara nuen *Euskera* aldizkarian. Aipaturikako paper mordoaren artean kanpoko zenbait merkatariren berri ere agertzen da, hala nola: "la cassa de Vbertto Vbrech, mercader olandés residente en la villa", Joan Goceein, mercader ynglés", "cassa y morada de Henrrique y Miguel Busch Hermanos, mercaderes amburguesses", "la cassa de Nicolas Vehones", "Joan Roos su compañero, ambos mercaderes ynglesses", "la cassa y auittación de Don Balenttín Moiganezo de esta villa, de nación yrlandés". Beste alde batetik 1677-garren urtean Bilbon merkatari gisa bizi zen lapurtar mordo batek izkribu bat egin zuen zergatik berek ez zuten emanikako agindu bat bete behar adierazteko. Hain zuzen ere aginduaren bidez Bilboko hirian bizi ziren frantses guztiak hogei legoatik kanpora atera behar zuten. Baina Lapurdik Bizkaiarekin merkatu libroa omen zuen eta hala aitorturik omen zegoen eta Bizkaira zekartzaten mantenuakatik bizi omen ziren Bilbon (13). Ez dago dudarik merkataritzan bazegoela euskaldunen mundua ere.

---

(12) *Exposicion breue de la doctrina christiana compuesta por el P. M. Geronimo de Ripalda de la compañia de Iesus. N. S. de Vribarri de la Villa de Durango. Con licencia en Vilbao, por Juan de Azpiroz. Año de 1656.* Ikus oharretarako Julien Vinson, *Essai d'une bibliographie de la langue basque,* Oosterhout, Pays-Bas 1970, réimpression de l'édition de Paris, 1891 et 1898, n.º 24.

(13) Ikus Alfonso Irigoyen "Carta en lengua vasca dirigida en 1683 desde Bilbao por Fermín de Basauiluaso a Joanes de Callo, a San Juan de Luz", *Euskera* VI (1961), 259-269 orr.

Iturriza-k XVIII-garren mendeko azkenaldera dioenez: "El vecindario de Bilbao consta de 1.300 fogueras con inclusión de unas 25 casas de las Artigas de Bujana, que en lo espiritual son de la parroquial de Arrigorriaga". XVII-garren menderarte, ordea, beste alderdi batzuetako laborari zentso pagatzaileenak ere izan omen zituen (14). Aipatu dudanaren kopia egin zenean Fr. Mateo Zabala-k hamasei hamazortzi urte inguru zituen. Artigas de Bujana delakoa beti ezagutu dut *Buia* izenez, hain zuzen ere *-n-* bokal artekoa eroririk, euskaldunen artean gertatzen den gisara. Baserri haietan, gainera, euskaldunak bizi izan dira ene denboran, ni inguru haietara behin baino sarriago pintatzera joaten nintzenean. Orain ez dakit zertan den hango euskalduntasuna, ez bainaiz urreratu galdetzera.

Emiliano Arriaga-k dioenez (39 orr.), ikus nota (30): "De la fogueración nominal que se hizo en 1704 resultó tener Bilbao 1.419 vecinos o fogueras, que calculando a cinco almas por foguera daba 7.095 habitantes. En 1860, el censo dio aproximadamente 18.000 y en 1878 más de 34.000. De entonces acá ha duplicado casi esta cifra, merced a la irrupción que de los pueblos de Vizcaya y de todas las provincias de España y de otras naciones extranjeras, se ha verificado desde la última guerra civil carlista en nuestra Villa... Atraídos por el ruido del mineral y la sed de riquezas, han venido a desnaturalizar por completo este pueblo antes tranquilo, morigerado y religioso".

Bilbok 1822-garrenean, ordea, 13.560 bizilagun omen zituen. Orduan hiria Atxurin hasten zen, San Antongo zubia hartzen zuen eta baita beste alderdiko zubiburu ingurua ere. Handik aurrera hibaiak mugatzen zuen egun Udaletxea dagoen lekuraino. Beste alderditik Begoñarako Galtzaden hasera zen muga, eskilarak Begoñarenak baitziren, eta handik zehar Askao eta Esperantza, egun kale bezala irauten dutenak.

1861-garreneko apirilaren 7-an emanikako legeak ere-

(14) Juan Ramón de Iturriza y Zabala, *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, Bilbao 1967 (Prólogo, notas e índices de Angel Rodríguez Herrero), 1793-garreneko esku izkributik argitaratua, vol. 2.º, 60 orr.

XVIII-garren menderako berri zehatzagoak izan nahi dituenak ikus beza: Mercedes Mauleon Isla, *La población de Bilbao en el siglo XVIII*, Valladolid 1961.

muak zabaltzeko ahala eman zion eta lege haretan oinharriturik Madrileko Gobernuak 1869-garreneko abenduaren 19-an hontzat hartu zituen muga berriak eta gora behera batzuen ondoan 1870-garreneko apirilaren 2-an Bilbok beraganatu zituen. Beretzat gelditu zen Begoñako zati bat: Galtzadak, Mallona eta Mirafloresko gaina. Deusturen muga La Salve-n zegoen eta Abandorena Zabalburun eta San Mamesen, egun Miserikordia dagoen lekuan, ipini zuten. Azkenik 1890-garreneko uztailaren 1-eko erretordenaren bidez osorik iretsi zuen Abando. Deustu eta Begoña, ordea, ez ziren iragan 1924-garreneko urriaren 29-an erretordena eman zen arte. Franko-ren garaiean zanpatu ditu, azkenez, Erandio eta abar (15).

Gaia, lehenengo muga zabaltzea egin baino lehen, 1860-garreneko uztailaren 22-an tratatu zen Gernikako batzarretan: "Del mismo modo se dió igualmente cuenta de otro dictámen de la comision de fueros que copiado á la letra dice así: "Iltmo. Señor. La comision de fueros ha reconocido la mocion presentada á V. S. I. en sesion de ayer suscrita por varios apoderados y los antecedentes sobre el proyecto de anexion de las anteiglesias de Abando y Begoña á la villa de Bilbao; y como para proponer en este negocio una medida concreta y acertada, sea preciso examinar con detencion otros datos y antecedentes de que carece, opina, páse á la diputacion general para que con presencia de los mismos, obre de la manera que mas convenga y esté en consonancia con la observancia del fuero é instituciones especiales del Señorío. V. S. I. sin embargo acordará como siempre lo mas justo y acertado. Casa de juntas de Guernica y julio 22 de 1860". Ogei ta zazpi firma agertzen dira. "Y la junta lo aprobó en los términos propuestos por la espresada comisión" (16).

Jakina, 1870-garrenean eremua zabalago egin zuenean, Abando, Deustu eta Begoña baserriz beterik zeuden eta euskara zen nagusi jende xumearen artean. Abandok bazuen, gainera, zenbait astileria hibai ertzean.

---

(15) Ikus *El Fuero, privilegios, franquezas y libertades del M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya,* con una introducción de Dario de Areitio y Mendiolea, Bilbao 1950, azkenean datorren mapa. Baita ere *Memoria del proyecto de ensanche de Bilbao,* Bilbao 1878, 5-7 orr.

(16) *Juntas generales del M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya, celebradas só el árbol, y en la Iglesia juradera de Santa María la Antigua de Guernica, desde el día 9 al 22 de Julio de 1860,* Bilbao, 1860, 93-94 orr.

Gogora ekar dezakegu Jose Paulo Ulibarri abere sendatzailearen euskararen aldeko ekintza etengabea, Abandorena zen Bilbo zaharreko hauzategian bizi zela, Bilboko hiriaren aurrez aurre hibaiaren beste alderdian, zubi kolgante famatua izan zena iraganik Barrenkalearen parean, 1847-garrenean hil zen arte (17).

Bilbon San Frantziskoko komentua zegoen aipatu den zubi kolgantea iraganik, fraileek zubia izatea lortu baitzuten eta egin eta berregin baitzen (18). Hobeto esateko Abandoko eremuan zegoen komentua, Bilbo zaharra zeritzan eta deritzan hauzategian. Baina edozein modutan ere, Bilbora begira zegoen, eta ez bakarrik geografiaren aldetik. 1833-garren urtean, karlistadako gerra garaiean, handik alde egin behar izan zuten fraileek. Koartel bihurtu eta erdi deseginik gelditu zen. 1856-garrenean guztiz botatzea erabaki zen.

Juan Ramon Urkijo jaunak 1970-garren urteko gabonetan 1755-garrenean han bertan kantatzeko argitaraturikako gabon kanta paper bat erretratuz berrargitaratua bidali zigun adiskideei zenbait ohar erantsirik. Honela dio kanta paperak (19):

Villancicos / en basquence, que se han de cantar en el / Real, è Imperial Convento de N, P. S. Francisco de la M. N.

---

(17) *Jose Paulo Ulibarri Galindez-en "Gutunliburua" izeneko eskuzkribuaren facsimil gisako argitalpena,* Gasteizen 1975, "Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri", V-XII orr.

(18) XVI-garren mendearen bigarren zatian hasi ziren egiten eta uriola batek eraman zuen. Azkenez 1735-garren urtean berriz hasi eta amaitu zuten eta urte bi besterik ez zuen iraun. 1793-garrenean egurrezkoa egin zuten eta 1813-garrenean frantsesak berriz sartu zirenean erre egin zuten. Ikus Teófilo Guiard Larrauri, *Historia de la Noble villa de Bilbao,* III, Bilbao 1906, 433-439 orr. Geroztikakoa zen zubi kolgantea, 1874-garreneko karlisten bonbardeoan desegin zena. Ikus Miguel Unamuno, "Los caños de Bilbao en 1846", *Hermes,* 15 de julio, 1918, núm. XIX, *Obras completas,* VIII, Madrid 1966, 539-541 orr.

(19) Halako gabon kantak argitaratzeko ohitura bazegoen Espainiako hiri erdaldunetan ere. Ikus Manuel Alvar, *Villancicos diociochescos (La colección malagueña de 1734 a 1790),* Málaga 1973. Lehen urtean agertzen denak haseran dio: "Letras de los villancicos que se han de cantar en la Santa Iglesia Cathedral de Malaga, en los Maytines de la Pura, y Limpia Concepcion en este año de 1734. Puestos en musica por D. Juan Frances de Iribarren, Racionero, y Maestro de Capilla de dicha Sta. Iglesia". Alvar-ek azaltzen duenez: "puede descomponerse en dos partes: una de 1734 a 1765 en que don Juan Francés de Iribarren, racionero y maestro de capilla de la catedral malagueña, era el encargado de componer la música; otra –de 1781 a 1790– en la que las tareas recayeron sobre don Jaime Torréns, que ocupó los mismos cargos", 9 orr.

Villa de / Bilbao, en los Solemnes Maytines del Nacimiento de N. Sr. Jesu- / Christo, en este año de mil setecientos y cinquenta y cinco, puestos / en Musica por el P. Fr. Martin de Oaraveytia, Organista, y / Maestro de Capilla de dicho Convento. /

Villancico à 4. con Violines.

1. *Estrivillo.*

Nay duen ezquero Sein ederrac,
Arzaien trajean etorri,
Canta dezagun, Arzai onac,
Tonadilla ederrori.
Coros. Erdu, erdu nere lagunac,
Guacen, guacen Belenera,
Yzar ederbat dago an eta,
Utzi dezagun naguia.

1. Orain bada, canta dezagun,
Tonadilla ederrori;
Festac ere deguiozcagun,
Virginaren Semeari.
Coros. Daguigun saltu, vetor, vebil,
Ceren zaizaute Arzayac?
Arzai chiquionec emandaguizgun,
Guri ensalce andiac.

1. Aurraren vada consolatzeco,
Violinac ditugu ecarri,
Aren soñuan canta dezagun,
Tonadilla ederrori.

Coplas.

1. Criadorea agradetzicen *(sic)*,
Astoa, eta Ydia, *Criadorea, etc*
Veren Javea ezaguturic,
Dicha daucate andia. *Veren, etc.*
Vivo. Ceruco Erregue gaur jayozaicu
Portale triste batean; *Ceruco, etc.*
Humillic, eta otzac illic,
Lasto utsaren gañean. *Humillic, etc.*
Ay, ay, ay Mundua, ay Mundu Mundua,
Ongui, ongui daucazu,
Ceruco Lorea,

Ongui, ongui daucazu desamparatua.
Vnis. Criadorea agradetzicen, etc.
Vivo. Ceruco Erregue, etc.

2. Lau Arzay pobre etorridira,
Señaren alabatzera,
Señaren alabatzera, eta
Amaren honrratucera.

3. Cernai dezute Arzaionac,
Portale pobre onetan,
Noren villa zavilzate,
Gauvaren ordu onetan.
Vnis. Criadorea, etc.
Vivo. Ceruco Erregue, etc.

4. Angueruac esandigute,
Or, or goyan basoan,
Gure Mesias dagoala,
Virgina Amaren vesoan.

5. Erregueac eldudira,
Urrea, eta Mirrarequin,
Incensua ere badacarte,
Adoratzeco verequin.
Vnis. Criadorea, etc.
Vivo. Ceruco Erregue, etc.

6. Erregueen, Erreguea da,
Ezda cer milagro eguin,
Bassallagea sugetacea,
Coroac utziarenquin *(sic).*

7. Zorci egun passatu eta,
Primiciac dituzu utzi,
Guregatic padecitzea,
Laster dezu zuc icasi.

8. Zure Echera, Jesvs maytea,
Eramangaizazula,
Virgina Ama, Joseperequin,
Intercessora degula. *Amen.*
Vnis. Criadorea, etc.
Vivo. Ceruco Erregue, etc.

Fin

Argi ta garbi dago, orriaren testoan bertan agertzen baita, Bilbora begira zegoela komentua: "Real è Imperial Convento de N. P. S. Francisco de la M. N. Villa de Bilbao".

Aita Lino Akesolo-k diosku Jose Paulo Ulibarri ere bertso paper egileen artean agertzen dela hurrengo mendean eta baita Abandon bizi zen Bizenta Mogel ipuin egilea ere. 1832-garrenerarte urte oro atera omen ziren hutsuneren bat edo beste izanik gobernuaren neurriak zirela kausa (20). Jakina, hurrengo urtean fraileek betiko alde egin behar izan zuten, karlistekin nahasi baitziren.

M. B. Alzola Gerediaga-k dioenez Gernikako Artxiboan ere badaude halako paper batzuk (21).

Arantzazu-n kanta paper bi gordetzen dira, bat San Frantzisko komentukoa eta bestea Santiagokoa, hiri barruan zegoenekoa eta dagoenekoa, eta Aita Villasante-ri eskerrak kopia bana eskuratu ahal izan ditut, han egin zuten liburu erakusketa batean ikusi ondoan eskaturik. San Frantziskokoa urterik gabekoa da eta lan honen bukaeran emango dugu osorik erdarazko zati eta guzti eta baita *Gaboneco cantia vizcaitar guztientzat euscaldun emacume batec ateria 1819-garren urtian Abandoco elexatian.* Azkenengo hau behar bada Bizenta Mogel-ena izan daiteke. Berlin-en 1857-garren urtean argitaraturikako liburu batean dator (22).

Santiagokoa hona hemen:

Letras de los villancicos / en romanze, y basquenze, / que se han de cantar / en la Iglesia parroquial, y matriz / del Señor Santiago / de esta Noble Villa de Bilbao, en los solemnes / Maytines del Sagrado Nacimiento de nuestro Señor / Jesu-Christo, este año de 1794. / Puestos en Musica, por Don Pedro de Estorqui, Maestro de Capilla en / dicha Iglesia; y Opositor à Magisterios de Capilla en Santas / Iglesias de termino. / En

(20) Ikus lehen aipatu dugun Gutun liburuaren hitzaurrea, IX-X orr.

(21) "Ulibarriren idazti-lanen ganean hitz batzuk", *Euskera* XXI (1976), 177-178 orr.

(22) Von C. A. F. Mahn, Dr., *Denkmaeler der baskischen sprache. Mit einer einleitung, welche von dem studium der baskischen sprache handelt und zugleich eine beschreibung und charakteristik derselben enthaelt,* Berlin 1857, LVI eta 80 orr. ditu, 67 orr. eta hurrengoak. Edizio fototipikoa egin da 1967-garren urtean, Anthropological publications, Oosterhout-Niederlande. Baditu beste zenbait bertso ere *Euskera* aldizkarirako prestatu nahi ditudanak.

Bilbao: Por Simon de Larumbe, Impresor del M. N. / y M. L. Señorio de Vizcaya. /

Introduccion.

Duo. O! Padre amoroso,
cuyos atractivos
llevan mis potencias,
roban mis sentidos.

Estrivillo.

Escucha mi bien,
atiende amor mio,
repara la pena
del Pueblo Escogido:
y pues te suplica
humilde, rendido,
levanta tu mano,
retira el castigo,
y abate la furia
de sus enemigos.

Coplas.

Ya que en tus espaldas
cargas mis delitos;
para por mis culpas
sufrir los castigos:
El mas inhumano
blasfemo atrevido
nos hace la guerra,
y asesta sus tiros.
Desde que este azote
nos tiene afligidos
se han vuelto los gozos
en tiernos gemidos.
Los Padres, las Madres,
no menos los hijos,
el Rico, los Pobres
gimen oprimidos.
¿Hasta quando Padre
nos has despedido?
¿Mas qué es lo que hablo
mas que es lo que digo?

De tan grandes males
la causa hemos sido,
mas al fin nos pesa
de haberte ofendido.
Si el atribulado
llora sus delitos,
¿por què continuas
tan duro castigo?
Vos inexorable
jamas habeis sido
para con aquel
que està arrepentido.
Buen Dios perdonad,
echad en olvido
nuestra iniquidad,
nuestros desvarios.

Zortcicua.

1. Urte guztijetaco
Gabongo Leguia
Da soñu eder baten
Cantia imintia:
Echaco ucatuco
Sari au Jesusi
Jaijo jacun ezquero
Belenen gugaiti.
2. Arerijo andi bi
Daucaguz cer goitu
Gura bugu Seinchuba
Erreguetzat artu:
Guerraguiñac daucaguz
Gorputz ta ariman
Alan Pasiñoe char
Celan Francesetan.
3. Arerijo onen contra
Nai bogu irabaci
Vitorija andi bat
Jarraitu Jesusi:
Arquituco ditugu
Armaac Asca baten
Fedeco Farolagaz
Boguz billatuten.

4. Jesus etorri orduco
Lurra dago issilic
Guerraco Arma guztijac
Albora ichiric:
Baquezco Erreguia
Jacu icentetan
Judiaco Leoia.
Egun barrijetan.

5. Egercituben Jauna
Bildots bat eguinic
Infernuco Dragoia
Isteco goituric:
Bere Odolac dauca
Virtute andija
Guztiz deseguiteco
Guerraguin guztija.

6. Vijotz azcor ta andi
Prestuben Jaubiac,
Enzun, nortzuc benetan
Dirian Nobliac:
Euren buruben Jaube
Biarco dabe izan
Icusiric Seinchuba
Celan Cuman datzan.

7. Gure Fediac daucaz
Arma ugarijac
Eci, ta bezeetaco
Pasiño guztijac:
Alan euquico dogu
Barruban baquia
Campoti euquiarren
Urrian Guerria.

8. Noc ondo icusi ezquero
Jesus beeraturic
Naico dau erabilli
Buruba arroturic?
Daucagu Icastegui
Ederra Belenen:
Fedeco eguacaz
Guazan gu lembait-len.

9. Baña ezta aztutecua
Francesen Guerria
Galduba izan eztedin
Daucagun Fedia:
Beintzat gomutan dauca
Bilboco Urijac
Lagunduten deutsèla
Vizcaitar guztijac.

10. Bacochac eguiten dau
Emen al dabena
Jaquinic dala Guerra
Jaunac nai dabena:
Fraile, ta Abadiac
Besteecaz batera
Jagui dira pozarren
Armac artutera.

11. Señorijo, Consulau,
Ta Urija alcarturic
Aberatsac izanda
Dagoz pobreturic.
Emoten ditubela
Ondasun andijac
Gordetarren Erregue
Fede, ta Errijac.

12. Jaincuac nai dajala
Orain bedeincatu
Vizcaitarren Gogua:
Eta alan lagundu
Esturasun onetan
Ondo urteteco
Baquia zabalduric,
Jesus ametaco.

Laus Deo.

Ondo ikusten da orduko gerra giroa eta orduko elizgizonena.

Komeniko litzateke eskura daitezkeen gabon kanta paper guztiak bilduma bat eginik argitaratzea.

Sabino Arana Goiri oraindik Abando Bilbora iragan gabe zegoela jaio zen 1865-garren urtean. Jaio eta bizi izan zen

etxea San Bizente Abandoko Elizatik hurbil zegoen eta oraintsurarte iraun du. Hain zuzen ere Franko-ren garaiean desegin dute harriz harri arrastorik geldi ez zedin. Euskaraz ez zekien. Aranatarrak handikiak baitziren hori ez da harrigarria. Hargatik, izatera iritsi zen pentsatzeko moduak ikasi beharra sortu zion eta ederki menderatu zuen. Edozein modutan ere bere eragina handikien erdal joeraren salakuntza gertatzen da azpi egituran, alderdi batera utzirik zenbait kontradizio azaleko eta forma hutsezko, orduko integrismoarekin nolabait zer ikusia zutenak. Bultzatzaile bikain bezala agertzen da gure historian.

Urte bete lehenago jaio zen, ordea, Migel Unamuno Bilboko hirian, Ronda kalean, 1864-garreneko irailaren 29-an. Gaztelania aukeratu bazuen ere bere pentsamendua adierazteko literaturaren bidez, haren sustraiean euskal munduaren problematika zegoen. Sei urte zituela galdu zuen aita. Hura Mexiko-n urte asko egina zen, indianoa esaten zitzaien horietakoa. Frantsesez ere ba omen zekien. Telesforo Arantzadi Unamuno, lau urte lehenago Bergaran jaioa, lengusua zen, eta gainera ez dakit nolako osabatasuna zuen. Arantzadi-k ongi zekien euskaraz. Unamuno-k umetan ez zuen asko ikasi eta geroago saiatu zen.

"A la vez que apacentaba mi alma con todas aquellas leyendas [*Amaya o los vascos en el siglo VIII, Leyendas vasco-cántabras, Los últimos fueros,* eta abar], diosku, –forjadas artificialmente la mayoría– y todas aquellas fantasmagorías del remoto pasado de mi pueblo, estudiaba con todo ahínco el vascuence, en libros ante todo, y buscando luego toda ocasión de oírlo hablar y aun hablarlo. Y entonces empecé a componer un diccionario vasco-castellano en que me proponía agotar la materia. Y para mayor esfuerzo lo hacía etimológico. Y aún guardo la enorme suma de materiales recogido en bastantes años, a partir del último de mi bachillerato [curso 1879-1880] (23).

Dirudienez foruak galtzeak halako giroa sortu zuen eta Unamuno ere ikutu zuen:

"A poco de acabar yo mi primer año de bachillerato, el 21 de julio de 1876, siendo Cánovas del Castillo presidente del

(23) Ikus Miguel Unamuno, *Recuerdos de niñez y mocedad,* (1908), *Obras completas,* VIII, Madrid 1966, 166 orr.

Consejo de Ministros, se dictó la ley abolitoria de los Fueros, cesaron las Juntas Generales del Señorío en Guernica, se empezó a echar quintas, se estancó el tabaco, etc. Y en medio de la agitación de espíritus que a esa medida se siguió fue formándose mi espíritu. De aquí mi exaltación patriótica de entonces. Todavía conservo cuadernillos de aquél tiempo, en que en estilo lacrimoso, tratando de imitar a Ossián, lloraba la postración y decadencia de la raza, invocaba al árbol santo de Guernica —a su santidad general para los vascos, se unía para mí entonces la especial de que a su pie, en Guernica, vivía la que luego fue y es mi mujer—, evocaba las sombras augustas de Aitor, Lecobide y Jaun Zuria, y maldecía de la serpiente negra que, arrastrando sus férreos anillos y vomitando humo, horadaba nuestras montañas, trayéndonos la corrupción de allende el Ebro. Y siempre que podíamos nos íbamos al monte, aunque sólo fuese a Archanda, a execrar de aquel presente miserable, a buscar algo de la libertad de los primitivos euscaldunes que morían en la cruz maldiciendo a sus verdugos (24), y a echar la culpa a Bilbao, al pobre Bilbao, de mucho de aquello. Un cierto soplo de rouseaunianismo nos llevaba a perdernos en las frondosidades de la encañada de Iturrigorri, hoy echada a perder por el fatídico mineral. Y recuerdo una puerilidad a que la exaltación fuerista nos llevó a un amigo y a mí, puerilidad que durante años hemos tenido callada. Y fue que un día escribimos una carta anónima al rey Don Alfonso XII increpándole por haber firmado la ley de 21 de junio y amenazándole por ello. Pusimos en el sobre : "A S. M. el Rey Don Alfonso XII.—Madrid". Y al buzón la carta. Y cuando poco tiempo después llegó a Bilbao la noticia del aten-

(24) Garibai-ren testo bat dakar gogora: "Con esto las mugeres Cantabras, por ser de sobrado animo, temiendo que sus hijos auian de venir a perpetua seruidumbre, dize Strabon en el libro tercero, que los matauan, oluidando el amor entrañable, con que las madres suelen amar a sus hijos, queriendolos antes ver muertos: considerando allende desto, jamas auer reconocido sus progenitores a ningun Principe. Era tanta la fortaleza, que los Cantabros mostrauan, que segun el mesmo Autor, no solo algunos prisioneros, puestos por los Romanos en Cruz, para matarlos con mayores tormentos, cantauan con grande alegria muchos metros, estimando por felicissima la muerte por la defensa de la patria, mas aun en los de tierna edad se hallò este pundonor y terribilidad, desseando antes ver muertos a sus padres, que en poder de sus aduersarios: porque escriue, que vn muchacho viendo presos a sus padres y hermanos, matò a todos por mandado del padre, conociendo que esperauan trabajosa senectud de seruidumbre", *Los qvarenta libros del Compendio Historial...*, Barcelona 1628, Lib. VI, 176 orr. Lehenengo edizioa Amberesen egin zen 1571-garrenean.

tado de Otero u Oliva —no recuerdo de cuál y ahora no voy a ponerme a comprobarlo—, nos miramos a la cara mi amigo y yo, aterrados. En aquel muelle del Arenal, frente a Ripa, ¡cuántas y cuántas veces nos paseamos disertando de los males de Euscalerría y lamentando la cobardía presente! ¡Cuántas veces echamos planes para cuando Vizcaya fuese independiente! Por el mismo tiempo se formaba en el mismo ambiente el espíritu de Sabino Arana. Empezaba a ponerse de moda entre nosotros lo de la aldeanería y el maldecir la villa, invención de hombres corrompidos. Había quien se avergonzaba de confesar que era de Bilbao, y decía ser del pueblo de alguno de sus padres o abuelos, siempre que fuese pueblo más genuina y exclusivamente vascongado. Y, sin embargo, era la villa la que nos moldeaba el espíritu, era la villa la que nos infundía esa exaltación, era la villa la que estaba incubando el bizkaitarrismo, era Bilbao" (25).

Unamuno paguko ikastetxera joan zen, Bizkaiko Institutoa zeritzan haretan hasi baino lehen, eta ez eskola publikora. Aldea zegoen bien artean eta pagukoetara joaten zirenei besteek *farolines* esaten omen zieten. Udara Deustuko Olabeaga hauzategian iragaiten zuten franko berandurarte, eskolak hasi eta geroagorarte egonik amaren aldetikako amumaren etxe ortu eta guztikoan. Bazeuden han mahastiak eta bestelako fruta arbolak ere. Hibaiean marea gora zegoenean erreten batzuetarik ura sartzen omen zen soloetara. Han eskolako mutikoak burla egiten omen zien zeramatzaten blusa luzeakatik. Deustun garai haretan euskaraz erdaraz baino gehiago entzungo zuela bazterretan zilegi da pentsatzea eta baita amumak, denbora berean izekoa zela, bazekiela ere, Bergaran jaioa baitzen. Benita Unamuno zuen izenez eta haren aitaren arreba zenez gero deitura berdina zuen eta aita hil ondoan karrera egiten lagundu zion. Jakina, Migel Unamunoren aita bere iloba batekin ezkondu zen. Ene denboran Deustun bertako jatorrikoak izanik bizi izan diren euskaldunak ezagutu izan ditut eta Adrian Zelaia Unibertsitateko lagunak diost behin juez bezala joan behar izan zuela Enekurira eta erdaraz ez zekiten euskaldunak aurkiturik interprete batez baliatu behar izan omen zuen. Zeberio-ko baserri batean, Ariltzan, jaioa zen Unamuno-ren aitita, Jugo deitura zuena

(25) *Recuerdos de niñez y mocedad, op. cit.*, 167-168 orr.

eta Jose Antonio izena, eta garai haretan euskaraz erdaraz baino hobeto zekiela pentsatzea normala da. Aitaren aldeko aitita eta amuma Bergarakoak ziren, Meltxor Unamuno eta Josefa Iñazi Larraza. Aita ere Bergaran jaioa zen, Felis Unamuno izenekoa. Beste hiru anaie izan zituen eta denak Amerikетara joan ziren. Felis diru apur bat eginik etorri zen eta Bilbon ogia egiteko fabrika bat ipini zuen eta merkatari bezala agertzen da. Ama, Salome Jugo, Bilbon jaioa zen, "natural y vecino de ésta" dio Santu Juanetako liburuan, gure Unamuno bataiatu zutenean izkribatu zutenez. Edozein modutan ere bere haur eta mutiko denborako oroitzapenetan euskarari buruzko oharrak txitean pitean egiten ditu itzulpena emanik (26).

Unamuno-k 1886-garren urtean argitaraturikako lan batean dioenez Bilbon erdaraz seseoa egiten zen eta suntsitzen omen zihoan ordurako, "Va desapareciendo el seseo, y más de una vez he oído, al pasar por junto a los que pasean en la plaza Nueva esperando les llegue la hora del trabajo (los días de lluvia), algún soberbio *nesecita*. Hasta las calles tenemos empedradas de *loza*" (27).

Ene denboran erdaraz seseoa Bizkaiko euskaraz mintzatzen diren euskaldunei besterik ez diet entzun. Izan ere Bizkaiko euskaraz *s* eta *z* ez ditugu bereizten eta hortik dator kutsatze hori. Baina erdara menderatu izan duten neurrian ikasi dute erdarazko *s* eta *z* bereizten.

Honek adierazten digu euskarak aski indar izan zuela Bilbon erdarari eragin hori itsatsi ahal izateko eta Unamuno-k hura izkribatu zuen garaiean bazegoela jende multzo bat handikien artekoa ez izanik erdara zeharo menderatu zuena.

---

(26) Ikus *Recuerdos de niñez y mocedad, op. cit.* eta "La Biblioteca de mi padre", 419-421 orr., *Asturias gráfica*, año I, num. 2, noviembre 1919, "Historia de unas pajaritas de papel", 179-184 orr., *Bilbao*, 5, 12, 19 agosto, 1888, Migel Unamuno-ren lan osoen bilduman, VIII-garren tomoan berrargitaratuak. Baita ere Emilio Salcedo, *Vida de don Miguel*, Segunda edición corregida, Salamanca 1970.

(27) Miguel Unamuno, "El dialecto bilbaino (R. I. P.)", *Revista de Vizcaya*, noviembre 1886, *Obras completas*, IV, Madrid 1966, 145-149 orr.

Tomo honetan "La raza vasca y el vascuence (1884-1933)" titulu zabalaren azpian dator eta bertan biltzen da bere doktoratzearen tesisa ere, "Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca". Tomo hau 1968-garrenerarte ez zen atera. Baina aipaturikako tesisa ere bazuela Madrilen argitara zen 1958-garrenean —Afrodisio Aguado, S. A.—. Honela nire erratu bat zuzentzen dut, ikus *Euskera XXI* (1976), 88 orr.

Hori berbera gertatu zen Durangoko alderdi batean ere, noizkoa den fenomenoa adierazteko datorik ez badut ere esku artean.

Unamuno-k berak dio: "Yo sostengo que el dialecto bilbaino fue una espontánea y fresca eflorescencia de nuestro espíritu, que un renuevo castellano injertó en vascuence" (28).

"Qué queda de todo aquello? —dio—. Dos composiciones literarias que yo conozca, y arruinadas memorias. La una de dichas composiciones empieza: "Ené qué chimbo, mírale". La otra es la ya citada de "Ay que risas te hisimos". Esta última es deliciosa, y tengo la manía de creerla de verdadero mérito literario en su género. Es sobria, no exagerada, típica a no poder más, y en ella lenguaje, ideas y pensamiento son del más puro y neto color local. Es una verdadera joya, a mi entender" (29).

Emiliano Arriaga-k ere biltzen du *chalos* hitzean (30): "Chalos y todo nos hiso / desde el balcón una vieja". Bilboko kanta horrek ene denborararte iraun du eta nik ahozko tradizioz honela ikasi nuen: "Ene que risas hisimos / al pasar por el Sendeja / Ene que risas hisimos al pasar por el Sendeja / Chalos y todo nos hiso / desde el balcón una vieja / chalos y todo nos hiso / desde el balcón una vieja".

Kanta hori sortu zuen giroa euskalduna zen bete betean, are gehiago, euskaraz erdaraz baino hobeto zekiten, baina gertatzen dena da erdararen aukera egin zutela Unamuno-k geroago —eta Unamuno ez da bakarra— egin zuen bezalatsu. Zuzen ala oker egin zuten beste kontu bat da, baina hala egin zuten.

Ene! euskaldunok maiz erabiltzen dugu Bizkaian mira eginik, batzuetan diminutibo ta guzti: *ai enetxoa!* esango lioke ama batek seme bati gogokoa ez duen zerbait adierazi nahi dionean.

---

(28) "El dialecto bilbaino (R. I. P.)", *op. cit..*, 146 orr.

(29) "El dialecto bilbaino (R. I. P.)" *op. cit.*, 147 orr.

(30) Emiliano de Arriaga, *Lexicón bilbaíno,* segunda edición aumentada, Madrid 1960, 68 orr. Lehen edizioa 1896-garrenean argitara zen *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaíno neto* tituluaren azpian.

Orain badugu Txorierrirako beste lan bat: Mikel Zarate, *Influencias del vascuence en la lengua castellana a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierri-Gran Bilbao*, Bilbao 1976.

Qué risas hisimos delakoaren azpi egituran euskarazko *zelango barreak egin genduzan!* dago eta erdaldun jator batek ez luke sekula *hacer risas* esango *reirse* baino eta etorri ere erdal hiztegian ez dator.

El Sendeja artikulu maskulinoa duela agertzen da, femeninoa ipini beharrean. Euskaraz jenerozko moziorik ez dagoenez gero euskaldun batentzat berdin da.

Chalos y todo nos hiso desde el balcón una vieja delakoaren azpi egituran *txalo ta guzti egin euskun balkoitik atso batek* dago. Erdaldun garbiak ez lukete sekula *hacer chalos* esango *aplaudir* baino, eta euskarazko *txalo*, balio adierazkorrez sorturikako hitza, haserako palatalizazioak salatzen duenez, erdaraz 'aplauso' da.

Giro hori nabarmen gelditzen da Emiliano Arriaga-ren *Lexicón bilbaíno* delakoan. Bertan datozen hitzetarik bat edo beste baino ez ditut aipatuko hemen, eredu bezala:

"*Güertosanto* (c.) Camposanto; cementerio". Arriaga-k erdarazkotzat ematen baldin badu ere gogoan hartu behar da Bizkaiko zenbait lekutan euskaraz *ortu santua* esaten dugula kanposantuaren ordez, eta Bilbokotzat ematen den hitz hori euskaratikakoa besterik ez da, nahiz eta euskaraz erdaratikako hitz birekin osatua izan.

"*Erri* (del e. *erri*) En euskera es: país, tierra. // Aquí se toma en sentido de aldeano, campesino". Arriaga-k euskaraz ematen dion zentzua kontuan hartzekoa da, zentzu zaharra hori baita (31).

"*Chalo-pinchalo* (del e. txalo con el elemento onom. *pin.*) Aplauso acompasado y repetido. // *Haser chalo-pinchalo:* aplaudir a compás y con insistencia. // Las *añas* solían y aún suelen cantar a los niños para que aprendan la gracia de chocar las manecitas:

---

(31) Zentzu horretan Garibai-k erdarara itzultzen duen testo bat eman nuen "Euskal Herria eta euskara" lanean, *Lur eta gizon, Euskal Herria*, Oñati 1974, 240, 241 orr. Aita Moret ere bide beretik zebilen: "El Obispo de Salamanca Don Sebastian, cercano à aquellos tiempos, afirma, que se hallaba, que las tierras de Pamplona, de Deio, y la Berrueza, siempre se posseyeron, y retubieron por sus naturales". "La misma fama se ha conservado de la region llamada Deio, montosa tambien, y mas dilatada en lo antiguo, que oy estrechada, como en la amplitud de lo que comprehendia, tambien en la contraccion de la voz Vasconica, llaman Deierri, como si dixeran Deio-erri, que suena tierra de Deio", P. M. Ioseph Moret, *Annales del Reyno de Navarra,* Pamplona 1684, Lib. IV, kap. I, 130 orr.

Qué risas hisimos delakoaren azpi egituran euskarazko *zelango barreak egin genduzan!* dago eta erdaldun jator batek ez luke sekula *hacer risas* esango *reirse* baino eta etorri ere erdal hiztegian ez dator.

El Sendeja artikulu maskulinoa duela agertzen da, femeninoa ipini beharrean. Euskaraz jenerozko moziorik ez dagoenez gero euskaldun batentzat berdin da.

Chalos y todo nos hiso desde el balcón una vieja delakoaren azpi egituran *txalo ta guzti egin euskun balkoitik atso batek* dago. Erdaldun garbiak ez lukete sekula *hacer chalos* esango *aplaudir* baino, eta euskarazko *txalo*, balio adierazkorrez sorturikako hitza, haserako palatalizazioak salatzen duenez, erdaraz 'aplauso' da.

Giro hori nabarmen gelditzen da Emiliano Arriaga-ren *Lexicón bilbaíno* delakoan. Bertan datozen hitzetarik bat edo beste baino ez ditut aipatuko hemen, eredu bezala:

"*Güertosanto* (c.) Camposanto; cementerio". Arriaga-k erdarazkotzat ematen baldin badu ere gogoan hartu behar da Bizkaiko zenbait lekutan euskaraz *ortu santua* esaten dugula kanposantuaren ordez, eta Bilbokotzat ematen den hitz hori euskaratikakoa besterik ez da, nahiz eta euskaraz erdaratikako hitz birekin osatua izan.

"*Erri* (del e. *erri*) En euskera es: país, tierra. // Aquí se toma en sentido de aldeano, campesino". Arriaga-k euskaraz ematen dion zentzua kontuan hartzekoa da, zentzu zaharra hori baita (31).

"*Chalo-pinchalo* (del e. txalo con el elemento onom. *pin.*) Aplauso acompasado y repetido. // *Haser chalo-pinchalo:* aplaudir a compás y con insistencia. // Las *añas* solían y aún suelen cantar a los niños para que aprendan la gracia de chocar las manecitas:

---

(31) Zentzu horretan Garibai-k erdarara itzultzen duen testo bat eman nuen "Euskal Herria eta euskara" lanean, *Lur eta gizon, Euskal Herria*, Oñati 1974, 240, 241 orr. Aita Moret ere bide beretik zebilen: "El Obispo de Salamanca Don Sebastian, cercano à aquellos tiempos, afirma, que se hallaba, que las tierras de Pamplona, de Deio, y la Berrueza, siempre se posseyeron, y retubieron por sus naturales". "La misma fama se ha conservado de la region llamada Deio, montosa tambien, y mas dilatada en lo antiguo, que oy estrechada, como en la amplitud de lo que comprehendia, tambien en la contraccion de la voz Vasconica, llaman Deierri, como si dixeran Deio-erri, que suena tierra de Deio", P. M. Ioseph Moret, *Annales del Reyno de Navarra*, Pamplona 1684, Lib. IV, kap. I, 130 orr.

Txalo ¡pin! txalo,
Txalo ta txalo:
Txoritxuen mispillen
Ganien dago.
Badago, bego:
Eleizarako
Zapatatxu barrien
Begire dago.

Aún resuena en mis oídos, que desde entonces han percibido tantas y tantas majaderías, aquel sencillo canto cuya traducción es: *Palmotea, palmotea, palmotea y más palmotea: el pajarillo está encima del níspero. Si está, que se esté, y siga mirando los zapatitos nuevos* (que tienes) *para* (ir a) *la iglesia''*. Kanta hau ezaguna da Lekeition eta inguruetan ere Azkue-k bildua du.

''*Fraiscu* (del e. *Praisku.*) Se llama así familiarmente a los que tienen por nombre *Francisco.* // También se aplica a los máscaras que se disfrazan de aldeanos''.

''*Pachico* (e.) Cariñosa y familiarmente se les designa así a los *Francisco''*. Eta beste zenbait pertsona izen euskaldunen artean korritzen zuten erara.

''*Armosar* (c.) Es una metátesis del castellano *Almorzar''*, Bizkaiko euskaraz *armosa(u)* eta *armosua* esaten da 'gosaldu' eta 'gosaria' adierazteko, erdaratik badator ere. Baina Bilboko forma horrek euskararekin du zer ikusi, azken finean iturria erdaran izanarren. Eta abar.

Unamuno baino urte bete geroago, 1876-1877-garreneko ikasturtean sartu zen Bilbon zegoen Bizkaiko Institutoan R. M. Azkue lekeitiarra batxilleratoa egitera (32). Urte berean jaio ziren biak. Azkue-k gero bizitza osoa Bilbori loturik egingo zuen eta handik Euskal Herriari begira beti, Salamanca-n apezgoari bereziki zegozkion ikasketak eta teologian doktoratzea egin ondoan. Unamuno-k, ordea, Madrilerako bidea hartu zuen bere doktoratzea euskarari zegokion gai batez egin zuen arte.

1887-garren urteko azaroaren 17-an Bizkaiko Diputa-

(32) M. Grande, ''Estudios de bachillerato realizados por Resurrección M.ª de Azkue'', *Euskera* VI (1961), 360-361 orr.

zioak euskal katedra bat betetzeko deia egin zuen (33) eta hor agertu ziren Azkue, Arana Goiri, Unamuno eta beste hiru, Luis Iza, Pedro Alberdi eta Eustakio Madina, irabazi nahirik. Azkue-ri eman zitzaion eta bizitza osoa euskal lanei eskeiniko zien erraldoi baten ekintza frutu handikoa eginik. Bere ondora ekarriko zituen geroago Kirikiño eta Maidagan eta oraindik geroago Orixe. Nazario Oleaga bilbotarra ere giro horretan sortuko zen.

Azkue-k *Euskalzale* aldizkaria abiaerazi zuen eta geroago *Ibaizabal* ere bai. Lehenengoaren bigarren urtean, 1898-

---

(33) Ikus Alfonso Irigoyen, "Del epistolario de Azkue", *Euskera* II (1957), 265-266 orr.

Unamuno-k garaitsu horretan lan labur bat egin zuen euskaraz eta *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu, XIX (1888), 299-300 orr.

Honela dio:

"¡AGUR, ARBOLA BEDEINKATUBE!

"Neguban igartuten de (sic) arbolie; orrijek jausten dire bere oñetara eta anche orbelak iñdarrik emoten deutsaz urtengo dirianak udabarrian orri barriai (sic).

"Gorputzarako (sic) irudije legez, bardiñ de izpirituarako (sic) berbakuntza. Arrapau euskubezan legezarrak, gure bizije ziriala, bañon gorde daigun gure euskaldun arimie eta onetati urtengo jakuz barriro foruak, bai, urtengo dira justiziaren eguzkije argituko danian, betiko udabarriaren egunian.

"Euskaldunak euskaraz eztakijenak ikasi biar dabe, arren, biotz indartsuarentzako bere errije maitauten dabena gauza erraza da; badakijenak ez aztuteko, euskerie korapillube estuten dituzana illobak aitonai eta gurasoen jakintasuneko ontzije dalako.

"Euskaraz herbeiten eben gure aitonen aitonak, gizon ayek etorri ziran, eztakigu nundik, narruakaz jantzijek, arrizko azkoriakaz armatubek, pakian lur gogor onetan laneiteko. Ayek baño gero etorri ziran iberotarrak, zeltak, erromarrak eta arabiarrak, ekarri eben bakochak bere berbakuntza, bañon zapaldu (sic) zirian Euskalerriaren kontra. Euskarazko soñu gozoak entzun zirian Terranova-ko errijetan Colonen jayotza baño len.

"¡Agur eiten zaitut, arbola zarra, anaijen odolez eta amen negarrez erregatube, bañon Jaungoikoaren eskubagaitik bedeinkatube, arech maitea, ondatuten dituzuzana zure sustraijak lur onetan, gizon prestuben biotzakaz oratube, gorde gaizuz danok zure kerizpian!

"¡Agur eiten zaitut, zuri pe (sic) bai, Gernika, erri ederrenena (sic), euskaldun danentzako erri santube, zugan arbola santube jarririk dagolako: euskaldunen artian maitatube baliñ bazara, ayek baño nik maitauten zaitut geijao, zergatik eugan zorionezko amesetiek baño eztitut ikusi geijao, eztije baño egun gozuague pasa dot, eta zergaitik emenche nere biotzaren biotzeko abijie dagol!

"¡Agur eiten zaitubet, zuei pe (sic) bai, neure anaija laztanak! Denbora datorrena obie izango da; negu illunaren ondoren udabarri agertu oi dabe!

"¡Oraiñ arte esan deutsube ¡aurrera!; bañan gure arbolie bere buruba gure burnizko mendijek egin zituzan Jaungoikoaren zerura jasoten dabena erakusten deusku zerube esanda legez, gora, beti gora!

"Euskalerria amen asi, Zeruan akabauko.

"Miguel Unamuno-koak".

garrenean "Euskerea Bilbon" titulua duen artikulu bat dator firmarik gabe. Agian Azkue-ren eskua ez zen lan horretarik urrun ibili. Egungo gaiari ondo baitatorkio hona hemen zati bat:

"Aurtengo abenduan asita, domekan domekan euskerazko berbaldiak entzungo dira Bilboko Eliza andienean, Santiago-Elizan, zazpi ta erdietako Meza bitartean.

"Aspaldiko urte onetan eukan bat edo batek uste au. Baionan Euskalerria iñoiz izan ezarren, urtero Garizuman euskeraz berba egiten da bertako Eliza baten: katedralean bertan auza. Eta Bilbon, beti Euskalerria izanda, orain berreun urte euskeraz edo latiñez gauza guztiak Elizetan adierazoten zireala, ainbeste euskaldun errialde guztietakoak berton bizi izanik ¿euskerarik egiñ ez?

"Ta ezpeie gure irakurleak uste izan, erabagi au artu dala euskal usaiña Bilbok euki daian, ez. Onetarako bere ezta txarto etorriko. Baiña, batez bere, euskeraz zerurako bidea erakustea erabagi bada, erderaz ulertu edo aditu ezin daben askok bide ori ezautu daien izan da.

"Iru edo lau elizgizonek leporatu dabe pozarren arazo arduratsu au; ta zeruko laguntasuna bitarteko dabela, urtean urtean udagoienetik asita udararteko domeketan lan eder oni ekingo dautse.

"Gauza arrigarria izango litzake Bilbo erdaldundua euskerazkotu nai dan bitartean, Euskalerriko uri asko, oraindiño zorionean euskaldunak direanak, erdaldundu gurarik bizi izatea. Erretorika iantzigarria aldendu bei ta guztiak erraz aditu al izan daiguen, billoiztu daigun geure gogamena. Gauza arrigarria izango litzakeala esan nai dogu, Bilbo lango erri baten, lautarik batek euskeraz dakien erri onetan euskerea Elizaratu-orduan, Tolosa ta Bermeo ta Durango ta Bergara ta Lekeitio ta Gernika ta Azpeiti ta Markiñan da beste eun erritan, euskerea Eliza-zokondoetan makur makurrik egotea, iai andienetan erderearentzat irakastegi edo pulpitoa nai-ta-nai ez itxi bear dabela.

"Durangon oraiñ urte bi bertako iai-egunik andienean erderaz, *Astarloa-ren aurkez aurke*, Eliz-iarduna egin zan. Tolosan urtero egiten dira erderaz Andra Mariaren Sorrera Garbiaren izeneko bederatziurrena ta beren atsakabe edo doloreetakoa ta beste iardun edo berbaldi asko. Gernikan

oraintsu irudi edo imajiña bi lenengoz gurtu edo adorau bear zirean egunerako, gauza gomutagarriak egin gura zirean; da bene benetako gomutagarria egin dabe, Salamancatar elizgizon bat adierazo edo predikatera ekarriaz.

"Beste onen antzeko gertari asko azalduko gendukez, zeri balego ¿baiña zetarako? Eliza geienetan bizi da erderea, gazte-antzera burua zut dabela, ta euskera gaisoa, zaar-gizan (sic) konkorturik eta makurtuta" (34).

Harrezkero Bilbon, orainarte aski izan ez bada ere, euskararen aldeko joera bultzatu izan da eta hor dira gerra aurrean aranistak sorturikako ekintzak, *Euskaltzale bazkuna, Euzkadi* egunkaria eta errebistaren segida, *Euzkerea, Eguna* egunoroko euskalduna gerra denboran, Hauzo eskolak, *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkari euskaldunak, Euskaltzaindia eta Azkue eta abar. Bertan jaiorikako idazleak ere badira, Nazario Oleaga lehen aipaturikakoaz gainera, Mikel Arruza 1890-garrenean jaioa, Gabriel Aresti, Xabier Gereño, Josu Arenaza, Xabier Kintana, Jose Antonio Retolaza, Karmele Rotaetxe eta abar eta abar, gureganik hurbil dagoen denborakoak baino ez aipatzeagatik. Juan Anjel Etxebarria eta Andolin Eguzkitza ez ditut sartzen Santurtzikoak direlako. F. Krutwig Getxon jaioa bada ere Bilbon bizi izan zen ihes egin behar izan zuen arte eta oso osoan Bilbori loturik zegoen.

Bilbon, ordea, denboraren buruan, euskaldunak gutxiengoa nabarmenean bizi gara eta hainbat urtetan erdaldundu baldin bada beste epe berdintsu bat beharko dugu berriz euskaldun gerta dadin.

Hain zuzen ere goizeon egunkaria zabaldu dugunean azkenez Euskal Unibertsitatearen distritoa Madrilen hontzat hartu dutela jakin dugu, zorigaiztoz Nafarroa barruan sartu ez badute ere, gure gogoz kontra. Hori ere egunen batean, albait lasterren, sartzea lortu behar dugu. Edozein modutan ere euskara historian zehar prestijioezagatik baztertuz joan baldin bada, orain prestijioa goitik eman behar diogu, Euskal Unibertsitatetik, indartzearen urratsak eman ditzan komunikabide sozialak eskuan ditugula. Ea apurka apurka oraingo Bilboko masa hau nolabait euskalduntzearen eta alfabetatzearen bidean jartzen dugun.

Esan dut.

(34) *Euskalzale*, 1898, urriaren 27-an.

GEHIGARRIA

Villancicos / que se han de cantar / en la solemne misa del sagrado nacimiento / de Nuestro Señor, y Redentor / Jesu-Christo, / en el Real e Imperial convento / de nuestro Padre San Francisco. / Puestos en mùsica por el P. Fr. Antonio de Zabala, Vicario / de Coro de dicho Convento.

VILLANCICO PRIMERO

Recitado.

Si escuché gloria à Dios, y paz al hombre,
no la guerra cruel, Señor, me asombre,
ni las armas de mí sean temidas,
que estas voces celestes, esparcidas
por la vaga region del ayre puro,
me aseguran que estoy de ellas seguro:
pues estas voces dicen, que ha nacido
en Belen el Mesias prometido,
que entre Dios, y entre el hombre (pues conviene)
el tratado de paz á firmar viene;
y pues viene á dar paz á nuestra tierra,
no hay, hombres que temer armas, ni guerra.

Area (sic).

Si el hombre primero,
ingrato, y osado,
por un vil pecado
entre Dios, y el hombre,
la guerra nos dá.
Oy baxa del Cielo,
humano, y glorioso,
un Niño piadoso,
que con sangre propia
la paz firmará.

VILLANCICO SEGUNDO

Solo. A la Pastorcilla,
que apacienta y guarda
el mejor cordero,
que no tiene mancha.

Coros. Cantemos con gracia
dulces y festivas
suaves consonancias.
Sol. Y en acordes, unidas cadencias,
y en músicas gratas.
Coros. Cantemos con gracia
á la Partorcilla (sic),
que apacienta y guarda
el mejor cordero,
que no tiene mancha.

Coplas.

1. Quando ver se dexa
la Pastora amada,
la luz amanece,
el dia se aclara.
Al ver su hermosura,
los Astros se pasman,
y estudia explendores
el sol de su cara.

2. Quando sale al campo,
de su amor llevada,
el prado florece,
se alegran las plantas.
Y quando le pisa,
ayrosa, y gallarda,
de su pie de nieve
la nieve se agravia.

3. Divina Pastora
el Cielo la llama,
y la tierra toda
por suya la aclama.
Porque aunque seamos
obejas herradas
al redil iremos
si ésta nos aguarda.

4. Pongamonos todos
baxo de la guarda
de esta Pastorcita
bella, y agraciada:
Y estaremos libres

de dar en las garras
del Lobo infernal,
que huye de sus plantas.
Porque esta Pastora,
Divina Zagala,
es quien su cabeza,
con su pie quebranta.

VILLANCICO TERCERO

De los campos de Belen
los Zagales, y Zagalas
en la noche de este dia
se unen para festejarla:
Un bayle tienen dispuesto,
que al compás de una tonada,
celebrando su venida,
al Niño le haga la salva.

Estrivillo.

Todos al bayle
gozosos salgan,
pues que Dios mismo
nos da la traza,
quando del Seno
del Padre baxa
el Verbo haciendo
tanta mudanza.

Seguidilllas.

Aquel bien que á los hombres
siglos tardaba,
en un Avemaria
se ve que encarna.
Al dulce dueño de mi vida,
vaya de tonadilla vaya,
y cantando, y baylando
se le haga salva.

Coplas.

1. Quando el Niño precioso
viene á las pajas,

con el hombre, en el bayle
fino se enlaza:
Al dulce Dueño, etc.

2. Sea Adan el primero,
que á baylar salga,
pues por su ligereza
todos oy baylan:
Al dulce Dueño, etc.

3. El bautista este bayle
siga con gracia,
pues por otro la gloria
se le afianza:
Al dulce Dueño, etc.

4. Entren al bayle finos
los tres Monarcas,
pues de la Epiphania
saben la danza:
Al dulce Dueño, etc.

5. Quando Juan á este Niño
baylando aguarda,
la *Magnificat* fina,
Maria canta:
Al dulce Dueño, etc.

6. Los Profetas, logrando
lo que esperaban,
desde el seno á la gloria
baylando saltan:
Al dulce Dueño, etc.

7. Con los finos Zagales
los tres de Arabia,
en Belen este dia
llevan la gala:
Al dulce Dueño, etc.

8. No permitan que Herodes
entre en la danza,
porque en viendo inocentes,
se descompasa:
Al dulce Dueño, etc.

VILLANCICO CUARTO

Introduccion:

á 4. Un Poeta que de comedias
solo titulos á visto,
se á empeñado en que con ellos
á de hacer un villancico.

Estrivillo.

1. Comedia Zagales,
á 4. Comedia, queridos,
que fino consagro
al recien nacido
del teatro del mundo
Autor mas Divino.
Coro. Que titùlos tienes
para ser oido?
1. Los de unas comedias,
que tienen ya un siglo;
pues se, que el Infante
gusta de lo antiguo,
quando une á lo Eterno
lo nuevo en si mismo.
Coro. Pus (sic) vamos al caso.
1. Pues vamos conmigo.
Coro. Mas vaya con gracia.
1. Esa es la que pido;
que mas vale cayga
en gracia del Niño,
que no ser gracioso,
y mal divertido.
Coro. Pues vamos al caso.
1. Pues vamos conmigo.
Coro. Mas vaya con gracia.
1. Esa es la que pido.

Coplas.

Solo. En la *creacion del mundo*
(que estaba todo tranquilo)
La primera culpa del hombre
todo el sosiego deshizo,
pues no supo ni un instante

Ser prudente, y ser sufrido.
Coro. Pues vamos al caso.
1. Pues vamos conmigo.
Coro. Mas vaya con gracia.
[1]. Esa es la que pido.
[2]. *Los amantes de Teruel*
[e]ran Adan, y Eva finos,
[pero] *el Monstruo de los jardines*
(sierpe ttaidora (sic) les hizo
[*S*]*aber del bien y del mal*
[tr]astornandoles el juicio.
[*Co*]*ro* Pues vamos al caso.
[1.] Pues vamos conmigo. Etc.
[3.] Esto fue que viendo al hombre.
[qu]e era *El sabio en su retiro*
[*E*]*l Diablo Predicador*
[so]pló á Eva en el oido,
[y] con su platica astuta
[a] los dos ha perdido.
[*Co*]*ro.* Pues vamos al caso.
[1.] Pues vamos conmigo. Etc.
[4.] Desde entonce (sic) (mal andamos)
[*N*]*o hay Amigo, para Amigo*
[pu]es todo es *trampa adelante*
[de] los hombres el designio
[*Qu*]*ien engaña mas á quien*
[es]o representa el siglo.
[*Cor*]*o.* Pues vamos al caso.
[1.] Pues vamos conmigo. Etc.
[5.] Pero para remediarlo
naces tu, Sagrado Niño,
El mayor Rey de los Reyes,
El Nazareno Divino.
Aunque Herodes quiere seas
El principe perseguido.
Coro. Pues vamos al caso.
1. Pues vamos conmigo. Etc.
6. *A un tiempo Rey, y Vasallo,*
te miramos si advertimos,
que te vistes nuestro traje,
disfrazando lo Divino.

Las Cadenas del Demonio
tu venida las deshizo.
Coro. Pues vamos al caso.
1. Pues vamos conmigo. Etc.
7. *Pues mejor está, que estaba*
con tal Redentor el siglo,
Los hijos de la fortuna
somos ya de Adan los hijos:
Obrar bien, que Dios es Dios
solo resta Niño mio.
Coro. Pues vamos al caso.
1. Pues vamos conmigo.
Coro. Mas vaya con gracia.
1. Esa es la que pido.

VILLANCICO QUINTO

Videtar loi bat egarriz ilic,
dator erreric Belenera,
Iturrirembat ete daguan
errichu atan jaquitera:
amatetaco bere egarrija,
garbituteco erropia.

Estrivillo.

Oles,
Nor dá?
Bai da:
Cer gurá?

Esan eguizu ete daguan
erri onetan Iturriric,
bada egarrijac itoric nauca,
loyagaz nago erreric:
Uri onetan, heche zar baten,
bart agertu da iturri bat,
noren ur gozo edaten bozu
eztozu euquico egarriric:
ur au izanic garbitasuna,
quenduco deutzuz orbanac.

Guazan, guazan, erdu gustijoc
osasuneco Iturrira,
ase gaitezan Ceruco urez,

izan eztaigun egarriric:
garbitu daigun geure vijotza
corront ugari Cerucuan.
Guazan, guazan, guazan gustijoc
ez bedi iñor alper izan.

Zorcico.

Iturri bat eguan
Atzeguin lecuban,
Etzan besteric biar
Munduban orduban,
Urtenic lau lecutic,
Ibai zabaletan,
Lurra bustiten evan
Edocein lecutan.

Sugue guzurti batec
Asmu deunguiagaz,
Galdu cituzan urac
Veneno minagaz:
Loituric Iturrijac,
Ausiric cañuba,
Erreric gueratu zan
Egarriz munduba.

Jaungoico Cerucuen
Ontasun andijac
Emon dituz luurrian
Iturri barrijac:
Iturri onen ura
Izanic gozua,
Gozoz aseco deuscu
Gustijen gogua.

Cañuba izango da
Virgina Marija
Zabal, sendo, ederra
Mirariz garbija:
Pozic arturic ura
Ceruco mendijan
Ugari emongo deuscu
Belengo Urijan.

Sarturic Iturrija
Ibaijen erditic,

Garbi etorrico da
Ur loijen artetic.
Cañubac emon arren
Jesus ur santuba,
Beti gueratuco da
Gustiz zarratuba.

Cañubac emongo dau
Ugari estija,
Esniac quenduco dau
Gure egarrija:
Egarri zarianoc
Erdue Iturrira,
Loituric zagozanoc
Ur gustiz garbira.

Cañuba izan arren
Costu andicua,
Ur au emonten (sic) jacu
Duaric naicua:
Bost lecutan daucazu
Aguirijan ura,
Gustijoc artuteco
Bacochac nun gura.

Lenago izan bada
Errijau liorra,
Ugari dauco orain
Ur osasuncorra:
Betoz gueixso dirianac
Ur au edatera
Osasun beticua
Bertan artutera.

Laus Deo.

GABONECO CANTIA VIZCAITAR GUZTIENTZAT, EUSCALDUN EMACUME BATEC ATERIA 1819.GARREN URTIAN ABANDOCO ELEXATIAN.

Sarreria

Vizcaitar sendo
viotz andicuac,
iños macurtu ezdiran

leial, ta senduac!
Izan zara bai beti
garbi, ta cintzuac;
ez zaitube mempetu;
fede bagacuac.

ZORCICUA.

1. Urte guztietaco
betico *Lelua*,
da atera biarra
Gabon Zortzicua.
Aimbeste cantau dogu
juan dan urtetan,
ce, ez daquit cer esan
gaberdi onetan.
Pozgarria. Arin, arin Vizcaitarrac,
guazan guztioc Belena:
An jaio da gueure jauna
Angueruben Erreguia
baita bere Guizonena,
gure catia guztiac
urratzera datorrena.

2. Oraindiño bere nic
gueratu nai ez dot,
Cerchubait asmau baga
gaur baldin albadot.
Vizcajac emongo deust
bai materijala;
izan dalaco beti
sendo, ta leijala.
Arin, arin, etc.

3. Augusto Erromaco
Emperadoriac
nai cituban mempetu
Vizcaico gentiac:
baña euren indarrac
ondo ezaguturic
igues eraguin eutsén
Vizcaico lurretic.

4. Alperric gura eban
Anibal andijac,

ecer ezetan euqui
Vizcaico mendijac:
Beste Gaztelu baga
gueure basuetan
coldarturic lotu zan
ta ondo benetan.

5. Bere gente arrotza
noc daique sinistu,
euscaldunac ebeéla
aimbeste lotsatu?
Izanic escubete
Vizcaico gentia
bildurrez bete eben
Erroma guztia.

6. Cergaitic derichazu
aimbeste neque lan
gure erri onetan
orduban artu zan?
Gordetearren sintzoro
Jesusen leguia,
gure Foru garbijac,
eta eusqueria.

7. Erroma izugarri
Fede bagacuac
nai euscuzan ecarri
Jangoico falsuac.
Ezarri buztarrija
gueure idunetan
sartuteco Vizcaija
Legue barrijetan.

8. Gure Aasaba onac
au ezaguturic,
iños macurtu ez eben
iñori bururic.
Alcar ondo arturic
dinue, lenago
il senar ta emazte
azpiratu baño.

9. Adanegandic ona
cinuen guc dogu

Jaungoico bat bacarra
beti ezagutu.
Ez dogu bada orain
bezteric (sic) autuco,
bera gaitic vizitza
guc dogu emongo.

10. Esan descube (sic) sarri
Igarla Santubac
bete biar dabeéla
promes, ta aguindubac.
Guc icharoten dogu
Mesias justuba,
beti eguingo dogu
bere aguinduba.

11. Icharopen onegaz
Gure Gurasuac,
igaroten cituben
guiza-aldi osuac:
neque gogorren beian
baña sendo beti
viar bazan vicitza
emon Jesus gaitic.

12. Cesar Agustoc eban
ondo ezagutu
Vizcaitarren asmua
eta eban autu,
baquia esquintia
bazter chiqui oni
beragaz izateco
adisquide beti.

13. Baquia zabaldu zan
bazter guztietan,
eta jaijo zan Jesus
laster era atan:
Belengo escapian
abereen artian.
Abenduco illaren
ogueta bostian.

14. Ce poza Vizcaitarrac
aguertu zanian

Izar argui eder au
illumpe artian.
Ez ciran azquenengo
Belena elduten
Seinchubaren aurrian
dira auspaztuten.

15. Derichat naguala
ni orain entzuten
Vizcaitarrac orduban
cer ebén esaten.
Jauna esango eben
ara emen gatoz gu
gueure Jaun, ta jaubia
nai dogu ezagutu.

16. Emen gaucazuz bada
Vizcaitar leijalac
izan arren zu baga
ezer ez, ta argalac;
zure laguntasunaz
goitu ditubenac
gente errutsu, azcor,
ta itzalsubenac.

17. Izan zaitez zu orain
gure aguintari,
ez dogu obeiduco
iñoz guc besteri.
Zara zu gure Jauna,
ta jaube bacarra,
ez gara macurtuco
zu gueugaz bazara.

18. Nun dogu Vizcaitarrac
orduco fedia?
Nun gueure garbitasun
eta sinistia?
Orain argaldu dira
alaco vijotzac,
guizonac emeturic
dirudije motzac.

19. Lotsatu biar gueunque
gomutaz bacarric

ez daguala orain
alaco guizonic.
Viztu gure fedia
vijotzac sendotu
ta gauza guztietan
Jaincua billatu.

20. Baña ondo bestera
da orain jazoten
Jai santu andi onec
dira igaroten,
Taberna zocuetan
jocuan sarturic,
eta duaz echera
ondo moscorturic.

21. Echian eldu eta
an bere ez baqueric,
emazte ta umiac
iguesi echetic.
Oraingo Gabonetan
au da icusten dana
Onetara eldu da
gure itsumena.

22. Vizcaico ezaugarrija
len zan *Lamburuba* (sic)
orain esaten jaco
Curutze Santuba.
Izurten zan odola
au ez galtziarren
orain salduten dabe
sarri trago baten.

23. Gure vici moduba
balebe icusico
Judegu, ta Heregiac,
cer leuque esango?
Dira, esango leuque,
Jesusen Semiac,
ala Gentiltzar gueisto
ta fede baguiac.

24. Caridadia dago
guztiz otzituric:

Ondamuba ugari
iñun ez baqueric.
Jesusen Escolia
ondo jacu aztu
bideric nasajena
nai dogu jarraitu.

25. Gure Asaba zarrac
viztu al baleitez,
semetzat ezagutu
naico ez guinduquez.
Lotsaz ez leuque naico
autu gu umetzat
ez badoguz jarraitzen
euren lengo oñatzac.

26. Ya bada Euscaldunac
esnatu gaitian,
gabizan beti zuzen
ta sendo Fedian.
Gueure vizi moduba
zuzendu bagaric
ez dogu icusico
iñoz gauza onic.

27. Alan eguin ezquero
Josec, ta Marijac,
izanic Jesusentzat
bitarteco andijac;
jarechico deuscubez
mesede ugarijac;
pozez beteco dira
Vizcaico errijac.

28. Gure Erregue onac
Ta emazte cintzuac
laztanduco ditube
Vizcaico auzuac.
Eurac izango dira
gueure Gurasuac
ta zainduco descubez (sic)
osoro Forubac.

AITA PIERRE LHANDEREN MENDEHURRENA

AITA PIERRE LHANDE-REN MENDEHURRENA 1877-1977

Zalgize-n (Zuberoa), 1977 - VII - 10

Euskaltzainburuaren agurra

Zalgizeko jaun mera

Jaun erretore

Euskaltzaindiko jaun

eta Pierre Lhande aitaren gorazarre hunetara etorri zareten guztioi:

Agur bero bat eta egun on digula Jainkoak!

Aita Lhanderen oroitzapenak biltzen gaitu hemen.

Atzoko egunez, hain zuzen, bete ziren ehun urte hura sortu zela. Mende-muga hori gogoratu nahiz, ospaketa hau muntatu du Zalgizeko herriak Euskaltzaindiarekin batean.

Pierre Lhande ez zen hemen sortua, Baionan baizik. Baina hemen zituen bere sustraiak. Amañik bazuen jauregi bat Zalgizen, eta Lhande bere haurtzaroan usu etorri ohi zen hunera. Eta hemen, hemengo haurrekin jostatuz eta bere amañiren laguntzaz, Zuberoako euskara ikasi zuen. Bere euskal hiztegi ederraren aitzinaldean hitz hauk jarriko ditu gero: "Graxi Lhande, ene amañi zenaren oharmentxetan, erakatsi zeitadalakoz haurrian Jinkuaren othoizten üskaraz".

Guillaume Eppherre jaunak, berriz, Lhanderen oroitzapenez egin zuen mintzaldi gozoan hara zer esaten digun: "Aita Lhande eta Ziberoua, bat dirade goure gogo-bihotzetan. Eta haatik, ountsa kasu egin eta, ikhousten dugu Aita Lhande-en bizitzia igan dela noun-nahi salbu Ziberouan. Bena Ziberouan zutian errouak barna sarthurik, Ziberouan zian bethi bihotza, Ziberouan bere indar-hargia, Ziberouan ere egin du bere phausia".

Ederki esana. Izan ere non ez da bizi izan Aita Lhande? Nongo bazterrak ez ditu ikuskatu? Zer lan harrigarriak ez ditu egin, edo eragin? Zenbat liburu, liburuxka, artikulu eta abar ez ditu izkribatu, bai euskaraz, bai frantsesez, espainolez eta abar? Eta euskara ere, ez bakarrik Zuberoakoa, baita beste euskara muetak ere meneratu eta erabili izan ditu, hala-nola Gipuzkoakoa.

Bere bizitzean gainti Aita Lhande anitz erresuma eta nazionetan egona da: Frantzian, Espainian, Belgikan, Angleterran, Holandan, Madagaskar-en, India-n, Hegoaldeko Ameriketan...

Haren liburu eta iskribu mordoa bana-banaka aipatzen, haren prediku eta apaiz lan izigarriak xeheki kontatzen hasiko banitz, ez genuke bilkura hau bihar artio finituko.

Baina 57 urterekin eriak joa gelditzen da. Harrezgero ezindua egonen da. Beraz, hogei eta gehiago urtez eritasun luze eta astuna jasan du, etsenploa guri emanez lanean bezala baita sofrikarioan ere.

Ikusten duzuenez, anitz saiets eta alderdi ditu Aita Lhanderen bizitzeak, zein baino zein ederragoak eta guretzat irakaspenez beteak. Eni ez dagokit horiek guztiak barnatzea. Gero entzungo ditugu bi mintzaldi. Euskal Hiztegia egiten Lhanderen lankideetako bat Lafitte jauna izan zen. Eta hark eginen du hitzaldi hoietarik lehena. Aita Lhandek behiala bezala, egun Zuberoaren alkia Euskaltzaindian Jean Louis Davant jaunak dauka, eta hunek egingo du bigarrena.

Haatik hizño bat esan nahi dut, gaingiroki esana izango bada ere, Euskaltzaindian eta euskal alorrean Aita Lhanderi zor diogunaren deskargutzat eta aitormenez.

* * *

Aita Lhanderen bizitzean badira hamar urte —1911n hasi eta 1921 artio, alegia— bereziki Euskal Herriari emanak, nahiz eta hoiek ere ez osoki. Urte hoietan Hondarrabian bizi zen eta gero Hernanin Jesuisten ikasetxeetan irakasle. Orduan ere ez da beti Euskal Herrian egongo: Jesuisten hirugarren urtea egitera Belgikara joanen da, eta bai gerla handian ere parte hartu beharko du.

Gipuzkoan bizi zeneko denbora horretan ezagutu zuen Aita Lhandek Hegoaldeko Euskal Herria, eta ezagutzak eta harremanak egin zituen aldi hartako euskaltzale suharrekin: Domingo Agirre, Azkue, Urquijo, Eleizalde, Altube, Eguzkitza, Intza, "Larreko" eta abar. Gipuzkoako euskal mintzaira ikasiko du eta baita hartan idatzi ere. *Yolanda* liburua lehenik frantsesez *La Ferronerie d'Ameznabar* izenaz egina, eta gero egileak berak Gipuzkoako euskarara itzulia da.

Garai hartako anitz aldizkaritan lanak ditu Lhandek. *Eskualduna, Euskalerriaren Alde, Euzkadi, Revue Internationale des Etudes Basques, Jesusen Biotzaren Deya, Pueblo Vasco:* agerkari hauen bildumak aztertzen dituenak Aita Lhanderen izenaz topo eginen du.

Orduan sortzen da Euskaltzaindia ere, Euskararen Akademia. Hasiberri hartan 12 ziren euskaltzainak edo académiciens direlakoak. Eta hoien artean Aita Lhande izan zen bat, Zuberoaren izenean izendatua, hain zuzen.

Bai. Aita Lhande izan da lehena Zuberoaren alkia gure batasunean eduki duena; eta bigarrena, haren ondoan, Guillaume Eppherre, eta orai, hirugarrena, Jean Louis Davant jauna.

1920an Euskaltzaindiaren kazeta *Euskera* agertzen hasten da, eta hortarako ere, kazeta horren arta izateko, alegia, Aita Lhande ezartzen dute. *Euskera*-ren lehen zenbakiak Aita Lhandek prestatu eta Frantziako Tolosa hiriko inprimeria batean —Imprimerie et Librairie Edouard Privat— inprimaraziak dira, aldi hartan hango Faculté des Lettres-en euskararen irakasle zelarik.

Domingo Agirre hil zenean hitzaldi bat egin zuen Lhandek hari buruz Gipuzkoako euskeraz, eta Euskal Esnaleak argitaratu zion. Eta badu oraino beste bat ere "Gure orma zaarra", Euskal Esnale horrek berak ager arazia.

Frantziako Tolosara harat-hunatak egiten zituen Lhandek bere eskolengatik, eta halako batean, Lhanderen mintzaldi baten ondotik, handik itzultzerakoan Espainiako gobernamenduak ateak hertsi zizkion. Egoitza hura horrela finitu zen.

Geroztik Tolosan eta Parisen egonen da bereziki.

Baina euskal gaiari gagozkiola, Lhandek baditu beste bi lan, aipamen berezia merezi dutenak. Bat, Etxahuni eskainia:

Le poète Pierre Topet dit Etchahun, 1946an Eskualtzaleen Biltzarrak agertua, eta bestea *Dictionnaire Basque-Français,* liburu bikain eta baliosa, Parisen 1926an emana.

Egia da bai bata eta bai bestea ere lankideei esker burutuak direla. Egia da, halaber, Etxahunen lana, egun, Haritschelharren obraren ondotik, gainditua dagoela, baina hala izaten dira kontuak kultura eta jakintzaren alorrean. Elkar lanean, batak egin duenari besteak eratxekiz egin ohi da etxea. Baina hortarako norbaitek eman behar du lehen urratsa, eta hori Lhandek egin zuen.

Orobat esan behar da Hiztegiari buruz. Lehen asmoa eta plangintza Lhanderenak dira. Eta lana burutu zuten lankideak Lafitte eta Aranart jaunak izan ziren, zeren ordurako bera Parisen baitzen osoki bere apez lanetara emana. Baina horregatik hiztegiaren arrangura ez zitzaion Lhanderi behin ere gogotik joan. Sarri etortzen omen zen Parisetik bere lankideak sustatzera eta bai saristatzera ere. Eta azkenik berak inprimarazi zuen liburu eder hau Pariseko Beauchesne editorial famatuan. Zuzen eta bidezko da hiztegi hori hainbeste aldiz erabiltzen dugunok, egun, Lhande eta haren lankideei geure eskerrona ager diezaiegun.

* * *

Dohain eta ahalmen handiko gizona Aita Lhande. Parisen bere prediku eta lanetan berak nahi zukeen baino ere arrakasta gehiago izaten omen zuen. Dohain hoiek baliatu nahiz bere nagusiek hainbeste lanetara jarri zuten, baina bihotza Euskal Herrian zuen beti ere, eta bere predikuetan sarri egiten omen zuen Euskal Herriko oharmentxa bat edo beste. Eta bere azken pausua ere hemen egin zuen, Atarratzen hil baitzen (1957an).

"Bere ahalen bethian zen denbora beno handiago izan beita Aita Lhande Euskaldun suharra, ezinian kausitu delarik": hala idatzi du Guillaume Eppherrek.

Gizon handi hau ohoratzeko eta harengandik ikasbide hartzeko da egungo gure bilkura. Aita Lhande bezalako gizonak ematen dituen herria segurik laxokerian ezin hil daiteke.

AITA LHANDE-REN LANEZ

1977 - VII - 15

P. Lafitte

Ziberotar batek hain ederki aipatu baitauku Aita Lhande zenaren bizitzea, haizu dakiola manex bati izkiriant handiaren lanez laburzki bada laburzki, zerbaiten erraitea.

Gazte-gazte danik hasi zen Pierre Lhande literaturari ohartzen; Mauleko ikastegian erdarazko bertsuak jada ontzen zituenaz geroz, hamalau —hamabortz urtetan—. Bainan Baionako Semenario handian lotu zitzaion hogoi urtetara gabe izkiriatzeko sukar handia: poesiak, kondairak, kantikak burrustaka barreatzen zituen aldizkari katolikoetara, dena bizi, fede eta pindar. Ez ziren beharbada denak aldi oroz arras zohituak hastapen hartan, bainan erakusten zuten luma erabiltzale gaztea norbait handi izaiteko bidean zela. Luza gabe landarea zuhaiztu zen, muskil, lore eta fruituak ausarki emaiten zituela.

Uzta hortaz mintzatzean, obrak ez baiginituzke nahasmahas aipatu nahi, elgarretarik berexiko ditugu:

Eskuaraz eman dituen lanak; erdaraz, bainan euskalgaiez eman dituenak; erdaraz bertze gai hainitzez eginikakoak.

I
Euskarazko lanak

Egia erran, Aita Lhande-k ez du utzi euskarazko obra guti baizik. Bertsuz doi-doia bortz kobla Aita Aizpuru adixkide bati buruz. Hitz laxoz Xuberoko euskaraz, *Euskaldun ona* deitu astekarian zenbait berrixka; 1915-ean Baionako apezpikuaren gutun bat itzuli zuen; 1917ean Curutchet aphezaren hil mezan Onizen eman mintzaldia ager-arazi zuen; jalgi zuen ere dei bat: *"Uskaldün güdükarientako güthünak."*

Lapurdiko mintzairean, hitzaldi bat: "Eskuara eta Eskualzainak". Gipuzkoako euskara zitzaion errexena: euskalki hortan egin ditu bi hitzaldi: *Gure orma zaharra* eta *Aguirre irakurgaikaria,* berak nobela bat ontu du "Yolanda", eta bi urtez Euskalzainen agerkaria *Euskera* kudeatu du, beti gipuzkeraz, arta handienarekin.

II
Erdaraz euskal-gaiez

Aita Lhandek Euskal-herria maite zuen bihotz-bihotzez eta ezagut-arazi nahi zuen gure lurra kanpokoeri; hortakotz naski erdaraz ari izana da euskal gaien erabiltzen.

Bertsuz publikatu zituen bi poema: *Le voeu d'Ythurralde* eta *Les Tourterelles du Père Anchieta.* Gaineratiko guziak hitz laxoz.

Argitan eman ditu gure aspaldiko orroitzapen ilunak *L'énigme basque* eta *La Madeleine de Tardets* aipatzean.

Gutarteko ohidurez, nasaiki mintzatu da: goretsi du euskal etxondoaren iraupena, hiru titulupean: *Autour d'un foyer stable, Autour du Foyer basque* eta *Le Pays basque à vol d'oiseau.* Lan nausi pare baten medioz (*L'âme basque: La hantise de la mer* eta *L'Emigration basque*) erakutsi du nola euskaldun hainitz herritik lanketa joaiterat ekarriak diren. Eskual-Herriko hil-hobi zaharren berezitasunaz ixtudio eder bat ager-arazi du: *La tombe basque.*

Pilotaz bi hitzaldi utzi ditu: *La pelote* eta *Notre jeu national.* Behin azaldu izan du ere: *Le théâtre en plein air.*

Bere euskal-literatura lanetan zenbat herritar ez ditu goretsi: Azkue, Aguirre, Pio Baroja, Luis Elizalde, Campion, Julio de Urquijo, Salaverria, Aranaz Castillanos, Martin Hiribarren, Maurice Harriet eta abar.

Bereziki Etxahun Barkoxe ospatu du gain-gainetik, kasik piztu du, haren koblak bilduz eta Larrasquet-ekin publikatuz eta horrela bidea idekiz Haritschelar jaunaren obra handiari.

Erran gabe doha Iñaki eta Xabier bi saindu euskaldunak ez zaizkola sekulan ahantzi.

Bere nobeletan eta ipuinetan euskal-herria sartu du ahal zuen guziez: ikus *la Ferronnerie d'Ameznabar, Mirentxu, Yolanda, Bilbilis, Le moulin d'Hernani.*

Bainan Aita Lhande-ren euskal obrarik handiena izan da haren euskal-hiztegia, 1.117 paia dauzkana, Xubero, Baxenabarre eta Lapurdiko 60.000 hitzez goitirekin. Lan horri buruz bazuen berak bildurik eta bil-arazirik hainitz eta hainitz nota balios. 1.926-ean hasi zen Dictionnaire basque-français horren argitaratzen, bainan berrehun bat paia ateratu-ta, gelditu zen ezin jarraikiz bertzelako sailek itoa baitzen. Eskualzale guziak penatuak ziren. Eta egun batez, Aranart apezak eta biek deliberatu ginuen gure laguntza eskainiko giniola Aita Lhande onari. Onhartu zaukun eta bere nota guziak igorri zauzkigun berehala: 1.938-an hiztegia bururatua zen: atsegin hartu ginuen eta aita jesuistak nolaz ez?

III
Erdarazko bertze lanak

Aita Lhande ez zuten Pariserat bildu eskualzale gisa, bainan apez-lanetarat. Aitzinean ere egin zuen apez-lan, eta jalgi zituen araberako liburuak. Gazte altxatzen ari izanik, *Jeunesse* izkiriatu zuen erakusteko nola iduk gaztekilakoa; *Luis* nobelan ikus ditake nola ama batek, nahas eta gal dezaken bere semea: *Mon petit prêtre* nobelan aldiz nola amak salba dezaken. *Fils de Dauphin* eta *Les lauriers coupés* familiaren batasunari buruz eginak dira. *Un maître humaniste: Le Père Longhaie* liburuak orroit-arazten du jesuita predikari gaiek ukaiten zuten erakaspena. *Les Mouettes* nobelak erizainen eginbideak aipatzen ditu alegia deus-ez. *Les Mémoires d'un écureuil* liburuak ere badu bere zuhurtzia.

Pariserat-eta, Aita Lhandek aurkitu zuen nun zer egin. Dubois kardinaleak galde egin zion iker eta sala zezan hiri nausiaren inguruetako miseria gorria, hango eliza eta apez eskasa, bainan ere han gaindi zerbait ongi egiterat ari zirenen merezimendua. Gure ikertzale suharrak bazterrak inarrosi zituen bere artikulu, hitzaldi eta hiru liburuekin: harrigarriko arrakesta ukan zuten *Le Christ dans la Banlieue, Le Dieu qui bouge* eta *La Croix sur les fortifs* izenekoek. Ohart ondorioreri: Bortz urtez eraik-arazi zituen 52 eliza, 90 gazteen bil-toki, 52 parropia-etxe, 40 eri artategi, 12 eskola, 8 haur baratze eta 14 haurtegi.

Bigarren sail bati lotu zen Aita Lhande: Radioz predikatzieari, ordu arte Frantzian segurik nehor ez baitzen atrebitu

lan hortara. Hitzaldi argi, xehe, hunkigarri horiek bazuten aditzale, eta inprimaturik atxiki nahi baitzituzten asko jendek, hamalau liburutan agertu ziren: *l'Evangile par dessus les toits, Le bon Pasteur, Les pauvres dans l'Evangile, Les béatitudes* eta abar.

Bainan zenbaitek estimatzen zuten leku soberaxko bazaukala hiri nausian, eta Paris-etik urrundu behar zela. Buruzagiek itsasoz haindirat igorri zuten ohorezko itxura guziekin, mezulari handi gisa Ameriketara, Madagascar-ugartera eta Indiarat. Bera onhartua zen jokoaz bainan bazoan umilki eta pidaia bakotxak emaiten zion liburu berri baten parada. Horrela sortu ziren: *La France rayonnante, Argentine, Chili, Uruguay, Madagascar* eta *l'Inde sacrée*. Zorigaitzez, kurrida horiek funditu zioten osagarria: odolak jo zion bururat. Zenbeit astez mintzoa galdurik, hasi zelarik berriz mintzatzen, euskara jin zitzaion ezpainetarat, geroago anglesa, azkenean frantsesa.

Erran dugunetik ezagun ahal da egun omendatzen dugun jakintsunak ezinago ohoratu dituela Eliza, Jesusen konpainia, euskalzaindia eta Euskal-Herri guzia.

AITA LHANDE ZENAREN BIZIAZ

1977 - VII - 14 (??)

J. L. Davant

Aita LHANDE zenaren bizia zer izan den aipatzeko, Jaun erretorak bost minüta deizt eman. Egia da, pheredikü llabürrenak direla hoberenak, eta düda gabe estimatienak, baizkaritako tenorean phürü..

Haboroxago hartüko dit halere, lan horren ontsa egiteko behar bainüke lauetan-hogei urte. Ezi, lauetan-hogei urtez bizi izan zen Aita Lhande, eta bere denbora ontsa beterik ziküzün pausatü.

Bera Baionan sortü zen, diala ehün urte arren. Baina etxekoak Xiberotar plaiñak zütian. Zalgizen handitü zen, abantxü mündü orotan ebili, Atarratzeko ospitalean hil, eta orain heben dago, Zalgizeko hil-herrietan pausian, arrapiztiaren haidürü.

Aitaren aria *BASAGAITZ* deitzen ümen züzün, erran nahi baita "OIHAN GAITZ". Baina *ALLENDE* izeneko seme bat familia hortan sortürik, meriako enplegatiak uste üken zian familiaren izena zela hori, eta paperetan *LHANDE* izkiribatü zian.

Ikusten da lehenagoko denboretan, gure kartieleko jentea ez ziela ontsa ezagützen kargüdünek. Baina alde hortarik, hanitx aitzinatü ote gira geroztik? Ez lüke üdüri, zeren diala aste zonbait, Baiona hortan eüskaldün artzaiñek ikusi die oraiko kargüdünek ere zoin gaizki ezagützen dien mendi kantüko jentea. Eta ikusi badie, ikusi, batek, atarraztar gazte batek, bista ere du abantxü han ützi...

Zer nahi gisaz, izen ederra da Lhande izena, apez eüskalzale famatiaren denboran orok Xiberoan "LLANDE" erraiten ziena.

Horren ama, Paulina *HEGUY*, Montibideon sortürik zen, eta gazterik Xiberoala jinik. Gazte denbora Mendikotan igaran zian, amaren aldeko jauregi xaharrean, de *MENDITTE* familiatik baitzen hau.

Apezaren aita, lehenik Paulinaren ahizparekin esposatü zen, eta bi alaba üken zütien. Gero, alargüntürik, Paulinarekin ezkontü zen, eta hiru seme üken zütien: horietarik lehena, Pierra Lhande famatia, egünko süjeta.

*Baionan jarri zen familia. Aitá, Jan-Pierra Lhande, ata*rraztarra, komersanta zen: orain erran giniro kinkaillera zela, ezi zer nahi tresna eta gaiza erosten eta saltzen zian. *Eüskara ontsa baitaki, bere sal-erospenak bestaldeko Eüskal*-Herriala hedatzen dütü, bereziki Elizondoko kartielian, Baztaneko ibarrean. Hor hiltzen da, ostatü batetan, kolera izeneko eritarzün gaiztotik, berrogei-ta-bost urtetan.

*Alargüntsa gazteak, xerka joanik, korpitza kontraban*dan gibel ekarten dü, karabineroen südür petik: gizonek üsü ez dügün kuraje bat irakusten daikü hor emazte horrek eta, bere pena izigarrian, etsenplü ederra emaiten!

Paulinak 29 urte zütian, eta Pierrak zortzi. Zalgize Apatian jarten dira, etxe hori bere dotean baitzian emazte gazteak. Bere hiru semeak eta bi llobak ahal bezal haziko dütü alargüntsak, eta hanitx ontsa altxatüko ja. Pierra Mauleko kolejioan ibiliko da, hantik ezkapiko ere behin.

Seminario handian ere, ez da beti "amen" erraile haietarik, eta kanpoa üken baino lehen, berak hartzen dü.

Har gatik, apezteko deia edo bokazionea egiazki baitü, Jesüitetan sartzen da, eta hor büriala heltzen, beste bi Eüskaldün handiren ondotik. Horik dira Iñigo *LOHIOLAKOA* eta Frantses *ETXABERRIKOA*.

Jesüiten ordrea, "Jesüsen Konpaiñia", Iñigo Lohiolakoak zian asmatü eta eraiki, diala lau gizaldi edo mente. Laster horren kantian agertü zen Nafartar gazte bat, Frantses Xabierrekoa, erran nahi baita Etxaberrikoa, azken mentetako misionistik handiena.

Xabier edo Etxaberriko jauregi zaharra hortxe berean dügü, mendiaren beste aldetik, Erronkariko ibar zolan.

Eta egün gure artean dügü Aita Andoni *ZABALA*, beste Jesüita ezagün bat, kantore ta kobla biltzalea, librü egilea,

Eüskaltzain osoa, orain Xabierren bizi dena, gure aizo lehen, Nafarroako hegal hortan.

Ikusi dügü nola Pierra Lhande-ren aitak Eüskal-Herriaren batarzüna obratü zian bere komerzioan. Semeak ere bide bera hartüko dü, beste mündüko aferetan.

Eüskara Xiberoan ikasirik heintto bat, hobeki lantüko dü Gipuzkoako Hernanin eta Ondarrabian, hanko ikasgietan irakasle egonen baita urte zonbaitez. Gipuzkoarrez ariko da hanitx ontsa.

Euskaltzaindia edo Euskal Akademia eraiki zielarik, mente honen hemeretzian, Xiberoaren izenean haitatü zien bestaldeko euskalzale handienek. Eüskaltzaindiko agerkaria bi urtez antolatü zian, Gipuzkoarrez.

Ber denboran, Xiberoko mintzajeari esker handia zaion. Popüliaren erraiteko manerak biltzen zütian arraheinki. Eta bere "dictionnaire" edo hiztegi handian, üsü ikusten da, hitz baten ondotik, "Zalg." llabürpena, kakoen artean, erran nahi baita hitz hori Zalgizen bildürik ziala.

ETXAHUN Barkoxe oso ahatzerik baitzen, mesperetxatürik ez zelarik, Aita Lhandek zian altxatü, haren orhitzapena arrapiztü, haren ohorea xahatü, haren kantoreen biltzeko lanak hasi... Koblakarien artean gora baldin bada orain Etxahun xaharra, Aita Lhande-ri zor daiogü lehen-lehenik.

Honek ere Euskal-Herria gatik üken zian nahi gabe zerbait. Eüskaldünen alde egin zian mintzaldi baten ondotik, Espainiako goberniak jakinarazi zaion ez zela haboro ontsa ikusirik Bidasoaz haraintian. Honaintiala ützüli behar üken zian, arren.

Arte hortan, Hernani eta Ondarrabia ützirik, Cadix-en ondoan ere egon zen, Puerto-de-Santa-Maria-ko kolejioan. *Herri hortan egon dira, azken urteetan, beste Euskaldün* famatü eli bat: Burgos-eko auzian hiltzera kondenatürik, Montorieser esker bizia salbatü zien haietarik zonbait...

Gero, denbora batez (1925-1930), prauben apeza izan zen Parisen eta üngürünetan. Han jente xeheen miseria eta Jainkorik gabeko bizia ezagütü zütian. Haien alde erauntsi zian sü eta khe, eta ez elhez bera, baina obraz halaber:

80 lür eremü erosi zütian, 52 eliza altxatü, 90 patronaje, 40 "dispensaires" edo artagia, 14 ñeñe zaingia, 8 haur-

baratze, eskolak, biltokiak, eta beste zonbat holako... Sosa nontik biltzen zian? Aberatsetarik, prefosta. Baina ez zütian hortako hantzen, ezi erraiten zaien: zien etxetan, haurrak *bezala gastatzen dütützie xakürrak; aldiz neskatoak hantxe* biziarazten dütützie, hegatz peko zoko tzar batetan!

Ber denboran, Goroxümako pheredikiak hasi zütian "Notre-Dame" eliza nausian. Izigarriko arrakasta zian, eta bekaiztü zaitzon beste apez handi eli bat. Ameriketara igorarazi zien, bi urterentako, hanko Eüskaldünen bijitatzera, artean lekiaren hartzeko. Baina hark, aideko bat hartürik, lana hiru hilabetez egin zian, eta berehala Parisera ützüli zen.

Ber urtetan, güti gora-behera (1927-1934), radiotik gaitzeko pheredikiak egiten dütü, "l'Evangile par dessus les toits" (Ebanjelioa hegatzen gaiñetik) deitzen diala sail hori.

Ez da depütatürik, ez ministrorik, ez jeneralik, hura bezaiñ ezagütürik. Metroan non nahi agertzen da haren begitartea, zinemako star edo izar ederrena bezala. Lazgarriko letera zionia ükaiten dü mündü güzitik. Zer nahi mintzaldi egiten dü, librü izkiribatzen, mundiaren erdia kurritzen. Jesüiten agerkaria, "Etudes" izenekoa, lüzaz dü antolatzen.

Lan horiek oroek higatzen die. Berrogei-ta-hamazazpi urtetan ükenen dü lehen paralesia kolpea. Hortik aitzina, ez da haboro ber fleitian izanen. Ez dü leheneko segida, ez laneko ber iraipena. Batean elhea galtzen zaio, bestean memoria. *Ez da horregatik ttonttoa, hüillanik ere...*

Orhit dit nola, diala laster hogei-ta-hamar urte, Mauleko kolejioan ikasle gazte-gaztea nintzalarik, urteko azken egünian mintzaldi bat egin zaikün.

Denbora hartan üsantxa bat bazen, geroztik lekü hanitxetan phürü galdü zaiküna: bakantza handietara joaiteko egünian, halako besta bat egiten zen, eta ikasle hoberenak zeremonia handitan saristatzen zütien.

Urte hartan arren —uste dut berrogei-ta-zortzian zela, ez bazen berrogei-ta-bederatzia— han ziren Elissabide kontseil jeneral, Xanpo Mauleko mera eta Lhande apeza: hiruak aldizka mintzatü zaizkün. Ez dakit beste biek zer erran zaikien. Baina hark kontatü zaikün nola, haur zelarik, Mauleko kolejiotik ihes egin zian behin. Ontsa erri egin günian, prefosta... gaitzeko ezpiritua baitzian orano Aita Lhande-k.

Gizon lerden eta hardita zen, erran niro kasik kokillota, bilhoa xuri eta begia zohardi.

Azken urteak Atarratzeko ospitalean igaran zütian hümil-*ki, hain famatürik zen gizon handi horrek.*

Hortaz egin dian mintzaldi batetan, Etienne Salaberry jaun apezak holaxe biribilkatzen dü horren bizia:

"Bere biziko lauetan hogei urtetarik, hamasei haur denboran irus igaran zütian; hamazazpi, eskolatzeko güdükan; hogei-ta-lau, lan eta emaite osoan; hogei-ta-hiru agonian..."

Eta holaxe ürrentzen dü:

"...Jainkoak haitatü zian, Kristoren koblakarien betiereko herrokan, Santa-Xixilaren harparen ondoan eta San-*Frantzesen gitarraren kantian izan zadin, gure ütürriak* bezaiñ argi, txürüla."

*Eta orain, txürüla horri beha egonen gira, ixil-ixilik, apür bat: segür niz Aita Lhande-ren arima, Dabid erregea bezala, Jainkoaren aitzinean, beste xiberotar hanitxekin, dantza fri-*satez ari zaiküla betiereko bortietan.

Oharra: Artetik erran dezadan, ipar aldeko Eüskal-Herrian ez zaizküla sekülan sartü ahal izan Jesüitak. Hortarik epantxatü dütü beti Jansenisma izeneko doktrina beltzak. Hau ere Eüskaldün batek sortarazi zian, Duvergier Haurrane-ko baiones apezak. Ipar aldean aski gaitz eta kalte daikü egin, bai Elizan, bai Herrian. Müga horrek gaiza bat honik üken dü phürü: hego aldeko Eüskal-Herria Jansenismaren ideia ülhünetarik begiratü diala.

AITA PIERRE LAFITTE JAUNARI OMENALDIA

P. LAFITTE JAUNARI OMENALDIA

(Eskualtzaleen Biltzarrak eratua)

Baigorri-n, 1977 - X - 22

Euskaltzainburuaren hitzak

Lafitte jaunari Eskualtzaleen Biltzarrak gorazarre egiten diolarik, Euskaltzaindia ezin dagoke isilik, hizño bat bere partetik esan gabe. Izan ere bere batzarkide eta membroetarik zintzo eta leialenetakoa izan du eta du Euskaltzaindiak Lafitte jauna. Hainbeste urtetan ezagutu dut gure bilkuretan. Beti gure elkarteari oso atxikia.

Euskaltzaindian egin dituen lanei lotuko naiz xoilki, eta hoik ere guztiz labur eta gaingiroki aipatuz. Agian bat baino gehiago ahantziko dut. Azken egun hautan pixka bat tarrapataka idatzitako lerroak baitira hauk.

1928an izan zen euskaltzain laguntzaile izendatua. Nik ez nuen garai hura harrapatu. Euskara zenbatetaraino menderatzen zuen ikusteko, itzulpenen bat egitea agindu omen zion Azkuek. Froga hura ongi garaitu zuen nonbait, eta hala izendatua izan zen. Xehetasun hau Lafitte berari entzuna dakit.

Euskaltzain oso 1947an izendatua izan zen. Sarrera hitzaldia Donostian egin zuen. Gaia: "Georges Lacombe". *Herria*-n argitaratu zen eta bai liburuxka bezala ere, urte haietan *Euskera*, Euskaltzaindiaren boletina, ez baitzen agertzen.

1954eko urrian *Euskera*-ren zenbaki bakarra agertu zen. Bertan badu Lafittek lantxo bat: "Saint Pierre apezpiku jauna" (42. orrialdean).

Gero 1961eko *Euskera*-n beste bat: "Jean Elissalde" (345. orriald.).

1962koan Iratzeder Aitaren sarrera hitzaldiari ihardespena (70. orriald.).

1963-1964eko tomoan: "K eta Z-ren arteko aldakuntzaz oharpen labur bat" (501. orriald.).

1968an Arantzazun batzarre famatu hura egiten da euskeraren batasunari buruz. Lafitte jauna han zen eta parte hartu zuen, elkar hizketetarik ikus daitekeenez. (Ikus bereziki urte hartako *Euskera*-ren 244. paia).

1972koan lan hauk ditu:

"Gibelka eratorri hitz batzuez" (91. orriald.)
"Zer dakigu Leizarragaz?" (143. orriald.)
"Domingo Soubelet" (286. orriald.).

1973koan berriz:

"Euskal ipuinak" (160. orriald.)
"Larreko eskualzale eta idazlari" (191. orriald.)
"Antoinette Lacarra" (289. orriald.).

1974eko *Euskera*-n:

"René Lafon zenaz zonbait hitz" (5. orriald.)
"Euskal aditzeko hiru *-ke* atzizkiak" (152. orriald.)
"Aita Blas Mendiondokoa" (278. orr.).

Euskera 1975:

"XVII. mendeko Joannes Haraneder fraidea" (397. orr.)
"Joanes Chabagno" (545. orr.)
"Gregoire Eppherre" (549. orr.)
"Guillaume Eppherre" (550. orr.)

Euskera 1976:

"Etienne Lapeyre" (111. orr.)
"Oskodun baten izenaz" '(127. orr.)
"Barbier jaun apeza" (269. orr.)
"Louis Dassance" (364. orr.).

Zerrenda huntarik ikus daitekeenez, azken urteotan usuago eta ugariago ditu lanak, lehen bakanago. Baina horren hobena, inori egoztekotan, Euskaltzaindiari berari egotzi behar zaio, ez baitzion lanik eskatzen. Eta hortaz arrenkuratu zen inoiz Lafitte jauna bera. Hau da bitxia: Langilea lan egiteko gertu, eta Akademiak ez balia arazten! Gure batzarreetarako txostenak eskatzen hasi ginenetik, Lafitte jaunak beti

zintzo erantzun du. Zer gai erabili duen tituluetarik da ezagun: gure literatura edo gramatika gaiak, eta, bereziki, hemen Ipar aldean euskaltzale bezala lan egin dutenen berriak ematea.

Euskera aldizkaritik kanpora baina Euskaltzaindiarekin zer-ikusi duena da Larzabal jaunaren sarrera hitzaldiari ihardespena. *Gure Herria*-n agertu zen (1963).

Euskaltzaindiak bere lanak batzorde bidez burutzen ditu batez ere. Eta hoietako batzuetan parte hartu du, eta parte arras baliosa, Lafitte jaunak, adibidez euskal aditzaren batasunekoan, Ikastola hiztegiaren aztertze eta onartze kontuan, eta abar. Dena xeheki eta bana-banaka aipatzerik ez dago. Aski izan bedi orokorki hau esatea: Euskaltzaindiak bere lan eta zereginetan lankide bat guztiz emana arkitu duela beti Lafitte jauna baitan.

Euskaltzaindiarekin zuzenean zer-ikusi ez badu ere, frantziskotar bezala lan pare bat nahi dut aipatu.

1960. urtean gure Probintziako Frantziskotarrek batzarre bat egin genuen Arantzazun euskerari buruz. Gure artekoa zen batzarrea, baina hots egin genion Lafitteri. Etorri zen eta lan bat egin zuen *Herria* astekariari buruz, eta emanik dago fraideen artean xoilki zabaltzen den errebista batean: "Lapurdiko astekari batez" du titulua (*Cantabria Franciscana*, 1961, 304. orriald.).

Aurtengo urtean, berriz, lehen aldikotz euskaraz emanak agertuko dira Aita San Frantzisko eta Ama Santa Klararen izkribu guztiak. Edizio hunetarako Ipar aldeari dagozkion zenbait xehetasun eskatu nizkion Lafitte jaunari, eta bai berak bidali ere, nik behar nituen baino ugariagoak eta zabalagoak, gainera. Liburuxkarako behar zirenak hartu, eta gero lana osorik *Gure Herria*-n eman da: "Frantzes Asis-tar sainduaren ordenak Ipar-aldeko Euskaldunen artean" (G H 1976, 207).

Nahi nukeen *Anai Frantzisko - Arreba Klara* gaur hemen Lafitte jaunari esker onez eskeini. Maleruski ez da oraino kaleratu, nahiz eta guztia inprimaturik egon; gaineko azalagatik atzeratu da, baina, nolanahi den, egun batetik bestera irteteko dago eta aurki eman ahalko diodala uste dut.

Aipatu behar dut, azkenik, Euskaltzaindiak agindurik eta bultzaturik, orai gure Lafittek esku artean darabilen lan han-

dia: Leizarragaren edizio berria oharrekin. Ohar hoik hizkuntzari buruzkoak izanen dira, bereziki euskarak mendeetan barna ekarri duen eboluzioa argitzera ordenatuak. Ohar hoietan René Lafon-ek barreiaturik utzi dituen estudioen muina bildua bezala emanen zaigu. Lan handi hau egiten laguntzeko Charritton jauna du Lafittek mutil laguntzailetzat.

Obra hunekin uste dugu helburu bat baino gehiago erdietsi ahal izango dela: bat, euskal iturri paregabea den Leizarraga gure eskuetan jartzea; beste bat, René Lafon jauna oroitaraztea, ohoratzea eta probetxatzea, haren estudioen muina oharretan emanen baita; eta hirugarrena —esan beharrik ez dago—, euskararen beraren ezagutza barnatzea eta hedaraztea.

Gizon isila Lafitte jauna, espanturik ez duena, behar denean bere hitz doia eta justua esaten dakiena, umore ona eta irria maite dituena. Jakitateaz guztiok errespetatua eta ontasunaz guztiok maitatua.

Biziki atsegin zait egun huntan bere lan gaitzagatik eta guztiok zor diogunagatik esker ona berari agertzea.

COMPARACIONES TIPOLOGICAS DEL EUSKERA

Prof. Dr. A. Tovar

La lengua vasca, única índigena en Europa occidental, donde todas las demás: latín con sus descendientes románicos, germánico, incluso celta, se han establecido después a consecuencia de las invasiones y conquistas de la indoeuropeización, es una constante incitación a buscar nuevos caminos en la ciencia del lenguaje. En el vascuence, junto a otras lenguas, se fundó Guillermo de Humboldt para abrir nuevos horizontes, y del vascuence sacó renovadora inspiración el romanista Hugo Schuchardt.

Los lingüistas que trabajan en zonas bien conocidas y con documentación de abrumadora riqueza (romanistas, germanistas, etc.) no sienten a menudo tanto la necesidad de aplicar métodos nuevos. La lingüística histórica y comparativa, o las distintas corrientes modernas nacidas para la descripción, les dan orientaciones suficientes.

Pero la lingüística histórica surgió precisamente de la necesidad de incorporar el sánscrito, recién descubierto, al problema de los orígenes de las grandes lenguas europeas, aunque por de pronto helenistas y latinistas se resistían a aceptar el nuevo método. Este se impuso desde mediados del siglo XIX, y sólo a mediados del XX métodos nuevos vinieron a inquietar a los estudiosos.

También el interés descriptivo, suscitado por el estudio de lenguas lejanas, bien las de América del Norte, bien las del Cáucaso, ha sido el agente de esta renovación. Pero no vamos a ocuparnos aquí de los métodos de análisis de las lenguas.

Nos reclama ahora otro tema menos central, que sin embargo es importante. Nuestra época ha renunciado al europeo-centrismo y ha comprendido que al lado de las grandes lenguas de cultura y fuera de las indoeuropeas hay otras:

lenguas cuya historia es menos conocida, que no figuran en las grandes familias o, como en el caso del vascuence, parecen aisladas, sin "parientes" con semejanzas visibles. Y estas lenguas merecen también estudio científico, que daba quizá resultados excesivamente limitados con el método histórico-comparativo de nuestros maestros.

Las preocupaciones universales en lingüística obligan a desarrollar métodos nuevos, y precisamente el vasco es muy estimulante para ensayar su aplicación. Hace pocos años se publicaron algunos trabajos descriptivos de lingüistas norteamericanos (en Michelena 1972) en los que se abren perspectivas muy interesantes para el análisis de nuestra lengua; véanse especialmente los de W. H. Jacobsen y R. P. G. de Rijk.

Badira urte batzuk Arantzazun eginikako Euskal Akademiaren batzarre batean komunikazio bat aurkeztatu nuela —1972-garren uztaila zen— eta han adierazi nuen *Azenari / Azeari / Azari* eta *Armentari* Erdi Haroan zabal zebiltzan

pertsona izenak latinetikakoak zirela inolako dudarik gabe eta baita *-iz / -z* sufixo patronimikoen jatorria latinezko hirugarren deklinazioan zegoela ere eta preziski *-o, -onis* eredutzat harturik analogiaz sorturikakoan, eta, gainera, euskaldunek eraginikako sustratoaren seinalea zutela. Latinez *asinus* 'asto moeta bat' formatik *asinarius* sortu zen 'astooz arduratzen zena, astazaina' eta *armentum* 'abere nagusien taldea' eratik *armentarius* 'abereoz arduratzen zena, zaintzen zituena'. Baina geroago pertsona izen bihurtu ziren. Latinezko *-s-* eskaldunen artean *-z-* frikatibo bezala agertzea normala zen izan ere —azken posizioan afrikatua egiten zen— eta horrela *Azenari* geroago *Azeari / Azari* bihurtua, hedatu zen. Baina Aragoiko Obarran, Nafarroako muga inguruan, *Asnero presbitero* eta gisa horretakoak agertzen dira, erdal eboluzioz sortuak (10). Gero pertsona izena euskaldunen artean pizti ezaguna adierazteko erabili zen eta horrela *azari / azeri* animali izen bezala ezagutzen dugu. Bizkaiko lekuren batzuetan, ordea, *luki* esaten diote eta hau latinezko *Luci(us)* antroponimo ezagunetik dator, frantsesezko *renard* beste pertsona izen batetik datorren bezala, edo Andaluzian eta Nafarroan erdaraz nonbait *garcía* deitzen dioten bezala, lehenengo lekuan emeari, baina bestean ez. *Armentari* formaren ondoan ere badugu aldaera bezala *Armentero* pertsona izen erdal eboluziozkoa (1086, *Valpuesta*, dok. LXXIII) (11). Egun ezaguna den *Armendariz* deitura patronimikotik dator, *-n-* kontsonantearen ondoan oklusibo gogorra ozendu dela.

Mitxelena-k gorago aipatu den lanean oharra egin zion Aita Villasante-ri honela zioena: "Hay que tener en cuenta que latín *-arius* parece haber tenido amplia difusión fuera de la Romanía. En nuestro caso es duro pensar que *barazkari, gosari, askari* tengan como formante común un sufijo de ori-

(10) Angel J. Martín Duque, *Colección diplomática de Obarra (Siglos XI-XIII)*, Zaragoza 1965, 1020 urtea, dok. 83. Hainbat dira: *cum uiro meo Asnero* (1010 urt., dok. 16). *Asnerus uisor fuit* (1004 urt., dok. 5), *Asnarius teneṇte Lorui* (1010-1012 urt., 19), eta abar.

(11) L. Barrau-Dihigo, "Chartes de l'église de Valpuesta du IX^{e} au XI^{e} siècle", *Revue Hispanique* VII (1900), 273-389 orr. Bada beste edizio bat, *Cartulario de Valpuesta*, Valencia 1970 (Colección creada y dirigida por Antonio Ubieto Arteta), M.^{a} Desamparados Pérez Soler-ek egina. L. Barrau-Dihigo-ren traskrizio berbera da faksimilez eta artaziz baliaturik eta dokumentuen fetxak eta ordena aldaturik eta oharrak zuzendurik.

gen latino", 61 orr., nota 3. Horrek esan nahi duena da ez dakigula baino ez dakigula, umilki aitorturik. Jakin behar gendukeena da latina baino lehenagoko hizkuntza indoeuropeoren batek, gure aurrekoak bizi izan ziren eremu inguruan bereziki, sufixo bera izan duen. Baina egun gure esku artean dugun informazioaren bidez ezin jakin dezakegu horretaz ezer, ez baitugu inolako probarik, ezta aztarrenik txikiena ere. Botorritako brontzeak ere ez du ezer argitzen horretaz. Baina arteragokoa balitz sufixoa gure hizkuntzan latinaren ahaide zen beste batetik lehenago sartu zela baino ez genduke esango. Gauzaren funtsa fetxa kontuan besterik ez legoke, zeren sufixoaren haserako *-k-* delakoa beste bide batetik datorrela eta sarri analogiaz agertzen dela pentsatzea desarrazoia ez dela uste baitut. Edozein modutan ere oso gogor egiten da *luzari* eta *luzakari* formek dituzten sufixoak eta baita *luzera / luzero* hitzetakoak ere aldaera hutsak ez direla pentsatzea. Baditugu, gainera, beste aldaera bi ere: *-kario / -tario,* cfr. *bozkario*, Naf. gar. eta beher., Lap. / *boztario*, Naf. beher., Zub., Erronk., formak latinezko *-ariu(m)* delakoaren *-i-* ondoko bokala ere gorde dutenak. Horien parekoa Bizkaian *pozkari* hitzean agertzen da zentzu berdintsua duela eta Erronkarin *bozkari* da. Gipuzkoan konposizioko lehen elementu bezala *pozkal-* ere badugu *pozkalondo* forman.

Badira, gainera, euskaraz beste elementu batzuk ere kontsonante oklusibo gogorra analogiaz haseran itsatsirik dutenak (12). Esaterako *talde* forma *artalde* hitzetik erakarria da, cfr. *ardi + alde > art-alde > artalde*, baina *urdalde < urda-alde < urde + alde,* eta *tarte* sustantiboa *bitarte* hitzetik, cfr. *bid(a) / big(a) + arte > bit-arte > bitarte*. Beste alde batetik baditugu *sukalde* forma eta honen ondoan *sutalde*, Bizk. Mikol, eta *sutondo*, egun *su* eran erabiltzen den hitza lehen elementu bezala agertzen dela hiruretan. Jakina, *alde / alte / aldai / alden-(du)* aldaeren jatorria latinezko **altana* baita, badakigu haseran *t-* kontsonante oklusiborik ez zuela eta gero itsatsi zaiola. Dudarik gabe berdintsu gertatzen da *ondo* formarekin, < latin berandukoz *fondo*, Uriarte-k Bibliaren itzulpenean *kondo* erabili baitzuen, *Soph.* II, 9, konposiziotik kanpora, eta konposizioan baditugu Bizkai Gipuzkoetan *kandela-*

(12) Mitxelena-k honetaz duen eritzia bere *Fonética Histórica Vasca* lehen aipatuan ikus daiteke, 244 orr. eta hurrengoak.

kondo, ogikondo —esan nahi bereko hitz zaharragoa *otondo*— eta *Garaitondo* toponimoa Zorrontzan. Agian *(h)ondar* hitzak zerikusia du *ondo* formarekin eta haseran *k-* itsatsirik ere korritzen du Gipuzkoan: *kondar*. Azkue-k kontsonante epentetikoak zirela zion. Agian ez da terminologiarik egokiena, zeren konposizioko forma batzuen analogiazkoak beti ezin izanez gainera haserako kontsonante oklusiboa jatorriz berea ere izan baitezake inoiz sufixoak edo hitzak.

Zer gertatzen da, ordea, *-ara / -kara* bikoteekin? Latinezko *-aria(m)* femeninotik baletor, *-era / -kera* erromantzekotik datorren bezala, badirudi **-aria / *-karia* izan beharko lukeela euskaraz, beste zentzu bateko *-eria / -keria* erromantzetikakoa den bezalatsu, cfr. euskaraz *zatarreria* eta *zatarkeria*, sufixoak azkenengo *-a* berea duela, eta erdaraz *tonteria, porqueria* eta abar. Latinezko *-aria* hurrengo hurratsak eginik iragan da erromantzera ordea: *-aria* > *-aira* > *-eira* > *-era*. Gurea ez ote dator *-aira* formatik?

Kontuan hartzen baldin badugu bizkaitarrek *orregaiti* esaten dugula beste batzuk *(h)orregatik* esaten duten bitartean eta *-gai-* > *-ga-* bihurtu dela hurrengo kontsonantearen aurrean, eta *mintzaira / mintzaire* formak —*mintza + aira* > *mintzaira* (13) eta gero *mintzaire*, *-a* eta *-e* bukaera duten hitzetan eginikako nahasmendutik sortua— Lapurdi, Zuberoa eta inguruetan '(edozein) hizkuntza' adierazteko espezializaturik zabal dabiltzala, ni ez naiz ezetzik esatera ausartzen (14). Bestela begien aurrean dudana ez dudala ikusi nahi pentsatzeko arriskuan ipini beharko nuke ene burua eta nik neuk ez dut halako zama jasaiteko kemenik, gure nortasuna jatorrizko garbitasun idiliko batez orniturik ikusi nahi luketenen aurrerako erosoago eta txaloak jasotzeko bide errazago gerta badaiteke ere. Bat edo batek, ordea, erratzeko arriskua ere badudala esan dezake. Arrisku hori beti dugu izan ere eta ez nik bakarrik. Gauza da nork bere neurriz argi egiten ahalegin

(13) Axularrek *mintzaia* erabili zuen beste sufixo beranduagoko bat daramala, *bidaia* hitzak bezala.

(14) Xabier Kintana-k bere "Euskaldunon ethni izenaren etymologiaz" lanean, *FLV* VII (1975), 191 orr. eta hurrengoak, nazio izenen formazioa tratatzen duenean zenbait ondoriotara iristen da, beren artean hurrengora: Europan Erdi Haroaren lehen partean sortuak direla etnien izenik gehienak.

osoz ihardutea, soluzioa nolabait *a priori*, gero *ad probandum* saiatzeko, finkatu gabe. Metodologiak gutxienez eskatzen duena besterik ez da.

Baditugu exenplo gehiago, Azkue-ren hiztegian ikus dezakegunez: *joanaira* (L-ain), 'corriente', *erreka orrek joanaira ederra du*; eta *joaira* (AN-b), 'corriente del agua'. Lhande-ren hiztegiak badakar *joanara* ere (15): "L. (H.) allure. *Joanara ona derama, laster helduko da*, il mène bon train, il va bonne allure, il arrivera tôt. 2.° cours plus ou moins rapide d'une eau. *Zoin den lasterra ibai hunen joanara*, combien est rapide le cours de cette rivière".

Ikus baita *eskuaire* ere (BN, S), 'destreza, habilidad de manos', *eskuaire handiko gizona*, Xarriton-i entzun nioenez. Beste alderdi batetik Duvoisin-ek *eskuaira* dakar, Azkue-ren itzulpenez 'regla': *zurginak eskuaira hedatzen du* 'artifex lignarius extendit normam', Vulgata-ren arauera, *Pr. Isaiae*, XLIV, 13. Baina *eskuara* (B-m, Gc), *eskuare* (B, G), *eskubare* (G-and), *eskubera* (B-g), 'rastrillo', eta baita ere *eskuara* (BN, Lc, R, Sc), 'derecho, facultad' eta *eskuera* (Bc, G), 'jurisdición, alcance de la mano'.

Diodana ala baldin balitz *heuskara* formaren aurrekoa gure artean ez zen finkatuko latin berandukoa egiten zen garaierarte. Horrek ez du esan nahi, halabaina, lehenago antzeko formazioz eraturikako hitzen bat edo beste sistema zaharragoz mintzatzen zirenen artean korritzea posible bezala hartu behar ez dugunik. Baina horretaz ezdakigu ezer.

VI

Eta nondik dator *euskara* hitzaren *(h)eus-* lehen elementua? Kontuan hartzen baldin badugu *enus-* forma zaharragoa izan daitekeela Garibai-ren lekukotasuna hontzat hartuz gero uste dut **enau(t)si* partizipio batek argituko lituzkeela zeharo ondorio guztiak. Honela:

1. Bizkaiko *dinost*, eta abar –zenbait lekutan *diñaust*, Zeberion esaterako–, sustrai berekotzat hartu ahal izango genituzke haserako **denaust* > *diñaust / diñost / dinost* bihur-

(15) Pièrre Lhande, *Dictionnaire basque-français*, París 1926.

turik, **enor* euskalki batzuetan *iñor / inor* bihurtzen den bezala nasalaren eraginez. Beste euskalkietan *diost* izatea normala da, zeren *-n-* bokal artekoaren ordez aspirazioa gorde izan den lekuetan *-h-* espero bazitekeen ere azentuaren ondokoa izanik ez baita agertzen. Oihenartengan forma bererako exenplo berezi bat dugu, ordea: *Hark zer er' ahal bailihotsa / ba daidiel' uste duzua?*, ikus *Atsotitzak eta neurtitzak*, Donostia 1971, 182 orr., Larresoro-ren, edizioa.

2. Partizipio horren faktitiboa *erauntsi / erautsi / erausi* da, agian honela sortua: **eranau(t)si* > **eranu(t)si* > *erauntsi / erautsi / erausi / eratsi / erasi*. Pareko fenomeno bezala har dezakegu *benedikatu* formatik, * *bedenikatu* tarteko baten bidez, *bedeinkatu* eta *bedeikatu* partizipio ezagunen sortzea. Lehenengoa, *erauntsi*, Azkue-k bere hiztegian Añibarroganik dokumentatzen du Bizkairako 'charlar' bezala, eta beste euskalki batzuetarako beste zentzu batzuetan. Bigarrena, *erautsi*, Mondragoen eta Otxandion Bizkaiko euskalkirako eta Amikuzen Nafarroa Beherekorako 'insistir, hablar, ocuparse' zentzuan: *baderautsagu* 'nos ocupamos', *dirautsat* 'se lo digo, yo le hablo'. Azkena *Peru Abarka*-n ere agiri da: *ostera bere dirautsut; ¿zer dala uste dozu Barberuba?, op. cit.*, 45 orr. Hirugarrena, *erausi*, Gipuzkoan 'charlatanería, murmuración' eta Andoainen 'charlar' zentzuan eta baita egunotan argitara agertu den Aita Esteban Adoaingoaren hiztegi joan den mendekoan ere, dudarik gabe Nafarroan bildua (16). Azkue-k, Baztanerako 'hablar' bezala emanez gainera, zenbait autore gipuzkoarren testoak azaltzen ditu: *gaiztoac darauste* 'los malos dicen', J. B. Aguirre, *Confesioco eta comunioco sacramentuen gañean eracusaldiac*, Tolosa 1900, 194 orr., *etzuen niorc aditcen guc gueniona edo guerausana* 'nadie entendía lo que decíamos', Mendiburu, *Jesusen amorenequeei dagozten cembait otoitz-gai*, Pamplona 1760, I, 17 orr., *balerausate* 'si hablaran', Mendiburu, *op. cit.*, I, 69 orr. Ez darabiltzate, ordea, datiboari begira *Peru Abarka*-n datorren *dirautsut* aipaturikakoa bezala, agian datibotasunaren fosilizazioz. Berdin gertatzen zen Aezkoan *erasi* aldaera erabiltzean, ikus R. M.ª Azkue, "Aezkera...", *Euskera* VIII (1927), 291 orr.: "*erasi*, hablar. *¿Zer darasan?* ¿qué hablas,

(16) Juan San Martín, "Vocabulario euskaro adicional del Padre Esteban de Adoain", *FLV* IX (1977), 271 orr. hurrengoak.

mujer?, *¿Zer erasiak deiltzazie*, qué conversaciones traéis?'', eta baita Oihenart eta Axularrengan ere. Oihenart n.º 620: *Haurrac athean duêna erasi, sucaldean suên ikasi* 'Ce que l'Enfant a raconté hors la porte, il l'auoit apris au foyer'; Axular, 430: *Gurdi cargatuac badarasa*. Azkue-k hiztegian dio: *erasi* (AN, BNc, Lc, Sc, d'Urt. 398), 'hablar, charlar', (AN, b), 'cuchichear', (L), 'murmurar'; *eratsi* (L), *eratxi* (G), 'hablar, charlar'. Lardizabal-ek, ordea, konkordantzia duela darabil hurrengo testoan: *baña ceramazquiten bidéac, opa zuten lecuraco laburrenac ez bide ciralaco, lengo erausi ta gaizquiesateac berriztu cituzten. ¿Certaco Egipto-tic eremuan iltcera ecarri guinduzun? Moises-i cerasaten,* ikus *Testamentu zarreco eta berrico condaira*, Tolosa 1887, bigarren edizioa, 112 orr. Fr. Mateo Zabala-ren lehenengo ipuinean forma bi datoz: *¡Ay, ce polita! darauntso amari / nescachi orrec urturic*, lehenengo honi *erauntsi* partizipioa dagokiola, eta *amac orduan ondo esanezca / dirautsa bete betean*, beste alderdi batetik, biak datiboari begira, bigarren ipuinean *dirautsa* formarako ikus daitekeenez, *RIEV* I (1907), 94, 95 orr.

3. *Refranes y Sentencias*-en biltzen den *eusi*, cfr. *ecin eusi dayan orac ynciria* 'el perro que no puede ladrar azer gruñir', n.º 380, eta *chacur andiac eusi andia* 'el gran perro gran ladrido', n.º 397, eta Azkue-ren hiztegiak parean dakarren *ehüsi* (L-bard) aldaera hutsak bezala hartzea berezkoa da —bigarrena Lhande-ren hiztegian, Paris 1926, Azkueganik hartua dator eta *ehusi* formara zuzendua, agian Bardoze Zuberoa alderdikoa ez delako—. Hala ere ez dirudi Azkue gaizki informatua zegoenik, zeren J. Allières-ek argitara emanikako *Petit Atlas Linguistique basque français ''Sacace''* delakoan (17), lehen mapan, Bardoze *u* eta *ü* bereizten dituztenen artean baitator Iparraldetik elkartzen den Zuberoko segida bezala —opposition *u / ü* certaine—, eta modu berean bigarren mapan *un* esaten dute beste alderdietako *on* eta *hon* formen ordez —Zuberoa gehienean *hun* eta baita Nafarroa Behereko hainbat lekutan ere—. Honek esan nahi du *ehüsi* forman bokala *-ü-* bihurtu zenerako *-u-* finkatua zegoela jadanik, *üska(r)a* hitzean bezala. Dena dela era horiek gorago

(17) I eta II, *Via Domitia* VII eta VIII, (1960), 205-221 orr. eta 15 mapa, (1961), 82-126 eta I-XII eta 16-83 mapak (Annales publiées par la Faculté des Lettres et Sciences humaines de Toulouse).

aipaturikako partizipioan, **enausi* delakoan, zuzen zuzenean dukete jatorria. Hitzari esan nahi zaharra suntsitu zitzaion neurrian bigarren mailako esan nahiean zokoetan irauteko modua izan zuen agian. Jakina, *-h-* bokal artekoa *-n-* zahar batetik datorrela uste izatea ez da asmakeria. Hala ere *-h-* hori bere lekuan gorde baldin bada, hitzak azentua agian azken aurreko silaban duelako izan da, Zuberoko euskalkian gertatu ohi den bezala. Baina Azkue-k ez diosku non duen. Badugu, ordea, Lapurdin *heusi* ere (L-ezp), 'celo de la marrana', azentua haseran duelako *h-* aurrera iragan dela agian. *Erau(n)si / erau(n)tsi* faktitiboak ere bigarren mailako esan nahi berberetan iraun du zenbait zokotan. Jarrai dezagun Azkue-ren hiztegia begiratzen batzuk eta besteak biltzeko eta nolabait elkarren artean zer ikusirik izan dezaketenak parean daudela ikusmiratzeko. *Erausi, erhausi, herausi* (BN, G) 'mugir, ladrar' eta (BN, S) 'ladrido'; *eausi* (BN-ald), 'ladrido'; *jaũnsi* (R), 'ladrido'; *jaũnsika*; *jaũnsiz* (R), 'ladrando'; *ihausi* (BN-aih), 'ladrido', *ihausika*, 'ladrando'; *ihausi* (BN-ald-ist), 'marrana en celo'; *iaûsi* (R-bid), *iausi* (BN-s), ikus *ihausi* zentzu bietan; hala ere *adausi* (S, Oih), 'ladrido', Oihenart n.º 538: *Adaussi deguidala, bana aussic enesala* 'Qu'il abbaye contre moy, mais qu'il ne me morde pas', behar bada Bizkaiko *adari* 'carnero' < **anari* > *ahari*, eta abar, bezala (18), halabaina Zuberorako kasu paralelorik seinalatu ez denez gero bakan gelditzen da; *ihaus* (L-ain), 'celo de la marrana'; *iñausi* (BN-s), *iñausi* (R), 'celo de la marrana y jabalina', baina *iñausi* (B-g-l-m-mond), *iñusi* (B-a-l-tx), 'podar'; *iñausi* (AN-goiz), 'recoger fruta, agitando árboles'; *erautsi* (AN-b, BN-ald, G-and, L) 'varear'; *iñustu* (B-a-mu-tx), 'podar', hala ere (B-m), 'hozar', eta *iñuska* (B-m), 'hozando los cerdos', (B-m-ond-tx, G-iz-zumay), 'huraño, esquivo,espantadizo', (B-m), 'fatuo'; *iñaus* (AN-b), 'celo de la marrana'; *iñauska* (AN-b), 'estar en celo (la marrana)', baina (B-m-o-otx), 'árbol bravıo, no podado'; *iñausga* (B-Ast.), 'árbol no podado' —berezi egin behar dira *-ka / -ga*, ezezkoa adierazten duten bikoteak, eta *-ka*, ekintza etengabea adierazten duen sufixoa—; *usika* (B-tx), 'hozando, hociqueando, se dice de los puercos y jabalıes', (B-a-o-tx), 'mordiendo', 'mordedura'; *usiki* (G), 'morder', 'mordedura'; *usigi* (B-a-dima-beg-o-tx), (Moguel: *etzaitu usiguico*, ikus *Per. Abarka*,

(18) Ikus L. Michelena, *Fonética histórica vasca*, San Sebastián 1961, 303 orr.

Durango 1881, 92 orr.), 'morder', (B, *ms*-Otx), 'remordimiento', batak *-ki* eta besteak *-gi* bikotea erantsirik dituztela eta agian besteetarik forma desberdineko gertaturik esan nahia ere berezi zutela; *auxi* (B, R), 'ladrido', (AN, Añ.), 'quejido'; *uxi* (G-ori), 'refunfuño'; *uxia* —agian bukaerako *-a* hitzak ez du berea eta artikulua ote da?— (B-a-m-o-otx-ub), 'deseo, pretensión', (B-i), 'la escusa, *uxian*, con excusa de'; *ausika* (B-mu-tx...), 'ladrando'; *ausiki* (BN, G, L-ain), 'morder', (BN, Sal.), 'mordedura, remordimiento'; *autsiki* (AN, L), *autsikitu* (AN, Araq.), 'morder, picar'; *utsiki* (G), *utsiki egin* (G), 'morder'; *esugi* (B, arc), var. de *usegi, usigi*, 'morder', *RS* n.º 372: *leusindu buztanaz ta esugui hahoaz* 'alagar con la cola y morder con la boca', bokalen arteko metatesisa gertatu dela, *usegi* (B-m-oñ-tx) delakoan bezalatsu; beste alderdi batetik *eauntsi* (BN-ozt), 'ocuparse', gorago bigarren numeroan ikusi dugun *erautsi* bezala; *erauntsi* (BN-s, Sal., G, Izt., L, R, S), 'chubasco, gran aguacero', (B, Añ.), 'charlar', (BN, Sal., L, S), 'ocuparse' (AN, Liz.), 'tempestad, borrasca', Leizarraga, *S. Ioan*, XIX, 3, 'golpear': *eta cihor vkaldiz ceraunsaten, Cor.* I, IX-26: *hala bataillatzen naiz, ez aireari baneraunsa beçala*, (BN), 'sonar', Oihenart, n.º 433: *Seinuac deraunsano, sinsarrotsa ioralterano (adiesac, ensun daiteela ioralterano eta ez vrrunago)* 'tandis que la cloche sonne, la sonnette ne s'entend point plus loin que de l'estendué du collier qui la soustient', Axular, 46: *naguia ere negu hotzean, atheac atheari darauntsanean, ohean higuitcen da, bertce aldera itcultcen da, burua goitituric iartcen da*; aldaera bezala *eraunsi* (AN-b), 'borrasca', *eraunsi zuperna* (AN-b), 'lluvia torrencial', Leizarraga, *S. Matt.*, VII, 25, 'soplar': *eta erori içan da vria, eta ethorri içan dirade vr sobernác, eta eraunsi vkan duté haicéc* —beste bikotean datozen Leizarraga eta Oihenarten exenploak honen forma dute—; *erauntsia* (Duv.), 'la murmuración, charla', gero *erauntsiaka* baitator ez da ulertzen zergatik duen *-a* azkenean (*Nombreak*, XVI, 41); *erauntzi* (AN-b-elk, G), 'lluvia torrencial', (L), 'charla', (BN-ald), 'golpear, castigar', (BN-baig), 'insolentarse', *anitz erauntzi dako* 'se le ha insolentado mucho', azkenengo forma hau agian ortografia nahasiz; *erautsi* (AN-b), 'llover'.

Ez dirudi *eutsi* (AN-est-lar, Bc, Gc), 'asir, agarrar', hemen sartu behar denik, formaren aldetik itxura bera izanarren. Baina ikus dezagun. Bere flesioak, *deutsat* eta abar, bestea-

ren flesioetarik bereizten dira, *diotsat / dinotsat* eta abar, ez horrenbeste, ordea, gorago bigarren numeroan aipaturikako *baderautsagu* faktitibo tipokoetarik. Aipatu beharrekoa ere da *ausso* dokumentatzen dela *RS 1596* delakoan, n.º 422, iragangaitz bezala eta datiboari begira konjugaturik eta horrexegatik beste kontesto batean erabilirik: *ausso Chordon arz orri ta nic yñes dayda* 'ten Hordoño a esse Osso, y yo hare huyda'. Baita Azkue-k hiztegian Axular eta Oihenart aipaturik biltzen duen *ailliotsa* ere: *Jaincoac ailliotsa liren asco,* Ax. 419, datibotasuna fosilizaturik, bestela *Jainkoari ailiotsa* izan behar bailuke. Honek gorago izkribatu den Oihenarten bertsoa dakar gogora: *Hark zer er' ahal bailihotsa.* Bai Lafon-ek eta bai Larresoro-k *bailihotsa* delakoa 'esan' zentzuan itzultzen dute. 'Ce qu'il pourrait dire' ematen du Lafon-ek, *BRS-VAP* XI (1955), 22, 23 orr. Baina ez ote da goragokoa bezalakoa? Horrela askozaz ere zentzu argiagoa du bertso osoak. Gainera *ahal bailihotsa* multzoa bakan egiten zaigu bigarren elementuak 'esan' partizipioaren zentzua izanez gero. Beste alderdi batetik, Aulesti inguruetako *biárri(e)n dáutzo (bearrean dautso)* fosilizatua 'lanean ari da', *erau(n)tsi* formaren zentzu berean erabiltzen da. Kontuan hartu behar da, gainera, beherago *erdara* hitzaz ari izanik aipatzen den *éuskerasko frákaak* delakoa.

Nahiago izan dut itxurari eta esan nahiaren aldetik duten nolabaiteko loturari begiraturik denak elkarren ondoan ipintzea, posible baldin bada ere behin baino sarriago jatorri desberdinetako formen gurutzatzeak gertatzea. Horrela, gorago aipatu den *erautsi* 'varear', hainbat lekutan erabiltzen dena, *jautsi* (AN, L), 'bajar', delakoaren faktitiboa izan daiteke, *eratsi* (B), *eratxi* (G), 'bajar, derribar', *eratxi* (G), 'ordeñar', direlakoak bezalatsu, baina formaz bestea ere bai eta esan nahiez *iñausi* (AN-goiz), 'recoger fruta, agitando árboles', delakoaren ondoan dago eta beste forma baten aurrean aurkiturik ere parean ipini dut. Nolanahi dela esan nahi bereko formetan *-ts- / -s-* alternantzia dugu, *ikusi* esanik ere *erakutsi* erabiltzen dugun bezalatsu. Baina bereizgarri izatea ere gerta daiteke euskal sistema fonetikoan. Beste alderdi batetik begiraturik, ordea, posibilitatearen barruan sartzen da jatorri bereko forma desberdinak egun zentzu desberdinez erabiltzea ere. Xarriton Euskal Akademiakoak esan zidan *erauntsia* 'euri uharra ari delarik' edo eta artikulu gabe *e(r)auntsi* 'ari

izan', eta *erausia* 'zakurrak egiten duena' berezi egiten dituztella eta azken honetarako *ihausia* ere esaten dela. Edozein modutan ere argigarria dela uste dut hitzak eta hauek dituzten zentzuak elkarren parean ipintzea eta hala egin dut orain mila eta gehiago urteko dokumentazioaren hutsunez eta faltaz.

4. Azkue-k bere *Gipuzkera osotua*-n, *op. cit.*, 147 orr. dio: "*Inotsi,* manar, más bien fluir. Solo en Laudio, Morga y Mundaka he oido la locución *euriari dinotso*, sigue lloviendo, lit., le fluye la lluvia. También dicen *badinotso* y algunos su contracción *binotso*, ya le fluye".

Formaren aldetik ez du 'esan' zentzuz erabiltzen diren flesioetarik alderik eta *erauntsi* erak ere, dudarik gabe faktitiboa formaz, zentzu bat baino gehiago ditu: bat, gorago ikusi dugun bezala, 'hitz egin, mintzatu', eta *erautsi* erak bezala 'ari izan'; beste alderdi batetik 'euri uharra', 'jo, zigortu', 'azaldatu'. Antzeko zentzu desberdin batzuk aurkitzen ditugu Azkue-k Bizkaian dokumentaturikakootan ere.

5. *Euskara* hitzak dirudienez lehenago azentua lehenengo silaban zuen. Oraindik Bizkaian leku askotan hala duela ahoskatzen da, azentu aldatuz ere behin baino gehiagotan entzunarren (19). Aipaturikako azentua zahar bezala postulatzen baldin badugu, *-n-* kontsonante nasalaren ordez aspirazioa gordetzen den eremuan agertu behar lukeen *-h-* bokal artekoa ez agertzea argitzen da eta horrela nolabaiteko bazilazioz haserako lekura iragan zela pentsa dezakegu, XVI-garren mendeko autoreetan —testo zaharrenetarikakoetan alegia— agertzen denez, geroago gutxi erabili izan bada ere. Garibai-k dakarren *enuskera* itxura zaharreko forma dela pentsatu beharko genduke, *dinotsat* eta direlakoetan gertatzen den bezalatsu. Jakina, **enau(t)si + kara > heuskara* bihurturik 'hitz egiteko modua' besterik ez litzateke izango jatorriz, *mintzaira / mintzaire* den bezala bezalaxe.

VII

Humboldt izan zen *euskara* hitzaren jatorriaz mintzatzen zela *eusi* partizipioa lehen aldiz proposatu zuena. Frantzisko

(19) Hala seinalatu zuen Xabier Kintana-k ere aipaturikako lanean, *FLV* 20 (1975), 202 orr., n. 50.

Etxebarria-k honela ematen ditu erdarara itzulirik haren hitzak (20): "*Eusi* es un verbo y quiere decir ladrar. Lástima que esta palabra sólo se halle en Larramendi y en él únicamente en los "Suplementos" (21) con la explicación monosilábica *Eusi, ladrar; eusia, ladrido*. La idea especial del ladrido animal (que por lo demás en español, como en otros idiomas, también se aplica a gran grito, clamor y contienda) no debe aquí conducir a error. El sentido primitivo de esta voz es, con máxima probabilidad, solamente ruido, sonido, grito. Sólo en esto, no en su cualidad privativa, antrópina, se tiene ya primariamente el concepto de lenguaje". "En *Eus-*, pues, latía la idea de hablar, del lenguaje y esto en toda su generalidad lo aplicó el pueblo naturalmente a su propio idioma, pues no conocía otro. *Eus-c-ara* quiere decir, pues: a la manera del lenguaje, es decir, del indígena como lenguaje κατ' ἐξοχήν. El pueblo se designaba a sí mismo con la misma naturalidad como quienes hablaban el lenguaje, es decir, el especial, que a ellos pertenecía y así como las palabras *eusi* y *otsa*, ruido, estruendo, son afines, así lo son los nombres *Eus-c-aldunac* y *Os-ca*. Astarloa, a quien nadie discutirá el conocimiento de la analogía de su idioma, viene aquí, al explicar, como arriba se ha dicho, *Osca* por *otsa*, en apoyo de mi derivación y sólo se equivoca en la aplicación de los conceptos".

Alderdi batera utzirik zuzen ala oker dagoen *Osca* delakoaren etimologiaz dioena, ez dirudi *euskara* formaren jatorritik urrunegi zebilenik, Justo Garate-ri itxusia eta gustu txarrekoa iruditzen bazaio ere (22).

Hala ere kapitulu berean kontradizio bat aurki daiteke: "La radical de la palabra –dio– es *Eusc* o *Esc*. El nombre indígena del pueblo en el idioma actual es así el de los *Euskos* o *Eskos*, y no existe ningún fundamento para no tenerlo por usual también en la antigüedad. Si ahora éste se ha converti-

(20) W. Von Humboldt, *Primitivos Pobladores de España y Lengua Vasca*, versión de Francisco Echebarria, prólogo de Arnald Steiger, Madrid 1959, 69, 70, 71 orr. Alemanez 1821-garrenean argitara zen.

(21) L. Mitxelena-k argitu zuenez Larramendi-k *Refranes y Sentencias* delakotik bildu zuen, cfr. *Euskera* VI (1961), 7-22 orr.

(22) "Aportación a la Historia de la Euskarología. Carta de citratumba a don Bonifacio Echegaray", *Euskera* XIX (1974), 112 orr.: "sin llegar yo por mi parte al extremo de mal gusto de Humboldt que conexionaba las voces *euskera* y *eusi* que, según Larramendi, designa ladrido".

do en los escritores extranjeros en el de los *Váscones*, o si el último, viniendo de *basoa*, sólo correspondía a una sola tribu, difícilmente podría hoy ya resolverse. En las sílabas *Eusc* y *Esc* no se puede pensar en una derivación de *basoa*".

Hemen dugu Arana Goiri-ren iturririk zaharrena. Berak "Euzko" titulua daraman lanean aitortzen duenez, cfr. aipaturikako lan osoak, 1785 orr., n. 2, Humboldt izan zen *euzko* eta *vasko* bat zirela adierazi zuena, harena ezagutu gabe bera hainbat denbora lehenago eritzi berera heldu bazen ere, Unamuno bezalatsu, *Revista de Vizcaya* delakoan 1886-garren urtean bateratsu argitara zituzten lanetan. "Euzko" tituludunean, lan honen haseran ikusi dugunez, eguzkiaren argiz argiturik *-z-* grafiari eman zion indar.

Arana Goiri-k lehenengo eman dugun Humboldt-en etimologia hontzat hartzen ez badu ere, bigarrengo eman dugun baino, van Eys-en hiztegiaren bidez honela ematen du: "*eusi-k-ara* (conforme al habla, lenguaje excelente), de *eusi* (ladrar, charlar), *k* fonética y *ara* (según, conforme)", cfr. aipaturikako lan osoak, 1785 orr., n. 2. X. Kintana-k ere aipatu dugun lanean ez du hontzat hartzen eta Justo Garate-k ere ez, ikusi dugunez (23).

VIII

Erdara hitza ilunago agertzen zaigula uste dut. Gorago ikusi dugun bezala Chaho-k, n. (7), *demi-langage* deitzen dio eta etimologia horrek batzuen artean gure egunotararte iraun du. Aizkibel-ek ere aipatu zuen eta ondoan *erd-u-ra* (sic) 'a

---

Artikulua Bonifazio Etxegarai-k argitaraturikako beste bati dagokio: "Los supuestos precedentes de los vocablos "Euzkadi" y "Euskaria", *RIEV* XXV (1934), 128-130 orr. Justo Garate hari zuzenean mintzatu zitzaion, tituluan dioenez, erantzunik ezin espero zuela. Hala ere D. Etxenagusia atera zen haren alde arrazoiak emanik, cfr. "Apostilla a la carta de citra-tumba del Dr. Justo Gárate a D. Bonifacio de Echegaray", *Euskera* XX (1975), 259-261 orr.

(23) Ez dugu aipatu gabe utzi nahi 1906 eta 1907-garren urteetan *euzkera* ala *euskera* gaiaz sortu zen eztabaida, alderdi batetik Arriandiaga-k eta beste batetik Kanpion-ek parte hartu zutela, *Euzkadi, RIEV* (1907) eta *La Gaceta del Norte* aldizkarietan.

modo de los llegados o advenedizos' ere seinalatzen du, gorago irakur daitekeenez. Arana Goiri-k ez ditu hontzat hartzen ez bata ta ez bestea, nondikakorik aipatzen ezduela, eta zigurtasunik gabe hobetzat proposatzen du *erri*, 'latinez *gens*', oinharrian ipintzea, *op. cit.*, 1786, 1787 orr., lehenago Humboldt-ek proposatu zuenaren antzera, *op. cit.*, 72, 73 orr., azkenengoak bigarren elementuaz beste zerbait bazion ere, gorago irakurri ahal izan denez.

Garibai-ren testoan ikusi dugunez *erdeera* agertzen da, **erda-era* batetik bokalen asimilazioz datorkeena. *Erda-* lehenengo elementuaren azkenengo *-a-* berdin ager daiteke *-a, -e* edo *-o* baten ordez eta hitza zaharra baldin bada —XIII-garren menderako dokumentatzen da *erdara* forman—, probabilitate gutxiagoz, *-u* baten ordez, baina posible da, X. Kintana-k seinalatzen duenez, op. cit., *FLV* 20 (1975), 204, 205 orr. Hark, gainera, Aizkibel-ek gorago aipaturikako *erdu-*delakoaren bideari ekiten dio. Erronkarin agertzen den *-erde* bukaera ere aipatzen du, cfr. *nazierde* 'zatoz' eta *nazierdei* 'zatozte', Azkue-k bildu zuenez. *Erdu,* Bizkaian 'zatoz' esateko erabiltzen duguna —pluralez *erduzie* 'zatozte'—, *erdutu* formatik datorkeela dio, eta autore klasikoek darabilten *erdutu* hori latinetikako *reductu(m)* delakotik. Latinetikako etimologia, *erdutu* formari dagokiona alegia, hontzat har badaiteke ere, hurrengo galdea gelditzen da erantzuteko: *erdara* 'etorritakoen moduz', 'etorrien hizkuntzaz', '*(en) forma advenediza*' baldin bada zein etorririkako dira lehenengo aldiz hori esatera bultza zezaketen horiek hizkuntzaren atetikako historiari gagozkiola? Noizkoak? Kristautasuna zabaldu zutenak? Galde honek ez du esan nahi etimologia posible ez denik.

Azkue-k bere hiztegi nagusian kontu hau hitzak duen lehenengo elementuaren azken iturrira jo gabe erabakitzen du: "*erdera* (B-l-m-mu, G-and-bid-ori), —dio—, según moda extranjera, á la manera de los extraños. Se usa entre personas mayores hablando de pañuelos y mantones de mujer y de pantalones de hombres. De esta acepción, que es la obvia y natural, ha venido á significar por extensión "lengua extraña". *Zapiak erdera ipiñi* (B), poner mantones á la charpa, conforme á la extraña moda. *Erderazko kaltzak* (B-1, G-bid-ori), pantalones á la moderna, de botonadura vertical. *Euskerazko kaltzak* (B,G), pantalones de botonadura horizontal".

Euskerazko frakak esatea eusteko moduari begira dagoela ere seinalatu da eta formaren aldetik ez dago eragozpenik, cfr. D. Etxenagusia, *op. cit., Euskera XX* (1975), 261 orr. Ikus Aita Kandido Izagirre-ren hiztegia: *"éuskerasko frákaak*: tenían un botón en la cintura y por bragueta tenían una tapa de tela que levantaba y se sujetaba con 3 botones en la cintura (P. Urc.)" (24). Hiztegi horretan, ordea, ez da erderazkorik agertzen. Azentua haseran du *éuskerasko* formak, hizkuntzaren izenaz ari ginela esan dugun bezala. Baina ez dago eragozpenik *eutsi* partizipioaren esan nahi ezagunari loturik egon daitekeela onhartzeko ere. Ezin esan dezakegu absolutoki, ordea, *éuskara* hitza forma berberaren lehenagoko esan nahi batetik ezin etor daitekeenik, **enau(t)si* batetik *eusi / ehüsi / heusi* gutxienez sortu baldin badira. Edozein modutan ere konbergentzia baten aurrean gaude.

IX

Argi dago *euskara* hitza *-s-* duela izkribatu behar dugula. Hala erabili izan dute autore klasikoek eta orain ere euskaldunok edonon horrela darabilgu. Autore euskaldun baten edo besteren kakografiak ez dira gogoan hartzekoak eta zuzen dagoena indartu besterik ez dute egiten. Gainera autore bizkaitar batzuenak hitz egitean *-s-* eta *-z-* ondo ez bereiztetik datoz, hainbat denbora dela biak *-s-* bezala ahoskatzen baititugu.

Etimologiak ere leku berera gakartza. Norbaitek, ordea, galde egin dezake: eta nola erabili behar da *Euzkadi*? Baina hori ez da nire kontua. Argi eta garbi dago gaizki eraturikako hitza dela, oinharri labanean, eta *euzko* bera ere historia zaharrari begira *flatus vocis* bat besterik ez dela. Hala ere Humboldt-ek *eusko* asmatu zuen bere teorietarik bat esplikatzeko, Arana Goiri-k baino urte asko lehenago.

Niretzat egun *Euzkadi* edo nahi baldin bada *Euskadi* arma bat besterik ez da eta arma horren bidez eskuratu behar

---

(24) *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*, compilación del P. Cándido Izaguirre O.F.M. Edición preparada por el P. Fr. Luis Villasante O.F.M., *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", IV (1970).*

dugun azken helburua *Euskal Herria*, euskaldunez beterikako Herria, da.

Hortaz ene eritzia publikoki, jende asko entzule nuela, azaldu nuen Ustaritzen 1976-garrenean eginikako Udako Euskal Unibertsitatean, goizalderuntz auzkaka hasirik bukatu zen gau pasa famatu haretan kantaturikako bertso batean. Honela bukatzen zela gogoratzen naiz: *Gure Euskadi / Euskal Herria / bihurtzen ekin dezagun*. Apur bat geroxeago, eguna argiturik, Davant euskaltzainaren sarrera hitzaldiaren ondoko bazkarian antzeko zerbait kantatu nuen Maulen. Hemen argitaratzeko honako hau asmatu dut:

Zorionean euskal iturriz
edan genduen mintzaira,
erdal mundua inguruz dugu
egin ahalez begira,
gogoz ta mamiz euskaldun gara
asko dugu tira bira,
gakizkion tink irauli arte
Euskadi Euskal Herrira.

EUSKAL ARTEAZ ETA ARTE HIZTEGIAZ

Iruñea, 1977 - VII - 29

J. San Martin

Agur, entzuleok:

Hasteko, puntu batzuk argitu beharra dut. Aurten, Udako Euskal Unibertsitate honen antolatzaileei hitza eman nien Arte orokorrez eta bereziki herritar arteaz ikastaro bat eratzeko, U.E.U. ikastaroak abuztuko hilean izango ziren ustez. Baina uztailean izateaz nere asmoak hutsean gelditu dira, hil honetan nere ogibidezko laneri erantzun beharrez. Beraz, guzioi ulermena eta barkamena eskatzen dizuet nere ezinagatik huts egin dizuedalako.

Ikastaroen harian sartzeko, hastapenetik honerat dakargun urratsez zenbait ohar agertuko dut:

I. Udako Euskal Unibertsitate hartan, 1973.urtean, arte orokorrez eman nituen hitzaldiak *Lur eta gizon, Euskal Herria* (1974) deritzan liburuan argitaratu ziren. Bertan ohartuko zeratenez, "Euskal Artea" esateaz, gure herriaren inguruan sortutako artegintzak ez ezik, kanpotik heldutakoak ere aztertzen ziren, bertako eskola edo lantegi garrantzizkoak izan direnekoak.

Arte nagusietan, Erdi-aroa geroztik Nazioarteko estiloak jarraitzen dira: Erromanikoa, Gotikoa, Pizkundea, Barrokoa, Neoklasikoa eta abar, Europako mendebalde guzian hedatu zirenak, estilo bakoitzaren sorrera toki edo inguru jakin bat izan bazen ere. Baina herri batean arte eskolak eta lantegiak indartsu nabari direnean, orduan hartzen dute lekuko berezitasuna, holako edo halako eskola edo lantegiko joera bereziak markatzen direna. Berezitasun hauek, gehienetan, herritar artearen influentziazkoak dira eta urrengo maisu handienengandikakoak. Horregatik, nere lan hartan, eginak diren ikerketaren arabera, gure herrian nortasunez bertakotu zirenen adiarazgarri izan daitezken aldi eta estiloak soil soilik markatu nituen. Adibidez, Barrokoa eta Neoklasikoa aipatu gabe utzi nituen, hauetan oraindik nahikoa estudio egin ez delako, baina orainagoko edo gure egunotako eskulturagintza sartzen nuen, historia aintzineko arte zaharrarekin batean gure geure nortasunik handiena nabari duelako.

II. U.E.U.-an, estiloak eta eskolak klasifikatzeko metodoaz mintzatu ginen, diapositibaz adiaraziz, eta mintegi eraz elkarrizketak eginaz. Orduañ, lanerako plangintza bat ere markatu genuen.

Uste dut aski argi utzi nuela Arte ikerketak gure herrian izan lezakeen garrantzia, bestelako agiri idatzien faltaz edo horien lagungarri historia bera ikertzeko, batez ere gizonaren bizikeraz eta ekonomiaren aldetik.

Honetarako etnologiaz anitz baliatu gara, baina ez hainbeste arte ikerketaz, guti baizik egin ez delako. Eta, bestelako agirien faltaz, argi bide anitz lortu genezake artea ikertzeaz. Esate baterako: gizonaren ekonomia nagusia ihiza-arrantza garaiari loturik zenekoak ditugu Harriarokoak. Itsasoa, ibai eta ibar menditsuen inguruak ziren ihiza eta arrantzarako tokirik egokienak, eta horrez gainera orduko giroa edo klima hain hotza izateaz harpeetako epeltasuna zuten bizileku eta harpeetan utzi zituzten lehen pinturak eta garai bereko tresneria osoa, nahikoa ongi ezagutzen ditugunak arkeologia ikerketeri esker. Trikuharri edo dolmenen garaia ordea, artzaingoaren inguruan ekonomia gailendu zenekoa dugu. Erdi-aroko ekonomiaren aberastasun nagusia laboraritza zenez, Nafarroa erdialdetik hegoaldera eta Arabako lurretan aurkituko ditugu hau egiztatuko diguten agiriak, erromaniko eta gotiko monumentu handiekin. Baina Pizkundearekin, zientzia ikerketen aurrerapenarekin batean ola-zaharrak eta merkatalgoa indartu ziren, eta XVI. mende horretan Bizkai-Gipuzkoetako arte aberastasunak Nafarroa eta Arabako maila hartzen dute.

Gaingiroki kondizionamendu horiek markatzen digute gure artearen abiadura eta nondik norakoa.

Arrazoi horien ondorioz, lanerako plangintza hau markatu genuen: a) Estiloak eta Eskolak bereiztea; b) Estilo klasifikatzea; d) Inbentariogintzarako arauak', Kuestionario gisa; e) Lanerako oinarrizko Bibliografiaz; f) Ermitak; g) Eliza nagusiak; h) Herriko etxe, baserri, jauregi eta dorreetxe.

Hirugarren urtean ez genuen izan ikastaroak jarraitzerik. Euskararen alde hainbeste borroka egina nuenez, Franco-rena bezalako diktadura batean euskaltzaleok ere gure zergak ordaindu beharra izan genuen eta pasaporterik lortu ezinez gelditu nintzen. Orain, nere jakinduria tipian ere, hara nola aurkitzen naizen Salamanca-ko jakitun zahar haren antzera, eta atzo esan nuenaren jarraipenez honako aurkezpen hau egitera nator:

Aurten, V. Udako Euskal Unibertsitate hontan, lehen urteeetan osatu genituen ikastaroeri gain begiratu bat eman nahi genion, herritar artea eta arte hiztegia aztertzeko.

Aurtengo asmoa zen, parte hartu nahi zuen nornahiri urtean zehar ikerketa jarraitzeko langintza gertatzea, U.E.U.-ko batzaldi hoien ondotik ere elkarrekin har-emana izatea eratuz. Are gehiago, ikasleren batek bere tesigintzarako lana burutzea nahi bazuen ere ekintza hontaz balia zezan. Gai hauen inguruan lotuko zen plangintza: a) Barruti edo haran edo herri baten mugaturik Arte katalogatze orokorra; b) Herritar artearen parte berezi batzuei buruz lan egitea; d) Lan oso berezi bati buruz, zeramika, zura lanak, burdin lanak, eta abar; e) Eliza bati buruz lana egitea, parroki edo monumentu, edo Eliza bereziren bati buruz: San Migel Aralarkoa, San Bladi Maulekoa, San Prudentzio Armentiakoa, Ziortza, Itziar, Arrate, Estibaliz, eta abar.

Lan horietarako, nahi izanezkero, historia eta etnografia ere lotu ditezke artearekin batean. Nornahik erraz burutzeko lana eta era berean gure estudioetarako premiagarria.

Ikerketa horien ondore bezala mugatu dezakegu, arestian agertu dugunez, bertako ekonomia mugimendua eta bertako eskola edo lantegien berezitasunak; baldin berezitasunik bada, ezagutzen laguntzeko.

Ikerketarako berriz, behar beharrezkoa zaigu gai bakoitzaren inkestarako kuestionario bat ere. Herritar arteaz, zenbait esku-lan eta arkitektura ikertzeko hor dugu J. M. Barandiaranek gertatutako "Cuestionario" (1) delakoa, baina zenbait puntutan gehitu beharrezkoa. Zeramikaren ikerketarakoa, esate baterako, eta adibidetzat lur materia bera hartzetik eta ehotze lanetatik, ontziak eskuz moldatu eta labean egosi arteko prozesu guztia jasotzen duena. Herritar artea den esku-langintza hau oraindik egiten den Arabako Narbaxan edo Nafarroako Lizarran jasotzeko, edo urte asko ez dela bukatu zen hirietan, langintza hura egin zutenak oraindik bizi diren artean, Nafarroako Tafalla edo Irunberrin gertatzen den bezala, adibidez.

Gehiago oraindik, arte ikerketa hauek euskaraz eramateko hain beharrezkoa zaigun tresna den Hiztegi bat osatze lana ere gure ardurapean hartu beharrean ikusten ginen, eta honetarako, galderen kuestionarioarekin batean, hasteko, zortzirehunen bat fitxa biltzen dituen hiztegi bat gertaturik nuen, arkitekturakoak eta beste, artearekin zer ikusirik duten hitzak sartuaz. Hiztegi hau, gaiok euskaraz erabiltzen diren honako bibliografia hontatik bilduak dira:

Altuna, J.: *Lehen Euskal Herria.* Oinati, 1975.
Azkue, R. M.: *Diccionario Vasco-Español-Francés.* Bilbao, 1905-1906.
Barandiaran, J. M.: *Lehen euskal gizona.* Donostia, 1972.
Barandiaran, J. M.: *Euskal etnia eta jatorria (Lur eta gizon, Euskal Herria* liburuaren 67/86 orr.). Oinati, 1974.
Euskaltzaindia: *Zortzi urte arteko Ikastola hiztegia.* Donostia, 1975 (Eta EUSKERA, XX, 7/153 orr. Bilbo, 1975.)
Kortadi, E.: *Artegintza, artista, gizartea.* Bilbo, 1974.
Lekuona, M.: *Romanikoa Gipuzkoan* ("Egan" aldizkaria, 1969, 115/120 orr.). Donostia.
Mitxelena, L.: *Jurgi Oteitzak esan digu* ("Egan" aldizkaria, 1969, 115/120 orr.). Donostia.
San Martín, J.: *Euskal Artea (Lur eta gizon, Euskal Herria* liburuaren 147/167 orr.). Oinati, 1974.
Valverde, A. "Ayalde": *Ibar ixillean.* Donostia, 1970.

(1) J. M. Barandiarán, *Cuestionario para un estudio Etnográfico del Pueblo Vasco.* Ciencias Naturales Aranzadi. Donostia, 1963.
Guía para una encuesta etnográfica. "Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra", n.º 20, p. 277. 1975.

Abategia, abadía.
Abside, ábside.
Abstrakto, abstracto.
Aburu, crítica, opinión.
Adiarazi, expresar.
Adiarazle, significante.
Adiarazpen, expresión.
Adiarazpide, señalación.
Adiera, nivel significativo.
Adimen, inteligencia.
Ageri, testimonio.
Agerkari, publicación.
Agerkari espezializatu, publicación especializada.
Aguaforte, aguafuerte.
Ahozko, oral.
Aintzina, antiguamente.
Aintzinako, de la antigüedad.
Aintzinalde, fachada.
Aintzinatasun, antigüedad.
Aintzinate, antigüedad.
Aintzinkari, anticuario.
Ajimez, ajimez.
Akademia, academia.
Akademizismoa, academicismo.
Akriliko, acrílico.
Akordiozko, convencional.
Akuarela, acuarela.
Alakaitz, mampostería.
Aldakuntza, aldaketa, variación.
Aldategi, barandilla.
Alde, cara.
Alderdi, parte.
Aldi, fase, tiempo.
Alegoria, alegoría.
Altzari, mueble.
Angelu, ángulo.
Abstrakto, abstracto.
Ametsezko ederra, belleza ideal.
Anatomia, anatomía.
Antze, arte, destreza.
Antze-lan, labor artística.
Antzeman, percibir.
Apain, ornamento, adorno.
Apaindura, ornamental.
Apaingailu, ornamento.
Apaingarri, ornamentación, adorno.
Apaingarri txanbelina, floritura.
Apaintze, ornamento, decoración.
Arabe artea, arte árabe.
Arabiar, árabe.
Arau, canon, norma.
Arautegi, código.
Arbotante, arbotante.
Argi, luz.
Arginabar, luz difusa.
Argitalpen, edición.
Argitasun, claridad.
Argitsu, luminoso.
Argizaiola, tabla para enrollar la cerilla para las ceremonias de difuntos.
Argizpiak, rayos.
Arkatz, lápiz.
Arkeologia, arqueología.
Arkibolta, arquívolta.
Arkitektura, arquitectura.
Arku, arco.
Arku biribil, arco de medio punto.
Arkupe, soportal.
Arkupuntadun, arco apuntado.
Arku zapal, arco rebajado.
Arma-harri, escudo.

Aro, época, edad, era.
Arte, artegintza, arte.
Arte aintzindari, arte de vanguardia.
Arte-arloa, cuestión artística, tarea artística.
Arte berri, nuevo arte.
Arte erabilkor, arte mobiliar.
Arte erantsia, arte aplicado.
Artegintza, labor artística.
Arte grafikoak, artes gráficas.
Arte historia, historia del arte.
Arte kontrako, anti artístico.
Arte lana, obra de arte.
Artelari, artista.
Arte liberalak, artes liberales.
Arte mintzaira, lenguaje artístico.
Arte moderno, arte moderno.
Arte nagusi, arte mayor.
Arte pobre, arte pobre.
Arte saila (arte arloa), cuestión artística.
Artesanu, artesano.
Arte tipia, arte menor.
Arte zuria, arte blanco.
Art-nouveau, art-nouveau.
Artista, artista.
Arraska, rascador.
Arraspa, raspador.
Arrazionalista, racionalista.
Arre, gris.
Asimetriko, asimétrico.
Askotariko, polivalente.
Askotarikoa, múltiple.
Asmatu, inventar.
Atabe, umbral.
Atarte, portal, vestíbulo, porche.
Ataurre, antuzano, atrio.
Ate, puerta.
Ateburru, dintel.
Aterpe, atrio.
Ateuztarri, marco de puerta.
Atlante, atlante.
Auriñak aldia, auriñaciense.
Aurrerapen, progreso.
Austriar, austríaco.
Auzpara (para, paleta), paleta.
Azal, superficial.
Azil aldía, aziliense.
Aztarna, huella.
Aztarnategi, yacimiento.
Aztarren, índice.
Azterketa (ikerketa), investigación.
Azti, mago.
Aztigaiak, artes mágicas.
Aztikeri, magia.
Aztikeriazko, mágico.

Bakun, sencillo.
Baliatze, valerse.
Balio, valor.
Balkoi, balcón.
Balkoin-banda, barandilla de balcón.
Baloratze, valoración.
Baranda, balaustrada.
Barrata (pipol), dovela.
Barrokoa, barroco.
Basilika, basílica.
Batasun, unión.
Bataio-ponte, pila bautismal.
Bataiotegi, batisterio.
Batu, unidad.
Baxera, vasija de cerámica.

Begiesmen, contemplación.
Begizko, visión.
Begizte, visual.
Behe-kultura, subcultura.
Beltz, negro.
Berde, verde.
Berebiziko, extraordinario.
Berezi, peculiar, especial.
Beirin, vidrio.
Berinadura, vidriera.
Berniz, barniz.
Berun, plomo.
Berrizale, vanguardista.
Beso, tornapunta.
Bihurdura, curvatura.
Bilduma, ensamblaje.
Bilduma egin, coleccionar.
Bildumena (argizaiola), tabla para enrollar cerilla de ritos funerarios.
Birgina (Andra Mari), virgen.
Bisigotiku, visigótico.
Bizansiar, bizantino.
Bolumena, volumen.
Bordoina, columna, poste.
Bordoinarriburu, capitel.
Bordoinarripeko, base de columna, basamento.
Borgoindar, borgoñés.
Bozina-era, abocinado.
Brontze, bronce.
Buhame, bohemio.
Burdina, hierro.
Burdinaje, armadura de hierro.
Burdin haroa, edad del hierro.
Burdinori, bronce.
Burdinsare, reja.
Bureztun, corona.
Burualde, ábside, testero.
Burualdeko kapera, absidiolo, capilla absidial.
Burutze, realización.
Buztin, arcilla.

Dada, dadá.
Dadaismu, dadaísmo.
Dadaista, dadaísta.
Danbor, flecha (en arquitectura.)
Dibujo, dibujo.
Diseinu, diseño.
Doitu, ajustar.
Dorre, Torre, torre.
Dorretxe (torre-etxe), casa torre.

Eboluzio, evolución.
Eder, hermoso.
Eder-arteak, bellas artes.
Edergailu, adorno, aderezo, ornamento.
Edergarri, adorno, ornamento, aderezo.
Edermen, gustoso.
Eder-mina, sentimiento artístico.
Ederretsi, complacerse, gustar.
Edertasun, hermosura.
Edertu, hermosear.
Ederzale, aficionado a cosas bellas.
Ederztatu, adornar.
Egitura, estructura.
Egosi, cocer.
Egungo, (gaurko), contemporáneo.
Ehun, lienzo, tela.

Ehunezko oihal, tejido de hilo.
Eite, forma, aspecto.
Elementu, elemento.
Eliza, iglesia.
Eliza, iglesia, templo.
Elizbular, (ábside), ábside.
Elkarbide (komunikabide), medio de comunicación.
Eltzegile, alfarero.
Entzumena, oído, capacidad auditiva.
Eragipen, influencia.
Erabil gauzaki, objeto de uso.
Eraiki, edificar, construir.
Eraikikuntza, edificio, construcción.
Erakusgarri, muestra.
Erakusketa, exposición.
Eratxi, derribar.
Eraztun, sortija.
Erdi-Aro, Edad Media, medioevo.
Erdiko Paleolitos, paleolítico medio.
Eredu, modelo.
Ernaltzera, clave del arco.
Errauts, ceniza.
Errealismo, realismo.
Ertz-bizi, arista.
Ertzapaindura, orla.
Errealitate, realismo.
Errealitate aburua, realismo crítico.
Errealitate kritikoa, realismo crítico.
Errealitate berri, nuevo realismo, neorrealismo.
Errediza, mueble.
Errementari, herrero.
Errepikatze, repetición.
Erretaula, retablo.
Erretratu, retrato.
Erromaniko, románico.
Erromatar, romano.
Erromantiko, romántico.
Erromantiko ondoko, postromántico.
Esan nahiaren maila, nivel significativo.
Esbaketa, espátula.
Eskema, esquema.
Eskola, escuela.
Eskuaira, escuadra.
Eskulangile, artesano, manobrero.
Esku-langintza, artesanía.
Eskultura, escultura.
Eskulturagile, escultor.
Eskulturgintza, arte escultórico.
Esolak, vigas verticales.
Epaiki-hortz, diente de sierra.
Espainiar, español.
Espatula, espátula.
Espazio, espacio.
Espiral, espiral.
Espresio, expresión.
Espresionismo, expresionismo.
Espresionista, expresionista.
Estetika, estética.
Estilo, estilo.
Estuko, estuco.
Etorkizuneko, futurista.
Etorria, inspiración.
Etxarri, pared maestra.
Etxe, casa.
Etxebizkar, caballete.
Etxegile, arquitecto.

Etxeaintzina, fachada.
Etxeatze, fachada trasera.
Euritmia, euritmia.
Euskarri, soporte, pedestal.
Ezaguera, testimonio, conocimiento.
Ezaugarria, indicio, señal.
Ezpaloi, embaldesado.
Ezteinu, estaño.
Entzutezko, auditivo.

Fabrikatu, fabricar.
Flamendar, flamenco.
Flamigero (gotiko pitxi), flamígero.
Fobismo (fauvisme), fauvismo.
Forma, forma.
Frantsez, francés.
Freskoa, fresco.
Frogantza, experimentación, prueba.
Frontoi, frontón, frontispicio.
Funtzio, función.
Funtzionalitate, funcionalidad.

Gaia, tema, asunto.
Gailur, cresta, crestería.
Gako, clave de arco.
Galda, fundición.
Galeria, galería.
Gaurko (egungo), contemporáneo.
Gauza, objeto.
Gaztain, castaño.
Gaztelu, castillo, castro.
Geometria, geometría.
Geroaldizale, futurista.
Giltzarri, clave.
Gisa (molde), estilo.
Gizaldi, generación.
Goi paleolitos, paleolítico superior.
Gorputz, enbor, torso.
Gordailu, tesoro.
Gorri, rojo.
Gotiko, gótico.
Gotiko pitxi (flamigero), flamigero.
Grafika, gráfica.
Gorago esan dudan bezala gaztelaniazkotzat ipini nahi izan zen izen batekin gertatu zena aipatuko dut, 1969-garren urteko azaroaren 11-an bigarren aldiz galerazia baitago: *Elisabet*. Erabakiak dioenez XVIII-garren menderarte zeharo finkatu gabe omen zegoen: "vacilante", bertan esaten denez, baina azkenik *Isabel* forma finkatu omen da betiko eta bestea "forma anacrónica" bezala juzgatu behar omen da eta ipintzea ez omen da bidezko, eta *Elisabet* oraingo ohituraz Bibliako izen bezala erabiltzen bada ere gaztelaniaz betiko *Isabel* gelditu denez gero hori besterik ezin ezar omen daiteke eta bortxatu beharrezkoa omen da legezko segurantza eta uniformitatearen izenean ("en aras de la seguridad y uniformidad jurídica").

Ez da harritzeko, beraz, eni ezezkoa eman izatea Euskal Herritik kanpora ere erabili denaren probak ematen ahalegindu banintzen ere. Gainera enearen aurreko hauziaren haseran Euskal Akademiaren Gipuzkoako ordezkaritzan eman zen lehen zertifikatuan erdaraz "arcaico" kalifikazioa eman zitzaionez gero gutxiago —bigarrenean idazkariak "atestiguado en documentos de los siglos XI al XV, inclusive" esaten zuen eta ez zuen aldatzen lehen esana—. Jakina, nik aurkeztatu nituen XVIII-garren mendeko probek ere ez zuten balio, ezta *Eneco* erdarazko saindu izendegian agertzearenak ere.

Gogoan dut egun batean adiskide dudan juez bat hasi zitzaidala esaten: "He encontrado la manera de que en el Registro Civil se imponga el nombre de *Ion*, porque como es el que lleva un personaje griego —hain zuzen ere sofista baten izena da, Platonen lan baten titulu bezala agertzen dena— la ley no se opone a ello. Eta orduan bat batean erantzun nion: "Es que

los griegos, como Palas Atenea, no serían nacidos de madre, pero nosotros los vascos, sin embargo, sí, y los nacidos de madre son los únicos a los que se les suelen negar los derechos''.

Harrezkero, errege berriarekin beste giro bat sortu da. Euskal Akademia bera ere legez indartu dute eta pertsona izenei dagokien legearen zati bat aldatzeko asmotan dago Madrileko Gorteetan (LRC, art. 54), jadanik batzordeak diktaminaturik, hontzat edo txartzat hartzearen zain eta honela geldituko omen da: ''En la inscripción se expresará el nombre que se dé al nacido. Tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en alguna de las lenguas españolas'' (*B. Oficial de las Cortes Españolas,* núm. 1515, 2-VII-1976). Gainera orainarte ipini diren izenak aldatu nahi baldin badira bidea emango omen da leku berean esaten denez.

Laster izenak Espainiako hizkuntza batean baino gehiagotan ipintzeko modua sortzen baldin bada non gelditzen da legezko segurantza eta uniformitatearen izenean bortxatu beharra? Edo aldatzeko dagoen legeak ez ote du aldatzen denean segurantzarik izango? Nork sinistu hitzontziei?

Nolanahi dela, ordea, egungo soziologia problemei kasu egiten baldin badiegu ere pertsona izen asko izateak ez dakar batere kalterik. Horrela agian ez lirateke gertatuko gertatzen diren beste izen eta deitura berbereko pertsona administrazioetako fitxetan, hala nola *Juan Perez* edo *Maria Etxebarria.*

Legea oraindik ofizialki aldatu ez bada ere juezak hasi dira apur bat eskua zabaltzen eta gero testo berria hontzat hartzen denean zeharo makurtuko dira bertan dioenera. Baina, kontuz! Legearen zati bat bakarrik aldatzen da, guri eta gure kasuan daudenei dagokiena hain zuzen ere, baina gainerakoan orainarteko jurisprudentzia eta ohiturak zutik mantendu nahi lituzkeenik balego —eta berez jarraitu egin behar omen ditu— zenbait gauzatan lehen bezala gaude.

Lekukotasun bat emango dut: Ene adiskide eta ikasle izanikako batek semeari izenez *Joanes* ipintzea erabaki zuen eta juezak ezin zuela esan zion izen hori latinezkoa zelako eta nahi bazuen euskaraz *Jon* edo gaztelaniaz *Juan* ipiniko ziola. Jakin nuenean ene kolkorako esan nuen oraingo egoera berri honek ere gora beherak sortuko dizkigula. Esan zitzaion *Joanes* euskarazkoa zela eta bazituela aldaera gehiago ere, hala

nola *Manes, Johane, Johañe* eta abar, *Kepa*-z gainera *Peru, Betiri, Piarres, Peri, Pello* eta abar dauden bezala.

Baina gaztelaniazkotzat ipintzen direnetarako lehen aipatu dugun *Elisabet* izenak, konparazio baterako, sortu duen jurisprudentzia gorde nahi duenik baldin balego ez ote digu guri ere gauza berbera beteerazi nahiko norbait zirikatzen hasten baldin bada edo hauziren bat sortzen baldin bada?

Azkenean *Joanes* ipini zion izenez gorago aipatu dugun juezak, baina ez kezkarik gabe.

Betikoan gaude autonomia baten inguruan, kolonialismo arrasto guztiak zeharo suntsiturik, gauza hauei ere behar den bezalako bidea ematen ez baldin bazaie eta Madrilen kokaturikako lege gizon zuzendari nagusi bihurtu batek, gure hizkuntzaz, munduaz, barreneko historiaz eta bereziki gure gogoaz ezer ez dakiela, espero ez dugula euskalduna gertatu delako ez baldin bada, erabakiak hartuko ditu, kasurik hoberenean borondate honez, berez gu euskaldunok, eta ez beste inor, garela horretarako nor eta gauza eta hemen besteren borondate honak ez du balio.

Euskaltzaindiari eskatzen diodana hauxe da:

1. Hontzat eta zuzen bezala har ditzala euskaldunen artean korritu eta korritzen duten pertsona izen bakoitzaren aldaera guztiak bata bestea baino hobetzat juzgatu gabe eta ez dadila bere helburua izan pertsona izen bakoitzaren aldaerok forma bakar bat betiko izatera nahi ta nahi ez iritsi behar dutela eta hutz dezala hau etorkizunean bortxatu gabe sortzen diren ohituren arauera.

2. Aipaturikako eritzia bere dotrina bezala harturik agirian ipin dezala, eta, inoiz behar balitz, Estatu istituzionalizatuaren beraren aurrean ere hala ager dezala behar den indar eta zorroztasun osoz, Estatu horren eritzia hala ez balitz ere.

Jakina, Euskal Akademiara kontseilu eske doazenei hark beretzat puntuok dotrina bezala hartzen dituen —hartzen baldin baditu— arauera erantzun beharko zaie. Heldu dela ordua halako gauzetan bururik ez makurtzeko diotset euskaldunei eta denon artean Euskal Akademiak bakarrik ezin egin dezakeena egin ahal izango dugula.

Bilbon 1976-XI-25, biharamonean Euskal Akademiaren batzarrera Donostiara eramana.

PERTSONA IZENEZ GEHIAGO

Alfonso Irigoyen

Euskal Akademiaren azaroko batzarrerako lan bat ekarri nuen Euskal Herrian izan dugun pertsona izenen hauziaz eta azken orduan ezin irakurri izan nuen astiezagatik hitza eman ez zitzaidalako. Urrengo hilean ohiturazko batzarre arruntik izango ez baikenduen, agirikoa baino, eta euskaldun guztien ardurakoa zela uste izanik, artikulu hori *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkarian argitara nuen abenduaren 15-erako kalera atera zen numeroan. Edozein modutan ere egungo batzarrean aurkeztatzen dut eraskin honekin batera.

Artikulua agertu ondoan hilbeltzaren 4-ean legea aldatu da eta honela etorri zaigu argitara:

BOLETIN OFICIAL DEL ESTADO, 8 DE ENERO DE 1977:

"LEY 17/1977, de 4 de enero, sobre reforma del artículo 54 de la Ley de Registro Civil.

"El artículo cincuenta y cuatro de la Ley del Registro Civil estableció la necesidad de que los nombres propios de españoles se consignaran en castellano. Esta regla pugna con el hondo sentir popular de los naturales de distintas regiones españolas, que se ven privados de la posibilidad de que los nombres propios en su Lengua vernácula sirvan, dentro y fuera de la familia, como signo oficial de identificación de la persona.

"La presente Ley tiene la finalidad de corregir esta situación, atendiendo, de un lado, al hecho cierto de que la libertad en la imposición de nombres no debe tener, en principio, otros límites que los exigidos por el respeto a la dignidad de la propia persona, y procurando, de otro lado, amparar y fomentar el uso de las diversas Lenguas españolas, ya que todas ellas forman parte del fondo autóctono popular de nuestra Nación.

"En su virtud, y de conformidad con la Ley aprobada por las Cortes Españolas, vengo en sancionar:

"Artículo primero.—El párrafo primero del artículo cincuenta y cuatro de la vigente Ley del Registro Civil, de ocho de junio de mil

novecientos cincuenta y siete, quedará redactado en la siguiente forma:

"En la inscripción se expresará el nombre que se dé al nacido. Tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en alguna de las Lenguas españolas".

"Artículo segundo.—A petición del interesado o de su representante legal, el encargado del Registro sustituirá el nombre propio, impuesto con anterioridad a la vigencia de la presente Ley, por su equivalente onomástico en cualquiera de las Lenguas españolas. La sustitución será gratuita para los interesados.

"Artículo tercero.—La presente Ley entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el "Boletín Oficial del Estado".

"Dada en Madrid a cuatro de enero de mil novecientos setenta y siete.

"JUAN CARLOS. El Presidente de las Cortes Españolas: TORCUATO FERNANDEZ-MIRANDA Y HEVIA".

Zorionez lege aldatzeari hitzaurre bat ipini diote, Gorteetan lehen diktaminaturik zegoela bertako *Boletin Oficial*ean agertzen ez zena eta horrek, letrauak bide zabaletara bultzaeraziz legea interpretatzeko momentuan, aurreko jurisprudentzia apurtzen du, juezak lehen momentutik ohitura txarrak hartzen hasten ez baldin badira bide hestuagoetara abiaturik, zabaletara makurtu gabe.

Uste dut aurreko lanean proposatzen nuen bide zabala ondo sar daitekeela lege berrian, zeren legegileak legea hobeto ulertzeko dioenez gogoan izan behar baita, alderdi batetik, errealitate egiazkoa den gisara, izenak ipintzeko libertateak ez duela izan behar, oinharriz, pertsona berberaren duintasunari zor zaion errespetoaren mugarik baino, eta bestetik gure hizkuntza ere, Penintsulako besteekin batean, zaindu eta bere erabiltzea ugaldu egin behar dela, orainarte Euskal Akademiak helburutzat izan duen bezala.

Horretarako, ordea, bide zabaletik nola ibili eta ibilerazi ikasi behar dugu eta gure tradizio zaharrez ere behar den bezala baliatu behar dugu, hain zuzen tradizio zaharra ere iraulerazle bihur baitakiguke nolako urritasunera iritsi garen azken mende ta erdi honetan ikusirik.

Legea atera ondoan badakit norbait *Pedro* izenaren lekuan *Haitz* ipintzekotan zebilela eta ez dakit azkenean zer egin duen, baina alde batera utzirik hori esan nahi dudana da legearen arauera eskubide osoa duela ene ustez eta bide hori

ez doala inola ere tradizio zaharrean, baita latinezkoan ere, eta ez hain zaharrean, korritzen zuen ohituraren kontra eta are gutxiago hizkuntzen legeen kontra. Ezaguna denez *Petrus / Petri(us)* ebanjelioan datorren hitz grekoaren latinezko forma, mozio maskulinoa erantsirik duena, besterik ez da. Ikus *Vulgata*, 16, 17-18, *Evangelium secundum Matthaeum: Beatus es Simon Bar Jona, quia caro et sanguis non revelavit tibi, sed Pater meus, qui in caelis est. Et ego dico tibi, quia tu es Petrus, et super hanc petram aedificabo Ecclesiam meam, et portae inferi non praevalebunt adversus eam.* Grekora itzulirikako testoa da ezagutzen den zaharrena, zeren jatorriz arameoz izkribaturikakoa izan omen zen eta orijinala agian betiko galdu baitzen. Testo grekoan *Pétros* forman agiri da.

Latinez *Lupus / Lupi(us)* zegoela guk bagenduen, esate baterako, *Otsoa / Otxoa / Oxoa / Otxo / Otxoko / Otxote / Otxando / Otxanko / Otxoteko / Otxalo / Osano / Osando /* eta *Otxanda / Otxandako* eta abar, alde batetik, eta *Lupi / Lopi / Lope / Txopi / Txope / Lopeko / Lopetxa / Lopero / Txopino / Txopite / Lopiko / Lopete* eta abar bestetik.

Edo bagenituen geureak, hala nola, *Seme / Xeme / Txeme / Semeno / Xemeno / Xemero / Semenko / Semenso,* eta abar, Erdal Herrira *Jimeno* bezala zabaldua.

Ene –patronimikoa *Enetz* zen– / *Eneko / Enetxo / Enexo / Eneki / Enesko / Enenko / Eñeto / Eñetza /* eta abar, lehen pertsonaren genitibotik, erdaraturik *Meo Anaya* > *Minaya, Ene Peruko* formaren gisara, eta, dudarik gabe, euskarazkoak *Ene Anaia* izan behar zuen, *Mio Cid* eta abar. Euskal forma erdaraz *Iñigo* izatera iritsi da.

(H)obeko / Obetxo / Obenko / eta abar, *(h)obe* formatik.

Jaun –praenomen gisa ere erabil zitekeena– / *Jaunso / Jaundo / Jaunti / Jauntxe / Jonti / Jontxi* eta abar.

Latinez hitz egiten zen garaiean Mediterraneo inguruko herrietan ez zen inor saiatzen, mundu guztiak uste duenez, pertsona izenetan trabarik ipintzen eta hor dira nahi diren beste apelatiboetarik sortuak, hala nola, *Vicenti(us)* 'gudu irabazle' euskaldunen artean *Binkenti* > *Bikandi, Bixintxo, Txente,* eta abar, formetan iraun zuena, *Felix* 'zorion', euskaldunen artean *Beritz / Helitz / Heritz / Eritz* formetan iraun zuena, *Dulciti(us) / Dulcitus* 'dultze', euskaldunen artean *Dulkiti / Dulkite / Dulkito* formetan iraun zuena, *Asinari(us)* 'asta-

zain', euskaldunen artean *Azeari / Azari / Azeri* bezala iraun zuena, gero basapizti ezaguna adierazteko ere erabili zela, *Bellus / Belli(us)* 'eder', euskaldunen artean *Bellu / Bello / Belo / Beli / Bele / Bel / Belso / Beltxo / Beltxa* —hau *beltza* kolore izenaren diminutiboa ere izan zitekeen— / *Beltxe* / **Beltxi (Meltxi)* / eta abar, alde batetik, eta *(H)ederra / (H)ederro*, bestetik, *Vita*, euskaldunen artean *Bitako* alderdi batetik, eta bestetik *Biziko / Bitxia* —balio adierazkorraren bidez zentzu berezi bat hartu duena— / *Bitxio / Bixio / Bizinai / Bizinaia* azkenengo biok esan nahi mugatuago bat dutela jatorriz.

Grekoz ere berdin gertatzen zen: *Teofilo* 'Jainkoaren zale', *Eugenio* 'ondo jaioa', latinez nolabait *Natalis*, euskaldunen artean *Jaio*, egun deitura bezala irauten duena eta jatorriz pertsona izena baino ezin izan zitekeena.

Beraz, libertatea esaten denean gutxienez tradizioz ulertzen zen bezala izan behar du eta hori guretzat aliena ezina da. Gainera demokraziara bidean omen goaz eta hori bentzutze historiko bat omen da Hori hala baldin bada arrazoi handiagoz joan behar da bide zabaletik, edozein modutan ere ez legeak markatu duena baino hestuagotik. Ez dakigula gerta, ordea, arnasa hartu ezinik egon garen erorialdi honetan itsatsi zaigun ohituragatik nola guregana behar dugun aize osasuntsua ez jakitea eta behar dugun elementua inguruan izanarren itotzea.

Bilbon 1977-garren urteko urtarrilaren 27-an. Biharamonean Euskal Akademiaren batzarrean Donostian irakurria.

P.S. Lan hau egin eta irakurri ondoan, urtarrilaren 10-ean, *El Correo Español-El Pueblo Vasco* Bilboko egunkariak juez jaun batekin eginikako elkar hizketa zekarren eta bertan ea *Arantza* ipini ote daitekeen *Aranzazu* formaren partez galdetzen diotenean diminutiborik ezin ipin daitekeela erantzuten du. Hemendik diotsat ea diminutiboen kontu hori non dion legeak eta diminutiboa zer den beretzat hori balio, zeren euskal munduan apurtxo bat bakarrik sarturik dagoen batek ezin esan baitezake *Arantza* formak balio adierazkorrik duenik edo berak nahi duen bezala diminutibo baliorik, hori izateko euskaldun askoren artean *Arantxa* behar baitu gutxienez. Badiotsat gainera ea zergatik ipintzen dituen eskatzen diotenean *Paulino* eta horrelako izenak, *Paulino*, esate bate-

rako, *Paulo*, edo norbaitzuk nahiago duten bezala *Pablo* –femeninoan beti *Paula*–, formaren diminutiboa besterik ez baita. Eta betiko leloa esaten baldin bazait, hau da, erdaraz *Lola* ezin ipin daitekeela *Dolores* delako, bortizki erantzungo dut halako gauzak Madrilen inguruan dabiltzan erdaldunen kontuak direla eta gure mundua ez dugula juzgatzen utzi behar kanpotikako kontzeptu sinple eta homologagaitzez eta gutxiago inori mundu adierazkor nahasi eta era guztietako sakontasun eta tximurdurak dituenean muturrak sartzen utzi, aldezaurretik bera behar den neurrian gure mundu euskaldunean sartu ez baldin bada. Mundu adierazkorra homologaezina izaten da sarri hizkuntza batetik bestera. Batean zerbait kariño adierazle dela antzekoa bestean *plebeyo*-egia da bere burua dotoreagotzat duenaren eritziz. Edozein modutan ere esan behar zaiguna da ea zertan *Arantza* izenak –eta ez da hori baino erabiltzen jendearen artean *Aranzazu*, euskaraz *Arantzazu*, formaren ordez– ukitzen duen pertsonaren duintasuna. Eta gainera izenak etxe barrurako eta kanporako balio behar omen dute. Hizkuntzaren legeak herriak egiten ditu eta azken finean burrukarik asko eginik besteak ere bai, eta ez juezek. Nolanahi dela ere balio adierazkorra duten izenak Frantzia eta Ameriketan ere erabiltzen dira, hala nola *Jeannette* eta Estatu Batuetako buru dena ere *Jimmy Carter* deitzen da.

(Azkenengo *P.S.* delakoa falta zitzaiola *Punto y Hora de Euskal Herria*-n argitara zen, 1977-garreneko otsailaren 17-23-rako agertu zen numeroan.)

HIRIETAKO IZENEZ

1977 - XII - 30

Juan San Martin

Hirietako kale edo karrika izenez, hauek euskaraz jartzeko, geroago eta eskari gehiago ditugu. Eta gai hontaz badira bi gauza ondo berezi beharrezkoak, kale, karrika, plaza, zumardi, etab., hiri edo urbanistika orotan erabili behar direnak eta hauetako bakoitzak behar duen izen propioa. Lehen partearen argitasunak Euskaltzaindiak eman beharrezkoak dira eta bigarrengoak hiri edo herri bakoitzeko agintarien esku dagoen gauza da. Inoiz, bientzako erabakien eskaria egin zaigu, baina kale edo karrika bere izen berezia jartzea ez da Euskaltzaindiari dagokiona. Hala ere, iduritzen zait, tokian tokiko izen zaharra gordetzea eta toki-izen baten lekuan karrika bat baino gehiago dauden hirietan, hauek bereizteko ere, herriko seme ospetsuen izenak jartzea gomendatu behar genukeala.

Euskal-Herrian, hiribilduak (villas) sortzeaz sartu ziren hirietako izen horiek eta herriak berak erabilkeraz emandako nortasunaren jabe dira. Hala ere, gure herriak ez du izan eskola euskaldunik egunean egungoa bideratzeko eta hirigintza berriak dakarten toki bereizketa euskaraz emateko beharrezkoa zaigu euskaldun sustraiz kontsektu berriak sortzea. Behar ditugunak asmatuz eta lehendik ditugunak bultzatuz.

Aurtengo urtarrilean Donostiako kale izenak euskaratu nituen. Eta probizionalki egin nuen zerrendaren kopiak L. Mitxelena, J. M. Lojendio, A. Irigaray, J. L. Alvarez Enparantza "Txillardegi", A. Anabitarte eta Y. Etxaide donostiar eta Donostian bizi diren Euskaltzaindikoen artean zabaldu nuen. Hauetako lauren oharrak jaso nituen lanaren osagarri. Baina, era berean, Donostiako Udaletxera bidali nuen beste

kopia bat eta honek egunkarietan argitaratu zuen. Orduan agertu zen buru haina aburu.

Zertan ziren aburuen desberdintasunak? Batez ere *kale* eta *plaza*-ren ordez *karrika* eta *enparantza* eskatzean. Baita ere baziren kaleeri izena aldatzea eskatzen zutenek, baina hau ez da guri dagokiguna.

Martxoaren 14 eta 28an Donostiako "Hoja del Lunes"ean bi artikulu argitaratu nituen gai honi buruz, izenok historian zehar nola diren agertuz, eta eztabaidok baretu ziren. Behintzat, nere ageri eta argudio haien kontra ez zen inor agertu eta donostiar euskaltzale bat baino gehiagogandik jaso nituen zorionak.

Toki izena den bezala errespetatu behar baldin bada, arrazoi beragatik gorde behar dugu historian zehar eta ohituraz etorri zaiguna. Esate batetako, karrika, ongi da mugazandiko edo nafarroako euskalkietan gordetzea; baina, bizkaigipuzkoetan arrotz egiten zaigunez aparte, kanta zaharretan eta literaturan oso sartua dugu *kale*. Eta ez deritzagu batean edo bestean kentzerik edo baztertzerik. Gainera, biak onartuak daude *Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia*-n.

Beste gauza bat da *plaza* eta *enparantza* hauzia. Hego Euskal-Herriko euskaltzale jendeari, gazteleraz dakitenez, honen antzik ez duena iduritzen zaio euskarazko jatorrena. Baina euskaltzale horiei erakutsi beharra dugu jatorra zer den, bestela jokabide berdina jarraituko dute gainerako hitzetan ere eta hau ez da izanen euskararen onerako. *Enparantza* bere funtsean zer den ez dakigularik ezinezkoa zaigu beronen alde jokatzea. Bestalde, oroi Donostian badela *Calle de Plazaburu*, eta biak erabiltzera ia zelako anahasmendua sortu genezakean.

Toki-izenen idazkera izan genezake beste arazo bat, ohitura berriagokoa hartu ala agiri zahar eta grafia bateratuagora jo. Donostian, adibidez: *Ametzagaña* eta *Haiet*; baina lehen grafia bateratuagatik eta bigarren erabilkeragatik, *Ametzagaina* eta *Aiete* eskatzen dutela uste dut. Hala ere, ez da hau erabaki estuetan mugatzekoa.

Dena dela, hirietako izenen proposamenez honako zerrenda hau aurreratuko dugu, proposamen gisa, ondorean bakoitzaren arrazoiak edo argibideak agertuz:

Acera,	*espaloi*
Alameda,	*zumardi*
Arrabal,	*errabal, edo errebal*
Avenida,	*hiribide, etorbide, herribide*
Barrio,	*hauzo*
Calzada,	*galtzada*
Calle,	*kale, karrika*
Camino,	*bide*
Camino real,	*bide nagusia, errege bidea*
Camino jalonado o camino cercado	*estrata*
Carretera,	*bide*
Centro de la ciudad	*hirierdi, urierdi*
Cuesta,	*malda, aldapa, aldats*
Esplanada,	*zabal, ordeka*
Esquina,	*ertz, kantoi, izkina*
Gran Via,	*bide nagusi, bide zabal*
Grupo,	*hauzune, hauzategi*
Jardin,	*jardin, lorategi, lilitegi*
Jardin público,	*herri lorategi*
Parque,	*parke*
Parque infantil,	*haur jostaleku, ume jostaleku, jostaleku, jolastoki.*
Parte,	*parte, alderdi*
Pasadizo,	*zerka, etxarte*
Pasaje,	*pasaia*
Paseo,	*pasealeku, ibiltoki*
Plaza	*plaza*
Plazuela	*plazatxo, xabalko*
Polígono	*polígono*
Puente,	*zubi*
Travesía, calle	*zehar, zehar-kale*
Vía,	*bide*

Hauek dira hautapen arrazoien adibideak:

Bide (camino, carretera, vía), latineko "via"tik badator ere, aspaldidanik euskaldun deituretan dugu. Eneko Iturbideko, Nafarroan agertzen zaigu, San Juan de Jerusalen deitu Priorado ordena hartako agirietan, XIII. mendean. Leizarragak eta Axularrek ere erabilia da, eta gaur egun ukatu ezinezko euskalduntasuna du.

Bide nagusi, errege bide, (camino real, camino principal), Landuchiok (1562) *bidenausi* jaso zuen, baina oso zabaldua da *errege-bide* ere.

Bide nagusi, bide zabal (gran vía), arrazoi beragatik erabili daiteke.

Ertz, kantoi, izkina (esquina), honela erabiliak dira eta honela jasoak *Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia*-ren 57. orrialdean. (Aurrerakoan Euskaltzaindiak argitaratutako liburu honen siglatzat ZIH erabiliko dugu, maiz aipatu beharra izango dugunez).

Errebal, Errabal (arrabal), oso erabilia eta *ZIH*, 57. orrialdean jasoa. XV. mendean Mondragoeko eresietan. Landuchio (1562).

Espaloi (acera), ZIH, 57 orrialdean.

Estrata (camino jalonado, camino con setos), oso erabilia Bizkai aldean.

Etorbide (avenida), horrela erabilia da eta horrela jarriak daude gure inguruetako zenbait herritan. *Hiribide* eta *uribide* agertzen dira *ZIH* liburuan.

Galtzara edo *Galtzada (calzada),* maiz erabilia eta deituretan sartua, Galzagorta adibidez. Badakigu ekialdean "harpidea" eta honuntzago "arbide" erabiltzen direla, baina hoiek inoiz harriak eramateko bideak dira eta ez harrizko bideak. Dena dela, hor dugu Donostian bertan Galtzaur (Galzaur), hemen diogunaren lekukotasunez, eta baita ere herri kantetan beste honako hau: "Elizatikan komenturaiño, egin digute galtzara..."

Haur jostaleku, ume jostaleku, jostaleku, jolasleku (parque infantil), ikus *ZIH,* 57 orr. lehen forma biak.

Hauzo (barrio), ZIH, 56 orr.

Hauzo (vecindad), erabiltzen da.

Hauzune, Hauzategi (grupo, grupo de viviendas), komeni litzake.

Herri lorategi (jardin público), ZIH, 57. orr.

Hiribide, uribide, herribide (avenida), lehen biak *ZIH*, 57. orr. agertzen dira, hirugarrena ere erabilia da, baina behar bada *etorbide* hedatuago dago.

Hirierdi, urierdi (centro de la ciudad), ZIH, 56. orr.

Jardina, Lorategi, Lilitegi (jardín), erabilia da.

Kale (calle), ZIH, 56. orr. Euskalherriaren mendebaldean erabiltzen da, eta ekialdean *karrika.* 1897ko apirilaren 13an Donostiako Udaletxeak onartu zuen zerrendan beti *"kale"* agertzen da. Errenderiko hirian ere *kaleak* dira, baina Oihartzunen hasten dira *karrikak* eta Nafarroan eta Lapurdi aldean ere hola erabiltzen dira. Batxiller Zaldibiak XVI. mendean jaso zuen bertsoak: "Mosiur Chanfarron jaun andia / Irun kalean daza illa" dio. Baina hau berau baino lehenagokoa dugu Arrasateko eresi hura, Garibaik XV. mendekotzat jasoa:

Giputz andraok artu ditu gaxtoto:
Iturriotz kalean andra Maria Baldako,
Arte kalean andra Oxanda Gabiolako,
Errebalean andre Milia Lasturko.

Horregatik, ongi aritu zen Iparragirre, "Ume eder bat ikusi nuen / Donostiako kalean" kantatu zuenean. Nikolas Ormaetxea "Orixe" berak, gure izkribatzaile handiak, *Euskaldunak* poemaren "Estropadak" deritzan partean *kale* erabiltzen bai du. Beraz, donostiarrei nork uka beren hitz jator hori?

Karrika (calle), Euskalherriaren ifarraldean eta ekialdean erabiltzen da. Karrikaburu, Karrikart, Karrikondo deiturak erro beretik datoz. *Kale* bezain jatorra da *karrika* eta, lekuan lekuko, historiaz etorri zaigun bereizketa mugak barna biak gorde beharko ditugu. Biak jasotzen dira *ZIH* 56. orr.

Malda, aldapa, aldats (cuesta, subida), erabiliak dira.

Parke (parque), ZIH, 57. orr.

Parte, alderdi (parte), erabiltzen dena.

Pasaia (pasaje), ZIH, 67. orr.

Pasealeku, ibiltoki, ZIH, 57. orr. Landuchiok (1562) *paseaitako lekua* jartzen du eta Leizarragak dakar *paseatu* hitza. *Ibiltoki,* nonbait, geroagokoa da. Baina gaur egun biak erabiltzen dira.

Plaza (plaza), hau ostera alemanak ere erabiltzen duten hitza dugu. Euskarazko lehen liburu inprimatuan, 1545ean, Etxeparek kontrapas deritzan olerkian: "Heuskara / Ialgiadi plazara" garbi asko jarri zuen gure hizkuntzaren gorespenez-

ko bertso hartan. Bestalde, kanta zahar askotan aurkituko dugu, bestean beste, hain ezaguna zaigun "Ama begira zazu leihotik plazara" delakoan. Landuchio (1562), Leizarraga (1571), Axular (1643) eta Orixe (1950) idazleak lekuko. Ikus Orixeren *Euskalduna* poemaren "Pestaburu" deritzan lehen kapituluan. Euskaldun deituretan ere sartua dugu, Plaza, Plazabeitia, Plazaola (ikus L. Mitxelenaren *Apellidos vascos*). Donostian bertan, 1897ko kale izenen zerrenda hartan *plaza* agertzen da. Baina, oraindik orain ere bada Donostian *"Calle Plaza-buru"* delako kale bat. Agustin Anabitartek horrela erabili zuen *Donostia* deitu liburu saritu hartan, egile bera donostiarra izanik. Beraz, zein harritu behar da holako izena onartzeaz? Batzuk, jatortasunik gabeko *enparantza* nahiago dute, baina hitz hau nork daki Arakistainek non eta nola jaso zuen? Nik ere esango dut "Ama begira zazu leihotik plazara", hitz jator hau egiztatzeko. Zeren, *enparantza*, beste ideia batekin ezagutzen bai da, eta nahastea ez bai da euskararen onerako.

Plazatxo, xabalko (plazueta), ZIH, 57. orr. biak agertzen dira. Donostian, 1897ko zerrenda hartan *plazatxo* dator.

Poligono (polígono), horrela hartu beharrezkoa ikusten dut, hirigintza berrietan sartuaz datorrenezkero.

Zabal, ordeka (esplanada), horrela erabiltzen dira eta leku izenetan ere horrela aurkitzen ditugu.

Zehar, zehar-kale (travesía, calle transversal), Gipuzkoako mendebaldean eta Bizkaian oso ezaguna da. Adibidez Durango eta Markina hiribildu sortu zirenetik agertzen dira *"Ziar-kalia"* bezala. Hemendik nonbait, P. Mujikak bere hiztegian *"calle transversal, zear-kale"*.

Zubi (puente), oso ezaguna.

Zumardi (alameda), Zumar, "olmo" dela argi dago, Azkueren hiztegian. Baina, baita ere, *Zumartxuri,* "álamo". Behar bada hutsen bat dago hemen, baina Larramendik bere hiztegian (1745), "Alameda", *zumarradia* dakar, eta "álamo", *ezki-zumarra.* Añibarrok, "Alamo", *zumarra.* Eta Orixeren *Euskaldunak* liburuko 609. bertsoan (estrofa), erdal itzulpendun argitalpena hartzen baldin badugu, *Zumardiantza,* "Como hilera de álamos" euskaratzen du. Beraz, okerrik bada ere oker barkagarria litzake eta *zumardi, alameda* legez erabiltzea komeni zaigu.

Herrigintzan guziok eskuhartu behar dugu. Zerrenda honekin konforme ez daudenak esan dezatela ia iturri jatorragoak non aurkitu behar ditugun. Oso pozik eskertuko ditugu. Gainerako edozein ideia ere onartua izanen da.

Baina, otoi, gure egitekoa itzultzea da, izenak aldatzeko eskubiderik gabe. Izenak jartzea Udaletxearen eginkizuna denez.

Edozein hizkuntza normaletan bezala, erabiltzen diren hitzetan oinarritu gara. Gure literaturak bere historia du eta hiztegiak ere laguntzaile ditugu. Hitzen jatorria edo etimologia aztertzea linguistika sailekoa da. *Plaza* griegotik (nahi gazteleraren bidez hartua izan), *bide* latiñetik, *karrika* erromantzeetatik eta *kale* behar bada arabetik (batzuen ustez euskarazko sustraiak baldin baditu ere), beste arlo bateko egintza da. Hitzok, orain, beste hizkuntzen haina gureak dira, zeren beste hizkuntzak ere bereganatuak dituztenez, normala den bezala.

Azken batean, alde edo kontra, aitortu beharra dut ni neu historian zehar tradizioz etorri zaizkigun izeneri eustearen aldekoa naizela. Irikitzen diren kale berrietan ere, ahal delarik, toki izenez baliatu behar garela. Jatortasuna gordeaz historia ikerketarako lagungarri direnez.

BIBLIOGRAFIA

Aizkibel, J. F., *Diccionario basco-español* (1883-1885).
Anabitarte, A., *Donostia* (EUSKERA, 1933).
Añibarro, Fr. P. A., *Voces vascongadas* (1963). (XVIII. mendearen azkenaldian egina).
Azcue, D., *Mi pueblo ayer* (1932).
Azkue, R. M., *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1905-1906).
Caro Baroja, J., *Los vascos y la historia a través de Garibay* (1972).
Estornés, B. eta Goicoechea, J. I., *Diccionario Auñamendi Español-Vasco* (1965 ss.).
Euskaltzaindia, *Batasunerako Hiztegia* (EUSKERA, 1968).
Euskaltzaindia, *Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia* (EUSKERA, 1975).
Landuchio, N., *Dictionarium Linguae Cantabricae* (1562).
Larramendi, M., *Diccionario Trilingüe* (1745).
Letona, J., *Mondragón: sus calles* (1975).
Lhande, P., *Dictionaire Basque-Français* (1926).
Michelena, L., *Apellidos vascos* (1953).
Michelena, L., *Textos arcaicos vascos* (1964).
Mugartegi, J. J., *La Villa de Marquina* (1927).
Múgica, P., *Diccionario Castellano-Vasco* (1965).
Múgica, S., *Curiosidades Históricas de San Sebastián* (1900).
Múgica, S., *Las calles de San Sebastián* (1919).
Villasante, L., *Axularren Hiztegia* (1973).

AHAIDEGO IZENAK

1977 - 27 - V

J. M. Satrustegi

Herri jakintza aztertzerakoan ahaidego izenak behin baino gehiagotan ateratzen zaizkigu. Hitz oso ezagunen aldaketak besterik ez dira, batzutan; eta egundaino jaso ez diren esaerak, besteetan.

Neuk baditut han hemenka jasotako batzu eta, hiztegia berriztatzen denerako jakingarri izango direlakoan ekartzen ditut.

Iturriei begiratuz, hiru mailakoak dira: 1) Egunoroko hizkuntzan herriak ibiltzen dituenak, 2) Esaera zaharretarik jasotakoak, eta 3) Antxiñako idazki eta bildumatakoak.

1. HERRIAK DAKIZKIENAK

1. Ehazkide. Ezkontzaz familian sartua.

Euskal hiztegietan ez dut aurkitu, baina Urdiainen erabiltzen dute. Bost edo sei emakumerengandik jaso ditut hemen dakarzkidan berriak. *Ehazkiya* esaten dute berek. Batek, berriz, *ehazkiria* zela esan zidan.

Zer esan nahi duen galdetzean, era bietako erantzunak izan ditut: Hitzari buruz, *ehazki*, eraskin bezala hartzen dute (añadido). Erantsia. Esan nahiari buruz, beste alde, norbaiten ezkontzaz familian sartu dena. Adibidez, "ni naiz etxe hontan ehazkiya, kanpokua", aitortu zidan batek.

Hitzaren mugak ikasi nahi nituen, azkenik; ezkondua bera bakarrik zen ehazkidia, ala bere ahaideak ere bai. Erantzunak ez dira berdinak izan. Batentzat, ezkonkidearen

gurasoekin etxe berean bizi dena. Beste guzien iritzian, etxean bizi ala etxetik kanpo, ezkontzaz familian sartutakoa izango litzateke ehazkide.

Ahaide kontua: Manu ezkontzen bada etxera, Mari izango da etxekoandere ehazkidia. Mariren senideak goinatu dira Manurentzat, eta berdin honenak bere emaztearentzat. Manuren anai arrebak, baten ustez, Mariren anai arreben *goinatu ehazkiyak* dira. Bigarren batek zioenez, berriz, baten eta bestearen senideak ez dira deus elkarren artean. Norberak ahaidegoa nola hartu duen, hala erantzuten zuen.

Senarraren osabak, dudarik gabe, emaztearen *osaba ehazkiak* dira. Eta berdin emaztearenak, senarrarentzat. Emakume gazte batek honako argibide hau eman zidan: Ezkondu berrien ni hauzalanea fan eta, Bautista, (senarraren osaba) Ayuntamendukoa zen.

—Bautista! hotsegin nean nik, beti bezala.

—Espea nunan bai hori! esan zidan berak denen aurrean. Klaro *tio ehazkidia* nun eta! Erderaz, *tío de mi marido*, borobildu zuen emakumeak.

Ez nion galdetu baina, osaba sartzen bada, dudarik gabe izeko ere ehazkidetan sartuko da. (Urdiainen izebari *izeko* eta *izko* esaten diote).

2. Berekide. Odoleko ahaidea.

Kanpotik datorrena etxekoekin bereizteko *ehazkide / berekide* hitzak ibiltzen dituzte Urdiainen. Haserre eta istiluak familian sortzen direlarik ikusten da hobekienik: *berekiya data! Otsoak ez omen du bere aragirik jaten,* entzun izan diet.

Behekiya, behekiyek esan ohi dute berek. Ez dute asko aipatzen hitz hau. Antonia Galarza, 50 urtekoak, hau zioen duela bizpalau ilabete: "Behekiyak odolezkuek diranien esaten da. Arboletan ere bada hitz hori. Gaztaina berezko kimatik datorrenien *behekiya* da; ez da txertua. Gaztain goizterra *oritxua* deitzen da, eta *berdia* esaten zaio berandukoari. Behekiyak ez dira ez oritxuek eta ez berdiek; erdikuek." (A. G. 50 urte, 5.5.1977).

Hitz hau ere ez dut aurkitu hiztegietan.

3. Gueskide. Consuegro.

Oso zabaldurik dago gaur ere Urdiainen. Lehenbiziko aldiz entzun nuen garaian, emakume arteko jolasa zen: "ezkondu bat hiltzen dan garaien gueskidiak egiten dau aurrogiya". *Aurrogiya*, hileta elizkizunetan etxekoen aldia egiten duena da. Beste eginkizun batzuen artean, ogia eskaintzen du meza denboran.

Gero beste batzuei galdetuz ikasi dut, ezkondu bien aita amek direla gueskide elkarren artean.

Aldien batez *ueskide* ere jaso dut. Mugikak *guraskide* dakar; gizonezkoarendako, honela dio: "*Consuegro:* guraskide, aubakide, aitaxekide." "*Consuegrar:* guraskidetu, aubekidetu."

Dirudienez, Mugikaren bilduman gizonezkoentzat eta emakumeentzat hitz bereziak izango lirateke. Honela dio:

"*Parentesco* de suegros entre sí = guaxkide, guaxkidia AN."
de suegras entre sí = giñarrebakide, aubekide."

Emakumezkoen esaera hau nun jasoa den ez du adierazten. Beste alde, *consuegro*, aubakide bezala eman du; eta *consuegra*, aubekide. Ez dirudi, beraz alde haundirik badagoenik.

Urdiainen, nola nahi dela, bereizketarik gabe ezkonduen aita amak dira gueskide.

4. Kide. Adin berekoa.

Atzizki bezala aurkitzen dugun *kide* hitza, bakarrik ere erabiltzen dugu Urdiainen. *Kidia*, adin bereko jendea da; kintoa. Neska mutilak, urte bereko guziak dira kideak; *kidiek* esaten dute berek.

5. Bizi-alarguna. Ezkontza hautsi duena.

San Martinek esan zidan zenbait tokietan ezkonlagunagandik berezirik dagoenari *bizi-alarguna* esaten zaiola.

6. Ezkon-arreba. Goinata, goinatia.

Justo Garatek honela idatzi zidan duela zenbait ilabete: "Nere *ezkon-arreba* Lizarraldek eman zidan zure argazki bat..." (6.1.1977).

Ezin dut esan ohitura zaharreko hitzak diren azkeneko biak, ala berriak. Ahotan dabiltz, behintzat, eta egokiak dira.

II. ESAERA ZAHARRETARIKOAK

7. Askazi. Jendaki, ahaide.

Otoitz bat jaso nuen Luziaden ahaidego hitzekin osoturik dagona. Ohera joaterakoan esan ohi zuten. Honela dio:

> *"Mauma, gaur enuk hire beldur loan ez ihatzarrian.*
> *Jinkua diat aita, Anderdena Mari ama,*
> *Jandonahani gazaita, Jandona Petri kusi:*
> *Horiek danak ditinau askazi,*
> *loiten ahal diau ausarki".* (Shaindu baserrian. Mari xaharrak, 1959).

Otoitz ttipi honetan ditugun aipamenak sanduenak dira alde batetik; eta hoiekilako ahaidegoarenak, bestetik. *Jinkua*, Luzaideko mintzairan, Jaungoikoa da. *Jandonahani* = Jaun done Johane edo Señor San Juan. *Jandona Petri* = Jaun done Petri, Señor San Pedro.

Ahaidego hitzetan, *gazaita* datorkigu, padrino. Bordel bertsulariaren kantuetan bada bat gazaitaz mintzo dena:

> *"Oraiko gazaita ere ez du, ez, aisa xerkatu*
> *Haurraren atxikitzeko anaia zuen galdatu;*
> *Zorigaitzez, tenoreko hari zapata zilatu,*
> *Hauzoko batek jasan du, hori ez da segeretu.*
> (Ikus, "Bordel Bertsularia" 96. orrian.)

Askazi hitzean sartzen dira santuen ahaidego lokarriak. Denen bilduma da, beraz, askazi. Jendaki bezala. Gure aurrekoak.

Askazi, hala ere, zabalagoa da. Ez da bakarrik gure aurrekoekin dugun lokarria; gure atzetik datozkigukeena ere bai. On Joxemiel Barandiaranek beste esaera hau jaso zuen Ataunen:

"Andra Geazi,
Ekatzu nere orrazi;
Bestela galduko ittut
Zure ondorengo azkazi".

Askazi, dio Azkuek, 1) Pariente. Askazi urranak, parientes próximos. 2) Simiente. 3) Doctrina. Askazi txarra zabaldu dau horrek.

Askazigo: parentesco. Askazigoaz dion kori bordaltu gabe. Ese está sin casarse por parentesco.

Askazgo: parentela. (Guk ahaidego esaten duguna.)

Askazitasun: parentesco.

Askazkunde, askazkunte: parentela.

Pierre Lhanderen hiztegian, lehenik *Askazi = parent* dator. Eta bigarren esaera, *askazi = race.* "Abrahamen askaziako", de la race de Abraham".

III. IDAZKI ZAHARRETAN DIRENAK

Hamaseigarren mendeko hauzi agirietan baditugu Nafarroan gauza jakingarriak. Esate baterako Utergan, Gares ondoan, ezkontza izkutuko baten berri ikasi dut. 1547an neska mutil pare batek elkarri ezkon fedea eman zion euskaraz. Hitz hauek esan zituen senargaiak:

Nic Martin Y Joanna arçenaut neure alaroçaçat
eta hic arnaçan yre esposoçat,
eta prometaçen dinat ez verçe emazteric eguiteco y vayçen
viçi nayçen artean eta guardaçeco lealtadea
ala fedee ala fedee ala fede. (1)

8. Alaroça = esposa.

Alaroça, alarotza hitza ez dut hiztegietan aurkitu. Esanahia garbi dago; beti berdintsu eman ohi da garai haietan ezkon fedea eta *emazte* adierazi nahi du, ezkon-lagun.

(1) Promesa matrimonial del año 1547 en euskara de Uterga, F.L.V. 25 (1977) pág. 113.

Hamar urte beranduago, 1557an, Iruiñerriko Espartzan hizketaturiko beste ezkontza batean, honela agertzen da:

...nic arçen çaytut neure esposaçat eta emazteçat

Besterik gabe, baditugu hiru hitz emazte ezkon laguna adierazteko, hamaseigarren mendean: *alaroça, esposa* eta *emazte*. Hiruek gauza bera adierazten dute.

Alarotza irakurri beharko genukeela uste dut. Nahiz hitz hau orai arte ez ezagutua izan, famili hiztegian badugu beste bat iturri beretik datorkiguna: *alarguna, alarguntsa. Alar-*aurrezkia daramate biek. Alaba hitza ere hor dago.

Guk hemen adierazi nahi genuen pundu bakarra zera da, esposa esateko hitz euskalduna badugula, eta hori *alarotza* dela.

GRAMATIKA
GRAMATICA
GRAMMAIRE

SISTEMA PERIFRASTIKOAREN LAGUNTZAILE BATZUEN JATORRIAZ

Bilbon 1977-XII-29

Alfonso Irigoyen

E(d)un latinezko 'habeo' bezala erabiltzen zen, gauza ezaguna denez, eta sustrai berekoak dira *dut, duzu, du,* eta abar, egun bizirik dirauten flesioak. Ez dirudi problema handiegirik aurkituko gendukeenik hontzat hartu nahi baldin bagendu arkaikoa den partizipio horrek aspaldiko denboretan **era(d)un* faktitiboa izan zezakeela eta eguzkialdeko euskalkietan berbo laguntzaile iragankor, hiru konkordantziako izateko —datiboari begira egotea ere bertan sartzen dela— espezializatu zen neurrian bere esan nahi jatorrikoz hustu zatekeela. Ikus Axular, 1: *ezterautate utzten.*

R. Lafon-ek seinalatzen duenez Etxepare eta Leizarragarengan *darauca, drauca* erabiltzen dira "il lui est donné par lui" adierazteko eta faktitibo balioa izanik **daraduca* delakoan omen du oinharria, "il lui est fait avoir par lui", "il le lui fait avoir" (1). Ikus dezagun Etxepare-k dioena, *Amorez errequericia,* 13: *Galdu valin badituçu ceren oguen derautaçu / Nic daquidan leqhutaric ni baytara eztituçu.* Beherago ikusiko dugun arrazoiagatik **deraduka* forma zaharragotzat hartuko bagendu ez litzateke problemarik sortuko laguntzaileaen datibotasuna nondik datorren argitzeko.

Bizkai aldeko hizkeretan, ordea, *eutsi* —latinezko 'teneo'— partizipioaren flesioak izan dira horretarako espezializatu direnak. Hala ere badago gorago aipatu denarekin nolabait zer ikusirik duen zerbait aipagarri. Hain zuzen ere datiboa bigarren pertsonari baldin badagokio hitanoz hitz egiten

(1) René Lafon, *Le système du verbe basque au XVI siècle,* t. II, Bordeaux 1943, 36-37 orr.

denean *e(d)un* erabiltzen da, eremu osoan laguntzaile iragankor, konkordantzia biko izateko batez ere espezializatu dena, hemen hiru baditu ere. Hau hala izatera iritsi zen agian *-ts-* > *-st-* interbertsioaren ekintzari laguntzen ez zioten hiztunen artean posible ziren aukeretarik bat egin zutelako gurutza zitekeen anfibologia gerta ez zedin: *egingo deunat* 'nik hiri zerbait, emakume', *egingo deuat* "nik hiri zerbait, gizon". Hala ere *Refranes y Sentencias* delakoan XVI-garren mendean *deustat* dokumentatzen da eta egungo egunerarte iraun du hizkera batzuetan, Azkue-k esan zigunez, cfr. n.º 49, *Trancart eguiten deustac ta vlerretan deustat* 'engaños me hazes y te entiendo'. Azkue-ren eritziz, halabaina, **-tsi-* txatala itsatsirik aurkitzen omen da laguntzailearen formazioan eta Bizkaiko hizkerei bakarrik omen dagokie eta Leizarraga, Axular eta beste autore lapurtar batzuk, eta inoiz gipuzkoarrak ere bai, *dio* flesioarekin erabili omen dute. Bere balioa "reflexivo de recipientes transitivos" omen da, **-ra-* infixoarekin —bestearen sinonimoa— gertatzen omen den bezala (2). Alderdi batera utzirik sustraiaren jatorri zaharrenak non ditugun aztertzea, nahikoa genduke seinalatzea, besterik gabe, *eutsi* formaren bukaera dela *-tsi*, eta azkenengo *-i*, partizipioaren marka, hau da, berboaren sustraia *-uts-* besterik ez da. Gertatzen dena da, *deroat* flesioan bezala, 'hark niri zerbait', cfr. *Refr. y Sent.* n.º 82, *deust,* aurrekoari dagokion forma simetrikoa, datiboari begira dagoen flesioa dela, hain zuzen *-e-* daramalako presentea izanik ere *d-* kontsonantearen ondoan eta ez *-a-* Azkue-k nahi zuenez, "la característica temporal" es "*a* en conjugación próxima, *e* en la remota" zioenean (3). Gure erraldoiak azaldurikako ikuspegi horri oso iluna deritzat eta ez du argitzen, ezta gutxiagorik ere, euskal konjugazioaren errealitatea historikoki begiraturik, egia bada ere presenteko flesioetan denboran zehar handitzen joan dela aipaturikako bokalak nahasteko joera, zenbait flesio berbal datiboari begira zeudenak fosilizatu egin baitziren eta datibotasuna galdu baitzuten eta ez zeudenak berez *-a-* behar baitzuten.

---

(2) *Morfología vasca,* Bilbao 1925, 561 orr. eta hurrengoak. R. Lafon-en ustez "on comprend que **dadukiot* ait donné *deutsot* par suite du changement de *-ki-* en *-ts-*, et *diot* par l'intermédiaire de **dauyot,* puis **dayot* et *deyot* (employé en souletin). Mais l'*r* de *deraucat, draucat* fait difficulté", *Le système..., op. cit.,* 36 orr.

(3) *Op. cit.,* 565 orr.

Arrazoizkoa da pentsatzea *didazu, diot,* eta abar, goragokoen sinonimo diren flesioetan beste sustrai bateko berbo baten aurrean gaudela, eremu zabal batean funtzio berbererako espezializatua, batzuetan **era(d)un* delakoarekin elkarren leian. Behar bada testo zaharretan 'eman' zentzuz eta *-i-* sustraia duela —batzuetan bokalaren atzean *-n-* eraskinarekin— agertzen den berbera da, cfr. *Refr. y Sent.* n.º 116: *Astoagaz adi quirolan ta deyc buztanaz biçarrean* 'Regozíjatè con el asno, darte ha en la barba con el rabo'; Leizarraga, *S. Ioan,* I, 22: *Respostu deyegunçat igorri gaituzteney;* Etxepare, *Oracionia,* 14: *Beccatuyac barqhaturic didan parabiçuya;* Id, *Amorosen gaztiguya,* 21: *Ararteco çaquizcula digun varqhamenduya.* Zuberotarren artean *déyot* korritzen du eta Lafon-en eritziz *diot* formaren aurrekoa da, cfr. nota (2). Baina Intxauspe-ren bildumatik (4) hurrengo hau hartzen dugu: *esképtu déyot* et *dériot* 'Je l'ai offert à lui', eta badirudi *-r-* bokal artekoa erori dela, forma zaharraren itxura berbera izatera heldurik. Beste alderdi batetik *nau* > *nái* bezala agertzen da, euskalki haretan normala denez: *esképtu nái* 'il m'a offert', baina *esképtu gútu* 'il nous a offerts'. Beraz ez litzateke harrigarria izango *derauko* gisako formekin zer ikusirik balu jatorriz.

Joan den mendeko Etcheberry lapurtarrak, ordea, alde batetik *cion* erabiliarren, bestetik *ceien* ematen zuen laguntzaile bezala, biak *-i-* sustraidunak, bigarrenean lehenengo *-e-* iretsi gabe. Horrela: *Jaiki cen eta juan cen Elias Jaunac erran cion bezala,* 129 orr., eta *Davitec jakin zuenean cer cen guerthatcen, erran ceien bere cerbitzari leialei,* 114 orr (5).

Gaiak berak dakarrena da pentsatzea euskararen egungo sistema perifrastikoa, Europako mendebalalde inguruko hizkuntzetan finkatu den neurrian eta parean, aurrera joan dela eta oraingo itxura izatera iritsi dela gure artean ere. Baina aukera ematen zaidan hurrengo batzarrean saiatuko nintzateke hori nola ahal izan den argitzen.

---

(4) L'abbé Inchauspe, *Le verbe basque,* Paris 1858, 207-209 orr.

(5) *Testament zaharreco eta berrico istorioa,* Bayonan 1874.

ERITZI NOLA ERABILI BEHAR DEN DELAKO HAUZIAZ

Bilbon 1977-VI-27

Alfonso Irigoyen

Irakurri berriak ditut Txillardegi eta Oregi-k honetaz eginikako lanak.

Niretzat honetan ez da sekula dudarik egon amaganik eta Arratiako egonaldietan umezaroan ikasi nuen euskaraz *eretxi* –hala esaten da han– beti datiboari begira besterik erabili ez baitut, bai forma sintetikoa denean eta bai bestelako perifrastikoa denean.

Ser déretxasu orréri? esaten da han, eta honela erantzun dezaket: *orréri ondó deretxat* edo *orréri txartó daoela déretxat*. Eta forma perifrastikoak erabili behar direnean: *Ser eretxí seuntzen atzokóari?*, eta honela erantzun dezaket: *atzokóari ondó on sala eretxí nutzen*. Sekula ez genduke esango **eretxi neuen*. Eta hau ez dut uste galdu delako denik, honetan joera zaharra bizi bizirik gordetzen delako baino, nire denboran bederen, beste gauza askotan ere gordetzen den bezala bertako tradiziozko arloan.

*Niri Alfonso *derest* eta horrelakorik, ordea, ez da batere erabiltzen eta uste dut Bizkaian oraindik inon halakorik ahozko hizkuntzan gordeko balitz txokoren batean besterik ez litzatekeela izango.

Hala ere Aulesti eta Lekeitio inguruetan asko esaten da *orréri sélan* [*dz*] *áko iséna?* eta ene eritzian horren egitura sakonean beste hau dago: **orreri zelan eristen jako izena?* Gipuzkoako euskaraz egiten den alderdietako *goseak dago* esaeran **goseak hilik dago* dagoen bezala, edo *otzak dago* delakoan **hotzak hilik dago*, Bizkaiko euskaraz osorik esaten

ditugunak (1). *Orreri zelan jako izena?*, beraz, *locutio praesens* bat besterik ez da eta Txillardegi-k aipatzen duen Leizarraga-ren exenploa egoki datorkigu arira: *eta hari eritziren zaio Emmanuel.* Baina Gipuzkoako euskaraz ere esaten dira horren gisakoak: *neri berdin zait* 'a mi me es igual' eta horren egitura sakonean **neri berdin erizten zait* dagoela pentsatzea berezkoa da. *Erizten zait* multzo perifrastikoa Bizkaian ere galdurik dugun *derist* flesioaren parekoa da eta Arratian gorde den sisteman *eresten deust* esango gendukeenez gero *bardin deust* erabiltzen dugu eta ez **bardin jat.*

Joan den urteko maiatzaren 24-an Aita Berriatua-k aurkeztaturikako zerrendari —oraintsu Aita P. Altuna-k salatu duenari— egin nizkion oinharrizko oharretan esaten nuen *dakust* forma ezin hontzat har zitekeela datiboari begira, Aita Berriatua-k proposatzen zuenez —eta Aita Berriatua bakarrik ez da izan gauza okerrak proposatu dituena eta ez naiz ari Kintana-z eta ezta Txillardegi-z eta Oregi-z ere eta ari dena erratzen da erratu ere eta ez ari ez dena, erratzeko gauza izanarren— eta halako forma sintetikoa erabiltzekotan Bizkaiko sistema zaharrean datiboaren esan nahia agertzeko **dekust* erabili beharko zuketela, *RS 1596* delakoan *daroa* 'lo lleva' (n.º 196) eta *deroat* 'me lo lleva' (n.º 82) oposatuak zeudelako, bigarrena datiboari begira eta lehenengoa ez. Berdin gertatzen da *deukot* forman, 'le tengo a él' (n.º 425), oinharriz *e(d)un* 'haber, tener' duela, baina *dau* 'lo tiene' (n.º 247, 367, etc.), eta *Yre auçoac eztequian gacha ona da* 'daño que no te sabe tu vezino bueno es' (n.º 431), baina *daquie* 'lo saben', *ez daquit* 'no lo se' (n.º 92 eta 505) —Ochoa de Arin-ek *ez badiaquit* 'si no me lo sabe' dakar, *jakin* partizipioaren sustraia **-aki-** argi ta garbi gorderik— (2).

---

(1) Izenlagun bihurturik *gosekil* eta *otzakil* esaten ditugu. Azkue-ren hiztegi nagusian ez ziren bildu, baina Retana-k argitara eman zuenaren eraskinean "*Gosekilla*, goseak illa" agertzen da eta baita "*otzak-il*, frío lento" ere. *Gosekila* ene ustez behar den beste jatekorik ezin eskuratu duena da eta *otzakila* hotzak erraz eragiten diona, erdaraz 'friolero'. *Goseak dago* delakoak hartu duen zentzurako, ordea, zaharragoa den *gosé nas* 'tengo hambre' esaten dugu, eta horren gisara *egarrí nes* 'tengo sed', *ótz nas* 'tengo frío', *loguré nas* 'tengo sueño', *bildúr nes* 'tengo miedo' eta abar. Gorago aipatu dugun Gipuzkoako euskaraz, ordea, *goseak nago* eta *otzak nago* direlakoak analogiaz beste zenbaiten iturri dira, hala nola: *logaleak nago, beldurrak nago* eta abar.

(2) Ikus Alfonso Irigoyen, "Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaino literario", *Euskera* III (1958), 105 orr. eta hurrengoak.

Sistema zahar hau Euskal Herri osokoa zela begien bistan dago, zeren Axularrek, exenplo bat ipintzearren, *deraukat* eta horrelako laguntzaileak erabiltzen baititu datiborako, beti *-e-* dutela lehen silaban, eta inoiz edo behin bere eskualdeko autoreren batek *-a-* erabiltzen badu ere ezin egin dezakegu dudarik zaharra lehenengoa dela. Gehienez ere *-a-* erabiltzea tradizioa galtzen ari zenaren seinalea besterik ez da eta hain zuzen ere hortik dator autore horiek duten nahasterako joera, bizkaitarrok kasu horretan ez duguna, autoreren batek inoiz bazilazioren bat edo beste izan badu ere. Bergara-n ez dakit, ordea, zer gertatzen den. Oregi-k dioenetik ez dirudi hala denik.

Forma horien erabiltzeko modua oraindik gehiago nahasi du agian Nafarroa Behere ingurutik edaturikako joerak, zeren datiboarekin konkordantziarik egiten ez den neurrian —ikus Etxepare bera 1545-garren urtean— flesio edo perifrasis berbera nominatiboari begira nahiz datiboari begira berdin erabil baitaiteke: *aitari erran du* 'se lo ha dicho al padre' eta *aita erran du* 'ha dicho padre'.

Edozein modutan ere Gipuzkoako euskaraz sistema berrira iragan zirenean *-ki-* aglutinazioaren bidez —ikus *dakarki* forma *dakar* zaharraren ordez, edo *izan / izaki, eraman / eramaki*, eta abar, bikoteak, zenbait lekutan distribuzio konplementarioa dutela, baina esan nahiean ez dute alderik— *derizkiot* eta horrelakoetara makurtu ziren, beti datiboari begira eta ez dut uste hori kasualitatez gertatu zenik (3). Hala

---

(3) Jatorriz badirudi *-ki* sufixoa adierazkorra dela, sistema berbalari ere erantsi zaiona. Pertsona izenekin *-ki* beste sufixo baten bikotea da: *-ko*-rena. Erdararen influentziaz bai bata eta bai bestea *-gi* eta *-go* bihurtu ziren kontsonantea bokal artean zegoenean. Ikus *Enequi* (1350, Juan Carrasco Pérez, *La población de Navarra en el siglo XIV*, Pamplona 1973, *LMEst.*, 364 orr.) *Echauerri, Val d'Allin*-en, baina *Inigui* (1366, *id.*, *FTda.*, 437 orr.) *Artaxona*-n. Bereziki Bizkaian *-gi* ere ondo dokumentatua dago: *naya euguiarren* 'por tener lo que queremos', *RS 1596* n.° 164, egun *euki* esaten badugu ere. *Ebagi* erabiltzen dugu, ordea, baina *ebatea*. Zuberoaldean *-l-* baten ondoan *-k-* > *-g-* bihurtzen ez bada ere *estalgi* erabiltzen dute Axularrek *estalki* esaten duen bitartean eta Azkue honetaz harritu egiten da bere hiztegian —ikus *-gi—*.

Ez dut uste mira egitekoa denik partizipio batera edo flesio berbal batera sufixo hori bere bi formetan iragaitea, zeren erdaraz ere *lo tiene bien cogidito* edo *callandito* hipokoristikoak normalak baitira. Adberbioetarako ere arrazoi berbera eman dezakegu, baina horietan *-gi* delakoa *-n-* baten ondoan agertzen da.

Izan ditugu fonetikaren aldetik horren parekoak Bizkai Gipuzkoetan. *Asmadu* eta horren gisakoak asko zabaldu ziren, beste leku askotan *asmatu*, sufixo zaharragoari eutsirik, erabiltzen zen bitartean. Horregatik orain *asmáu* esaten dugu

ere *deritzait, deritzaio* eta horrelakoek ere –zeharo berrituak– korritzen dute. Gogoan izango duzue denok *Neri deritzait Galtzaundi, apellidua det Goñi* kanta ezaguna. Besteen datiboak ere *-ki-* dutela egiten dira: *dakarkio, dijoakio*, eta abar, azkenengo honek lehen silabako *-e-* bokalaren arrasto fosilizatua ere gordetzen duela. Bizkaian *dakartso* eta *joako* esango genduke, lehenengoa *deutso* formarekin kurutzaturik zeharo berria eta ez dut uste asko erabiltzen denik ere euskaldunen artean, oro harturik, baina bigarrena, ordea, lege zaharrekoa, *ñatorko, ñoako, ñoatzu*, eta abar, diren bezala, Guipuzkoako euskarazko *dakarkio, natorkio*, lege berrikoak direla, eta *nijoakio, nijoakizu*, lege zahar berriarekin nahasirikakoak.

Txillardegi eta Oregi-ren artikuluak irakurririk berehala ohar daiteke *daritzat / deritzat* gisakoak biak nahasirik agertzen direla, nahiz bata nahiz bestea datiboari begira sarri. Ez dut uste lehen silaban *-a-* duena zaharra balitz *-e-* izatera iragango zenik fonetikaren eboluzioz. Izatekotan itzulietara izan beharko luke, *-e-* bokalak *-r-* bat baitu atzean. Baina ez da horregatik *-a-* izatera iragan, *-e-* bokalak datiboetarako zuen funtzioaren kontzientzia galtzen ari zelako euskaldunen artean baino. Horrela Leizarraga-k *dagio* 'se lo hace' ere erabiltzen du, berez **degio* beharko zukeela lege zaharrean, Bizkaian eta baita Gipuzkoako euskaraz ere parte nagusi batean subjuntiborako laguntzaile bezala *deion* < *degion* erabiltzen den bezala.

Bizkaiko *deutsat* formarekin berdin gertatzen da. Azkue erraldoia ere honetan erratu egin zen eta ez da harritzekoa, beste asko askozaz lehenago erratu baitzen. *Deutsat* formaren ordez **dautsat* proposatzen zuen zuzen bezala eta gero bide horretarik ibili izan da bat baino gehiago. Edozein modutan ere *deutsat* beti datiboari begira erabiltzen da eta sekula ere ez besteri begira eta izan ere ez du bestelako egitura duen flesiorik.

Halaber berdin gertatzen da *diot* laguntzailearekin ere eta honi, bokalen arteko laburpen bat dela medio *-i-* baitu, ez

---

eta itsasaldean *asmá*. Batez ere Gipuzkoan oso zabaldua dagoen *laga* hitza ere horrela sortua da, baina zenbait autore zaharretan *largatu* agertzen da. *Zitzaidan* eta honelakoetan **zitzagidan* gisakoak ikusi behar ote ditugu? Eta *emoiten, emoi* eta gisa horietakoetan **emogiten* eta **emogi*? Eta *epai* delakoan **epagi*? Egia esateko Bizkaian askok *ebai* esaten du *ebagi* partizipioaren ordez, eta badirudi baietz.

dio inork inoiz *-a-* bokalik ezarri. *Eutsi* laguntzaile ez dena ere halaxe dabil: *éutzi orréri gogór!* edo *eutzíyosu orréri gogór!* esango genduke beti bizkaitarrok inolako dudarik gabe eta uste dut Gipuzkoako euskaraz ere halatsu esaten dutela. *Eutzi ori* beste gauza bat da, 'toma eso' eta azkenengo hau inperatibo bezala besterik ez da erabiltzen eta sistematik aparte gertatzen da. Hitano ari izanez gero, ordea, zentzu berean *éutzo* 'toma', fosilizaturik erabiliko genduke, baina *RS 1596* delakoan (n.º 422) *ausso Chordon arz orri ta nic yñes dayda* 'ten Hordoño a esse Osso, y yo hare huyda', datiboarekin konkordantzia eginik dator, horixe zelako zuzena.

Garibai-ren 26-garrena ere berdintsua da: *Ausbo* (sic, *ausso* edo *ausho*) *Perucho Vrdeorri, eta neuc ies daguidan* 'tienta Perucho el puerco, e yo huyere'. Iragangaitz egiturakoak dira biak, literalki 'adhiérete al oso, al puerco...'. Urkixok Oihenarten 139-garrenarekin ere konparatu zuen: *Eneco axeca hi harzari, nic demadan ihessari.* Eneco, saisis-toy de l'ours, afin que i'aye moyen de fuir', frantsesezko itzulpena literalki dagoela.

Txillardegi-k bere lanaren haseran dioenez *daritzat, -ritz-* sustraiaren ondoan *-a-* erantsirik *dakusat* eta horrelakoen gisara, berez datiboari begira ez dagoen egiturakoa izan badaiteke ere, forma hutsari bagagozkio anfibologiko bezala ager baitakiguke, ez dut uste Bizkaiko euskaraz halako egiturako exenplo bakar bat bera ere eman ahal izango digunik. Gure artean sekula ez zaio gaineratzen sustraiari halako *-a-* bokalik eta horrela ez dugu esaten *darabilla* Axularrek dakarren gisara, *darabil* baino. *Eretxi* partizipioaren sustraia *-retx-* denez gero nonbait **darest* edo **daretx* edo gisa horretakoak aurkitu beharko genituzke eta nik bederen oraindik ez dut batere ikusi, agian ondo begiratu ez dudalako, baina ez dut uste. **Nik ori darest* edo **amak ori daretx* biziki arrotz dira guretzat. Bokalaren eranstea, *-a-* alegia, Gipuzkoako *deritzait, deritzaio* formetan ere badugu. Hobeto esateko datiboaren marka fosilizatua besterik ez litzateke izango eta ez ote da besteetan ere beste horrenbeste gertatzen? Ez ote dira datiborako erabiltzen ziren formen fosilizazioa? Horrela esplikatuko lirateke Oihenarte-k dakarren *derabila* eta Leizarraga-ren *drabilagu*, seguru asko lehen kontsonante bien arteko *-e-* galdurik *draukagu* forman gertatzen den bezala, eta halako beste asko.

Jakingarria dela uste dut *RS 1596* delakoan *daucat* 'lo tengo (n.º 478), datorren bitartean hirugarren pertsonarako *dauco* 'lo tiene' (n.º 69) agertzea, Bizkaiko oraingo ohituraren erara —Arratian *deuket* 'lo tengo', *deuko* 'lo tiene' eta beste alderdi batzuetan *dekot* ere entzuten da—. Axularrek, ordea, *dadukat* eta *daduka / dauka* dakartza. Badirudi forma horien eraginez gero *uk(h)an* partizipioa sortu zela —*Landuchio 1562* delakoan *euchaiteco* 'para tener, para hacer' eta *eun* 'tener, haber' datoz, Erronkarin *ekun* eta baita 1609-garren urteko F. Mendieta-ren pintura ezagunean datorren Bizkaiko euskarazko testoan ere—. Lafon-ek, *Le système du verbe basque au XVI*e *siècle*, t. II, 17 orr., uste du *uk(h)an* jatorriz **e-du-ka-n* dela. Berdin gertatzen da Axularrek darabilen *dihardukazu* formarekin, Bizkaiko hizkera batzuetan *diarduzu*, lehenengoa esan nahiaren aldetik markatua.

Aulestin erabiltzen diren *biárri(e)n dáutzo (dautso)* eta *bá(da)utzo* 'está trabajando', 'se ocupa' berez datiboari begira sortuak direla begien bistan badago ere inesiboarekin erabiltzen dira sistematik aparte eta fosilizaturik.

Aita Polikarpo Zarranz (Iraizoz-koa) euskaltzainak aurkeztatu duen lantxo jakingarrian *jarin* ipintzen du *dario* eta gisa horretako flesioen partizipio zahar bezala eta arrazoi duela argi eta garbi dago. Arratiako euskaraz guk fosilizatua erabiltzen dugu: *ure darióla dátor* 'viene cayéndosele el agua (de un recipiente)', *isérdie darióla sátos* 'vienes sudando', eta ez genduke oraingo egoeran *izerdia darizula zatoz* esango, zuzen legokeenez. Beraz egun erabiltzen dugun bakarra *dariola* da. Forma fosilizatu horietarik datoz etorri ere, Aita Iraizoz-ek ondo dioenez, *jario / *jarion / erion* partizipio gisako forma berriagoak, jatorriz datiboaren hirugarren pertsonari dagokion *-o* bera ere sustraiari erantsirik. Argi eta garbi dago sustraia *-ari-* dela, *jakin* delakoarena *-aki-* den bezala. Beraz, sistema zaharrean **dearío* > **diario* > *jario* beharko zukeen, Bizkaian gordetzen diren *joaku* gisako flesioak beste alderdi batzuetan *dohaku* —ikus Leizarraga (1571)— izatera makurtu baitira. Horrela *jario* forma flesio huts bat besterik ez lizateke jatorriz izango, eta gisa berean *jatorri* hitza, egun sustantiboa, *jatort, jatorko* eta halako flesioetarik etor daiteke.

Badirudi noizbait euskaraz datiboari buruzko sistemaren ekilibratze berriak gertatu behar izan dutela denboretan

zehar eta agian izenorde batzuen deklinazioan ere arrastoak badira. Gipuzkoan oraindik askok eta batik bat bertsolariak *neroni* izenorde pertsonal indartua nominatibo gisara ere erabiltzen dute, berez datiboa bada ere, eta Azkue-ren hiztegi nagusian datorrenez Lapurdin ere hala gertatzen omen da eta denbora berean leku bietan eta baita Nafarroa Garaian ere datibo bezala korritzen du. Horixe berbera uste dut gertatuko zela aspaldiko denboretan bigarren graduko izenorde seinalatzailearekin ere. Agian *hori* forma datiboa zen eta, nominatiborako espezializatu zela, datiborako gelditu zen *horri* bere bikotea –ikus *arrezkero* 'desde aquello, después de aquello', baina *arek* 'aquello', ergatibo singularra bigarrena, biak Bizkaiko euskaraz eta kasu normala dutela–. Horrela *hori* bigarren gradurako espezializaturik gradu biko sistema zaharretik hiruko berrira iragan zela uste dut. Honetaz hainbat denbora dela lan zehatza egina dut eta ez dut eman argitara morfosintasisaren beste arlo batzuk erantsi nahiean. Edozein modutan ere Deustuko Departamentuan eta Udako Euskal Unibertsitatean azaldu dut.

Haseran aipatu dudan ihazko lanean horregatik esaten nuen *dakust* forma eta horrelakoak *dakusat* eta bere gisakoak baino hobetzat hartzea ez litzatekeela desarrazoi handia izango.

Azkenez esan beharra dut denon artean egiten ari garen lan honek elkarri asko irakatsi digula eta izan ditugun eta behar bada ditugun eritzi okerrak edo ilunak argituz oro irabazian aterako garela.

ADITZ LAGUNTZAILE BATUAREN GORABEHERAK

Donostian, 1975gn uztailaren 29an

Patxi Altuna S. J.

Behin eta birritan eskatu dit Aita Villasantek, eta gaurdaino ez dut beronen gogoa bete, Aditz Laguntzailea batzerakoan izan genituen gorabeheren eta hartu genituen lanen eta agertu genituen iritzien ixtorio koxkorra egin dezadan, Batzorde-idazkari izan nintzenez gero; inoizko euskaldunek egunen batean haien berri jakin nahi badute, onartu genituen adizkiak eta baztertu genituenak nola eta zergatik onartu batak eta baztertu besteak genituen, ikasteko biderik eta argitasunik izan dezaten.

Biltzarre honetarako egingo nuela agindu nion eta hemen dakarkizuet zuetariko batek baino gehiagok nik bezain ongi ezagutzen dituzuen geure arteko borroka koxkorren kontakizuna.

Ez naiz, halaz ere, gehiegizko xehetasunetan sartuko, txostena luzeegi atera ez dakidan, batetik, eta geure bilkuretan finkatzen genituen edota zalantzan uzten genituen adizkien aldeko eta kontrako arrazoiak lehendik ezagunak dituzuelako, bestetik, eta, azkenik, lanean aritu ginen urte haietan batzordeko guztiei ez ezik, Euskaltzain osoei ere, geure lanaren berri aldiz behin eman eta berarekiko iritzia eskatu ere egin genielako.

Aurrera baino lehen, ordea, txosten honen hasieran bertan utzi nahi nuke Aditz Laguntzaileak zor larria dion lagun maite baten aitormena: Gabriel Aresti zenarena. Euskaltzaindiak aditza batzen hasteko batzordea izendatu zuen arte ez zuen onik ez bakerik, bai haserrabide askorik, izan; izendatuz gero, berak egokien zeritzan aditzaren alde hamaika borrokatxo, gozoz eta zaporez baina baita, berak ohi zuenez, errenkuraz eta erresuminez oratu sortu zuen gure artean; Aditz

Laguntzailea baturik ikusi zuen arte ez zuen behin baizik huts egin bilkuretara, eta orduan ere egiteko larriagorik sortu zitzaiolako. Zor diogu, bada, besteak beste —eta Arestiren "besteak", mundu guztiak dakienez, oso ugari dira— aditza batzeko hartu zituen ardaila eta nekeegatik ere esker on-ona.

Hemezortzi lagun izendatu zituen Euskaltzaindiak lan honi ahalik lasterren ekiteko, Mitxelena jauna zuzendari eta lerroon egile naizen hau idazkari zirela. Hona hemen izenak: Akesolo, Aresti, Baztarrika, Berriatua, Epherre, Etxaide, Intxausti, Intza, Iraizoz, Kintana, Lafitte, Lafon, Mendizabal, Omaetxebarria, Oregi eta Txilardegi, zuzendari-idazkariez gainera. (Ikus EUSKERA XVI, Bilbao 1971, 130-131 orr.)

1971garren urteko udan bertan, batzordea izendatu eta egun gutxitara, hasi ginen lanean, lehen bilkura Baionan egiten genuelarik. Bigarrena Donostian izan genuen urte bereko Eguberrietan; hirugarrena ere, Donostian, 1972garrengo martxoan; laugarrena, Arantzazun, urte bereko uztailean, eta azkena, Bilbon 1973garrengo apirilan. Bilbon izan zen ere 1972garrengo abenduan beste bilkura bat, baina lau lagun bakarrik bildu ziren —besteok ez genuen deia garaiz hartu— eta hartan, lagun gutxiegi agertu zela-ta, ez zuten adizkirik jorratu nahi izan.

Bertantxetik utzi nahi nituzke finkaturik hiruzpalau puntu, gero burutu genuen lan osoari baitagozkio eta lanean erabili genituen jokabideak aski argitzen baitituzte:

1. Bilkuretara, damurik, batzordeko izan arren, lagun askok hutsegiten zuten maiz, askotariko arrazoiegatik noski, eta zazpi edo zortzi lagun biltzen ginen gehienik, inoiz gutxiago ere bai;

2. Adizkiak, batu ahala, bilkura bakoitzaren ondoan ez bazen ere, gehienez biren ondoan batzordekoei barreiatzen genizkien, ari genuen lanaren berri jakin zezaten eta berek ere onartzen ahal zituzten galdatzeko eta iritziak eskatzeko;

3. Lehen egunetik bertatik —lehenagotik ere bai eta horrexegatik ez zitzaigun inori berri gertatu, batak eta besteak aurreko hilabeteetan aditzera emateko lotsaizunik ez baikenuen izan, aldizkarietako artikuluetan eta ahotikako hitzaldietan, zein aldetako eta nolako aditza zitzaigun gogokoen— bi joera nabarmendu ziren batzordekoen artean eta bi taldetan sailkatu ginen: nolazpait esateko, antzinako

jatortasun-aberastasunak zernahiren gaindik gorde nahi zituztenena eta euskal aditz laguntzaile osoa inoiz izan dituen eta izan ez dituen, baina izan zitzakeen, forma guztiekin (baita hitanozkoekin ere) berehala batu nahi zutenena, batetik; eta, bestetik, egunoroko premiari besteek baino gehiago, ustez bederen, begiratuz, formarik erabilienak, maizenik ahotan eta lumatan hartzen ditugunak, finkatu nahi zituztenena, hitanozkoak ordukoz baztertuaz, edota, gutxienez, lehenbiziko adizki haiek hitanozko hauen baitan eta mendean jarri gabe. Bestela esan, eta oro har, horrelako erabateko laburpenek zehaztasunik erasten ez bazaie egia maiz itxuraldatzen badute ere, lehenek euskal aditz laguntzaile sistema osoa nahi zuten bertantxe bateratu, aditz aberatsa, joria eta ugaria izan genezan, eta horretarako adizkirik gehienak erabili zituzten antzinako euskal autoreengana zuten isuri nabaria; bigarrenek, berriz, aberatsa baino bizia eta gaurkoa hobe zelakoan, egungo egunean euskal herriko lagunik gehienek eta egungo eguneko idazlerik gehienek, hoberenak ez badira ere, erabiltzen dituzten adizkiak zituzten maiteago.

4. Besterik ere esan behar dut, aspaldiko lixkarbideak, orain zorionez guztiz isilduak, oroitarazi eta biztuko ote ditudan beldur banaiz ere, baina ixtorioa izan nahi lukeen hau ez litzateke ixtorio, huskeria ez baizik arras ardurazkoa denik isiltzen banu. Hots, behiala zin egin bazuten ere, eta "Batasunaren kutxa" hartzen dut lekuko —utikan lehen goraki aipatu dudan bi egileetatik baten izena, gugandik betiko joanarena, ezta ere hemen aurrean dagoen beste egilearena nik inola ere beztu, lagun horien izen garbia honelako edo halako hutsegiteen gaindik baitago, eta, bestalde, izanak izan dira eta bere garaian esan zitzaien hau aurpegiz-aurpegi—, ez zuen zenbait lagunek Mitxelenak bere gogoko adierazi zigun euskal aditz sistema onartu, baizik eta nahiago izan zuten adizkiz adizki eta formaz forma aditz laguntzaile osoa aztertu eta banan banan adizki guztiak finka genitzan.

Honela zioen gai honi buruz Txillardegik Aita Villasanteri 1973garrengo martxoaren 28an idatzi zion eskutitzean:

"Behin eta berriz esan dugu denok (eta agirian ZINEGIN ERE BAI) Mitxelenaren irizpidea ontzat emango genuela. Irizpide hori ARGI ETA GARBI EMANA DAGO. "Batasunaren kutxa" liburuan gauza bera agindu zen: "Mitxelenaren promesa pean" edo horrelako zerbait. Beti esan dugu gauza

bera: MITXELENAK ERABAKI ARTE. Hots, gaur Mitxelenak iritzi hori emana du. Ez dut ikusten zergatik aldatu behar dugun. Batzordeko bik (nik neuk, eman dezagun, eta beste nornahik) orain puntu hau edo hura ukatuko bagenu, zer gertatuko litzateke? MITXELENAK BERE IRITZIA EMANA DU, ETA EMAN DUGUN HITZA BETE BESTERIK EZ DUGU BEHAR. NAFAR-GIPUTZ sistema".

Handik hiru egunetara, martxoaren 31an, beste honako hau idatzi zion Aita Villasante berari:

"Hona hemen ene iritziak puntuz puntu:

a. Mitxelenak behin eta berriz proposatu duenez, GERORAKO utz daitezke hauek (hots, "hika" eta "zuka"-ko adizkiak, "alokutibo" edo "etiko" deritzatenak).

Behin eta berriz azaldu duenez, era berean ("Mitxelenaren Idazlan Hautatuak" liburuko "Azken iritziak" atalean bereziki) GIPUTZ-NAFARRERAZ gertatzen diren nahasketak (L., diat/derauat tankerakoak) *ez dira aski* aspaldi honetan mamitu den paradigmen aldeko joera baztertzeko.

b. Mitxelenak behin eta berriz proposatu duen bidea onartuz, GIPUTZ-NAFARRERA hartu behar da ontzat: diat, dinat, dizut sailekoak.

Gai hau joan den uztailean bozkatu zenean, garbiki gailendu zen GIPUTZ-NAFARRERA-ren aldeko nahia".

Eta honela darraika gero: "Baionan eta Ermuan ZINEGIN genuen idazleok, bestalde, nik barne, badugu beste arrazoinik MITXELENAREN IRITZIA onartzeko: hain zuzen ere garai hartan ongi agirian eta goratik egin genuen ZIN HURAXE. Argiro gogorazi nahi diet hau, besteak beste, Aresti eta Kintanari, "Batasunaren kutxa"-n eta bestetan eman zuten hitza MITXELENAK bere iritzia *eman arte*, eta abar, onartu zirelako".

Horiek horrela zirela, eta zinak zin, lanari ekin genion, gogo biziz, arreta handiz, baina asko edo gutxi guztiok barrenen genuelarik halako gudu aurreko mementuan soldaduek somatzen omen duten larriduraz eta zalantza larriaz: nor aterako ote garaile?

Lanari, formarik errazenetarik hasiaz eta zailenak, edota iritzi ezberdinak sor zitzaketenak, gerorako utziaz, ekin genion. Baina ustez errazen ziren askok ere eztabaidak sortu

zituzten. Ezin hemen aipa guztiak, eta batipat ezin hemen ager bataren nahiz bestearen alde batak nahiz besteak ateratzen zituen arrazoiak. Buruhausterik handienak eman eta lanik latzenak eman zizkiguten formak aipatuko ditut:

1. 'zarete' ala 'zarate' eta lehen aldian 'zineten' ala 'zinaten': lehenak atera ziren gailen, nahiz eta 'zaratekete' eta 'zinateketen'.
2. (etorri) 'dateke' ala 'date'; 'naizateke' ala 'naizate'. Lehenak gailendu ziren hemen ere.
3. (etorriko) 'litzateke' ala 'litzake'... eta abar. Lehena onartu zen.
4. (etor) 'dadin' ala 'dedin'. 'dadin' gelditu zen.
5. (zuek etor) 'zaitezkete' ala 'zaitezteke', 'zintezkete' ala 'zintezteke'... etab.
6. (hark zuek ikusi) 'zaitue' ala 'zaituzte'... etab. Eta hirugarren, pertsonan pluralean, (haiek zuek ikusi) 'zaituzte' ala 'zaituztete' ala 'zaituztee' ala 'zaituzte'. Eta indikatibotik kanpo, (hark zuek ikus) 'zaitzaen' ala 'zaitzazten' ala 'zaitzaten'. Eta pluraleko hirugarren pertsonan, (haiek zuek ikus) 'zaitzaeten' ala 'zaitzazteten' ala 'zaitzazteen' ala 'zaitzaten', eta abar, eta abar. Eta ahal izateko moduan, 'zaitza(z)teket' ala 'zaitza(z)ketet'...
7. (esan) 'genuen' ala 'genduen' eta 'genuke' ala 'genduke', etab.
8. (hark ni ikus) 'nintzan' ala 'nentzan' ala 'nenzan': subjuntiboan, alegia, eta abarretan. Ala 'nindezan' eta 'gindezan'?
9. (hi!, hark ni ikusi) 'niauk' ala 'niaik' ala 'naik'; eta horien arabera, (hi!, hark gu ikusi) 'giaituk' ala 'giaitik' ala 'gaitik', etab.
10. (hi!, haiek aldapa igo) 'diate - dinate' ala 'die - dine' ala 'ditek - dinate', etab.
11. NOR-NORI-NORK sistema osoa. Giputz-Nafarrera sistema ala Lapurdikoa? 'dit' ala 'deraut' ala 'daut'? Eta puntu honetan pisu handia beste honek zuen: hitanozkoetan 'diat' eta 'derauat' bereizi, lapurteraz bezala, ala 'diat' bakarra hartu, giputznafarreraren arabera? Bereiztekotan, 'dit'-ek, hots, giputznafar sistemak, ez omen baitzuen zentzurik. Horregatik nahi zuten batzuek 'diatderauat' ala 'diat' bakarraren korapiloa aldez aurretik askatu, horren mendean jartzen baitzuten 'dit' ala 'de-

raut' edota 'daut' zein onar. Besteek, berriz, hitanozkoa gerorako utzirik lehen bait lehen nahi zuten, eta besteri begiratu gabe, 'dit' ala 'deraut' edota 'daut' erabaki.

12. Eta NOR-NORI-NORK sistema hori indikatiboari gagozkala finkatua eta erabakia zegoelarik, oraindik beste katramila gelditzen zen: indikatibo ez diren moduetan, zer? Hots, (hark niri zerbait esan) 'dezaidan' ala 'dizaidan' ala 'dizadan' ala 'diezadan'? Eta horretaz gainera eta hori erabakirik ere, hirugarren pertsonetan, zer?: 'diezon' ala 'diezaion'? Eta oraindik bestea: objetoa plurala denean, (hark niri gezurrak esan) 'dezaizkidan' ala 'dizaizkidan' ala 'dizazkidan' ala 'dietzadan' ala 'diezaizkidan' ala 'diezazkidan'?

Larrienak aipatu uste ditut, baina ez nintzateke harrituko bakarren bat itzuri izana, larriak ere ez baitira neurri berean larri guztientzat. Aipatu ditudanak, finkatuz gero aipatzeko ez da denbora askorik behar; ez beza, ordea, horrenbestez inork uste finkatzea eta hautatzea hain lan erraza izan zitzaigunik. Ordu luzeak eman genituen bataz eta besteaz mintzatzen.

Zergatik hartu genituen kasu bakoitzean onartu genituenak eta zergatik baztertu baztertuak? Zer jokabide erabili genuen bata aurkeratzeko besteen ordez? Hitz gutxitan erantzungo dut: zerbait formari buruz —gehienei, zori onean— ez zen dudarik ere; duda-mudazko zirenekoetan bataren eta bestearen aldeko eta kontrako errazoiak aditzen genituen —edo aditzen saiatzen ginen behintzat— eta bide onez bat etortzen baginen, hura hartzen; ostera, botoetara jotzen genuen.

Eta ez dut besterik esateko. Hutsak irundituko zaizkio agian norbaiti eztabaidatu genituen puntuok eta bere buruari arituko zaio galdezka, ni neureari aritu natzaion gisa, ez merezi ahal zuen hiru urte handiz lan horretan hemezortzi euskaltzain aritzeak. Ondorenei begiratzen badiegu, erantzunak baiezkoa behar du izan: merezi zuen, noski. Gaur, lehen inoiz ez bezala, aditz laguntzailea batua dugu eta Euskaltzaindiaren esanei, erabakiei nahiz aholkuei, jarraitu nahi dienak badaki orain, euskal hizkuntzaren kondaira osoan lehenbiziko aldiz, zein adizki erabili behar dituen euskaraz ahoz nahiz izkribuz, izkribuz batipat, mintzatzean. Jendeak, gazte jendeak batipat, egin dion harrera ona gogoan hartzen badugu, esan dezakegu ez genuela denbora alferrik galdu.

EUSKERAZ, EUSKERAZAZ, EUSKERATZAZ, EUSKEREAZ

1977 - VI - 24

Zatarain'darr Anbrosi'k

Azkue'k bere "Morfología" bikaiñean onako au dio:

490. *za.* Sólo se usa con el afijo instrumental z, pero no con cualquier tema, sino con los pronombres personal, demostrativos y algún cualitativo como *asko. Onezaz ostean*, fuera de esto (Per. Ab. 194-1), *azaz geneti* además de aquéllo (Añib. Esku-lib. 192-2); *zuk nizaz, nik zuzaz atsegin hartzeko* para complacernos vos de mí, yo de vos (Oih. p. 96-17).

Desgraciadamente, en nuestros días, escritores que no han podido conocer suficientemente la lengua empezaron a valerse de su variante *tza* con todo género de palabras: *laguntzaz itz egin* hablar del compañero, *euskereatzaz yiñuanari* (Jaungoiko-zale, núm. 4, pág. 5) lo que decía acerca del vascuence... etc.

Se comprende que haya nacido esta demasía entre escritores bizkainos, pues en su dialecto *lagunaz itz egin* suena a "hablar con el compañero" como contracción de *lagunagaz*, más bien que a "hablar del compañero".

Aurrera jarraitu baiño leen, Azkue'k asieran aipatu dituanak gure euskalkiz onela esaten dirala adierazi nai nuke: *ontaz kanpo, artaz gaiñ, gutaz itz egin du*; *ta* atzizki au Azkue'k ondorengo txatalean (491) aipatzen du. Oraiñ Azkue berriro:

¡Qué lindamente se ve determinado el límite de este infijo en este pasaje de Uriarte!: *Eta i ere ire lagunaz erruki bear ezintzakean, ni izaz errukitu nindukan bezala?* También en el precioso libro de *Refranes y Sentencias* se leen ejemplos de *az*, sin que indebidamente pase *zaz* a ocupar su puesto: *izpizatzen det Aita ez Ama dirudian abereaz* reniego de la bestia

que a su padre ni madre parece (Refr. 313) (Oker dago: 370 bear luke) (...).

Varios lingüistas de allende el Bidasoa se ocuparon algún tiempo en traducir estas dos locuciones: hablar en vascuence y hablar del vascuence; y para una y otra decían *eskuaraz mintzatu*. A nadie le ocurrió recurrir al impopular e incorrecto *eskuaratzaz* para expresar la segunda locución; siendo de advertir que son ellos, los orientales, los que más se valen de *zaz* con los temas pronominales antes citados; pues nosotros, generalmente decimos *-en gainean* o *ganean* traduciendo a la letra la locución castellana "sobre tal cosa".

Argi dago bietarako *euskeraz* esateak illuntasuna sortzen duana. Gaiñera orain *-z* utsaren ordez askok eta askok *-az* idazten dute. Liburuxka bat bakarrik aipatzea aski dut: oraingo "Meza santua", *-z* eta *-az* naastean erabiltzen ditu, bereiztapenik egiteke. Ona aiekaz-aieka liburuxka ortan daudenak.

8a) apaizak erriari begira, besoak zabald*uaz*, agur egiten dio... ("besoak zabald*uz* bear luke).

9a) ...pekatu egin dedala, gogapen itz eta egit*ez*, eta eginbearrak ez egiñ*ez*. Au ongi dago, baiña "gogapenez, itzez eta egitez" argiago zitekean.

23a) Aren bid*ez* dira egiñak gauza guztiak. Emen ere ongi. Joskerari buruz "gauza guztiak Aren bidez egiñak dira" obeki zitekean).

25a) Aintz*az* etorriko da berriz. Au "euskeraz" bezala da. Erriaren otoitzarekin bukatzen du Itzaren Liturjia, eskabide bakoitzari erriak erantzun*az*. Erantzun*ez* bear zukean.

31) Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Ongi.

Beronen bid*ez* egin dituz diran guztiak. Ongi.

Espiritu Santuaren egit*ez* gizon-egiña. Ongi; "gizon egiña" zubittorik gabe bear luke.

33a) ...eriotza ezereztu*az*... Onela "con la muerte aniquilada" adierazten du; "aniquilando la muerte" adieraztekotan "eriotza ezereztu*z*" idatzi bear zitekean.

Zure Espirit*ua* ixuri*az*: gaizki dago; Espiritu ixuriaz "del Espíritu derramado" da, Espiritua ixuriz berriz derramando el Espíritu".

"Espiritu*a* ixuri*az*" bereizte-atzizkia bi aldiz sartzea da, gaztelaniz "la casa la grande" esatea bezelatsu.

35a) bere gogoz Gurutzera zijoala. Ikartzen dudan aldetik ongi dago, baiña "bere gogoz gurutzeratzekotan zalarik" jatorrago eta argiago.

Ogia artu eta eskerrak eman*az*, zatitu zuan, eta bere ikasleai eman esan*az*. Bietan gaizki: eman*ez* eta esan*ez* bear luke.

Berriz ere eskerrak eman*az*, bere Ikasleai eman zien esan*az*. Berriz ere bi aldiz gaizki.

37a) zure Gurutze ta Piztuer*az*. Au ere "euskeraz" bezala da.

Zure Semearen Eritza eta Piztuera gogoratu*az*. Gaizki: dagon bezala "con las recordadas Muerte y Resurrección de vuestro Hijo" adierazten du.

Zuri eskerrak eman*az*. Gaizki.

39a) Jesukristo zure Semearen bitart*ez*. Ongi.

Onen bitart*ez*. Ongi.

41a) Salbatzalleak agindu ta erakutsiari jarrait*uz*. Ongi.

47a) Bizi bedi oparo zuengan Kristoren Itza, alkarrentzat argi eta bero izan*az*. Gaizki.

Guztira amabi aldiz ongi, amabi aldiz gaizki, eta bi aldiz dudagarri *aintzaz* eta *Piztueraz*: auetxek dira, izan ere' nere txosten onen gai.

Izenburutzat idatzi dudana argiago ikusteko' ikus dezagun "euskera" ordez beste izkuntzaren bat aipatzean nola jokatzen dugun:

Italianoz ari da, ingelesez mintzo da, alemanez itz egiten du. Habla en italiano, en inglés, en alemán).

Italianoaz ari da, ingelesaz mintzo da, alemanaz itz egiten du. Habla del italiano, del inglés, del alemán.

Beraz "habla en" adierazteko' *-z* atzizki utsa erabiltzen dugu, baiña "habla sobre" edo "habla acerca de" adierazteko' *-az* atzizkia; gaztelaniz "el" bereizte-itza sartzen dudenean' guk ere gure bereizte-atzizkia sartzen dugu, *-a* alegia.

Orrela izanik' bizkaieraz gauza garbi dago: habla en vascuence ordez' *euskeraz diardu*, eta habla del vascuence adie-

razteko berriz' *euskereaz diardu*. Emen ere bukaerako *a* ondorengo *-a* atzizkiaren auzia dugu.

Bizkaieraz alaba eta alabea, neska eta neskea, ola eta olea, luma eta lumea ederki bereizten dira, baiña Gipuzkoa'-ko goierritik kanpo bereizte-biderik eztugu. Obe genuke guk ere alaba eta alabaa, neska eta neskaa, ola eta olaa, luma eta lumaa bereiztea, gutxienez ere idazten dugunean. Orrela egiñez'kero' euskeraz mintzatu da (ha hablado en vascuence) eta euskeraaz mintzatu da (ha hablado del vascuence) ederki bereiziko genituke.

Erriak *-z* eta *-az* ongi bereizi oi dituana argi ikusteko' onako auek berridaztea ongi iduritu zait.

Canc. Vasco 942: gorputz*ez* mezan, gogo*z* tabernan.

C. V. 743:

Denbora da mintzatzeko
pasione saint*iaz*
eta nigarr egiteko
Jesukrist'en hiltz*iaz*,
haren erremestatzeko
egin daiken grazi*az*

Sujet hun*ez* mintzatzeak
bihotza deit trenkatzen,
zu ikusi*z* baratzean
odol huts*ez* izertzen,
nuiz ere erran beitzunian
tristezi*az* isiltzen.

(Sujet hun*taz* bear lukela esango nuke; besteak ederki dagode.)

C. V. 464:

Nere maitea, ez egon susto*z*,
biziko gera munduan gusto*z*:
palazio bat eginen dugu
sekale*z* edo lasto*z*,
balkona ere basa-lizarre*z*,
teillatua belarr igarre*z*...

C. V. 450:

Etxe txar bat inen dugu
iratze*z* edo maltzo*z*,
eskallera kastaiñ-osto*z*,
gaineko sala iratze-maltzo*z*.

Riezu 63:

Han nintzan harrapatua,
aginduaz dolutua:
urruntzeko izan banu
hirur arditen lekua...
gizonez inguratua,
iduri preso hartua.

Kantu, kanta, khantore, 126a:

Zazpi uso doazi
hamalau hegalez,
beren mendi-lephoak
atxeman beharrez;
kanpoan hiltzera noa
maite, zure minez:
bortha idek zadazu
Jaunaren amorez.

Zazpi uso doatzi
hamalau hegalez,
oihanian beitire
haziren ezkurrez;
ene bihotza dago
bethea dolorez,
zure begi eztiek
ikusi beharrez.

Lafitte'ren "Grammaire basque" liburuan, 849: harri batez bi xori; ikusiz ikasi nuen; ez dut hortaz on egiten.

Arotzarena'ren "Grammaire basque" liburuan:

165: Urtheak ditu bainan atzokoaz bezain orhoit naiz (J. Harriet-Urruty).

167: Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi (Mendiaga); gosez hiltzerat zohan; Mehetegi'ko xakurra zangoz, errainez makurra; Arnoa ontuz doa urthetik urtherat; Oinez zebilan bidean; Urthetik urtherat aberastuz zohan.

178: lagunez orhoit zen; arnoz betehea zen untzia; beren anaiaz bekheizti ziren.

189: segur naiz lanaren bururatzeaz; bozkariatu gira zure ethortzeaz.

198: atsegin du jakiteaz; aski pagatuz, ukhanen duzu.

Esaera zaarretan ediren ditudanak beste orri batean bilduko ditut, J.

Ona beraz bereiztapenak nola egin genezazken:

indarrez egindako liburua (libro hecho a la fuerza, forzadamente)

indarraz egindako liburua (libro hecho acerca de la fuerza)

buruz dakiana esan digu (nos ha dicho lo que sabe de memoria)

buruaz dakiana esan digu (nos ha dicho lo que sabe acerca de la memoria)

zaldiz poliki daki (sabe montar a caballo bonitamente)

zaldiaz poliki daki (sabe bastante acerca del caballo)

Esan ditudanetan eztago ezer berririk, baiña aipatu ditudan esakera okerrak agertzen digudenez' arau errez-errez ori eztazagudenak badira; italiarrek dioden bezala' "non conoscono la luna de Bologna". Txosten onen bidez norbaiteri laguntza edo argia sortuko balitzaio' poztuko nintzake.

HERRI ETA LUR

1977 - 27 - V

J. L. Lizundia

Aspaldion "lur" hitza erdarazko "tierra = país" zentzuan erabiltzen delakotan nago. Egia esan, inoiz, neu ere, erratu horretan eroria naiz, baina geroago (eta gehiago) eta argiago ikusten dut, hori, euskaldun zentzu batetik izugarrizko astakeria bat besterik ez dela, eta "eusko lurra", "gure lurraren deia" eta antzerakoak esaterakoan euskararen zena gutxi ezagutzea dela. Oraintsu Jose Basterretxea "Oskillaso", gernikarrak, Iruiñean elkarrekin geundelarik, hauxe esaten zidan: —nori otu zaio "gure lurraren deia" jartzea? lurrak ez baitu deitzen.

Lurra euskaldun normalentzat, baserrian bizi izan garenontzat, eta euskaldun huts garbientzat, "materia sólida" hori besterik ez da. Erdal Akademiaren Hiztegian 1) "planeta que habitamos / 2) Parte superficial de este mismo globo no ocupada por el mar / 3) Materia inorgánica desmenuzable de que principalmente se compone el suelo natural / 4) Suelo o piso / 5) Terreno dedicado a cultivo o propio para ello / 6) Patria / 7) País, región / 8) Territorio o distrito constituído por intereses presentes o históricos. "Tierra de Segovia". Uste dut "Tierra" hitz horren zentzu guztiak "lur"ekin parekatu dira, ohartu gabe 1., 3., 4. eta 5. kasuetan horrela dela, baina 2a esatekotan, adibidez, "lihorra" esaten dugula eta 6., 7. eta 8. esateko "HERRI".

"LUR", Azkueren hiztegian ez dator 6., 7. eta 8. zentzuan. 6.enerako "sorterri" dakar, eta gero hor dago "aberri" neologismoa. 7. eta 8. erdararen "tierra" hitzaren zentzurako, hau dakar Azkuek: 1.º pueblo, population = En el sentido de "lugar habitado", como en el de "gente habitante"; aunque tal vez la segunda acepción no esa más que extensión de la pri-

mera. Beraz, "herri' hitzak "populu" zentzua geroago hartu duela dirudi, eta gaur uka ezinezkoa da hedadura hori. Baina goazen LUR - HERRI hauzira.

Hasteko, HERRI hitza gure nazioaren deituran bertan dago EUSKAL-HERRIA, beste alboko hizkuntzetan PAIS VASCO, BASKENLAND esaten dena. TIERRA VASCA ere ondo legoke, batez ere gaztelania zaharrean, baina behin ere ez, alderantziz TIERRA VASCA = EUSKAL edo EUSKO LURRA.

HERRI herrialde edo eskualde baten izentzat maiz ikusten dugu: IRUÑERRIA, "la tierra de Pamplona", behinolako euskal, gero nafar erresumaren bihotza: "Reyes de Pamplona, de Nájera, de Guipúzcoa, de Durango,..." eta abar agertzen da askotan erreinu horren historian. Oskiako atetik Ekialderantz dagoen eskualdeari, gaur ere horrela deitzen dute arakildarrek, "Ehun Kaldeta" eta abar asmakerietan erori gabe. Berez, Gipuzkoaren goialde guztiko eskualde natural baten izena izan arren, gaur Ordizi merkatu-hiri eta Beasain industri-hiri ardatz bezala duen eskualdearen izena ere, GOIHERRI da. Eta esanahia honetako eskualdeak ba ditugu bazterretan "LA TERRA ALTA" Catalunyan, Gandesa hiriburu bezala duena; HIGHLANDS, Eskoziako "Tierras Altas" bezala erdaratzen direnak, GOIHERRIAK esango genuke. GOIHERRI hitz honetaz gero berriz itzuliko gara. Gipuzkoan bertan, GOIHERRIren kontraposizio bezala BETERRI dugu, katalanezko TERRA BAIXA bezala, edo NIEDERLANDEN, "PAISES BAJOS" bezala. Baina behin ere ez dut entzun oraintsu Gipuzkoako C.O.S.A. edo ez dakit zein arraiok asmatu duen ERDIERRI, asmatzekotaz ere, ERTERRI izango zen. Ikusten da hemengo erakunde ofizialetan ere zein ondo darabilzkitan euskal konposaketako erregelak.

Bizkaian eskualde euskaldun baten izena da TXORIHERRI, Erandio, Lojua, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzu hartzen dituena. Mikel Zaratek, bere *INFLUENCIAS DEL VASCUENCE EN LA LENGUA CASTELLANA - a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierri - Gran Bilbao,* Bilbao, 1976, hau dio: "Chorierri es el nombre popular del Valle de Asúa, y significa "pueblo de pájaros". Es una voz vasca compuesto de txori, "pájaro" y "erri" "pueblo", 23. orri., baina "pueblo", "tierra" edo "país" zentzuan, zerenorrialde berberean Mikelek erreferent-

zia hau dakar "el valle de Asúa, la inmensa calma de la aldea, Chorierri, tierra de pájaros, la tierra de promisión, el campo de los chimbos y chimberos" (M. de Unamuno, *Chimbos y chimberos,* en *Cuentos*, Madrid, 1961, pág. 184). Hemen ere ez da esaten TXORILURRA, hau beste gauza zeharo desberdin bat bailitzateke, txoriak hasten diren lurra, baina ez jendea bizi den eskualdea. Beraz, enetzat, HERRI, "TIERRA", da baina "tierra habitada", PAIS, LAND.

Burundarrentzat, TIERRA ESTELLA, euskaraz, ESTELLERRIA da, el "País o Comarca de Estella", alde batetik Lizarra hitza aspaldidanik dokumentu besterik ez delako, eta bestetik ene ustez eskualde horren izen propioa, lehengoa, DEIHERRI zelako. La "TIERRA DE DEYO" askotan agertzen den nafar erresumaren historian, bestalde Villamayor de Monjardin, lehen Villamayor de Deyo zen, "Valle de Yerri" ere hor dugu, km² hartzen dituena, herrixkekein, eta Urbasa eta Andimendi osoak, eta zer da "Yerri" Deiherriren eboluzioa besterik. Azken Konkordatorarte "arciprestazgo de Yerri" izenekoak, "Valle administrativo"tik gainera Lizarra bera, Amezkoak, Allin, Gezalatz ere hartzen zituen.

Garibaik nahastu zituen gauzak Herriberri Oliteren euskal izena zela esanaz. Mitxelenari entzun nion HERRIBERRI Oliten hasten zen eskualdearen izena zela, erdaraz esango genuken TERRANOVA , nafar euskaldunak, Tuterako mairuei errekuperaturiko eskualde berria, gero hain zuzen ERRIBERA euskaldunentzat, eta RIBERA erdaldunentzat biurtuko zena, ERRIBERA, ERBERA "tierra baja" ere bada, gaur eta non gero esango dut, berriz ere azken konkordatoak gauzak aldatu arte, "arciprestazgo de la Ribera" Oliten hasten zen eta Argedasen bukatu, 26 parrokia hartuaz. Enetzat, hipotesis bezala, dokumentuez probatzea zaila baita euskara aspaldi galdurik delako Orba, Iltzarbe eta Oibar bere ipar mugakide eskualdeetan, HERRIBERRI, HERRIBERA, RIBERA, eskualde baten izen berbera daiteke esanahi biren koinzidentzia batez: TIERRA NUEVA eta PAIS BAJO.

Villasantek emandako kopla batek, Arantzazuri buruzko panderojotzaileen kanta zahar batek, hau dio "Arantzazutik gora, HERRI bat Araba". Beraz, hemen ere el PAIS o TIERRA de ALAVA da. Axularrek: "Alaba-herria" dakar pasarte baten eta "Mairu herriko mairu beltzak" (el moro negro de *tierra* de moros).

Gorengo eskualdeak edo alderdiak deitzeko, GOI eta GOREN, bereiziz, HERGOIENAK esaten da. Nafarroako Sakanaren bazter batetan Andimendiruntz dauden hiru herrixken haranari: Lizarraga, Dorrao eta Unanua-ri "Valle de Ergoyena" deitzen zaio. Kardaberazek, *Euskeraren Berri Onak*; Auspoa 37, p. 74. Hara zer dion: "Eta guraso edo kurak diranean, nola, ongi premia den bezala, beren etxe edo ergoienetan (erri txikiai onela Araban deitzen diete) dotrina erakatsi ta konfesatuko dute?" Gipuzkoa-Bizkaiko mugakide diren goialdeen alderdia, beraz. ERGOIEN, Oiartzun alderdi bat hauzo bat da, eta ba dakizue OIARTZUN udal bat, gaurko eremukoa antzinakoa baino txikiagoa dela, eta lehengoa eskualde oso bat, Lezo, Errenteria, Pasai Donibane, Hondarribia, Irun ere hartzen zituena baitzen. HERGOIEN hau, eskualdearen alde gorena zen. Zornotzako kofradiarik altuenari, Bizkargi mendi bizkarreko Aldana, Arazotza, Zabala, Garitondo, San Bartolome eta Solaguren. ERGOIEN, Gamizko gorengo hauzoak hartzen dituen kofradia da. Butroe Arro berbereko beste herrixka bat, Jatabe (ofizialki Maruri), bi zatitan banatzen da, ERGOIEN eta ERBERA, Ergoien goialdea, eliza ingurua eta ERBERA behealdea, Butroe hibaiaren ondokoa, Udaletxea dagoena, (Errepublika garaian, ergoiendarrak eskubitarragoak edo elizkoiagoak zirelako eta erberarrak ezkertarragoak, izena aldatu zien Ergoieni "Roma" deituz eta Erberari "Moscu", hala kontau zidan bertako apaiz batek). Ergoiena eta Elbarrena, nik dakidala, Legazpi eta Zizurkilen ere ba daude. "La Zona Más Alta y la Zona Baja" erdaratuko nituzke.

Eta ERBERA hitz honetaz lehen zorretan utzi dizuedan pundura natorkizue, Markin-Etxebarrik lau bost kofradia ditu, eta beretariko lau mendian eta bata Udaletxea eta eliza dagoena behean. Hara, bere izen ofiziala: "LA RIBERA", baina euskaraz lehen eta orain ERBERA deitzen da, "LA TIERRA O ZONA BAJA", eta bertakoei erberarrak esaten diete. Hemen ikusten dugu, Irigarairen kanta hura, HERRIBEHERA, RIBERA bezala hartzeaz ez zela hain asmakizuna, Markin-Etxebarrian, Konposaketa jatorragoaz b ehar bada, *I* kenduta, ERBERA deitzen baita, eta gero erdaldun eskribauak LA RIBERA parekatu.

GOIHERRI hitzaz ere itzuli bat eginaz, hara zenbat kofradia aurkidu ditudan Bizkaian. Badakizue, Bizkaiko ohituraz-

ko foru lokal sisteman "anteiglesiak", "elizateak", hauzoen federakunde bat zirela, eta hauzo horiek, baserri federakunde bat "kofradia" deitzen zen eta oraindik da. Hitz honek ez du zerikusirik beste zentru erlijiosoarekin, Lapurdin, Galizian edo Inglaterran "parrokia" hitzak duen bezalaxe. Zazpi aurkitu ditut: Barrika, eta Erandio, Uribeko merinaldean; Murueta eta Aulestin, Busturikoan; Xemeinen, Markinakoan; eta Garai eta Zaldibar, Durangaldekoan. Muruetakoa ez dut ezagutzen, baina beste seriak bai, eta denak dira "TIERRA o ZONA ALTA". Alderantziz, Hegoaldeko lau herrialdeen "entidad de población" delakoetan, "LUR" hasten den entidaderik b at ere ez dut aurkitu, eta orain berritsu LURGORRI deitzen den toponimo bat hauzategi biurtu baldin bada Lumon, kofradia horren izen zabalago eta historikoa Zallo da.

Jesus Basañez, *LEJONA, anteiglesia vizcaína*, Bilbao 1971, pág. 275 delakora begiratu eta hau ikusten dut: "Lejona dividida en dos distritos: MARINERRI (o pueblo de la ribera) que comprende los barrios de Artaza, Ondiz, Udondo, Aqueche y Lamiaco y "BASERRI" (o pueblo de la montaña), integrado por las demás entidades de población" (Elejalde, Peruri, Santimari, Sarriena, Sansoena (hau Unibertsitate berria dagoena hain zuzen). Hemen zentru geografiko-distritala du, eta ez beste, hain zuzen Ondiz menditxo baten gainean dago, baina itsas ondoan, "errijo" ondoan, beraz bereiztasuna lejoaztarren bizimodutik egiten da. Baita ere Deustuan ere. Ikus: Juan E. Delmas *GUIA DEL SEÑORIO DE VIZCAYA*, Bilbao, 1965, pág. 242 "Reune (Deustuak alegia) en las dos agrupaciones en que está dividida, llamada Goyerri (terreno de arriba) y Becoerri (terreno de abajo)", eta getxogoago honi Ribera ere deitzen dio, gaur Ribera de Deusto deitzen dena beraz.

Abadiñon, ene herrian, Gaztelu kofradiaren zati bati KEIXPERRI deitzen zaio, erdarazko UMBRIA litzateke, hauzo horren itzal parajean dauden baserriak hartzen bai ditu. Honetaz beste pundu bat ere aipa nahi nuke, gure eskualdean berezi egiten ditugula BASERRI (caserío con explotación agrícola) eta BASERRI-ETXE (etxea bera), BASERRI-ETXEA erabiliaz bigarren kasuan;"Horren baserri-etxie oso zaharra dok".

TIERRA hitzarekin PAIS-ekin beraz, du zerikusi nagusi eta propioa HERRI hitzak, eta LUR behin ere ez dugu ikusten

zentzu horrekin ez toponimian, ez euskaldun normalen ahoetan. Amaitzeko, orain modan, zoritxarrez, dugun hitz bat hara nola jartzen duen Azkuek bere hiztegian: EXTRAÑAMIENTO: HERBESTETASUN (B) extrañamiento, des*tierro*. Eta HERBESTATU (B) desterrak eta HERBESTE (B.C.G.C.) TIERRA EXTRAÑA, TERRE ETRANGERE. HERBESTA dezagun beraz LUR esangura horretatik, eta HERRIRATU, HERBESTETASUNERA bidaliak.

BIRRAZTERPEN BAT: "HIKETA" ETA "ZUKETA"

1977 - III

J. Oregi

Hona hemen euskal-gramatikalari guztiek ezinbestean erabilli behar izan duten gai bat. Gehiago ere esango nuke: HIKETA delako hori nola mamitzen denezkoan bat datozela. Azkuek eta Lafon-ek, adibidez, ahobatez hauxe dioskute: Berez 2.gn personako iñola ere ez diren flesioetan (ez aditz-gaiz, ez NORI delakoaz, ez aditz-jabez) HI sarraraztean datzala.

Baiñan bat etortze hori hortxe bukatzen ote den nago, hortik aurrera, HIKETA-ren jatorriari buruz bezela zillegitasunaz ere aburu ezberdiñako bait-ditugu. Oraindik aspaldi ez dela ere Zatarain jaunak, Euskaltzaindian irakurritako txosten batean, HIKETA euskera gaiztotzat jotzen zuen; birraztertze bat ez dugu beraz, agian, alperriko lan izango.

Begizta ditzagun, hasteko, honako esakune hauetako aditzak:

> ez GARA lantegira garaiz helduko
> atezaiñak atea itxiko DIGU.

Agerian dagoenez, HI-k ez dauka ez baten eta ez bestean iñolako eskuhartzerik, lehenbizikoa "GU gara" eta bigarrena berriz "HURA GURI HARK itxiko digu" bait-ditugu; hala ere,

> (HI) berandu etorri HAIZ

moduko batekin uztartzean, HAIZ hortan eskuhartzen duen HI-ren eragiñez beste flesio haik HI-ri toki emateko aldatu, eta

> berandu etorri HAIZelako, lantegira ez GAITUK garaiz helduko eta atezaiñak atea itxiko ZIGUK

ateratzen da. Larresorok garbi ematen dizkigu, SUSTRAI BILLA-n, aldakuntza hoien arau eta legeak, hots, esakunean

berez HI daraman flesio bat izatea aski dela, izan, aditz-nagusiak ere -K/-N ezaugariak bereganatu behar izateko (1).

Behin eta berriz esandakoak errepikatu behar badizkizuet ere, gogora ditzagun, aurrerago baiño lehen, egun bakarrarentzat darabilgun ZU askar zeneango flesioak:

Bakarrarentzakoak		Askarrarentzakoak	
ni	NAIZ	gu	GARA
hi	HAIZ	zu	ZARA
hura	DA	haik	DIRA.

Azkuen iritziz, HIKETA delakoa ZU bakarrarentzat erabiltzen hasi ondorengoa dugu, eta HI/ZU bereizi nahiak sortarazia, hain xuxen. Zatarain ere uste hortako dugu, HIKETA-zko flesioen tokiz-tokiango ezberdintasunari jokabide horren berritasunaren erakusgarri derizkiola; horri bagindarraizkio, ordea.

> (haik hari haiek) dizkiote, dizkate, diozkate, dizkobe, derauzkote, dauzkote, diotzate, deitzoe, deutsoez, dotsiez, detsez.

eta ikusirik, NOR-NORI-NORK-dun flesio arruntak ere berriak direla onartu beharko genuke, agian.

Jaun hoiek ez diote, beraz, -K/-N ezaugarriak aditz-flesioetan sarrarazte horri HI/ZU bereizteko bide izateaz besteko xederik ikusten, eta gogor erasotzen diote, eraso ere. Azkuerentzat, adibidez, NATOR flesioari datxekan "naIatorK" hiketazkoan tartekatzen den "I" hori, HI izenordea bera dateke; ZU-kako "naIatorTZU"-n ere hori bera azaltzeari aldrebeskeriarik aldrebesena eriztea ez da beraz harritzeko (2).

---

(1) Esakuneko aditz nagusiak gehienetan atzizki nahiz aurrizkirik ez daramakenez gero, aldatu behar hori ez da atzizkidun eta aurrizkidun flesioetaraiño iristen; beraz,

> habil bizkor, berandu bait-DA (eta ez "bait-DEK")
> Peru kalean DABILLELA esan didak (ez "ZEBILLE*K*ELA")
> etab.

Hala ere, ba da Larresorok esaten dituenetan eztabaidagarri derizkiodan bat, GALDERA egiten deneango HIKETA-rik ezarena, alegia. Geroago izango dugu, agian, hortaz jarduteko abagunerik.

(2) Arriandiaga ere uste hortakoa dugu, eta bide horri azken muturreraiño jarraiki, NATOR-i, HI-ketan, HI izenordea tartekatuz "naIatorK" darion bezelaxe, ZU-ketan ZU tartekatu eta "naZAtorTZU" behar lukela dio. Hori da, benetan, hizkuntza nork bere gogara bihurritzea.

Lafon-ek, ordea, beste bide bat erakusten digu HIKETA-ren adieraznahiaz honako hau dioskunean: "On éprouve parfois le bessoin de prendre son interlocuteur, ses interlocuteurs ou son auditoire à temoin de ce qu'on dit, d'associer la pensée d'une ou plusieurs personnes aux faits que l'on exprime, bien qu'elles ne participent pas effectivement". Hots: iñoiz solaskidea, solaskideak edo entzuleak esaten denaren lekukotzat hartu nahi izaten dira..., diogun gertakarian benetan eskuhartzen ez dutenarren. Hona hemen adibide bat: Frantsesez

> Aujourd'hui je leur ai fait un beau sermon à mes auditeurs!

bezelako bati TE izenordea tartekatu, eta

> Aujourd'hui je TE leur ai fait un beau sermon...!

diotenean, HI delako horrek ez du gertakarian iñolako eskuhartzerik, eta "c'est à toi que je le dis", "hiri diostat" edo horrelakoren baten balioko gertaten da. Euskeraz

> Egün phedikü eder bat egin deiet ene entzuler!

esan beharrean,

> Egün phedikü eder bat egin DIEÑAT ene entzuler!

bagenio bezelatsu.

Eta gai honi darraikala honela dio Lafon-ek: "L'allemand se sert, à la même fin expressive, du pronom personnel de 2e. personne, qui prend allors la forme du datif: c'est ce qu'on appellait autrefois datif "ethique"; mais le nom de datif "affectif", dit Schuchardt, lui conviendrait mieux". Euskeraz: Alemanera, hortarakoxe, 2.gn personako izenordeaz baliatzen da, NORI itxuran sarrarazten duela. Hori dugu iñoiz NORI "etikoa" esan izan zitzaiona baiñan, Schuchardt-ek dionez, TXERAZKO NORI izena hobeki legokioke.

Eta gero: "beaucoup de formes allocutives continnent, aprés le préfixe initial, un -I-: dech. NYATORQUEÇU; liç. GUINIABILTZAN nous (te, m.) marchions"; Schuchardt est d'avis que cet -I- a même origine que le -I- que, dans certaines formes non allocutives à objet de réference, suit le préfixe personnel initial; ...Le pronom de rélation, écrivait Schuchardt en 1893, n'est rien de plus que le pronom de but, en d'autres termes un datif éthique" Beraz, gutxi gora-behera: Etxeparen NIATORKEZU eta Leizarragan GINIABILTZAN flesioek bezala, elkarrizketako beste askok ere NOR-i edo

NORK-i dagozkien aurrizkien ondoren -I- bat daramate; Schuchardt-en iritziz, -I- hori, elkarrizketako ez diren zenbait NORI-dun flesiotan NOR edo NORK aurrizkien ondoren azaltzen dena bera dugu; HIKETA, zion Schuchardt-ek 1893. gnean, NORI-duna baiño ez da.

Hoik horrela izatera, -K eta -N berez ez dagozkien flesioetan sartze hori HI/ZU bereizkuntza baiño zaharrago dateke. Orduan,

"hi berandu etorri haizelako..."

bezelako baten ondoren,

"ni berandu *noa*", nahiz "...ni berandu *nioaK/nIoaN*"

aukerako ziratekeen, lehenbizikoa flesioketa arruntean eta besteak berriz solaskidekoian; orobat, ZU bakartzat hartuz gero,

"zu berandu etorri zeralako..."

osatzeko

"...ni berandu *noa*", nahiz *"nIoaZU"*.

Sartaldeko euskalkiak ez zitzaizkion antza, egun ageri denari bagagozkio, azkeneko bide horri jarraitu; bai, ordea, behe-nafarroera eta xuberoera. Horrelakoetan tartekatutako -I- HI izenordea ez baiñan NORI-dunen ezaugarria dela esan beharrik ez.

Gauzak horrela ikusiz gero, Zatarainentzat HIKETA-ren berria nabarmenarazten duen flesio-ugaritasuna bera ere Lafon-en eta Schuchardt-en aburuaren aldeko gertatzen da; izan ere, jokabide hori Euskalerri osoan hedatua delarik, batetik besterako berdintasunik ezak euskalkiak berak baiño oiñarrizkoago dela derakusku; eta areago, zihur-zihur berri dela dakigun ZUKETA-k beraganatu duen lurraldearen mugatuaz aldera badezagu.

Oraiñartekoak honela laburtuko genituzke:

A — Behiala, ZU oraindik askar zeneko hartan, bi flesio-mota zeudeken: Arruntak eta HI-koiak (3), azkeneko hoik HIRI-dun huts zirela. Uste horren indargarri, oraintxe bertan ikus dezakeguna.

"Osabarengana joan al zara?"

itaunari

"Ez, baiñan berehala joango NAIZ"

erantzun beharrean

"Ez, baiñan berehala joango NATZAIZU"

liokenak ez lioke NAIZ flesioaren gertakariari buruzko esanahiari ezertxo ere erantsiko.

B - ZU bakar bilakatu ondoren, HI-koitasuna HIKETA/ARRUNTA eta, toki batzutan, HIKETA/ZUKETA bereizteko bide gertatuko zen.

Esandako hoik direla eta, nik salo bat egingo nizueke: Euskeraz HIKETA/ZUKETA, eta erderaz "conjugación familiar, afectiva, dialogada, alocutiva, dativo ético" esan izan zaion horri FLESIOKETA SOLASKIDEKOIA deitzea, HI-koia eta ZU-koia barne dituela.

* * *

Ikusi dugunez, flesio solaskidekoiak, antza, HIRI-dun huts ditugu; HIRI-dunok, ordea, lau eratako gerta ditezke:

1) (T)S-ren bidezkoak; adibidez,

deuSt, deuTSot, dioSku, etab.

---

(3) HI berez dagokienak ez dira beraz HI-koi, arrunt baizik,

HI			etorri	Haiz
ni	HIri		etorri	natzaiK
HI		nik	ekarri	Haut
ni		HIk	ekarri	nauK
hura	HIri	hark	ekarri	diK

bezela, eta

Naiz, zaiT, Naute, diT

NI-koi ez diran bezelaxe.

Alderantziz,

ni	hari		etorri	natzaioK
hura	guri	haiek	ekarri	ZiguteK

bai, HI-rik berez ez bait-dagokie.

2) RA-z eratutakoak:

deRAut, zeneRAutan, etab.

3) NORI-tasunaren ezaugarri (K)I daramatenak, hoietan honako hauk bereiz ditezkela:

a) Delako (K)I hori askargilleari dagokion tokiaren ondoren daramatenak, adibidez,

natorKIK, gabilzKIZUE

eta horrelakoak, eta

b) Flesioaren hasierako aurrizkiaren ondoren daukaten

naIatortzu, gaIabiltzuez

itxurakoak.

4) -K/-N "gizon/emakume"-en bereizgarriez bestelako NORI-tasunaren ezaugarririk gabekoak:

nagoK, natoK, nabiK, nabilleK, etab.

Sail hontakoak, hala ere, -I- galdutako 3.gnekoak izatea ba diteke.

Nolanahi ere, eta zergaitik ez dakigula, HIKETA edo ZUKETA-rako erabiltzen direnak, euskalki guztietan 3.gn saileko ditugu gehienbat, Etxaidek gipuzkerarentzat "nabilKIK" bezelako HIRI-dun arruntak ematen baditu ere:

naIabi(l)K, nIabilleK, nIabilK, nIebilK,
(Bizkaian, Ernanin, Motrikun, ...)

Tokian-tokian, eta batez ere bizkaieraz, -I- horrek, aurrekoarekin bat egin, eta zenbait hots-aldatze ekar ditzake,

ÑabilK, ÑabilleK

moduko edo eta, hots-gogortze baten bidez sortzen diren

naJabiK (Bergaran), naXabiK (Oñatin)

erakoak.

Giputz askorentzat, -I- TX bilakatu, eta honelatsukoak entzun ditezke:

naTXIabillek, naTXEbillek, naTXAbillek, neTXEbillek,
neTXAbillek, niTXIabillek, ...

TX hori, sarri, HIRI-dunen eta HI-koien arteko bereizpide gertatzen dela:

"ni HIRI nabilKIK", eta
"ni naTXEbilleK".

HURA/HAIK aditz-gaidunak ere era bereko ditugu, hots-aldatze hauk gerta ditezkela:

dIa... > Ya... (Bizkaierazko YABILK eta); Ja... (Bergarako JABIK); XA... (Oñatiarren XABIK); D̄A... (Azkuek dakarren D̄ATOK); eta giputzek eta lapurtarrek darabiltzaten "ZebilleK" modukotango Ze... (4).

IZAN-ENAK ETA *EDIN-ENAK

Berez ez legozkieken flesioetan HI/ZU sarraraztean datza beraz, ikusi dugunez, solaskidekoitasunaren muiña eta, Lafon-ekin bat gentozela, horretarako HIRI eta ZURI-dunak erabilli ohi direla genion.

Ba da, ordea, erabil diteken beste bide bat ere. Adibidez, "ni zure ondoan nago"-ela adierazteko, NORI-dunez baliatzeak

ni (zuri) ondoan nagoKIZU

emango luke; baiñan esanahi hori bera, EUKI aditza erabilliaz

ni (zuk) ondoan NAUKAZU

esanda ere adieraz diteke. Hona hemen horretarako egin duguna: NORK gabeko EGON aditzaren ordez, aditz-gai berdiña (NI) duen EUKI-ren ZU aditz-jabedun flesioa erabilli dugu. Orobat,

"hura zure ondoan dago"-tik, { hura ondoan DAGOKIZU / hura ondoan DAUKAZU

aterako lirateke.

Adierazpide horretxi dautso IZAN euskalki guztietan solaskidekoiak emateko; HI-koiei bagagozkie, adibidez, (ZU-

(4) Lehen esan dugunez, Azkuek, ZU-koietan agertzen den -I- tartizkia HI izenordea dela dio; HI-koietango hasierako Z hau berriz, erabat alderantziz, ZU-ren adierazpide izan ohi den ezaugarriatzat jotzen du. Ez da beraz harritzeko HIKETA/ZUKETA-k euskal-flesioketan sortarazi duen anabasaz mintzatzea, eta garrazki mintzatu ere, Altubek gehiegi erizteraiñoko neurrian.

koiak arau berdiñari bait-darraizkio), hona hemen IZAN-i lerizkiokenak:

ni	naiz	ni nauk, ni naun
hura	da	hura duk, hura dun
gu	gara.....	gu gaituk, gu gaitun
haik	dira	haik dituk, haik ditun;

ikus ditekenez aditz-gaia, denetan, IZAN-en flesioarena bera dugu, eta aditz-jabea berriz, denetan HI.Arau berdiñez, lehen-aldikoak honako hauk lirateke:

ni	nintzan.....	ni nindukan, ni nindunan
hura	zan.....	hura huen
gu	giñan	gu gintukan, gu gintunan
haik	ziran.....	haik hituen.

Aurrerago baiño lehen bi ohar egitea on dateke:

A. HURA eta HAIK aditz-gaidun "orain ez"eko solaskidekoiei ez dagokie, berez, "gizon/emakume"-ak bereizterik, hasierako H bait-dute (HATOR eta horrelakoek bezelaxe) HI-ren ezaugarri. Baiñan ZU bakarrarentzat erabiltzen hasi, solaskidekoitasunaren zer zenaz ahantzi eta HIKETA/ZUKETA-ren bereizpide soil bilakatu zitzaienez gero, giputzek, idatzi ditudan hoiei "gizon/emakume"-en ezaugarriak erantsi eta

u(K)an-u(N)an, itu(K)an-ituNan

darabiltzate agitz. H oguzten ez dutela, HI-ren ezaugarria nabaitze eza lagungarri gertatuko zitzaien, noski, bide horretatik jotzeko.

B. Bestalde, oraiñaldikoetan, eta orain-ezean NI eta GU aditz-gaiak dituztenetan, IZAN-en flesio arruntak eta dagozkien solaskidekoiak hots berdiñez hasten dira:

NAIZ	bezela,	NAUK-NAUN
DA	bezela,	DUK-DUN
GARA	bezela,	GAITUK-GAITUN
DIRA	bezela,	DITUK-DITUN
NINTZAN	bezela,	NINDU(K)AN-NINDUNAN
GIÑAN	bezela,	GINTU(K)AN-GINTUNAN.

Horrek eragingo zien seguraski euskalki gehienei araukor-itxurazurrean jatorrizkoak utzi eta

(Zan)	/	Zu(K)an-ZuNan
(Ziran)	/	Zitu(K)an-ZituNan

erabiltzen hasteko, hemen ere "gizon/emakume" bereizketa egiteko zemaien bidea joera horren indargarri zela, alegia. Nolanahi ere, azken hoien arauzkontrakotasuna agerian dago; Lafitte-k ere ustekabekotzat jotzen ditu hontaz diharduela egiten duen oharrean (5).

Flesio ZU-koiak darabiltzaten euskalkietan ba da, gaiñera, hortik jotzeko beste ziorik; izan ere, arauari darizkion

(zan)	/	Huen,	(ziran)	/	Hituen;
(litzateke)	/	Huke,	(lirateke)	/	Hituzke

modukoei, ZU-ketan

ZENuen,	ZENituen;
ZENuke,	ZENituzke

legozkieke, solaskidekoitasunaren lehengo egitekoaz ahantzi ondoren ulerteziñak, noski.

Hoik guztiak direla eta zenbaitek, aldi erabillienez besteetan nahiago izaten dute -K eta -N ezartze hutsera jo eta, adibidez,

(nintzateke)	/	nintzakeK-nintzakeN
(litzateke)	/	litzakeK-litzakeN
(giñateke)	/	giñakeK-giñakeN
(lirateke)	/	lirakeK-lirakeN

modukoez baliatzea.

Horixe bera egin ohi da *EDIN-enetan ere nahiz eta (gehienbat bizkaieraz, Lardizabali bagagozkio), -I- tartekatutakoak ere erabilli eta HURA-HAIK aditz-gaidunen hasierako D-n aldakuntzak gertatu:

(naiteke)	/	naitekeK, naIaitekeK, nIaitekeK	-N
(diteke)	/	ditekeK, ZIaitekeK, ZitekeK, Yaitekek	-N
(ninteke)	/	nintekeK, naIntekeK	-N
(liteke)	/	litekeK, laItekeK	-N

* * *

(5) Flesioen jatortasunari eta jatortasunik ezari buruz esan ditudanek, kontuan hartzeko badira ere, ez dute, besterik gabe, egun zeintzu erabilli beharko genituzken erabakitzeko indarrik. Flesioen egituraz dihardut hemen, eta erabilkera besterik da.

EDUN-ENAK ETA *EZAN-ENAK

Ikusitako arauei balerraizkie, -I- tartekatutako solaskidekoiek "(nau)/nIauK, nIauN" itxurako behar lukete, eta hain zuzen ere "NIAUK" horixe darabil erabilli Leizarragak; egun, ordea, ekialdeko euskalkiek Lafitte-k IN aditzekotzat jotzen dituen flesioak darabiltzate:

(nau) / nIaiK-nIaiN, niK-niN
(du) / diK-diN
(gaitu) / gIaitiK-gIaitiN, gitiK-gitiN
(ditu) / ditiK-ditiN;

(ninduen) / ninti(K)an-nintiÑan
(zuen) / zi(K)an-ziÑan
(gintuen) / ginti(K)an-gintiÑan
(zituen) / ziti(K)an-zitiÑan.

Bizkaitarrek, ohi bezela I-dunei eutsi eta honako hauk ateratzen dituzte:

(nau)	/	naYoK, naJoK, naXaoK	-N
(du)	/	YoK, JoK, XaoK	-N
(gaitu)	/	gaIozaK	-Naz
(ditu)	/	YozaK	-Naz;
(ninduen)	/	naIendu(K)an	-N-
(zuen)	/	Yu(K)an, Ju(K)an, Xu(K)an	-N-
(gintuen)	/	gaIendu(K)azan	-N-
(zituen)	/	Yu(K)azan, Ju(K)azan	-N-

Sortaldeko euskalkiek eta Bizkaierak NORI-dun arruntak KI-z ez baiñan RA eta (T)S-ren bidez eratzen dituztela, HIRI-dunen eta HI-koien arteko bereizketa garbia egin dezakete, iñolako nahaspiderik sortzeke:

hura	hiri	hark	ekarri	DERAUK	(flesio arrunta), eta
hura		hark	ekarri	DIK	(HI-koia);
hura	hiri	hark	ekarri	DEUSK	(arrunta), eta
hura		hark	ekarri	YOK	(Hi-koia).

Gipuzkoan, NI eta GU aditz-gaidun flesioetan askotarikoak entzun ditezke, askok giputz-kutsuko TX daramatela:

(nau) / nIoK, ÑauK, naTXIoK, neTXIoK, naTXoK, naTXooK, niTXEok, naTXik, naTXIik, naTXIek, naTXEak, naTXEek, ...

(gaitu) / gaIozaK, gIozaK, gIotziK, gaTXIuK, gaTXIoK, gaTXiK, gaTXeK, gaiTXIeK, gaTXEtuK, gaTXEtiK, gaTXIuziK, gaTXIozK, gaTXItziK, gaTXEziK, gaTXEaziK, gaTXAureK, ...
(ninduen) / ninTXIoKan, eta antzerakoak.
(gintuen) / ginTXIoKan bezela eratutakoak,...;

HURA eta HAIK aditz-gaidunetan, berriz, bete-betean NORI-dunetara jo, eta

(du) / diK-diN (zuen) / zi(K)an-ziÑan
(ditu) / dizkiK-dizkiN (zituen) / zizki(K)an, zizkiÑan

egiten dituzte; horrek, ordea, bikuntza bat sortarazten du,

hura hiri hark ekarri DIK (arrunta) eta
hura hark ekarri DIK (HI-koia)

berdiñak gertatzen bait-zaizkie. Horregaitik edo, beste aditzen solaskidekoietan azaltzen zaien Z-z hasitako "Zetik" modukoak ere ba darabiltzate zenbait tokitan.

*EZAN-enetan, giputzek eta ekialdeko euskaldunek jokabide berdiña erabilli ohi dute, hots, -K eta -N eraste hutsez baliatzea, HURA aditz-gaidunetango hasierako D-ren ordez Z ezarriaz, hori bai:

(nazake) / nazakeK-nazakeN
(dezake) / ZezakeK-ZezakeN
(gaitzake) / gaitzakeK-gaitzakeN
(ditzake) / ZitzakeK-ZitzakeN;
(nintzake) / nintzakeK-nintzakeN
(lezake) / lezakeK-lezakeN
(gintzake) / gintzakeK-gintzakeN
(litzake) / litzakeK-litzakeN.

Aldi hoietan, bizkaitarrak datxezka hobekien, EGIN-enetan, bere ohizko -I- tartizkiari:

(nagike) / naIaikeK-naIaikeN
(dagike) / YaikeK-YaikeN
(gagikez) / gaIakezaK-gaIakeNaz
(dagikez) / YaikezaK-YaikeNaz;
(neinke) / naIeinkeK-naIeinkeN
(legike) / laIeikeK-laIeikeN
(geinkez) / gaIeinkezaK-gaIeinkeNaz
(legikez) / leIeikezaK-laIeikeNaz.

Hasieran, Azkuen eta Zatarainen HIKETA-rekiko gaitzespena aipatu dut, eta gero, HI-koi guztiez nahasian jardun dudalarik, ez dut bere arbuiapenak ezberdin diranik esan.

Azkuek, HIKETA-zkoetan, HIRI-dunen bidezkoak jotzen ditu nahaspilla eta anabasa-sortzailletzat baiñan, alderantziz, IZAN-enak EDUN-en bidez emateari jator eta bidezko erizten diola.

Zatarainek, ordea, denak baten sartzen dituela dirudi; areago, bere txostenean ikus ditekenez, EDUN-en bidezko hoik ditu, hain zuzen, okertzat eta baztertzekotzat. Nakion beraz, bereziki, ematen dizkigun adibideak nolabait osatzeari.

Bere iritziaren indargarri edo gertatzen direnak aldatzen hasi baiño lehen hauxe zioskun, hitzez-hitz, aurre-baiezpen gisa: "ETORRI NAUK euskera gaiztoa da, ETORRI aditzaren laguntzaille IZAN baita, eta ez EDUN. EKARRI NAUK eta EKARRI DUT bai, ongi dagode, EKARRI aditaren laguntzaille EDUN baita".

Nik neuk, ez dut hortaz horren baiezko biribillik eman ditekenik uste; izan ere,

> "Olaztiko gizonak negurako egurra Urbasatik ekartzen DUTE"

bezelako baten ondoan,

> "Olaztin negurako negurra Urbasatik ekartzen DA"

ere haizu dugu, EKARRI-ren laguntzaille IZAN azaltzen denarren (6).

Bestalde, IZAN-en solaskidekoitzat EDUN-en flesioak erabiltzearen funtsa zertan datzan argi-xamar erakutsi ahal izan dudala uste dut. Gauzak lehen nola ziretekeenaz jabetzeko idazleetara jotzean, zenbait eta zaharrago eta argitasun aundiagoa eman diezagukete, noski; ahalik eta zaharrenei atxikiko natzaie beraz, eta batez ere Leizarragari, hori bait-dugu idazleetan HI-kazkoetan aberatsen. Hona, beraz, horhemenka aurkitu ditudanak:

Etxeparek, POTAREN GALDACIA-n:

> "vercer erran albaytiça eNUC uste duyana..."

---

(6) Ikus hontaz FONTES-en 17.gn alean azaldu zen "Euskal-aditzaz zenait gogoeta" idazlanean niona (280 orr.).

Oihenartek berriz:

"lagun artean / hel nadinean / elhaketan, erhogoan, / ez NUN dostatzen / ez NUN mintzatzen, / hi beti, beti, aut gogoan..."

Leizarragarenak ugari ditugu; adibidez,

MAT. VIII- 8: "Iauná, ezNAUC digno ene athartean sar adin..."
VIII- 9: "Ni ere guiçon NAUC berceren manuco..."
XII-15: "...ala hire beguia gaichto DUK, çeren ni on baiNAUC?"
XXVII-63: "Iauná, orhoitu GAITUC nola abusari harc..."
MARC. V- 9: "Legio DIAT icen: ecen anhitz GAITUC..."
XIV-62: "Eta Iesusek erran cieçon: ni NAUC..."
LUC. VII- 8: "...ecen ni NAUC berceren meneco guiçón..."
XIX-21: "...ecen hire beldur içan NAUC, ceren baitaiz guiçon gogorra..."
JUAN XVIII-17: "ez othe aiz hi-ere guiçón hunen discipuluétaric? dio harc, ez NAUN"
XVIII-20: "...eta secretuan ez NAUC minçatu deus..."
XVIII-37: "ni hunetacotzát iayo içan NAUC, eta hunetacotzát ethorri içan NAUC mundura..."
AP. ACTOAC I- 1: "lehenik minçatu içan NAUC, Theophilo..."

Gehi diezazkiedan orain FEDEKO KONFESIONEA, LITURJIA, DOTRINAREN KATEXISMEA eta KALENDRERAtik jasotako beste batzu (7):

"... konfus GAITUK gure bihotzetan..."
"... benturatzen GAITUK..."
"... bide zuzenetik aldaratu izan GAITUK..."
"... lur eta lohi baizen ez GAITUK..."

(7) Hauek, Arestik moldatutako EUSKAL PROTESTANTISMOA ZER ZEN liburutik aldatu ditut.

"... gu GAITUK hire eskuen obrák..."
"... gu GAITUK hire heretajea..."
"... ezen ni NAUK hire Jainko Jauna..."
"... ni NAUK miserikordia egiten drauedana... on dariztenei".

Hona orain zenbait HURA eta HAIK aditz-gaidun:

MAT. I-20: "...ceren hartan concebitu dena, Spiritu Sainduaganic DUC..."
I-21: "...eta erdiren DUC seme batez eta deithuren DUC haren icena Iesus..."
II- 6: "...ecen hireganic ilkhiren DUC... gobernadorea..."
VI-23: "...hire beguia gaichto baDUC hire gorputz gucia ilhun DATEC..."
VII-27: "...ecen ezTUN gauça bidezcoa haourren oguiaren hartzea..."
VII-29: "...ilki DUN deabrua hire alabaganic..."
VIII-29: "Cer DUC gure eta hire artean, Iesus Iaincoaren Semeá?"
IX-18: "...ene alaba orain hil içan DUC..."
MARC. X-18: "...handi DUN hire fedea.."
XV-28: "...ezTUC onic bat baicen..."

Eta lehen aipatutako liburuetatik:

"...gure inikitatea DUK... gure kondenagarri"
"Hik erraiten duena DUK ezen..."
"Gaixtoen kontuko estimatu behar izan DUK..."
"...baina ezTUK hori perpetual..."
"...zazpigarrenean erreposatu izan DUK..."
"...ordu DUK gatozen..."
"...orazioneak alfer DITUK..."
"...bekhatore baliz ezLUKEK fiadore abastant..."

Axular-ek HIKETA oso gutxitan darabillela guztiok dakigu baiñan, hala ere, hona beragandiko ale batzu:

"Nik atzo, hik baiño bide gehiago iragan NIAN, ..., eta orai ere, hi baiño goizago iaiki NAUK".
"Haik hortik..., eta benturaz halatan eskapatuko GAITUK".
"Horrela DUK bada munduko erhokeria ere, ..."

"...orai argi banaiz ere, ...lehen NINDUAN argiago".
"Hiregatik gu... itho GINITUAN..."

Eta HIKETA-tik ZUKETA-ra joan bagaitez ikus, bukatzeko, Etxeparengan aurkitzen ditugunak:

"...hanbat NUÇU gauça orotan ni vertute gabia..."
"...ni eNUÇU ohoina arrobaçer nyçana..."
"...ni eNUÇU iaquinxu..."
"...orano amorea gazte GUITUÇU..."
"...bioc yagoiticos galdu GUITUÇU..."
"...haren faltaz hassi NUÇU iauguitiaz dolutzen..."

Honenbestekin aski izango da, nik uste, idazle zaharrak (Leizarraga barne) IZAN-en solaskidekoi EDUN-enak zerabiltzatela egiaztatzeko. Zatarainek, bere txostenean, Leizarragan lau esakune aldatzen zizkigun, alderantzizkoaren erakusgarri. Hoietatik biri, ordea, aurrizkiak edo atzizkiak zitxezkiela, HI-koiak erabiltzerik ez zegokien; beste bietan aditz-flesioak bere soillean ageri dira, baiñan biak itaun-esakuneetan, hain zuzen.

Alde hortatik, beraz, HIKETA galderetan erabilkizun ez dela dionean Larresoro zuzen dabillela dirudi, eta Leizarragan DOTRINAREN KATEXISMEA, adibidez, arau horri hutsik egiteke darraika, baiñan itaun-erantzunkako bat ez bide da, behar bada, garai bateko eta idazle baten esate-moduak ezagutzeko egokien. Dena dela hor ditugu, lege litzatekelako horren alderantzizko, Leizarragagandik lehen aldatu dituda-netan bi:

"...ala hire beguia gaichto DUK, çeren ni ona bai-NAUC?", eta
"...cer DUK gure eta hire artean...?"

Bestalde, eta SUSTRAI BILLA-n jokabide hori gehienbat gazteek erabilli ohi dutela dionarren, dagoeneko hain gazte ez geranok ere beti erabilli izan ditugu, euskeraz guk baiño hobeki zekiten gu baiño zaharragoei ikasita,

Zer DOK? Nora JOIAK? Noiz JATOK?

modukoak. Arau horri ez derizkioket beraz orokortzat hartzeko, azter-lan sakonagorik egiten ez denartean behintzat.

Nere hau norbaiti horretarako bultzagarri balitzaio, zuei asperraldi hau jasanarazi izana agian barkakizun litzaidake.

HIKETA EDO HITANOAZ ZENBAIT ARGI

Otsaila 1973

Endrike Knörr

I. AITZIN-SOLASA

Euskarak hiru bide du 2. pertsona singularra adierazteko, alegia, "hi', "zu" eta "berori". Azken hau alde batetara utzirik (arrazoinez dihoa gain-behera bide hori), hitanoak beti eta zukak orain oso gutitan "konprometatzen" dituzte elkarhizlariak. Eskema batez aditzera ematearren:

a) Bide familiarra:

hi: etorri nauk; liburu hori irakurri diat.
zu: negar egin dizut; nor zaitugu? erori dituzu.

b) Bide arrunta:

zu: negar egin dut; nor zara zu? erori dira.

Zuka familiarrari eutsi egin behar diogu, euskarari benetan eutsi nahi badiogu. Hala hitanoari ere eutsi behar diogu. Hortarako, jakina, euskal gramatika ikasi behar da, honen guti ezagutzen dugun euskal gramatika.

Egun, hitanoa atzera dihoa, eta atzera joaite hortan oso gaizki erabiltzen, bai eta idazleen artean ere. Hitanoa berpizteko zenbait gauza jakin behar da lehenik. Hona non aurkitu:

Txillardegi: "Hika eta zuka-ko aditz-joko edo konjugazioaz". EUSKERA aldizkarian, XIII 1968, 1327. orr. eta darr.

Larresoro (*Txillardegi* bera, bada): "Sustrai bila". Donostia 1970. 105. orr. eta darr.

Ataun, Bonifacio de: "Gure aditza" (El verbo vasco)". EKIN bilduman, Buenos Aires, 1960., anitz orrialdetan.

Altuna, Patxi: "Euskal aditza", Bilbo 1971. 185. orr. eta darr.

Intxausti, Joseba: "Euskal aditza". Donostia, 1960., anitz orr.

Lafitte kalonjea: "Grammaire Basque", 248. orr.

* * *

Egun entzuten dira holako esaldiak:

"Isilik gelditu nauk ez bait *zekiat* zer esan"; "zer esan *dik*?"; "etorri *dukan* gizona nere adiskide duk"; zigorra hartu dik "G.E.!" esan *duelako.*

Beraz, *lokutibo* denean ez da beti hitanoko forma erabili behar. Erran daiteke, bai, "ikusi duka?" ("Jakin duka berria?", dio kantuak biziki ongi). Baina ez, otoi, "Etorri duk?" ez "Joan dituka?".

Gakoa non? Liburu horietan dago ikasbidea. Ordea, hitz gutitan zerbait esan dezagun.

Subjuntibo, inperatibo eta *potenzialean* ez da aldakuntzarik:

> Ez *da* etorri > ez *duk* etorri / ez *dun* etorri (edo eta ez *duzu* etorri, zuka familiarrean).
>
> Baina: ez *dedin* etor, eskatzen *dauat.*

Aditzak edozein (?) aurrizki daramanean ez da aldakuntzarik: (ikus oharra)

> Dantza-lekutik jalgi *ginduan* aspertu egin bait *ginen.*

Aditzak edozein atzizki daramanean ez da aldakuntzarik:

> *Gauzatto bat erran diat* tabernan, salatzaile bat bertan ikusi *dudalakoz*; erosi *dugun* autoaz etorri *gaituk* (ez "erósi *diagun*...).

Galderetan ez da lokutiborik behar ere:

> *"Egin dite* hireak... Norentzat izanen *dira* (ez "dituk")?" (Axular)
>
> "hik ere bide bera *daramak*; ez *dea* hala, Manez (ez "duka")?" (Manezaundi)

Berriro erranda: *lokutiboaz* ari gara hemen. Jakina erran daiteke:

> "Hartu *duka* ene gutuna? (hortan ez bait dugu nehor konprometatzen)";

"etor *haitekea*?"; "Joan *hintzena*?"; "berriki irakurri *duan* liburuaren egilearen erdaltzalekeria nabarmen *duk*", eta abar.

OHARRA: "ba" eta "ez" ("ba" afirmatibo-intensibo denean, jakina) ez dira aurrizkiak. Adibide bat: "Ba *gaituk* zortzi lagun, eta ez *gaituk* fuboltalde bat egiteko adina."

* * *

II. HITANOKO LOKUTIBO-FORMAK

A) NOR-ADITZAK

Izan aditza

naiz	nauk / naun
da	duk / dun
gara.....	gaituk / gaitun
dira	dituk / ditun
nintzen	ninduan / nindunan
zen	huan / hunan (ikus beheko oharttoa)
ginen	gintuan / gintunan
ziren	hituan / hitunan (berdin)
naiteke	naitekek / naiteken
daiteke	zaitekek / zaiteken
gaitezke	gaitezkek / gaitezken
daitezke.....	zaitezkek / zaitezken
ninteke	nintekek / ninteken
liteke	litekek / liteken
gintezke.....	gintezkek / gintezken
litezke	litezkek / litezken
nintekean.....	nintekeaan / nintekeanan
zitekean.....	zitekeaan / zitekeanan
gintezkean.....	gintezkeaan / gintezkeanan
zitezkean	zitezkeaan / zitezkeanan
nintzake	nindukek / ninduken
litzake.....	huke
ginake.....	ginduzkek / ginduzken
lirake	hituzke

Oharttoa: Altuna baitan ez dut "hunan" ez "hitunan" ediren. Ustegabeko hutsunea dela iruditzen zait.

Egon aditza

nago	nagok / nagon *(ikus beheko oharra)*
dago	zegok / zegon
gaude.....	gaudek / gauden
daude.....	zeudek / zeuden
nengoen.....	nengoan / nengonan
zegoen.....	zegoan / zegonan
geunden.....	geundean / geundenan
zeuden	zeudean / zeudenan
nengoke.....	nengokek / nengoken
legoke	legokek / legoken
gengozke.....	gengozkek / gengozken
legozke	legozkek / legozken

Oharra: Irakurleak dakusanez, lan hontan forma batzu falta dira: bertzerik ez bait zen geuk egin beharra zen. Gainera, zenbait puntutan zalantza dateke. Esate baterako: *negok / nagok.*
Iparraldeko formak hoberenik iduritzen zaizkit hemen ere bai: *dakiat, dakinat, dagok, nakarrek,* eta abar.

Etor - Ibil - Joan aditzak

nator.....	netorrek / netorren
dator.....	zetorrek / zetorren
gatoz.....	gatozek / gatozen
datoz	datozek / datozen
nabil	nebilek / nebilen
dabil	zebilek / zebilen
gabiltza	gabiltzek / -n
dabiltza	dabiltzek / -n
noa.....	nihoak / -n
dihoa, doha	dihoak / -n
goaz.....	goazek / -n
dihoaz, doaz	dihoaztek / -n

(iragana ez dakit: nentorrean?...).

nentorke	nentorkek / -n
letorke.....	letorkek / -n
gentozke	gentozkek / -n
letozke	letozkek / -n
nenbilke.....	nenbilkek / -n
lebilke	lebilkek / -n
genbiltzake.....	genbiltzakek / -n
lebiltzake	lebiltzakek / -n
nindoake.....	nindoakek / -n
lihoake	lihoake / -n
gindoazke	gindoazkek / -n
lihoazke.....	lihoazkek / -n

B) *NOR-NORI* ADITZAK

natzaio	natzaiok / -n
natzaie	natzaiek / -n
zait.....	zaidak / -n
zaio	zaiok / -n
zaigu.....	zaiguk / -n
zaie	zaiek / -n

nintzaion	nintzaioan / -ionan
nintzaien.....	nintzaiean / -ienan
zitzaidan.....	zitzaidaan / -idanan
zitzaion	zitzaioan / -ionan
zitzaigun.....	zitzaiguan / -igunan
zitzaien.....	zitzaiean / -ienan
gatzaizkio	gatzaizkiok / -n
gatzaizkie.....	gatzaizkiek / -n
zaizkit	zaizkidak / -n
zaizkio.....	zaizkiok / -n
zaizkigu	zaizkiguk / -n
zaizkie.....	zaizkiek / -n
gintzaizkion.....	gintzaizkioan / -ionan
gintzaizkien.....	gintzaizkiean / -ienan
zitzaizkidan.....	zitzaizkidaan / -idanan
zitzaizkion.....	zitzaizkioan / -ionan
zitzaizkigun	zitzaizkiguan / -igunan
zitzaizkien.....	zitzaizkiean / -ienan
nakioke	nakiokek / -n
nakieke	nakiekek / -n
dakidake.....	zekidakek / -n
dakioke	zekiokek / -n
dakiguke.....	zekigukek / -n
dakieke	zekiekek / -n
gakizkioke.....	gakizkiokek / -n
gakizkieke.....	gakizkiekek / -n
dakizkidake.....	zekizkidakek / -n
dakizkioke.....	zekizkiokek / -n
dakizkiguke	zekizkigukek / -n
dakizkieke.....	zekizkiekek / -n
nenkioke.....	nenkiokek / -n
lekidake.....	lekidakek / -n
lekioke	lekiokek / -n
lekiguke.....	lekigukek / -n
lekieke	lekiekek / -n
genkizkioke	genkizkiokek / -n
genkizkieke	genkizkiekek / -n
lekizkidake.....	lekizkidakek / -n

lekizkioke.....	lekizkiokek / -n
lekizkiguke	lekizkigukek / -n
lekizkieke.....	lekizkiekek / -n
nenkiokean.....	nenkiokeaan / -anan
nenkiekean.....	nenkiekeaan / -anan
zekidakean.....	zekidakeaan / -anan
zekiokean.....	zekiokeaan / -anan
zekigukean.....	zekigukeaan / -anan
zekiekean.....	zekiekeaan / -anan
genkizkiokean	genkizkiokeaan / -anan
genkizkiekean	genkizkiekeaan / -anan
zekizkidakean	zekizkidakeaan / -anan
zekizkiokean.....	zekizkiokeaan / -anan
nintzaioke	nintzaiokek / -n
nintzaieke	nintzaiekek / -n
litzaidake.....	litzaidakek / -n
litzaioke.....	litzaiokek / -n
zitzaiguke	zitzaigukek / -n
zitzaieke	zitzaiekek / -n
gintzaizkioke.....	gintzaizkiokek / -n
gintzaizkieke.....	gintzaizkiekek / -n
zitzaizkidake.....	zitzaizkidakek / -n
zitzaizkioke	zitzaizkiokek / -n
zitzaizkiguke.....	zitzaizkigukek / -n
zitzaizkieke	zitzaizkiekek / -n

Egon aditza. *NOR-NORI*

nagokio	nagokiok / -n
nagokie	nagokiek / -n
dagokit.....	zegokidak / -n
dagokio	zegokiok / -n
dagokigu.....	zegokiguk / -n
dagokie	zegokiek / -n
gagozkio	gagozkiok / -n
gagozkie	gagozkiek / -n
dagozkit.....	zegozkidak / -n
dagozkio	zegozkiok / -n
dagozkigu	zegozkiguk / -n
dagozkie	zegozkiek / -n

nengokion	nengokioan / -ionan
nengokien	nengokiean / -ienan
zegokidan	zegokidaan / -idanan
zegokion	zegokioan / -ionan
zegokigun.....	zegokiguan / -igunan
zegokien	zegokiean / -ienan
gengozkion	gengozkioan / -ionan
gengozkien	gengozkiean / -ienan
zegozkidan	zegozkidaan / -idanan
zegozkion.....	zegozkioan / -ionan
zegozkigun	zegozkiguan / -igunan
zegozkien	zegozkiean / -ienan

Etor aditza

natorkio.....	natorkiok / -n
natorkie.....	natorkiek / -n
datorkit	zetorkidak / -n
datorkio.....	zetorkio / -n
datorkigu	zetorkiguk / -n
datorkie.....	zetorkiek / -n
gatozkio.....	gatozkiok / -n
gatozkie.....	gatozkiek / -n
datozkit	zetozkidak / -n
datozkio.....	zetozkiok / -n
datozkigu	zetozkiguk / -n
datozkie.....	zetozkiek / -n

(Bertzerik? Honelatsu: *nabilkiok, zebilkidak, nihoakiek, zihoazkidan.)*

C) **NOR-NORK** ADITZAK

nau.....	naik / -n
naute	naiate / nainate
dut	diat / dinat
du	dik / din
dugu	diagu / dinagu
dute.....	diate / dinate
gaitu	gaitik / gaitin
gaituzte	gaitiate / gaitinate
ditut	ditiat / ditinat

ditu	ditik / ditin
ditugu	ditiagu / ditinagu
dituzte.....	ditiate / ditinate
ninduen	nindian / nindinan
nindute.....	nindiaten / nindinate
nuen	nian / ninan
zuen	zian / zinan
genduen.....	genian / geninan
zuten	ziaten / zinaten
gintuen.....	gintian / gintinan
gintuzten	gintiaten / gintinaten
nituen	nitian / nitinan
zituen.....	zitian / zitinan
genituen	genitian / genitinan
zituzten	zitiaten / zitinaten
nazake	nazakek / -n *(ikus lehengo oharra)*
nazakete	nazakeate / nazakenate
dezaket.....	zezakeat / zezakenat
dezake.....	zezakek / -n
dezakegu	zezakeagu / zezakenagu
dezakete	zezakeate / zezakenate
gaitzake.....	gaitzakek / -n
gaitzakete	gaitzakeate / gaitzakenate
ditzaket	zitzakeat / zitzakenat
ditzake	zitzakek / -n
ditzakegu	zitzakeagu / zitzakenagu
ditzakete.....	zitzakeate / zitzakenate
nintzake	nintzakek / -n
nintzakete	nintzakeate / nintzakenate
nezake.....	nezakek / -n
lezake	lezakek / -n
genezake.....	genezakek / -n
lezakete	lezakeatre / -kenate
gintzake.....	gintzakek / -n
gintzakete	gintzakeate / gintzakenate
nitzake	nintzakek / -n
litzake	litzakek / -n
genitzake	genitzakek / -n
litzakete.....	litzakeate / litzakenate

nintzakean	nintzakeaan / -anan
nintzaketen	nintzakeaaten / nintzakeanaten
nezakean	nezakeaan / nezakeanan
zezakean.....	zezakeaan / -anan
genezakean	genezakeaan / -anan
zezaketen.....	zezakeaaten / zezakeanaten
gintzakean	gintzakeaan / -anan
gintzaketen.....	gintzakeaaten / gintzakeanaten
nitzakean.....	nintzakeaan / -anan
gintzaketen.....	gintzakeaaten / gintzakeanaten
nitzakean.....	nintzakeaan / -anan
zitzakean	zitzakeaan / -anan
genitzakean.....	genitzakeaan / -anan
zitzakeaten.....	zitzakeaaten / zitzakeanaten

ninduke	nindukek / -n
nindukete.....	ninduketek / -n
nuke	nikek / -n
luke	likek / -n
gen(d)uke	gen(d)ukek / -n
lukete.....	luketek / -n
ginduzke	ginduzkek / -n
ginduzkete	ginduzketek / -n
nituzke	nitikek / -n
lituzke	litikek / -n
genituzke	genitikek / -n
lituzkete	litiketek / -n

Jakin aditza

dakit.....	zekiat (oroit *nago* forman emaniko oharraz) / zekinat
daki.....	zekik / zekin
dakigu.....	zekiagu / zekinagu
dakite	zekite / zekinate
nekien	nekian / nekinan
zekien	zekian / zekinan
genkien	genkian / genkinan
zekiten	zekiaten / zekinaten

Ekar aditza

nakar	nakarrek / -n
nakarte	nekarreate / nekarrenate
dakart	zekarreat / zekarrenat
dakar	zekarrek / -n
dakargu	zekarreagu / zekarrenagu
dakarte	zekarreate / zekarrenate
gakartzi	gekartzik / gekartzin
gakartzite	gekartziate / gekartzinate
dakartzit	zekartziat / zekartzinat
dakartzi	zekartzik / zekartzin
dakartzigu	zekartziagu / zekartzinagu
dakartzite	zekartziate / zekartzinate
nenkarren	nenkarrean / nenkarrenan
nenkarten	nenkarreaten / nenkarrenaten
nekarren	nekarrean / nenkarrenan
zekarren	zekarrean / zekarrenan
genekarren	genekarrean / genekarrenan
zekarten	zekarreaten / zekarrenaten
genkartzin	genkartzian / genkartzinan
genkartziten	genkartziaten / genkartzinaten
nekartzin	nekartzian / nekartzinan
zekartzin	zekartzian / zekartzinan
genekartzin	genekartzian / genekartzinan
zekartziten	zekartziaten / zekartzinaten

Eduki aditza

nauka	naukak / -n
naukate	naukaate / naukanate
daukat	zeukat / zeukanat
dauka	zeukak / zeukan
daukagu	zeukaagu / zeukanagu
daukate	zeukaaten / zeukanate
gauzka	geuzkak / -n
gauzkate	geuzkaate / geuzkanate
dauzkat	zeuzkaat / -n
dauzka	zeuzkak / -n
dauzkagu	zeuzkaagu / zeuzkanagu
dauzkate	zeuzkaate / zeuzkanate

naukan.....	naukaan / naukanan
naukaten	naukaaten / naukanaten
neukan	neukaan / neukanan
zeukan	zeukaan / zeukanan
gendukan.....	gendukaan / gendukanan
zeukaten.....	zeukaaten / zeukanaten
gindeuzkan.....	gindeuzkaan / -anan
gindeuzkaten	gindeuzkaaten / -anaten
neuzkan.....	neuzkaan / -anan
zeuzkan	zeuzkaan / -anan
geneuzkan.....	geneuzkaan / -anan
zeuzkaten.....	zeuzkaaten / zeuzkanaten

D) *NOR (ZER)-NORI-NORK ADITZAK*

diot.....	zioat / zionat
diet.....	zieat / zienat
dit	zidak / -n
dio.....	ziok / -n
digu	ziguk / -n
die.....	ziek / -n
diogu	zioagu / zionagu
diegu	zieagu / zienagu
didate	zidaate / zidanate
diote	zioate / zionate
digute	ziguate / zigunate
diete	zieate / zienate

nion.....	nioan / nionan
nien.....	niean / nienan
zidan	zidaan / zidanan
zion	zioan / zionan
zigun.....	ziguan / zigunan
zien	ziean / zienan
genion	genioan / genionan
genien	geniean / genienan
zidaten	zidaaten / zidanaten
zioten.....	zioaten / zionaten
ziguten	ziguaten / zigunaten
zieten.....	zieaten / zienaten

dizkiot.....	zizkioat / zizkionat
dizkiet.....	zizkieat / zizkienat
dizkit	zizkidak / zizkidan
dizkio.....	zizkiok / zizkion
dizkigu	zizkiguk / zizkigun
dizkie.....	zizkiek / zizkien
dizkiogu.....	zizkioagu / zizkionagu
dizkiegu.....	zizkieagu / zizkienagu
dizkidate.....	zizkidaaten / zizkidanate
dizkiote	zizkioate / zizkionate
dizkigute.....	zizkiguate / zizkigunate
dizkiete	zizkieate / zizkienate
nizkion	nizkioan / nizkionan
nizkien	nizkiean / nizkienan
zizkidan.....	zizkidaan / zizkidanan
zizkion	zizkioan / zizkionan
zizkigun.....	zizkiguan / zizkigunan
zizkien.....	zizkiean / zizkienan
genizkion	genizkioan / genizkionan
genizkien	genizkiean / genizkienan
zizkidaten	zizkidaaten / zizkidanaten
zizkioten	zizkioaten / zizkionaten
zizkiguten	zizkiguaten / zizkigunaten
zizkieten	zizkieaten / zizkienaten
dizaioket.....	zizaiokeat / zizaiokenat
dizaieket.....	zizaiekeat / zizaiekenat
dizadake.....	zizadakek / zizadaken
dizaioke.....	zizaiokek / zizaioken
dizaguke	zizagukek / zizaguken
dizaieke.....	zizaiekek / zizaieken
dizaiokegu.....	zizaiokeagu / zizaiokenagu
dizaiekegu.....	zizaiekeagu / zizaiekenagu
dizadakete	zizadakeate / zizadakenate
dizaiokete	zizaiokeate / zizaiokenate
dizagukete.....	zizagukeate / zizagukenate
dizaiekete	zizaiekeate / zizaiekanate
nizaioke.....	nizaiokek / nizaioken
nizaieke.....	nizaiekek / nizaieken
lizadake.....	lizadakek / lizadaken
lizaioke.....	lizaiokek / lizaioken

lizaguke	lizagukek / lizaguken
lizaieke	lizaiekek / lizaieken
genizaioke	genizaiokek / genizaioken
genizaieke	genizaiekek / genizaieken
lizadakete	lizadakeate / lizadakenate
lizaiokete	lizaiokeate / lizaiokenate
lizagukete	lizagukeate / lizagukenate
lizaiekete	lizaiekeate / lizaiekenate
nizaiokean.....	nizaiokeaan / nizaiokeanan
nizaiekean.....	nizaiekeaan / nizaiekeanan
zizadakean	zizadakeaan / zizadakeanan
zizaiokean	zizaiokeaan / zizaiokeanan
zizagukean	zizagukeaan / zizagukeanan
zizaiekean	zizaiekeaan / zizaiekeanan
genizaiokean.....	genizaiokeaan / genizaiokeanan
genizaiekean.....	genizaiekeaan / genizaiekeanan
zizadaketen	zizadakeaaten / zizaiokeanaten
zizaioketen	zizaiokeaaten / zizaiokeanaten
zizaguketen	zizagukeaten / zizagukenaten
zizaieketen	zizaiekeaaten / zizaiekenaten
ditzaioket.....	zitzaiokeat / zitzaiokenat
ditzaieket.....	zitzaiekeat / zitzaiekenat
ditzadake	zitzadakek / zitzadaken
dizaioke	zitzaiokek / zitzaioken
ditzaguke	zitzagukek / zitzaguken
ditzaieke	zitzaiekek / zitzaieken
ditzaiokegu.....	zitzaiokeagu / zitzaiokenagu
ditzaiekegu.....	zitzaiekeagu / zitzaiekenagu
ditzadakete	zitzadakeate / zitzadakenate
ditzaiokete	zitzaiokeate / zitzaiokenate
ditzagukete.....	zitzagukeate / zitzagukenate
ditzaiekete	zitzaiekeate / zitzaiekenate
nizaizkioke	nizaizkiokek / -n
nizaizkieke	nizaizkiekek / -n
lizaizkidake	lizaizkidakek / -n
lizaizkioke.....	lizaizkiokek / -n
lizaizkiguke	lizaizkigukek / -n
lizaizkieke	lizaizkiekek / -n
genizaizkioke	genizaizkiokek / -n
genizaizkieke	genizaizkiekek / -n

lizaizkidakete.....	lizaizkidaketek / -n
lizaizkiokete	lizaizkioketek / -n
lizaizkigukete.....	lizaizkiguketek / -n
lizaizkiekete.....	lizaizkieketek / -n
nizaizkiokean.....	nizaizkiokeaan / nizaizkiokeanan
nizaizkiekean.....	nizaizkiekeaan / nizaizkiekeanan
zizaizkidakean	lizaizkidakeaan / lizaizkidakeanan
zizaizkiokean	lizaizkiokeaan / lizaizkiokeanan
zizaizkigukean	lizaizkigukeaan / lizaizkigukeanan
zizaizkiekean	lizaizkiekeaan / lizaizkiekeanan
genizaizkiokean...	genizaizkiokeaan/genizaizkiokeanan
genizaizkiekean...	genizaizkiekeaan/genizaizkiekeanan
zizaizkidaketen....	zizaizkidakeaaten/zizaizkidakenaten
zizaizkioketen	zizaizkiokeaaten/zizaizkiokenaten
zizaizkiguketen....	zizaizkigukeaten/zizaizkigukenaten
zizaizkieketen	zizaizkiekeaten/zizaizkiekenaten
nioke.....	niokek / nioken
nieke.....	niekek / nieken
lidake.....	lidakek / lidaken
lioke.....	liokek / lioken
liguke.....	ligukek / liguken
lieke	liekek / lieken
genioke.....	geniokek / genioken
genieke.....	geniekek / genieken
lidakete	lidaketek / lidaketen
liokete	lioketek / lioketen
ligukete	liguketek / liguketen
liekete	lieketek / lieketen
nizkioke.....	nizkiokek / nizkioken
nizkieke.....	nizkiekek / nizkieken
lizkidake.....	lizkidakek / lizkidaken
lizkioke.....	lizkiokek / lizkioken
lizkiguke	lizkigukek / lizkiguken
lizkieke.....	lizkiekek / lizkieken
genizkioke.....	genizkiokek / genizkioken
genizkieke.....	genizkiekek / genizkieken
lizkidakete	lizkidaketek / lizkidaketen
lizkiokete	lizkioketek / lizkioketen
lizkigukete.....	lizkiguketek / lizkiguketen
lizkiekete	lizkieketek / lizkieketen

Eraman aditza

daramaiot	zeramaioat / zeramaionat
daramaiet	zeramaieat / zeramaienat
daramait.....	zeramaidak / zeramaidan
daramaio	zeramaiok / zeramaion
daramaigu	zeramaiguk / zeramaigun
daramaie	zeramaiek / zeramaien
daramaiogu.....	zeramaioagu / zeramaionagu
daramaiegu.....	zeramaieagu / zeramaienagu
daramaidate.....	zeramaidatek / zeramaidaten
daramaiote.....	zeramaiotek / zeramaioten
daramaigute.....	zeramaigutek / zeramaiguten
daramaiete.....	zeramaietek / zeramaieten
daramazkiot	zeramazkioat / zeramazkionat
daramazkiet	zeramazkieat / -kienat
daramazkit.....	zeramazkidak / -kidan
daramazkio	zeramazkiok / -kion
daramazkigu	zeramazkiguk / -kigun
daramazkie	zeramazkiek / -kien
daramazkiogu	zeramazkioagu / -kionagu
daramazkiegu	zeramazkieagu / -kienagu
daramazkidate	zeramazkidatek / -kidaten
daramazkiote.....	zeramazkiotek / -kioten
daramazkigute	zeramazkigutek / -kiguten
daramazkiete.....	zeramazkietek / -kieten
neramaion.....	neramaioan / neramaionan
neramaien.....	neramaiean / neramaienan
zeramaidan	zeramaidaan / zeramaidanan
zeramaion.....	zeramaioan / zeramaionan
zeramaigun	zeramaiguan / zeramaigunan
zeramaien.....	zeramaiean / zeramaienan
generamaion.....	generamaioan / generamaionan
generamaien.....	generamaiean / generamaienan
zeramaidaten.....	zeramaidatean / zeramaidatenan
zeramaioten	zeramaiotean / zeramaiotenan
zeramaiguten.....	zeramaigutean / zeramaigutenan
zeramaieten.....	zeramaietean / zeramaietenan
neramazkion.....	neramazkioan / neramazkionan
neramazkien.....	neramazkiean / -kienan
zeramazkidan	zeramazkidaan / -kidanan

zeramazkion ..... zeramazkioan / -kionan
zeramazkigun ..... zeramazkiguan / -kigunan
zeramazkien ..... zeramazkiean / -kienan
generamazkion.... generamazkioan / -kionan
generamazkien.... generamazkiean / -kienan
zeramazkidaten... zeramazkidatean / -kidatenan
zeramazkioten..... zeramazkiotean / -kiotenan
zeramazkiguten... zeramazkigutean / -kigutenan
zeramazkieten..... zeramazkietean / -kietenan

Ekar aditza

dakarkiot ..... zekarkioat / zekarkionat
dakarkiet ..... zekarkieat / zekarkienat
dakarkit ..... zekarkidak / zekarkidan
dakarkio ..... zekarkiok / zekarkion
dakarkigu ..... zekarkiguk / zekarkigun
dakarkie ..... zekarkiek / zekarkien
dakarkiogu..... zekarkioagu / zekarkionagu
dakarkiegu..... zekarkieagu / zekarkienagu
dakarkidate..... zekarkidaaten / zekarkidanate
dakarkiote..... zekarkioate / zekarkionate
dakarkigute..... zekarkiguate / zekarkigunate
dakarkiete..... zekarkieate / zekarkienate

nekarkion ..... nekarkioan / nekarkionan
nekarkien..... nekarkiean / nekarkienan
zekarkidan..... zekarkidaan / zekarkidanan
zekarkion..... zekarkioan / zekarkionan
zekarkigun ..... zekarkiguan / zekarkigunan
zekarkien..... zekarkiean / zekarkienan
genekarkion..... genekarkioan / -kionan
genekarkien..... genekarkiean / -kienan
zekarkidaten..... zekarkidaaten / -kidanaten
zekarkioten ..... zekarkioaten / -kionaten
zekarkiguten..... zekarkiguaten / -kigunaten
zekarkieten ..... zekarkieaten / -kienaten

dakarzkiot..... zekarzkioat / zekarzkionat
dakarzkiet..... zekarzkieat / zekarzkienat
dakarzkit ..... zekarzkidak / zekarzkidan
dakarzkio..... zekarzkiok / zekarzkiok
dakarzkigu ..... zekarzkiguk / zekarzkigun

dakarzkie.....	zekarzkiek / zekarzkien
dakarzkie.....	zekarzkiek / zekarzkien
dakarzkioagu.....	zekarzkioagu / zekarzkionagu
dakarzkiegu.....	zekarzkieagu / zekarzkienagu
dakarzkidate	zekarzkidaate / zekarzkidanate
dakarzkiote	zekarzkioate / zekarzkionate
dakarzkigute.....	zekarzkiguate / zekarzkigunate
dakarzkiete	zekarzkieate / zekarzkienate
nekarzkion	nekarzkioan / nekarzkionan
nekarzkien	nekarzkiean / nekarzkienan
zekarzkidan.....	zekarzkidaan / -kidanan
zekarzkion	zekarzkioan / -kionan
zekarzkigun.....	zekarzkiguan / -kigunan
zekarzkien.....	zekarzkiean / -kienan
genekarzkion	genekarzkioan / -kionan
genekarzkien	genekarzkiean / -kienan
zekarzkidaten	zekarzkidaaten / -kidanaten
zekarzkioten	zekarzkioaten / -kionaten
zekarzkiguten	zekarzkiguaten / -kigunaten
zekarzkieten	zekarzkieaten / -kienaten

Ondo solasa

Egileak (hobe: kopiatzaileak) kritikak eskertuko ditu. Ongi erranak onar, gaizki barka.

ERASKINA

Lan hontan ageri diren adizki batzuk ez dira Aditz Baturako harez gero onartu direnak. Gogoan izan 1973.ean egin nuela nik lan hau.

Huts garbi bat bada, guttienez:

huan / hunan bikotea ezarri nuen. Ez nekien orduan bigarren adizki hori (ustez emeari zegokiona) gipuzkerarena zela soil-soilik —eta menturaz berrikeria bat.

Moldiztegira baino lehentxeago, Txillardegi adiskidearen eritzia jaso nahi izan dut. Hona:

1. *huan* gabe, *zuan* hobesten du. Orobat, noski, *hituan* gabe, *zituan*.

2. Erregela hauek eman daitezke adizki ezlokutiboak lokutibo bihurtzeko:

a) *da- dia-.*

Adibidez: *dago* > *diagok*
daude > *diaudek*
dauka > *diauka*

dia- hortatik sortu dira gero [ja], [ža], [se]...

b) *na-* > *nia-.*

Adibidez: *nago* *niagok*
nator *niatorrek*
nazake *niazakek*

nia- hortatik [ña] eta [na] (!) Sortu dira.

c) di- ➝ *zi.*

d) -te ➝ *-ate / -nate* hobe, *-tek / -ten* baino.

Adibidez, *dute* ➝ *diate / dinate* hobe, gipuzkerazko *ditek / diten* baino.

3. *nau* ➝ *naik / nain* gabe, *niauk / niaun.*

naute ➝ *naiete / naianate* gabe, *niautek / niauten*

(gogoan izan, ordea, *-te* hortaz Txillardegik berak dioena.)

gaituk ➝ *gaitik* nire ustez, baina ? bat ezarri du Txillardegik ondoan.

ditut ➝ *ditiat / ditinat* nik. Txillardegik: menturaz hobe *dizkiat*... Baina forma hauek (*dizkiat / dizkinat* eta haiek kideak) ez ote dagozkio gipuzkerari?

Orobat, ene *ditik / ditin* baino, *dizkik / dizkin* nahiago ditu Txillardegik. Gauza bera *nitian / nitinan* eta kidekoak.

EUSKAL HIZKERA ETA EUSKAL NEURKERA

Luis Mitxelena

Honako lerro hauek Deustura bidali nituen, neronek ez bainuen agertzerik momentu hortan, hango EKT-koen eskariz, 1975eko udaberri aldera. Dakidanez, ez dira artean inon agertu eta horrexegatik ausartzen naiz zeuden zeudenean (baina eraskin bat ondoan daramatelarik) argitaratzera, berandu bederen.

Ez nuen deus azaltzekorik, egia esan, ez berririk ez zaharrik. Argi eske, galdera pilo bat nekarren, neure buruari eta besteri egiten diodan galdera piloa. Ez dakizkidan gaiez mintzatu nahi nuen, beraz, inoren ihardespenaren begira. Eta gainerakoak ere ni bezain ezjakin baldin badira, ikustekoa litzateke orduan ea guztion artean eta guztion lana dela bitarteko aurkitzen ote dugun orain eskas dugun erantzunik. Horrelakorik aurki badaiteke eta aurki daitekenean, noski.

Euskal literaturaren kondaira lehen baino hobeki aztertua izan da azken urteotan, gero eta maizago eta sakonkiago gainera. Azterketa hori, ordea, literatura idatziari, paperetan datzanari, lotua gelditu da batipat. Baina euskal literatura, euskara bezalatsu, batez ere ahotik beharrira eta beharritik ahora dabilelarik heldu da gureganaino. Izkribuz baino areago, behinik-behin.

Ahoz-aho erabili den tradizio horrek —hobeki esan, tradizio horren aztarrenek eta ondakinek— merezi luke, nik uste, gain-begiratu bat edo beste baino gehixeago. Ezagutza klase asko dira, baina bada bat, horien artean, ezinbesteko eta ezinutzizko duguna, gizona, baita euskaldun den gizona ere, animalia historikoa denez gero. Hots, arbasoen ondorengo denez gero, ez haiei bizia, gorputza eta gorpuzkera zor dielako bakarrik eta lehenik, baizik eta haiengandik zenbait gauza, ezin konta ahal daitezkeen jokabide, *ikasi* dituelako. Haiengandik

ikasi duguna baita gure kultura, dena den, ez haiengandik jaio garelako jaso dugun ondadea. Azturaz gara euskaldun, ez sorkuraz.

Tradizio hori ikertua izan da, zehar bidez behinik-behin, bide zuzenik aski ez dugunez gero. Ez da, ordea, ene irudiko behar zukeen alde guztietarik ikertua izan. Ipuinak eta beste, etnologoek bildu eta aztertu dituzte; kanta zaharrak, hizkuntzalariek. Halaz guztiz, eta noraezean, nor bere ehiziaren ondoan ibili da: aintzinako sinesteen bila etnologoak, esate baterako, eta hitz nahiz joskera zaharren bila hizkuntzalariak. Baztertuxe dauzkagu literaturaren kondairak berezko dituen eskariak eta galderak. Hortan ari dena etnologoen eta hizkuntzalarien lanaz balia daiteke, premiazko du horien laguntza, baina ez diote horiek bere baitan daraman goseegarria berdinduko. Nork bere opilari hurbiltzen baitio ikatza, ez besterenari. Hortan ari denak berak ikusi beharko du zein diren dituen jakin beharrak eta zein bidetan barrena hel daitekeen ilunbean daudenak argitzera. Geure ezjakinaren eremua neurtu behar genuke lehenik, jakite bidean sartuko bagara.

Hona, eta ez dira guztiak, euskal literaturaren kondairan eginkizun ditugun zenbait egiteko. Dakardan lista hau, nola uka, beste edozeinek luza dezake. Ez dut uste, haatik, inork labur dezakeenik.

1. Maiz entzun izan dugu euskal poesia, oraintsu arte eta are orain bertan, musikari lotua ibili dela. Hori, gehiegizkó baldin bada ere erabat harturik, egia da bai Ziburuko Etxeberri teologo jakintsuari dagokionez eta bai, orobat, latinez ikasten abiatu berria zenean hil zitzaigun Txirrita ezjakinari bagagozkio. Poesiarekin batean, beraz, musika ere aztertu behar litzateke. Noizkoak dira, gutti gora-behera, ezagutzen ditugun doinuak? Berriago direnean, nondikakoak ditugu? Ze neurritan aldatu dira ahoz-aho zabiltzala mendez-mende?

Erantzunak, inondik etortzekotan, musikalarien bitartez etorriko zaizkigu. Hagitz premiazko genuke, dirudienez, euskal musikaren kondaira eta, hori ezinezko baldin balitz, kondaira horren eskematxo bat bederen. Herri musikaz ari naiz, noski, baina badakit, halaz guztiz, ez dela sekula izan ez herri musikarik eta ez herri poesiarik, musika-poesia ikasien kutsurik hartu ez duenik. Zabaltzeko eta hedatzeko moduak bereiz-

ten ditu, ez etorkiak. Ikasiek herri gaiak erabiltzen baitituzte usu aski, eta landugabeek haiek sortuak bereganatzen.

2. Bertsoak, musikak ez ezik, berezko du neurria, eta hortik datorkio gure artean hartu duen deitura: neurtitza edo hitz neurtua, alegia. Neurriaz gainera, besterik ere izan dezake, baina badirudi, han eta hemen, premiazko duela neurria, nahiz neurkera batera zein bestera egin. Hontan ere, oker ez banabil, ez dakigu zein izan zitekeen, garai batean, euskal neurkera hori, zenbaiten saioak (Lekuona, "Orixe", Leizaola, Gaztelu, etc.) gora-behera, ez baitugu oraindik guztiek onhar dezaketen teoriarik. Azterturik dagoena, edo azter daitekeena bederik, besterik da: nola neurtzen diren eta, gainera, nola neurtu behar liratekeen (Arana Goiri eta abar) orain.

Orain eta lehentxeago, Etxeparez geroz, silaben kontua izan da neurkeraren muina, kontaketan bereizkuntzak aurkitzen badira ere. Lehenago, ordea, Erdi Haroko kanta zaharretan esaterako, bertsoak ez dira berdinak luze-laburrean, neurri jakin baten ingurutsuko badira ere. Itxura ohi baino engainagarriago gertatzen ez bada, gainera, badirudi *hitz andanek* badutela, silabek ez ezik, zer ikusirik antzinako, eta are geroko, euskal neurkerarekin. Horrelakoxe zerbait agintzen bide da latinezko *saturnii* direlako bertsoekin. Bistan da bi zati badituztela, eta zati horietako bakoitzean partiketak egin daitezkeela[1]. Baina, eta horretara nentorren, lehen zatiak hiru (nahiz bi, bestela neurtzen badira) hitz andana ditu; bigarrenak, berriz, bi.

Adibidez, *capitibus opertis* (4 + 3) aurki dezakegu, *lacrimis cum multis* (3 + 3) usuagoaren aldamenean; orobat *Proserpina puer* (4 + 2). Lehen zatian, *superbiter contemptim* (4 + 3) edo *regnatorem marum* (4 + 2), *noctu Troiad exibant* (2 + 2 + 3, itxuraz) eta horren gisakoen ondoan. Nik, behintzat, ez nuke orain inoiz[2] egin nuen bezala *lau araguioc verean verala* (5 + 3 + 3) *vere an verala* bereziko, *bere*, mendebal

---

[1] Cf. D. S. Raven, *Latin metre. An introduction*, London 1965, 35 pl., 3gn. oh.: "There may also be some significance in the actual length of words in the saturnian line - at all events, it is remarkable how many surviving saturnians conform to the type 2 + 2 + 3 / 3 + 3 *sanctus / Ioue / prognatus // Putius / Apollo*". Baina, nola neur lehen zatia, 2 + 2 + 3 ala 4 + 3, hitz andanak harturik, hitzen ordez? Esate baterako, *uirum mihi, / Camena, mihi* aurrekoari arrimatzen zaiola?

[2] *Textos arcaicos vascos*, 3.1.9: *berean* = *lurrean* genuke, beraz.

aldekoa, bestetako *ere*-ren kidetzat harturik. Agerian dago arrazoia: *(b)ere* hori, enklitikoa izanik, aurrekoari datxeko eta horrexegatik neurria 7 *(lau araguioc-vere)* eta 4 *(an verala)* izango litzateke.

Oraindik inork ikusi ez duen zerbait aurki daiteke, ezpairik gabe, neurtitz zaharretan. Baina, ikusi eta aurkituko badugu, bila eta begira ibili beharko dugu nahi eta ez.

3. Esaera zaharrak aski aztertuak izan dira, eta nahikoa da Urkixo aipatzea. Zein aldetarik, ordea? Gaiari dagokionetik, batipat: ea kidekorik ba ote duten inguruko hizkuntzetan (gehienbat herbestetik mailebatuak ditugula uste zuen hark, dakigunez), zer adierazi edo irakatsi nahi duten, eta horien gisakoak. Agertzen duten hizkera ere ikusmiratua izan da, bai hitzen eta bai joskeraren aldetik. Ez nuke ixilpean gorde nahi, gainera, ederki ikusi zuela horietarik zenbait esaera, errefrauak edo errefainak baino areago, aspaldiko eta ez hain aspaldiko gertakarien oihartzun soil direla: *Erioac ereçan / Butroeco alabea Plencian* (167), etc. Badirudi, bada, batzuren batzu kanta zaharrak sortu ziren iturri beretik sortu direla. Honako hau ere, lirikoa izanagatik, ez da, eta Urkixok aitortzen du, herri kanta baten zatia baizik:

> *Eder elaea goxean cantazean*
> *enearen canteac jonau biozean* (517).

Bilduma hori bildu zuenak, beraz, ez zituen erabat bereizten esaerak, alde batetik, eta bertsoak, bestetik. Esaera bezala darabiltzagunak, izan ere, maiz dute neurtitzen egitea, bai neurriz eta bai azkenaldearen hoskidetasunaz. Neurria, badakigu, hala-holakoa izan ohi da. Errima delakoa ere, ez zen ezinbestekoa, ezta kanta zaharretan ere. Hor dauzkagu orain, horrelako edozeren kutsurik ere gabe, Otazuk aurkitu dituenak. Noraezekoa ez bazen, ordea, maiz agertzen da errefrauetan. Ikus sail hortako 336gna:

> *Galdu çe eguic aldia*
> *ta ydoro dayc naya.*

Ez ote da ezagun sortu eta zabaldu zenean, bildu zutenean ez bada ere, *na-i-a*, hiru silabatan, ez *na-ya*, zela *al-di-a*-ren erantzuna?

Ikertzekoa litzateke, ordea, esaera horien egitura, gaia ez ezik, eta ez naiz gain-egituraz soil-soilik ari. *Baguila, sey goseen bayla* (523), adibidez, definizio moduan taxutua dago, edota izen baten oihartzun gisa: cf. *Oiartzun, pareta zarrak erantzun,* eta beste horrenbeste. Ez da gauza bera, beste hilabete baten izena aipatu arren, ezta alderatzeko ere, *Hurrieteac hurri gauçac ta hurri dira aren bear* < *r* > *ac* (149) edo, bestela, *Osaylgo euria* <*c*> *erayten dituz onçoeriac* (89).

4. Jasoak daude, noraino jaso ditugun ez badakit ere, euskal ipuinak eta ipuin antzeko kontakizunak. Hor ere, haatik, gaiak gidatu ditu sailkatzen (eta maiz aski biltzen) saiatu direnak. Ezagutzen dudan azken saioa ere, Etxeberriarena, hortik barrena dabil, aspaldiago Jon Bilbao, behin esan zidanez, ibili zen bezala, bibliografia lanean zeharo murgildu baino lehen. Ez diot inolaz ere lanbide horri duen interesa kenduko edo ukatuko. Hemen aditzera eman nahi nukeena, goraxeago bezala, besterik da: kontakizunek badutela berezko forma, gaiaz batera, eta forma horrek merezi duela, berez eta gaiaren mirabe ez delarik, azterketa berezia. Bide horretarik abiatu zaigu, oraintsu eta oraintsuko gaiez baliaturik, Ibon Sarasola. Bestetan, ordea, bide hori aspaldi irekia eta zabaldua dugu.

Humboldt-ek dioenez, eta 1800 inguruko kontuak dira, baziren Euskal herrian ezin konta ahala ipuin, zikloetan bereziak eta partituak. Bat bederak ba omen zuen, gainera, bere forma berezia. Ez omen zitezkeen behintzat itzuli zuten grazia galdu gabe. Zein ziren direlako ziklook eta nola kontatzen zituzten? Ez dakigu ongi, baina, nolanahi ere den, lor dezakegun jakitearen mugarriak hobeki landatuak geldituko lirateke, saioren bat edo beste eskaintzen bagenie.

Hor ditugu, esate baterako, Peru eta Mariaren ipuinak, eta Aita Villasante izan da, noski, azkenik horien berri eman duena. Irri edo haur ipuin gisa agertzen zaizkigu orain, baina bada argibide bat bederen besterik adieraz dezakeena. Edo ipuin horiek ez ziren inoiz oraingoen irudiko, edota 1800 inguruan idazten zuen norbaitek ez zekien ongi zer ziren Peru eta Mariaren ipuinak. Segur aski, gainera, ez zitzaizkion gehiegi axola.

Behin baino gehiagotan hartu dut ahotan, Larramendik "Suplemento"-an dakarren "muerte, *balbea*" dela eta, hara-

ko Añibarroren hiztegiko pasarte hura: "Muerte, activamente: c. *erioa*. En los cuentos de Peru y María, b. *balbea*. Muerte, pasivamente: c. *eriotza*". Bereizkuntza hau hobeki gorde zuten mendebal aldeko euskaldunek, arestian ikusi dugunez: *Erioac erezan* (hots, **era ezan*)[3], bizidunen bat bailitzen, *Butroeco alabea Plencian*. Eta *herio* bizi bezain beldurgarri hori bera zen Bizkai aldeko *balba* edo *balbe*[4], ez *heriotze* edo *eriotza* hila, beste edozein bezalako gertakari baten deitura.

Coromines-ek (argitara gabe dago iritzi hau) haur hizkerakotzat dauka *balba / -e* hitza, besteak beste, haur ipuinetan agertzen omen zelako, hain zuzen ere. Ez dut uste, halaz guztiz, eremu horretan aurki daitekeenik hitz honen jaioterria. Otxandioko delako esku-izkribuak, Añibarroren garaian bertan, zerbait erantsi dio, itzulpenik gabe, "*Balbea*, muerte, activamente"-ri: *balba gogorrac eroan* (*dau, eban*, etc., noski). Berez datoz gogora Homeroren *moîra krataié* eta horren kideak. Horien pare delarik, badirudi, beraz, antzinako mitoetarik eta kanta epikoetarik hartua dela. Okerrenean ere, horrelakoetarik hartua izan daitekeela.

5. Poesi hizkerak baditu non eta noiznahi formula jakinak eta propioak, zaharragoak nahiz berriagoak: aski dugu oraingo bertsolarien *esplikatu albanitza* eta antzekoez oroitzea, ez bailukete hortik kanpora *albanitza* erabiliko. Erdi Harotik datorkigu, adibidez, harako *Oñetaco lurrau jabilt icara / lau araguioc verean verala* hura edo, zertxobait aldaturik, *Oñetaco lurrau jabilt icara / gorpuceco lau araguioc berala*. Formula horiek bai apaingarri eta bai betegarri bezala erabiltzen baitziren, funtsez berdin zirautelarik batera eta bestera aldakizun: *metri causa* edo beste arrazoiren batengatik.

Poema luzeetan, Homerorenetan esate baterako, erraz da horrelakoak bereiztea, behin eta berriro agertzen zaizkigula-

---

[3] Hitz komuna, nonnahikoa, genuen inoiz *er(h)o* 'norbait (norbaitek) hil'. Egungo egunean ere bizirik dago eguzki aldean (zub. *eho*, lehen *erho*), baina ez han bakarrik, bestetan saihestua agertzen bazaigu ere. Rudolf de Rijk-ek erakutsi zidanez, hitz hori berori da guk egunoro darabilgun *ero, zoro*-ren zentzu-kidea, batzuek batera eta besteek bestera (cf. fr. *fou* eta hortik mailebatua den ingel. *fool*) hartzen duguna. Aski dugu gazt. *matar* eta it. *matto* etorki berekoak direla oroiteraztea.

[4] Azkuek *balbe* dakar, baina besteak (Zabalak?) *balba* idatzi zuen, dudarik gabe.

ko. Gure Erdi Haroko poemak, ordea, zaharregiak ez izateaz gainera, laburrak dira eta ez daude osorik. Ez dugu, bada, horrelako gehiegi atzemango: cf. *odol sendoa, odol gatzatua* eta beste apurren bat edo beste. Formula dela igertzeko, bi aldiz agertu beharko du behinik-behin.

Zenbait hizkuntzatan, bada are gorago jotzeko bidea: hots, hizkuntza bakoitzean aurki daitezkeen formulak inoiz aspaldi baino aspaldiagokoak direla frogatzeko modua. Grezia arkaikoa eta Homeroren poemak, adibidez, bere soilean bakarrik daude itxuraz, baina itxuraz baizik ez. Hizkuntzak bai baititu bestetan ahaide eta askazi hurbilak, hizkuntza indoeuropearren familia osoa. Hala beharrez franko gauza gerta badaitezke ere, ez da sinesteko, Homeroren *kléos áphthiton* 'ezin-ihartuzko ospe' delakoaren irudi zuzena Indian idoro badezagu, ez dela hor aspaldidaniko ahaidetasuna izan bitarteko.[5] Etorki bat-bereko direlako dira elkarren irudiko. [6]

Hizkuntza umezurtz —ahaide ezagunik gabe— duguino, ez dago guretzat konparazio biderik. Dokumentu zahar kontuan ere, bakanak dira gure ondasunak. Horrexegatik beragatik, are gehiago saiatu behar genuke gelditu zaizkigun ondakinez baliatzen, baita ere ondakin horiek gehitzen eta ugaritzen, iturri hori ez baita jadanik, segur aski, agortua eta ahitua: *Dindica murcoa betatu doa*, "anbiolako supitak" dioenez.[7] Ditugun bakanak, gainera, ikusmira ditzagun, zein ere eskas eta murritz diren, ea artean erdietsi dugun baino ezaguera sakonagorik eskuratzen dugun. Batez ere, gai horiei, oraindaino ez bezala, formaren aldetik begira abiatzen garelarik.

Hitz bi, bukatzeko. Euskal literaturaren kondairaz —edo kondaira aurreaz— kezkatzen direnei, eta gero eta maizago

---

[5] *RS*-etan, lau aldiz ageri da *(h)ospe*, eta Gorostiagari nagokio: bi aldiz *ospe*, eta *hospe* beste bitan. Ospea eta omena zerbait ziren, bada, antzinako euskaldunen artean ere.

[6] Bi liburu baizik ez ditut aipatuko: Rudiger Schmitt-en *Dichtung und Dichtersprache in indogermanischer Zeit*, Wiesbaden 1967, eta honek berak argitara zuen bilduma: *Indogermanische Dichtersprache*, Darmstadt 1968.

[7] *Anbiolaco supitac eguiac* "Refranes del tiempo pasado uerdades" (*RS* 32) ez da, hitzen aldetik, dirudien bezain (*zein dirudi* da bilduma horretan erabiltzen den mintzaera) argi. Hortik kanpora ez dugu *supita*-ren lekukotasun zuzenik. Lehenbiziko hitzari buruz, egiari hurbilago darraio, ene ustez, Karl Bouda, izkribuz adierazi zidanez, beste inor baino: *anbiolaco*, honen ustez, *(h)an + be(h)in + (h)ola-ko* litzateke. Cf. *behialako* eta gainerakoak.

agertzen zaizkigu horrelakoak, zenbait galdera egin nahi izan dizkiet eta zenbait eginkizun erakutsi. Badaiteke behin eta berriro, handik eta hemendik gabiltzala, kolpe huts egitea. Inoiz, ordea, zerbait berri aurki dezakegu eta, alfer lana eginik itzultzen bagara ere, lasaikiago abia gaitezke bide berrien bila, ibiliak ditugunek inora ez daramatela ikusi ondoan.

Urduri gelditzen naiz bi puntutan. Badaiteke, batetik, nik ezagunak ez ditudan erantzunak izatea, egin ditudan zenbait galderari buruz. Hala hobe, gogoz baino gogozago aitortuko bainuke neure ezjakina. Badaiteke, bestetik, eta hori errazago iruditzen zait, galderak berak makurrak izatea, zuzenak izan beharrean. Aurrera bidean sartuko bagara, beharrezkoa eta ezinbestezkoa baita behar bezalako galderak egitea. Badakit norbaitek behintzat besterik uste duela, baina norbait hori, nola ez, euskalduna da:[8] egungo eguneko euskaldunen buruzpidea baitirudi mundu zabalean mendez-mende adimendurik zorrotzenak behin, birritan eta mila bider esan eta egiztatu dutenaren kontra jokatzea. Ez dut uste, haatik, euskaldun guztion jokabidea denik hori, ezta ere bilkura hauetan bildu diren euskaldun gehienena. Hobe genuke ikasiagoengandik ikasi, arrotzak asmatu berri ditugun legeen azpian uztarpetzen saiatu baino. Jakite gaietan ez da neurri bat baizik, Euskal herrian eta Euskal herritik kanpora. Ez dugu, beraz, guk inor geure usteetara eta irudimenetara erakarriko, inork (euskaldunen bat edo beste ere artean dabilelarik) zabaldu dituen bideetarik kanpora, malkarretan barrena, joan nahi badugu. Gure iritzien berri jakiten badute ere, eta nekez helduko dira hortaraino, bizkarra zimurtuko digute, onenean ere.[9]

* * *

[8] Jolu delako bat. Hona zer dioen (*Goiz-Argi*, 1975-IV-2, 4gn. pl.), letra larriz nabarmendurik: "Nik dakidanez, ordea, *ez da itaun tentel edo burugaberik; okerrenean, erantzunak bakarrik luke tentel edo burugabea izateko arriskua*". Gezur hori egia balitz! "¿En qué parte de España está Macedonia?", galdatu zioten Ameriketan ene adiskide bati. Itaunak burugabe izan daitezke, galdakizun ez den muina (*presupposition* delakoa) daramatelako. Hots, "Mazedonia Espainian dago", etc. Lewis Carrol trebeki baliatu zen hortaz.

[9] Ospe oneko liburu bat gaztelaniaz itzulia dabil: Jan Vansina, *La tradición oral*, Barcelona (Labor). Irakurtzeak ez liguke kalterik egingo, tradizio horren mugak ezagutu nahi baditugu.

ATE OSTEKO ERASKIN GISA

Duela hiru urte eskas idatzi nituen azken lerro hauek eta, bada ezpada ere, zeuden zeudenean utzi ditut. Pozik, haatik, ez bainintzateke orain beste horrenbeste idazteko gauza izango. Izan ere, bitarte labur horretan egin ditugun aurrerapenak ez dira makalak izan! Halaz guztiz, mundu osoa zurturik eta harriturik geure ezpain-lumetarik zer jaulkiko badago ere, ez dut uste oraindik ikasi eta ikertzaileen biltzar ttipia guri begira dagoenik. Eta barka, otoi, adinez eta jakitez ez dagokidan *gu* eta *gure* hortaz jantzia agertzen banatzaizue: sobera eta gehiegi dakit, ederki erakutsi baitidate, hitz horiek, adinez nahiz jakitez, besteren, ikasiagoren eta gazteagoren, jabetza pribatu direla.

Musikari buruz, badugu orain liburu mardul bat, bere eta besterik iritziak ederki biltzen eta aztertzen dituena: J. A. Arana Martija, *Música vasca*, Donostia (Caja de Ahorros municipal), 1976. Hortik honera jaso nahi nukeena hauxe da batez ere: euskal doinua silabikoa dela batipat, ez melismatikoa (272gn. eta hh.). Bestela esan eta salbuespenak salbuespen, nota bat datxeko silaba bati eta silaba bat dagokio nota bakoitzari. Beraz, *a, b, c,* etc., direlarik silabak eta *A, B, C,* etc., direlarik notak, badugu *f*-ren bat *a* bakoitzari, *f(a)*-ren bitartez, *A* egokitzen diona eta, alderantziz, f^{-1}-ren bitartez, isomorfiaz ari garenez gero, *A* bakoitzari tokatzen zaion iturburua, irudi iraulia, alegia. Silabak oinharrizko direnez gero, esana dago hitz-andanak ere (hizkeraren etendurak, direnak eta daitezkeenak, musikaren geldiuneei egokitzen zaizkielarik) kontuan hartzen dituela gure musikak.

Bestalde, eta zorigaiztoz, saiatu bagara ere zenbait lagun hizkera doinua eta kantuaren arteko egokiera bilatzen, ez dugu deus aurkitu egungo eguneraino: ez Xenpelarrengan eta ezta Etxahunengan ere. Etxekidura horren atzetik ibili naiz beti eta biziki poztuko ninduke jakiteak norbaitek, musikaren aldetik datorren norbaitek, horrelako zerbait aurkitu duela. Halaz guztiz, hizkuntzaren aldetik gaia aski ikertua dudanez gero, beldur naiz nekez agertuko dela hain luzaroan gorderik egon den misterioa.

Hemen aipatu diren gaiez asko ikasi dut azken bolada hontan Patxi Altuna Etxepareren bertsogintzaz egiten ari den tesia dela bide. Badirudi, batetik, aspaldiko hura ez zebilela

urruti kantulanean, euskalki desberdinak gora-behera, oraintsuko Xenpelar edo Txirritarengandik, funtsean bederen, hots, barne-egituretan: hitz ordena, mugak *(boundaries)*, eten edo etendurak. Berak erakutsi dit honako hitz andana honek badukeela zer ikusirik T. Navarro Tomás-en "unidad melódica" eta "grupo fónico" direlakoekin.[10]

Fonética histórica vasca-ren bigarren argitaraldia prestatu baino lehen, aski lan egin dut lehengo eta batez ere oraingo, oraingo eta Errenteri aldeko azentuaz, *pitch* nahiz *stress* dela, bata bestearengandik bereiz badaiteke. Eta hemen ere Altubek kontutan hartu ez zuen oinharrizko partiketa batekin egin dut topo: ez dira gauza bera, ezta urrik eman ere, elkarhizketa, alde batetik, eta kontaketa bestetik, nahiz biak hizketa izan.

Bestela esan, galde-erantzunei dagozkielako soil-soilik, Altube-ren legeak elkar-hizketarenak dira: Benveniste-ren harako "*présente* instance de discours" hari datxeztenak. Ederki nabari da bereizkuntza hori "aditz-ondokoei" baizik begiratzen ez badiogu ere: hor baitaude, elkarrekin mintzatzen garenean, *orain, egun (gaur), bihar, atzo, aurten,* etc., eta batak besteari zerbaiten berri ematen dionean, berriz, *orduan, egun hartan (egun berean), biharamonean, bezperan, urte hartan,* etc. Eta gure hondakin zaharretan hamaika eta hamaika gertakari *(sit uenia uerbo)* nolazpait "kontatuak" daude, hala nola aipatu dugun

> *Erioak erezan Butroeko alabea Plenzian* hura, edota
> *Jausi da zerurean arria,*
> *Aurkitu dau Lasturren torre barria,*
> *Edegi dio almeneari erdia,* eta gainerakoak.

Badira, hortaz kanpo ere, horien modura eratuak dauden esaerak, nahiz berez ez duten deus kontatzen. Esate baterako, *Jagi zidin nagia, erra zizan uria.* Ez zen nagi hori behin batean jaiki eta ez zuen holako egun jakinean halako huri jakina erre. Aitzitik, honelako zerbait da hor adierazi nahi dena: nagiak, edozein nagik ordea, inoiz jaikitzen eta mugi-

[10] "El grupo fónico como unidad melódica", *Revista de filología hispánica* 1 (1939), 3-19, batez ere lehenbizikoan: "La unidad melódica es la porción mínima de discurso con sentido propio y con forma musical determinada. Los límites de la unidad melódica coinciden con los del grupo fónico".

tzen bada, bere betiko egon goxoa uzten baldin badu, ikaragarrizkoak egin ohi dituela. *Ohi* dituela, diot berriz, ohiturazkoez ari baita errefrau hori, behin bateko gertakaria azaltzen badigu ere itxuraz. Aldi hori, gramatikazko "iraganaldi" hori, ohiturazko gertakariari, betikoari, egungoari zein biharkoari, dagokio: "gnomikoa" da, aspaldidanik datorkion grekozko izenari (hor duzue aoristo gnomiko delakoa) lotzen bagatzaizkio. Latinez ere, jakina da, izan da horren antzekorik, poeten artean batipat: *illius immensae ruperunt horrea messes,* etc. Nolanahi ere, hona nola adieraz dezakegun, gehiegizko zehaztasunik gabe, gure esaera zaharraren muina, Prior eta besteren denbora logika oraingoz bazterturik: *x* baldin badugu nagien multzoko nornahi, eta *p(x)*-ek ematen badu aditzera edozein nagiren jaikiera, *q(x)* gelditzen zaigula nagiak sortu duen erreketaren ikur bezala, orduan *(x) p(x)→ q(x),* hots, nagia, nagia bada eta edozein nagi delarik, jaikitzen bada, huria erretzen du orduan, jaiki dadinean.[11] Hobeki esan, baina ikuspuntu horrek urrutiegi eramango gintuzke, erre dezakeela, erretzeko gauza dela.

Hona elkarrekiko hizketa eta kontaketaren arteko zenbait bereizkuntza:

a) Gure euskalkietan, mendebal aldekoetan, ez da, zerbaiten berri ematen ari garenean, *egin*-ik erabiltzen: *etorri EGIN da* eta horren antzekorik, alegia. Hori erantzunari dagokio, galdegaia aditza bera denean. Dakidanez, Altunak ikusi du hau lehenbizi.

b) Eguzki aldeko euskalkietan bederen, *sar zedin* eta *sar zezan* eta horien gisakoak, kontaketan erabili ohi ziren, eta are kontaketako perpaus nagusietan, soil-soilik. Horrela Leizarragak, Mt. 12, 48, beste mila pasarteren artean: "Baina harc ihardesten çuela (!) erran *cieçon* hura erran cionari (!)."

Are nabarmenago ageri da hau mintzaera hori bakanka baizik erabiltzen ez duten autoreengan. Etxeparegan, esate baterako, *meçu nenzan* eta *ioan nendin* bakarrik aurki daitezke, bere Pabeko ezbeharrak kontatzen dituen lauko batean eta berean (F 8). Orobat Haranburuk, 1635, 198 h., kiderik ez

[11] "On sait qu'en grec –zioen Riemann zaharrak, *Syntaxe latine*[7], 1940, 254– ...l'aoriste s'emploie, sans qu'il soit nécessaire d'ajouter un adverbe signifiant *jamais, toujours, souvent,* etc., pour marquer *un fait d'expérience* (ou, comme certaines grammaires disent d'une façon *peu exacte,* un *fait habituel*)."

duen leku bakarrean: "Ahamen batec *gal ninçan,* ahamen batec errepara naçan! Bianda batec vicia *eraman çiaçadan,* bianda batec vicia errenda diaçadan. Haragui batec *poçoa ninçan,* haragui batec garbi naçan." Haranburuk ere, Etxeparek bezalaxe, subjuntiboak darabiltza besteen aldamenean, helburua edo adierazteko: hots, formaz besteen pare izanik, zentzuaz bestelako diren adizkiak.

c) Hitz ordena ere bere gisakoa da kontaketan. Goien aipatu da S.V.O. daraman esaldia (maizenik, kontaketan ere, S.O.V. agertzen omen da, R. de Rijk-ek azaldu zigunez), baita, O-rik ez denean, V.S. ere: *Jausi da zerurean ARRIA,* eta, S dagoeneko ezaguna denean, *aurkitu dau Lasturren TORRE BARRIA, edegi dio almeneari ERDIA,* V-k O segidan duela, *jagi zidin NAGIA, erra zizan* (*nagiak,* aipatu berri dugun *nagiak,* noski) *URIA.*

Horrelatsu jokatzen du Orixek ere, bere *Santa Kruz Apaiza*-n, eta bigarren edizioaz baliatzen naiz: "Uzten diote (dakigun apaizari dakigun soldaduek) meza bukatzen... Sartzen da kapitana sakristira... Jantzi du (apaizak) bizkar-saski bat buruan; artu du eskuan itaia..." (32); "Jarrai zioten atzetik jendarme zapataundi aiek..." (37); "Jetxi da erdi-jantzian (aipatu den "aundizu liberal bat"), eltzen dio apaizak..."

d) Kontu kontari ari denak, esango nuke nik, esku zabala du (erantzuketan ari denak baino zabalagoa, nolanahi ere) hitzak gogo duen segidan bata besteari erasteko. Esan beharrik ez, gramatikak zilegitzat dauzkan eremu hedatuaren mugetarik ihesi ibili gabe, noski. Honekin batere doa diren eta daitezkeen geldiuneekin gertatzen dena. Guk behintzat doinuaz bereizten ditugu "orduán / etorri zén...", kontaketakoa, eta "orduan etorri zèn", "noiz etorri zen?" galderari dagokion erantzuna. Doinua doinu, eta ez naiz hemen hortan sartuko, lehenbizikoan gerta daitekeen geraldia, ezinkizun da azkenekoan.

* * *

Esan dut lehen *Refranes y Sentencias*-ekoak bildu zituenak ez zituela errefrauak bakarrik bildu, besterik ere jaso zuela bere bilduman. Bildu zituenak oro, edo gehientsuak, ordea, elkarren pare eta kide dira formaren aldetik.

Fernando Lázaro Carreter-en idea batzu ekarri nahi nituzke honera[12], zeharo zuzenak iruditzen zaizkidalako funtsean. Hizkerak bereiztean, ahozkoa eta izkribuzkoa berezi ohi dira, batipat, edota literatur hizkera eta egunoroko mintzaira arrunta. Lázaro Carreter-ek, berriz, beste bi bereizten ditu lehen buruan: *nonliteral / literal language* direlakoak. Beste alde batetik begiratzen badiogu gaiari, hizkera *iraunkorra* genuke azkenekoa, hitzez-hitzekoa eta letraz-letrakoa, irauteko asmoz esana edo idatzia, nolanahi ere, eta hizkera *suntsikorra,* berriz, lehenbizikoa, bere egitekoa egin bezain sarri deusezta daitekeena. Honelakoxeak dira, beste askoren artean, trenean, azkeneko geltokira heldu garenean, bertan behera utziak aurkitu ohi ditugun aldizkari-elaberriak.

Honelako esaldiak edo izkribuak zerbaiten premian dira iraunkor bihurtu behar badute, biribilduko dituen "itxitura" baten premian, inolaz ere. Hortik datoz, ahozko literaturan, jendearen gogoan bizi behar duenean, "neurtitz" eta "neurtitz-antzeko" perpaus guztiek agertzen dituzten zera bereziak: halako edo honelako neurria, lehen nahiz azken buruko errima, hitz jokoak, erabateko hoskidetasunak (cf. Axularren *zintki eta fintki,* etc.), eta gainerakoak. Hizkuntza bakoitzak badu hortan bere joera, maiz aski urteen buruan eta inguruko hizkuntzei eskerrak hartu duen plegua.

[12] Ikus, azkenekoa ez bada ere, bere "The literal message", *Critical inquiry* 3 (1976), 315-332.

A ORGANIKOAZ AMAITUTAKO HITZEN DEKLINAZIOAZ

1977 - VII - 29

J. Basterretxea

Hitz hauekin ere lege generala jarraitzea nahi nuke proposatzea. Alde batetik errezagoa litzakelako euskal ikasle guztientzat eta beste alde batetik bizkaierazko euskalkiak eta besteak, ajola haundiko puntu baten asko hurbilduko litukelako.

Aita Villasante'ren LA DECLINACION DEL VASCO LITERARIO COMUN'etik hartuko ditut adibidezko hitzak eta azken A organikodun hitz bat ipiniko dut ondoan konparazioa egiteko.

Bokalez amaitutako arimagabekoak

Singularra

"Mendi"	"Gauza"
1. mendi.a	1. gauza.a
2. mendi.ak	2. gauza.ak
3. mendi.ari	3. gauza.ari
4. mendi.aren	4. gauza.aren
5. mendi.arentzat (tzako)	5. gauza.arentzat (tzako)
6. mendi.arekin (-agaz B)	6. gauza.arekin (-agaz B)
7. mendi.az	7. gauza.az
8. mendi.an	8. gauza.an
9. mendi.ko	9. gauza.ko
10. mendi.tik	10. gauza.tik
11. mendi.ra	11. gauza.ra
12. mendi.rantz	12. gauza.rantz
13. mendi.raino	13. gauza.raino

Bokalez amaitutako arimadunak

Singularra

"Seme"	"Alaba"
1. seme.a	1. alaba.a
2. seme.ak	2. alaba.ak
3. seme.ari	3. alaba.ari
4. seme.aren	4. alaba.aren
5. seme.arentzat	5. alaba.arentzat
6. seme.arekin (-agaz)	6. alaba.arekin (-agaz)
7. seme.az	7. alaba.az
8. seme.arengan	8. alaba.arengan
9. seme.---	9. alaba.---
10. seme.arengandik	10. alaba.rengandik
11. seme.arengana	11. alaba.arengana
12. seme.arenganantz	12. alaba.arenganantz
13. seme.arenganaino	13. alaba.arenganaino

Separatzeko ipini dudan puntua ezta idatzi behar. Konparazioa errezagoa egiteko ipini dut.

Nola irakurri behar litzake AA hori? Batzuek (batez ere bizkaierazko euskalkitakoek) (ie, (ia), (ea), besteak (a), hau da A bakar bat bezela. Euskeraren batasun idatzia ezta denok berdin irakurtzekoa. Adibidez, BAINO gehienetan (baño) irakurri behar da mugaz alde hontan eta idatzita dagoen moduan mugaz haraindian.

Euskal ikasle batek ALABAREKIN irakurtzen duenean eztaki gero ALAB BAT ala ALABA BAT esan behar ote duen. ALABAAREKIN ikusten badu ordea, badaki ALABA BAT esaten dala. Gehiegi ez luzatzearren ez noa esaten gehiago, bainan gauzak errezagoak egingo litzake euskeraz ikasten ari diranentzat baldin hemen proposatzen dudana onartzen baduzue.

Plurala diferentea da. Azken A organikoa desagertu egiten da pluralean edozein euskalkitan. Hurrengo adibidean hunela: ( ) markatuko dut A organikoak utzitako hutsunea.

	Plurala
1. mendi.ak	1. gauz ( ) .ak
2. mendi.ek	2. gauz ( ) .ek
3. mendi.ek	2. gauz ( ) .ek
3. mendi.ei	3. gauz ( ) .ei
4. mendi.en	4. gauz ( ) .en
5. mendi.entzat	5. gauz ( ) .entzat
6. mendi.ekin	6. gauz ( ) .ekin
7. mendi.ez, -etaz	7. gauz ( ) .ez, -etaz
8. mendi.etan	8. gauz ( ) .etan
9. mendi.etako	9. gauz ( ) .etako
10. mendi.etatik	10. gauz ( ) .etatik
11. mendi.etara	11. gauz ( ) .etara
12. mendi.etarantz	12. gauz ( ) .etarantz
13. mendi.etaraino	13. gauz ( ) .etaraino

Hunela arimagabeak. Arimadunak ere berdin

1. seme.ak	1. alab ( ) .ak
2. seme.ek	2. alab ( ) .ek
3. seme.ei	3. alab ( ) .ei

Eztago beraz problemarik pluralean.

Deklinazio definitugabean "a" organikoaz amaitutako hitzak besteak bezela deklinatzen dira eta hemen ere eztago AA bikoitzik, ezpaitago deklinazio huntan A lehenbiziko letratzat duen atzizkirik.

NI NAIZ ETA I AIZ

1976 - X - 29

Zatarain'darr Anbrosi'k.

Joan dan irailleko batzarrean IKA mintzatzen garanean ETORRI NAUK esatea aldrebeskeri bat dala esan nuan, eta ETORRI NAIZ esan bear genukela. Itxuraz batzarkide guztiek nere iritzia astakeritzat jo zuden. Orduan orrelako euskeraz idatziak badirala, eta urrengo batzarrerako ale batzu bilduko nituala esan nuan. Aginduari erantzuteko ona sortatxo bat ekarri.

Auzia ontan datza: *etorri nauk* euskera gaiztoa da, *etorri* aditzaren laguntzaillea *izan* baita, eta ez *edun. Ekarri nauk* eta *ekarri aut* bai, ongi dagode, *ekarri* aditzaren laguntzaillea *edun* baita. Baiña *etorri aut* eziñ esan diteke, *izan*'en ordez *edun* sartzea baita.

Nere esanek edun zuden arrera ikusirik'badiduri euskaltzain guztiak Mikoleta'ren iritzikoak dirala, eta euskeraz norbait il dala adiarazteko iru esakera ditugula; *il da* (zuka), *il dok* (itatoka), *il dona* (itanoka). Baiña il dok eta il dona beste zerbait dira: IK il duk eta IK il dun. Beraz mintzatzen natzaionari iltzaille dala sakatu nai ezpadiot *il da* esan bear diot. *Etorri nauk* ere gaizki esana da; bestek ni *ekarri* egin nezake, baiña *etorri* iñork ezin nezake etorri: izatekotan ere ni neroni *etorriko naiz*. Ortan euskerak prantzesaren eta alemanaren antzera jokatzen du, eta ez gaztelerak bezela: *etorri naiz, je suis venu, ich bin gekommen*; gaztelaniaz (yo) soy venido ezta esaten, *he venido* baizik. Ingelesez bietara: *I am come (aquí estoy) eta I have come* to tell you... (he venido para decirles...) (Pavia, Gramática, p. 280).

Ona beraz nere sortatxoa:

Azkue, Canc. V., 607: (Otaño'ren jatorrizko itzak, C. V. E-21a)

Len seme bat *badet* nik
nunbait Amerika'n
ogei urte *badira*
jun zala emendikan;
ik ara billatutzen
badek biderikan
esaiok aita bizi
dala oraindikan.

Lenago-re seme bat
badet Amerika'n
amar bat urte *dira*
juan zala emendikan:
topatzen *badek* iñoiz
aren aztarnikan
esaiok aita bizi
dala oraindikan.

Berterretxe'ren khantoria:

(Salaberri, 214a)
Büztanobi gaztia,
ene anaie maitia:
hitzaz hunik *ezpalinbada*
ene semia juan *da*.
Arreba, *ago* ixilik,
ez othoi egin nigarrik:
hire semia bizi *balinbada*
mentüraz Mauliala da.

(Kantu, kanta, khantore, 143a)
Bustanobi gaztia,
Ene anaie maitia,
Hitzaz hunik ez *balinbada*
ene semia juan *da*.
Arreba, *ago* ixilik:
Ez othoi egin nigarrik
Hire semia bizi *bada*
Mauliala *dün* juanik.

Etxahun (Topet):

Ahargo eta Kanbillu,
ardura *da* hetan lanhu:
aspaldin ebili *hiza*
dendariaren ondun?
Gantza, gaixua, hasi *ziok*
loditzen sabel-ondun.

Ixkerraren zamaria (Salaberri, 348a):

Etziok xeha arthorik
ahuan *ezpeitü* armarik;
harentako *ezta* jiten
España'tik olhorik;
Ixkerra'k hartüz geroztik
eztaki asiaren berririk.
Ixkerra, *enaintek* mintza,
zamariak balü bixta;

.....

C. V. 87 ¡Ai Mari Migel! ¿nun *dona* arkandorie?
¡Ai Mari Migel! ¿nun *dona* katue?
Zapi ta Zapi esanagaitik / *eztona* kentzen katue:
sekula bere *eztot* ikusi / onelan neure burue.

479 Anton, jo *zak* tronpeta;
Txomin, nun *dek* konketa?
Edaririk ezpaldin *bada*
ekarrik beteta.

Peregrinuak *datoz*
Santiago'tikan:
iriki zak atea
ikusteatikan.

809 Orra or goien artalde,
txakurrik bere *eztauke*:
gaurr or gora yoan gure *badok*
txikiro-parea *baeuke*.

861 Kristok Pedrori ots egin zion:
Norekin *ago* orrela?
Anima gaixo'at emen eldu da
barnera bear duela.
Ezta lekurik, *ezta* lekurik
doaiela infernura ortik.

886 Pedro norekin ari *aiz* orrela
Yauna, emen arima bat da
zerura nai lukeala.
Ezta lekurik, *ezta* lekurik
doaiela inpernura ortik.

Badakit bertsoeri zer sakatu oi zaien: bertsolarien tranpak. Ona beraz bestelakoak.

Refranes y Sentencias:

33 *Badagik* suatean ipirdia uzkarti, zejan berba *dai eugaiti.* (Gogoratu 34: Zaran bat *dagianak,* bi *dai)* (dagi (ke?).

203 Lapurrak on *dau* ukoa: *ukairikek*, gaxtoa.

208 Odol bearbagea, agirtuko *da* egia *eurea*.

227 Il *eikek* ta il *aye*, ta ire erallea il *daye*.

422 *Autso,* Txordon, artz orri, ta nik iñes *daida* / (dagida).

468 Katuak daroean okelea geyago *da* berea ze ez *eurea.*

Oihanarte:

Argia deritzanari: *hireki ezpaniz*
itsu hutsa *niz,*
zeren *baihiz* en'argia.
Hirekil aldiz
bederak aldiz
bazter lekutan baturik
nonbait *banago*
nun bozenago
ez errege gertaturik.

Beltxaranari: zer probetxu edertasuna
da hire gorputzean
tink bihotzean
badatxen gogortarzuna.

Lhande-Lafitte'ren iztegian:

DEINA, din... Ez othe *niz* bada *hire* deina?

Leizarraga. (Euskal protestantismoa zer zen)

87a *Bada, gauza hauk bata bertzearen ondoan eta luzakiago deklara ahal ditezentzat, zein da hik erran dituan* puntuetatik lehena?

91a Horrez erran nahi *duk*, ezen eztela inkonbenientik batre, baldin dibinitate bakhoitz batetan komprehenditzen *baditugu* hirur pertsona hauk distintoki, eta halakotz Jainkoa eztela partitzen.

96a Zerik *da hik diokan* Erresuma hori?

101a Zergatik *eztuk* simpleki erraiten hitz batez hil izan dela, baina are Pontzio Pilatez ere mentzione *egiten duk*, zeinen azpian hil izan *baita*?

113a Baina *hik* Elizari atribuitzen *draukoan* saindutasun hori, perfeto *da* oraino?

Duvoisin, Bible saindua:

Eksodoa

VII-17 Hau dio beraz Jaunak: Huntarik jakinen *duk* Jauna naizela: huna non joko *dudan* zigorraz hibayeko ura, eta odoletara bihurtuten *da*.

18 Eta hibayean diren arrainak ere hilen *dira* eta urak ustelduko, eta hibayeko uretik edanen duten Egiptoarrak erituko *dira*.

VIII-1 Jaunak erran zioen berriz Moisi: Sar zaite Faraonen gana, eta errozu: Hau dio Jaunak: *Utzak* ene populua goatera, niri sakrifizio bat egin *dezadan*.

2 Bainan *ez badituk* utzi nahi, hire eremu guziak betheko *ditiat* igelez.

3 Eta hibaya igelez irakituko *da*: eta igelak goiti atheratuko *dira*, sarthuko *dira hire* etxean, eta *hire* etzateko gelan, eta *hire* ohean, eta *hire* zerbitzarien etxeetan, eta *hire* populuaren baithan, eta *hire* labeetan, eta *hire* jatekoen ondarretan.

4 Eta igelak sarthuko *dira hire* gana eta *hire* populuaren gana, eta *hire* zerbitzarien gana.

20 Jaunak berriz erran zioen Moisi: Jaiki zaite argizirrintetik, eta zaudezi Faraonen bidean: ezen urera ilkhiko da, eta errozu: Hau dio Jaunak: Populua *utzak* niri sakrifizio baten egitera.

21 Baldinetaria uzten ez *baduk*, huna non igorriko *dudan hitara* eta *hire* zerbitzari, eta *hire* populu, eta *hire* etxeetara zer-nahi uli: eta uli mota guziez betheko *dira* Egiptoarren etxeak, eta hekiek izanen diren lurra-oro.

22 Eta egun hartan miresteko gauza eginen *diat* Jesengo lurrean, zeinetan *baita* ene populua; han ulirik izanen ez *baita*: eta jakin *dezakan* ni naizela Jauna lurraren erdian.

23 Eta zedarri bat ezarriko *diat* ene populuaren eta *hire* populuaren artean: bihar izanen *da* sendagaila hori.

IX-1 Bada Jaunak Moisi erran zioen: Ager zaite Faraonen aitzinera, eta errozu: Hau dio Hebrearren Jainko Jaunak: *Utzak* populua sakrifikatzera niri.

2 Baldinetaria oraino ukhora egiten *baduk* eta atxikitzen *badituk*.

3 Huna non ere ene eskua izanen den *hire* landen gainean: eta izurrite latz bat *hire* zaldi, eta asto, eta kamelu, eta idi eta ardien gainean.

4 Eta miresgarri dena eginen *du* Jaunak Israelen izantzen eta Egiptoarren izantzen artean, Israelen semeenak direnetarik ez *baita* deusere galduko.

5 Eta Jaunak ordua berezi *du*, dioelarik: Jaunak bihar obratuko *du* hitz hori lurraren gainean.

13 Eta Jaunak erran zioen Moisi: Goizik jeiki zaite, eta Faraonen aitzinean eman, eta erranen diozu: Hau dio Hebrearren Jainko Jaunak: *Utzak* ene populua niri sakrifikatzera.

14 Ezen aldi huntan ene zauriak oro igorriren *ditut hire* bihotzaren gainera, eta *hire* zerbitzari, eta *hire* populuaren gainera: jakin *dezakan* ene idurikorik ez dela lur guzian.

15 Ezen orai eskua hedatzen dudalarik, izurriz joko *haut hi* eta *hire* populua ere, eta lurretik ezeztaturen *haiz*.

16 Zeren-eta *hi* ezarri izan *baihaut*, ene indarra ager dadientzat *hire* gainean, eta ene izena lur guzian aipha *dadientzat*.

17 Idukitzen *duk* oraino ene populua, eta ez *duk* utzi nahi goatera?

18 Huna non bihar, oren huntan berean erorraraziko dudan harri-abar bat gaitza, nolakorik Egiptoan izan ez *baita*, Egiptoa Egipto denetik egungo eguna artean.

19 Igor *zak* beraz orai berean *hire* azienden eta kampoan *ditukan* guzien biltzera: ezen gizon eta azienda, eta kampoan atzemanak izanen *diren* guziak, landetarik bildu-gabe, harria eroriko *zayote* gainera, eta hilen *dira*.

X-3 Moise eta Aaron sarthu ziren beraz Faraonen aitzinera, eta erran zioten: Hau *dio* Hebrearren Jainko Jaunak: Noiz arteo ez *darotak* amor eman nahiko? *utzak* goatera ene populua niri sakrifizio baten egitera.

4 Bainan gogor-egiten *baduk*, eta hura ez *baduk* utzi nahi, huna non bihar xartala sarraraziko *dudan hire* eremuetan.

5 Estaliko *du* lurraren gaina, deusik ageriko ez *den* bezala, eta harriak utziak janen *ditu*: ezen iretsiko *ditu* bazterretan heldu *diren* zuhamu guziak.

6 Eta betheko *dituzte hire etxeak,* eta hire zerbitzarienak, eta Egiptoar guzienak: *hire* aitek ez arbasoek halakorik ez *baitute* ikhusi lurrera sorthuz geroztik egungo eguna arteo...

XX-2 Ni *naiz hire* Jainko Jauna, Egiptoko lurretik, gathibutasuneko etxetik ilkhi *hautana.*

5 Ez *dituk* hekiek adoratuko, ezetare zerbitzatuko: ni *naiz hire* Jainko Jaun hazkarra, bekhaizkorra, aiten gaixtaginkeria bilhatzen *dudana* semeetan, ni gaitzirizkotan nadukatenen hirugarren eta laugarren belhauneko haurretan.

7 Ez *duk* alferki erabiliko *hire* Jainko Jaunaren izena: Jaunak ezen ez *du* hobengabe idukiko haren izena gauza hutsetan erabiliko *duena.*

Pittin bat pentsatzen badugu' aipatu ditudan geienak bestela eziñ idatzi zitezkeala garbi ikusiko dugu. Izan ere egin dezagun nik aita naizela adierazi nai dudala. Edonori esatekotan' *aita naiz* esan bearko dut. Norbaiti *aita nauk* esatea *semea aut* esatea bezelaxe da, eta *aita naun* esatea *alaba aut* esatea bezela. Beraz nere seme naiz alaba eztanari *aita naiz* esatea beste biderik eztut. *Ni aita naiz eta i semea aiz* edozein gizasemeri esan nezaioke, orrela mintzaturik ezpaitut *nere* seme danik adierazten.

Norbaiti Aita Santua il dala adierazteko *Aita Santua il duk* esango banio' agian *nik eztut iñor ill* erantzungo lidake. Orduan *Aita Santua ill egin dala esan nai nian, ez ik il dekanik,* esan bearko nioke. Bigarren aldian esan bearko niokena lenengo aldian esatea obe dala iruditzen zait: *Aita Santua ill egin da.* Orrela eztago gaizki aditzerik.

Bigarren aldian beti ongi esaten dugu; zergatik ez lenengo aldian ere ongi esan? Esate baterako:

Liburu bat ekarri diat. —¿Zer? —Liburu bat ekarri dudala.

Liburu bat ekarri dut esatea obe zitekean. Baiña liburua beste orrentzat ekarri baldin badut orduan ongi legoke: *Liburua bat ekarri diat.* —¿Zer? —Liburu bat ekarri diadala.

Bi adierazpen dira, eta euskerak bakoitzarentzat bere esate-modu berezia badu; ¿zergatik bakarra erabilli?

"ANDRE" ETA "ANDRA"

1977 - 29 - IV

Zatarain' darr Anbrosi'k

Bizkaieraz *-a* erro-letraz eta beste euskalkietan *-e* erro-letraz bukatzen diran itz mordoska bat bada. Ona oietako batzu:

Agure eta agura; azkure eta azkura; bele eta bela; epaille eta epailla; eusle eta eusla; irakasle eta irakasla; irakurle eta irakurla; irule eta irula; izurde eta izurda; jabe eta iaba (Kapanaga, 83); kalte eta kalta (RyS, 510); landare eta landara; larre eta larra; labe eta laba; obe eta oba; ote eta ota; sarde eta sarda; sare eta sara (Azk. CV 241, Garibai LX); eule eta eula; talde eta talda; tolare eta tolara, dolare eta dolara; txorikume eta txorikuma; zorne eta zorna.

Bitasun ori nondik sortua izan litekenari buruzko nere susmoa agertzeko da nere txosten au.

Etxe bezelako izenek' *-e* letraz bukatzen diranek alegia' *-a* bereizte-atzizkia erantsirik *etxea* (edo *etxea*) ematen dude edozeiñ euskalkitan. Baiña erroaren azken-letraa *-a* danean' batasun ori bitasun gertatzen da bizkaieraz eta gipuzkerazko erri-mordoska batean *a + a + ea* (edo ia) egiten da, beste euskalkietan berriz *a* + a = *a*. Esate baterako' *alaba + a = alabea* (edo *alabia*) eta *neska + a = neskea*. Ori orrela dalarik' oraiñ izen bereizitu bat artzen baldin badugu, *larrea* esate baterako' bizkaieraz bereizkabea *larra* naiz *larre* berdiñ izan liteke. Orra beraz nere susmoa: leenik *andre* izenetik *andrea* sortu zala, eta *andre*'tik berriz *andra*.

Bero'tik *berua* eta *buru*'tik *burua* ateratzen duden errietan arrisku berbera gertatzen da, ez ordea *buru*'tik *buruba* edo *buruia* ateratzen danetan. Ona Etxeberria'tar Toribio'ren iztegian arkitu ditudan batzu: arrilandozko; amokua; antzo-

tu; argiuna; aurrezkolarixa; pixotasuna; pixotsua; barkogintzia; soñekurik (ik. kania); erlojo (ik. geldi); Medikokua; malloka; maixokerixia; kaiko mosalua; pultsolarixia; sagointxaurra.

Ezta beraz arrigarri *alabea*'tik *alaba* bezela *andrea*'tik *andra* ateratzea. Orren sinistagarri' latiñetikako itz batzu aipatuko ditut, oien bidez *andra* baiño *andre* zaarrago edo jatorrago danekoa argi baitago.

Altarem, aldare, altara; culter, golde, golda; florem, lore, lora; digitalem, titare, titara; remate (gazt.), erremate, erremata (T. Etx.); conorte (gazt.), konorta; habere, abere, abera (T. Etx.); percebe (gazt.), pertzeba (An. Eusk. Folk. 57-60, 21a); cofre (gaviota), kopre (G), kopla (B) (An. Eusk. Folk. 57-60, 21a).

Jatorrizko itzak bukaera *-a* letraz zuanean' euskalki guztietan agiz bukaera orri eutsi egin zaio: castania, gaztaña; ecclesia, eleiza, eliza; causa, gauza; rosa, arrosa, larrosa; gunna (lat.), gone (fr. zaarra), gown (ing.), gona (it.), gona (eusk.); çapata (port.), sapata (port.), çabata (cat.), ciabatta (it.), zapata (gazt.), zapata (eusk.); cincta, zinta; cárcava, karkaba; mecha, metxa, mitxa; una máquina de libros, makiña bat liburu; candela, kandela.

Neretzat gauza garbi dago; eztakit entzule eta irakurleentzat aiñ argi egongo dan.

LITERATURA
LITERATURA
LITTERATURE

JOANES LEIZARRAGA-REN LANEZ

1977 - VI - 24

P. Lafitte

Euskararen sakonki ikertzeko, Leizarraga-ren lanak baitezpadakoak ditugu. Heietan hausi ditazke bertze nehon aurki ez genezazken argitasun batzu, salatzen digutelakotz zer zen gure aiten mintzairea hamaseigarren mendean, horrela konturatzen ahal baigira, geroztik hunat euskarak egin duen bideaz, hots jasan dituen on-gaitzez.

ARGITARATZE BERRI BATI BURUZ

Nekez eskura ditazke Leizarragaren lanak. Behar litazke berriz argitaratu. Nolaz bada?

Zorigaitzez Euskalzaindiko "abedea" laburxkoa da "sibilante" batzuen idazteko. Leizarragak berexten ditu elgarretarik *gente, osso, aisa* hitzetan diren sibilanteak: *gente,* "g.e." letrekin, *osso,* bi *ese*kin, aisa, *ese* bakarrarekin. Adibide horiek aski bekizkit txosten huntako.

Uste dut Leizarraga-ren lana idazia izan den bezala uztekoa dela, notetan behar balinbaditugu ere erakutsi gure azalpen eta ipotesiak.

Vinson, Van Eys, Dodgson eta bertze zenbaitek publikatu izan dituzte Leizarragaren lan batzu, bainan ez dute textoa osoki errespetatu. Irarkolako hutsak zirelakoan zenbait hitz aldatu dituzte, ustez eta zuzentzen zituztela.

Schuchardt-ekin aitor dugu akatsak baditazkela ehunka irarkolariek utziak; bainan ez da beti errex jakitea ea guk makurtzat daukagun forma bat, zinez husduna den, ala xoilki izen-kide bat, "variante" bat.

Adibidez baditake behin *hastapen* hitza irakurtu dugula eta urruntxago *hatsapen*: horrek ez du batere erran nahi bi hitz horietarik batto akatsa dela; gauza bera *beldur* eta *bildur* aldizkatzen badira liburu batean. Utz beraz textoa bere gisa, notetan emanez gure eritziak edo duda-mudak.

NOTEZ EDO OHARREZ

Textoa bere gisa utzi-ta frango ilun gelditzen da, eta argitasun-beharretan. Nundik aterako dítugu argi horiek? Alabainan bilduko ditugu lehen-lehenik Leizarraga hurbilenik miatu dutenen aburuak.

Hasteko, Theodor Linschmann eta Hugo Schuchardt-en lanetarat joko dugu, Van Eys-enak baztertu gabe.

Bainan Rene Lafon gure adixkide zenaren idazkietan badukegu iturburu bat nasaia eta zinez seguragoa.

Leizarraga ikertu duten gehienek uste izan dute *Testamentu Berria* latinez edo grekoz edo berdin bertze edozein mintzairez ezagutuz geroztik, aise zilatuko zituztela euskal-itzulpenak zituzken ilunbe eta ulert-gaitzak.

Lafon-ek aldiz ez zuen ahantzi gure euskaldun itzultzalea Calvinisten Bible frantsesari jarraiki zitzaiola hertxiki. Iturburu hortaz baliatu zen Lafon bere aldian eta hortan atxeman zuen laguntza asko. Ez balu ukan zuhurtzia hori, iduri zait haren *Système du verbe basque au XVI siècle* ez zela izanen den bezain zehatz eta aberats.

Baina Lafon-ek ez du bakarrik argitan ezarri Leizarragaren aditza.

Euskarak hainitz adar baditu, aditzaz bertzalde, eta denak ohargarri zitzaizkon gure euskalzaleari; haren artikuluetan huna lantu dituen ekai batzu = la composition des mots basques, le genre grammatical, la comparaison, l'épithète et le complémert de nom, l'indéfini, les deux génitifs, le relatif, la proposition nominale, la personne dans le verbe basque, eta abar. Sujet horiek zerabilzkalarik, gogoa hegaldalzen zitzaion Leizarragaren ganat eta hartzen ziozkan asko argi-bide.

Xehetasun horiek ere biltzekoak dira, oharren aberasteko.

NOTAK NOLA BALIA?

Pentsatu nuen ohar horiek orri-alde-zoletan ezar zitezkela; bainan liburua lodiegia liteke.

Beharbada zuetarik zenbaitek ezagutzen duzue Max Zerwich jesuitak latinez egin duen *Analysis philologica Novi Testamenti greci*, ez da itzulpen bat, hizkuntzalari-lan bat baizik. Argitzen ditu forma guziak, akatsak salatzen, hitz berriak eta hitz zaharkituak berdin, gramatika-oharrak lerroz-lerro azaltzen.

Holako lan zerbaiti lotzea ez bide da lan alferra, luzexkoa izanen bada ere.

Tekniko-sail bat dela, ezin uka. Beharko dira linguistikako hitz berezienak erabili, eta aitor dut frantsesez baizik ez naizela nor, xehetasun zail batzuen emaiteko.

Behin *Analyse philoligique du Nouveau Testament basque de Leizarraga* apailatuko dut. Gaineratikoak gero, Jainkoak nahi badu. Anartean zertako ez ager-araz obra guzia argi-irarkiz, Linschmann eta Schuchardt-en edizionetik, aintzin solasa aldatuz?

Hizkuntzalari gaztek arras beharra dute.

BESTE GAI BATZU
VARIOS
DIVERS

ITZULPEN ARAZOAZ

1977 - I - 28

Rikardo Badiola

Agur Jaunak:

Hemen agertu nahi nuke sail honen beharrizan gorria. Zeren, gure Euskarari ateak irekitzea komenigarria baita eta ez herstea. Euskara bizi, sendo eta zabaldu nahi baldin badugu itzulpen sail hau zaintzea behar beharrezkoa dakusagu. Hizkuntza batek bere adarrak eta sustraiak zabaltzen ez baditu, zuhaitz baten antzera, ihartu eta gero husteldu egiten da.

Orain arte, irailetik hona, eginiko itzulpenak honela banatzen dira: 30 lantegi eta beraietako arazoez; 40 merkatal arlokoak; 25 eskela; 15 ikastolako arazoez; 10 eleiza eta parrokietako arazoez; 25 lan famili elkarteen gora-beherez; 30 lan eskualdeetan dauden nekazal eta industri arazoez; 26 erakunde ofizialetakoak, etab.

Dakusazuenez, jendearen eskakizunek alde guztietatik jotzen dute. Orduan, zer egin dezake, jende honi euskara gauza guztietan erabaki gabe aurkitzen dela eta ezin dela itzulpenik egin? Ala itzulpenok egiten joan eta ahal izanez gero, gehitu eta bultzatu, euskarak sail guztietan parte har dezan. Gainera, ene ustez, eta uste dut zuena ere honela izanen dela, hau da, euskarak egungo gizarte arazoei erantzun behar diela eta ezin ditugula albo batetara utzi, teknik gizartea eta ez industri arazoa ez eta hirietako bulego arazoak ere. Zeren, arazo hauk bertan behera uzten baditugu, euskara makaldu eta hil eginen baitzaigu. Egun, ezin dezakegu euskara baserri eta nekazal arlora bazter, bestela txirotu eta makaldu egingo zaigu.

Une honetan ditugun eskakizunak ikusirik, eta honetarako ni erdiska ari naizenez, zeren *Euskaltzaindia*ko liburu argitaralpenak eta kontsulta saila ere egin behar baititut, ez naizela iristen, esan behar dut. Alde batetik bakarrik egin behar ditudalako itzulpenok —ene eritziz bik edo hiruk osotu behar lukete sail hau— eta bestetik talderik ez dagoenez itzulpenok, batzutan, erdiska irteteko arriskutan daude, zeren ez baitut inor kontsultatzeko. Behar beharrezkoa dakust itzulpen sail hau sendotu eta berriztatzea. Gehienbat erabiltzen ditudan liburuak hauk dira:

1) *Zortzi urte arteko ikastol hiztegia.*
2) *Merkatalgo izendegia.*
3) *Herri eta Herritarren izendegia.*
4) *Euskal izendegia.*
5) *Idatz arauak.*
6) *Euskaltzaindiko aditz batua.*
7) Hiztegiak: a) *Azkue*
   b) *Axular*
   c) *Mugika*
   d) *P. Lhande*
   e) *Natur Zientzia*
   f) *Euskal hiztegi modernoa.*

Orain arte, kontseilari gisara pertsona hauengana jo dut: I. Berriatua, X. Kintana, J. R. Etxebarria, X. Mendiguren. Denok Bilbo inguruan dabiltzanak. Gure aspaldiko ametsa hau da, itzulpen taldeño bat sortzea komenigarri litzatekela.

Ene ustez, itzulpenok egiterakoan *Euskaltzaindia*ren arauak jarraitu bai, baina ez dut uste haren baieztasunari begira izan behar dugunik ez eta haren bedeinkazioari ere. Euskara gaurkotze prozesu batetan aurkitzen zaigu eta askotan *Euskaltzaindia*k oraindik erabaki gabeko hitzez baliatu behar dugu, bestela gure hizkuntza itto eginen zaigu eta gu berarekin. Ezin dugu *Euskaltzaindia*k hitz bat edo terminu berri bat nola den edo nola izanen deni, zain izan. Lehen urratsa, idazle eta euskara sail guztietara zabaltzea nahi dugunok eman behar dugu, eta gero, hitz edo terminu berriori zabaltzen hasten denean, orduan ikertu beharko luke ea ongi ala gaizki dagoen. Ene ustez Akademiak ezin du oztoporik

ezarri, lagundu baizik, batez ere, gure hizkuntzaren une larri honetan.

Berriz ere ongi letorke D'étxepareren esaera: "Euskara jaldi adi kanpora!" Bai jaldi adi teknika, komunikabide, bulego eta gure kaleetara...!

AKADEMIA-ONARTZE MAILA DESBERDINEZ

1977 - X - 28

J. L. Lizundia

EUSKERA 1971. "Euskaltzaindiaren Agiriak". "Euskaltzaindiaren Egituraz". "II. Batzordeak" 125-6 horr. honela dio: "Batzordearen lan egiteko prozedura edo ibilpide-legea honela izango da: Atal Eragileak lana prestatzen du, eta ondoren Kontseilari Atalari pasatzen dio. Hauek beren oharrak, eraskinak eta abar jarri ditzaiokete lanari, beti arrazoiak emanez. Gero Atal Eragileak, ohar eta eraskin hoiek estudiatzeko, berriz ere lana hartzen du; eta estudiatu eta azken eskua eman ondoren, lana Euskaltzaindiaren Batzarre osora (al Pleno) aurkezten da. Hemen, Araudiak dionez, batzarkide guztiek izango dute hitza, banan banan (bost minutuko bitartea emango zaio bakoitzari hitz egiteko). Eta azkenean, bototara behar baldin bada, euskaltzain osoek bakarrik izango dute botoa.

Batzarreak lana onartu ondoren, hurrengo Euskera-n argitaratu behar da.

EUSKERA 1972, 203-204 horr. eta *EUSKERA 1976,* 20-21 horr. "Euskaltzaindiaren Agiriak". "Euskaltzaindiaren Arautegia". "Elkargoaren bilkurak".

EUSKERA 1974. "Euskaltzaindiaren agiriak". "Euskaltzaindiaren barne-erregelak". "Akademi-Batzarreak", 363-4-5 horrialdeak. 9. arti. "Are gehiago komeni da hori egitea —testuaren kopiak atera eta euskaltzain oso guztiei eta eska dezaten laguntzaileei garaiz bialtzea—, batzarreak onetsi edo birretsi behar dituen puntuak ukitu behar direnean".

* * *

ONARTZE MAILAKATZEAZ

Euskaltzainburuak eskaturik, txostentxo hau prestatu dut akademi-onartze mailakatzeaz. Beharrezko da, zeren eta gure hizkuntzaren, eta batera bere akademiaren bizimodua konplikatzen bait doa.

Batzutan Euskaltzaindiak berak onartu behar ditu bere hizkuntz gai nagusiak, hala-nola ortografia, aditz laguntzailea, aditz sintetikoa, idatz arauak, etab... Beste lan sail bat Euskaltzain batek, edo batzorde batek egindako lana onartzen du, beretzakotzat hartzen du hobeto esan, nahiz eta horrek esan nahi ez hizkuntz hesparrutik begiraturik, forma edo izen guztiak onartzen dituenik. Beste batzutan beste erakunde batzuk proposaturiko zerbait onartu behar du, berak zuzen zuzenean landu ez duena, baina heurentzat eta euskararentzat ere bai, noski, interesgarri dena. Azken baten gure elkargora gure "superbisio" bila datoz, horrela uste baitute, gure itzalak beren lanari eta azken baten euskarari finkatze mesede bat egiten dielako; bide batez Euskaltzaindiaren maisutza aitortuz. Orainarte, guztiz nahasirik ez bada ere, nahiko nahasirik gabiltz onartze kontuetan, eta ezin dugu horrela jarrai, kategoria desberdinak baitaude. Ezin da aditz laguntzailea, izendegi bat, mekanika hiztegi bat eta ikastola testu bat, tratamendu berberarekin despatxatu eta onartu. Horretarako da txosten hau, zerbait argi lagungarri izango delakoan egin dut. Zuon laguntza eske nator gero, hobetzen, gehitzen, zehazten joan gaitezen.

Nik lau maila ikusten ditut arlo honetan:

1. ONARTZEN AKADEMIKOA OSOA
2. AKADEMI BATZORDE LANA
3. ONIKUSI EDO ONERITZIA
4. GAINBEGIRADA

* * *

I MAILA

Kasu honetan, Arautegi eta Barne Erregelek eskatzen duten prozeduraz, lan batzorde bat izendatuko da, epe bat, indikatiboa, bederen, jarriaz eta horrek lana prestatzen duenean, Euskaltzainburuari adieraziko dio zuzenean, edo Eus-

kaltzaindiaren Bulegora, hurrengo batzarreko gaietan sartzeko eskatuz. Horretara lanaren aurkezpena egiten da, eta zentsadura edo zuzenketa epe bat jarri, euskaltzain oso guztiei, batzordeko diren laguntzaileei ere bai, eta espreski eskatzen duten beste edonor laguntzaileri lanaren kopiak zabalduko zaizkie.

Ahal izanik, Euskaltzaindiak lanari azterketa orokor bat egingo dio, metodologia, akademi arau nagusiak betetzen dituen begira eta abar, hastapeneko eta onartze bat emango dio, onartze inizial bat. Horrek ez du esan nahi, dauden hitz edo forma guztiak onartzen dituenik. Prozedura hau, zerbaitekin konparatzekotan, Diputazio, Udal batzarre eta antzerako elkargoek egiten duten "aprobación inicial" antzeko izango litzateke, eta adibide bat jartzekotan hirigintza plan bat "se le aprueba inicialmente y se somete al período de información y enmiendas" esaten da. Zer da hori, ba plana gehien bat ongi dagoela, teknikoek ondo tajutu dutela, baina horrek ez duela esan nahi ertz eta bide guztiek ongi daudenik, eta horrek birrespen bat, "aprobación definitiva" bat behar duela. Akademia lanak ere begirada orokor bat emanik ikusiko da Euskaltzaindiaren bideetan egina dagoen, linguistika, gramatika eta abarretako erregela nagusi eta nabarmenenak betetzen dituen, metodologia jator baten eginda dagoen ala ez. Horretara "hastapen onartzea" ematen zaio, gero euskaltzainek, banan banan aztertzeko aukera izango dute, hots, onartze definitiboa, erabatekoa eman behar diotenean, ezingo dute, berriz lana osorik ankaz gora bota, baizik eta izen edo forma batzu, zentsatuak, zuzenketak eginak dituztenak, bakarrik, eztabaidatuko direla.

Nora bidali jakiteko, hoberena, Euskaltzaindiaren bulegora, Bilbora bidaltzea da, idazkari-ordeak banaketa lana egin dezan, nahiz eta batzorde idazkariak ere zuzenean lan bera egin, baina beti ere, idazkari-ordeak eta batzorde idazkariak koordinatu beharko dute zeregin honetan.

Batzordea-izendatzearen fetxa, hastapen onartzekoarena eta erabatekoarena argi jarri beharrezkoak dira.

Bide honek betetzen direnean, EUSKERAn argitaratuko dira, bertan lan egin edo parte hartu duten batzordekoen izenak aipatuz, baita ere alde edo kontra agertu diren euskaltzainena ere (azken hau aski da batzar agirian agertzea).

Honelako lan batek: Aditzarena, adibide bat jartzeko, izan da honetariko Euskaltzaindiaren LEHEN MAILAko onartzea du, AKADEMI ONARTZE OSOA (Aprobación académica plena).

II. MAILA

Hau ere Euskaltzaindiaren lanekin gertatuko da, eta modu bitara eraman liteke prozedura. Bata Euskaltzaindiak batzorde bat izendatzen du, lanak eskatzen dituen atalez, hala komeni bada, eta honek darama lanaren martxa eta bestea Euskaltzaindiak norbaiti, Euskaltzaindiko bati, derrigorrez, enkargatzen dio lanak, baina orduan ere kolaboratzaile batzu izatea komeni da, kontseilari, ez lankide, batzorde gisa.

Onartzea ordea, ez da hizkuntza maila osokoa. Batez ere, maila hau izendegi eta horretarikoentzat izan daiteke, adibidez, izendegi onomastiko eta antzerakoentzat. Onartzea orokorra da, eta lan Euskaltzaindiarena izanik ere, elkargoak ez ditu izen eta forma guztiak banan banan zehatz ontzat beregain hartzen. Euskaltzaindiak mandatu baten agindu edo enkargu baten bidez, bere barneko norbaiti —akademiko bati, kolaboratzaileekin edo batzorde bati— agintzen diona, batzar jakin baten.

Kasu honetan, ere aurkezpena egin beharra dago, batzar egun jakin batetan, aurretiaz Euskaltzainburuari, zuzenean, edo bulego nagusiaren bidez, batzar gaietan sar dadin, eta horrela iragar. Batzarrean, lanaren arduradunak, unipertsonala bada berak, edo batzorde buru edo ordezkoak, aurkezle bezala lanaren berri emango du, mamia, lan prozedura eta metodologia eta gainerako xehetasun nabarmenenak emanez. Ondoeren, zentsadura edo zuzenketa epe jakin bat jarriko da, eta ondoren onartuko da. Bistan da kasu honetan ez duela zerrenda guztiak onartze zehatz bat behar, nahi eta nahi ez, onartze orokor bat baizik. Bestalde, bidezkoa da, euskaltzain norbaitek bere erreserba formala egitea zenbait punturi, eta hala ezartzea onartze agirian.

Onartze maila honetan ere, batzordekoen edo-ta arduradun eta kontseilarien izenak ere, partaide izen direnak noski, behar den lekuan, kasu: lanaren argitalpenean agertzea. Bai-

ta ere lanaren agindua eta lankideen izendapenena, aurkezpenaren eta onartzearen datak ezartzea ere beharrezkoa da.

Argitalpena Euskaltzaindiarena da, eta normalean EUSKERAn agertuko da, komeni izanik separata gisa atereaz. Euskaltzaindiak, batzorde edo arduradun egileen gomendioz, beste editorial edo etxe babesle baten bidez ere argitaratzea ere, erabaki dezake.

III. MAILA

Euskaltzaindiak ezin du, zenbait alorretan, geroago eta ugariagotan zorionez, alde batetik, hizkuntzaren hazkunde prozesoa gel araz. Teknik arazoetako munduan batez ere, hau nabarmen ageri da, kontugintza, filatelia, banka, mekanika, etab. Batzu Euskaltzaindiarekin kontaturik egin dira, beste batzu ez. Dena dela, hemen gure euskaltzainburuak, urte honen hasieran "URTEBIKOAREN PLANGINTZA" deituriko txostenean diona dakargu gogora: "Jakina, Euskaltzaindiak ezin du inolaz ere berak bakarrik itsaso zabal hau, "Hiztegi espezializatuak bultzatzeaz" inguratu. Bestelako taldeen lana bultzatu behar du, eta, ahal den neurrian, denen artean koordinazio, batasun eta bat-etortzea bilatu. Badakit ez dela gauza erraza, baina behar-beharrezkoa da hizkuntzak oinarrizko batasun bat eta joera nagusi batzuk gorde ditzan. Bestela, lan guzti huntatik aurrerapena atera beharrean, nahaspila segi daiteke. Eta nahaspila horrek euskal irakaskintzaren ondorioa eta kausitzea arriskutan jarriko luke".

Beraz, kasu honetan zer egin? Horretan diharduen lan taldeak, Euskaltzaindiko edo kanpoko izan berdin da, egin dezala bere lana, baina nolabait hizkuntz akademiaren koordinazio, batasun bilakatze hori nahi badu, eta on litzateke, bere berri ematea hasiera-hasieratik interesgarri litzateke.

Gehiago oraindik, maila bateko gure onartzea nahi baldin badu, horretarako normatiba gutxiengo bat jarraitu beharko du, minima eta ez maximuna. ONIKUSI EDO ONERITZI dei daiteke "visto bueno" itzuliko genukena. II. edo I. mailako onartze baten kontra ezingo luke joan bistakoa denez, hau bide batez, puntu konkretu horretan aldatzen ez bada behintzat hitz edo forma konkretu horretan esan nahi da.

Zein prozedura eraman? Gure ustez honela, Hiztegi —hiztegi-espezializatua izango dira gehienetan— edo edonolako lan taldeak, lan asmoaren berri ematen dio Euskaltzaindiari, horretarako garaiz Euskaltzainburuari edo bulego nagusiaren arduradunari gaztigatuz, hurrengo batzar gaietan sartzeko, proposamena agertuaz. Euskaltzaindiak bere barneko bat, edo batzu, izendatzen ditu begirale gisa, lanaren martxa jarraitzeko, eta gure joera nagusien berri emateko.

Lana amaitzen dutenean, ordezkari horren bidez, ohizko eta aipatu den eran gaietan aurkezpena iragartzen da, behar den kopiak ekartzen dira, gutxienez euskaltzain osoentzat, eta gai horretan edo inguruko batzorderen baten diharduten laguntzaile direnentzat, eta zentsudura edo zuzenketa epe bat jartzen da, gutxienez hile betekoa. Hurrengo batzarre batetan, Euskaltzaindiak bere ONIKUSIA ematen dio, baina ez du, egile taldeak zuzenketa guztiei kasurik zertan egin, euskaltzain osoen gehiengoarenak ez badira behintzat. ONIKUSIA, orokorra da beti ere.

IV. MAILA

Gipuzkoako Ikastolen Federakundeak, uste den baino erabaki garrantzitsuago bat hartu zuen, duela pare bat urte, halegia testu liburuetan, berak gomendatuko zituenetan, Euskaltzaindiak, bere gainbegiratu edo "supervisio" bat ematea beharrezkotzat jotzea. Presaka egin zen lana, eta gure azpiegitura eskasaz, erantzun azkar eta jator bat ematen ahalegindu ginen. Horrela GERO, IKER-SAIOKA, ANAYA, Donostiako Apezkikutegiko Kristau Ikasbideak eta abarrek, hizkuntzaren alorreko gure "gainbegirada" hori eraman zuen. Gehiago oraindik, Madrileko Hezkuntza eta Zientziako Ministergoak berak ere, textu horretaz gure "supervisio" hori eskatu zuen, bere "reconocimiento" delakoa emateko. Bistan da, "gainbegirada" hori hizkuntzarekikoa zela soil soilik, eta ez mamiarena edo pedagogiarena. Xalbador Garmendia, Kintana, Letamendia, Mendiguren, Txillardegi Euskaltzaindikoak, eta oraindik barneko ez ditugun, baina bai aski meritu duten, Dionisio Amundarain eta Andolin Eguzkitza, izan ziren lan eskerga hori burutu zutenak.

Beraz, esperientzia hau maiz gerta daitekenez, prozedura erraz, bizkor eta eraginkor bat asma behar da. Gure ustez, eta beti noski, hizkuntz hesparruari loturik, hau litzateke onartze maila honentzat jarraibidea: Euskaltzain-burugoa zuzen dadila "gainbegirada" horren premia duena, eta honek izendatuko du, "gainbegiralea", edo "gainbegirale taldea", hurrengo batzarrean kontu emanez. Batzarrean euskaltzainen batek oharren bat egiteko eskubide osoa izanik noski, eta bat etorri ezik, gehiengoak atzera bota dezake.

Liburuak kasu horretan, "...horretarako izendaturiko begiraleak edo begirale batzordeak gainbegiratua eman dio". Gainbegiratze hori, euskararen arau akademikoak betetzen dituela adieraztea izango litzateke.

"Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea" denetik, Akademi honen, Euskaltzaindi honen b) helburua, halegia; eta baita c, d eta g, helburuen inguruak ere tarteko direlarik; xede horik lortzeko prozedurak argiagotzen eta zehaztuagotzen ahalegindu naizelakotan, zuen eskuetan uzten dut txostentxu hau.

EUSKARA HERRIKOIAREN MAGNETOFOI BILKETA

1977 - VI - 24

J. M. Satrustegi

Euskara hizkuntza mintzatua izan da hamaseigarren mendera arte. Gure arbasoek ez zuten idazteko ohiturarik, eta hutsune larria utzi ziguten arlo honetan. Ikusi besterik ez dago zer pozarekin jasotzen ditugun, harri bitxiak balira bezala, garai bateko esakera eta zirri-marra zaharrak.

Euskaldunon joera hau aldatzen doa. Gaur polikitxo idazten hasiak gara euskaraz; ez gehiegi, baina poliki. Idazlan hauek ikasien mailako eskuara dakarkigute begien aurrera. Batzutan joera berezi eta oso berekoiak eman ohi ditu idazleak eta, ez beti herrian oinarriturik.

Eskuara batuak, beste alde, lan ona egingo badu ere euskaldunok elkartu eta denon arteko mintzaira bat sortzen, euskalkietako aberastasun asko murriztu eta ito egingo ditu. Hizkuntza batuen saria hori izan da mundu guzian, eta gurea ezin zen besterik izan.

Hori delata, egoera larri batean gertatzen gara gaurko egunean. Ahoz aho ikasitako eskuara herrikoia, gure mintzairaren iturri nagusia, hiltzera doa. Hiztegi aberatsa, iragan bizibideetako teknika jakingarriak eta joskera jatorrak joango zaizkigu, betiko, gure baserritarren hizkuntzarekin batera.

Herri hizkuntzaren eta eskuara landuaren mugak sakontzen eta banakatzen ari diren garaian, eskualki guzietako eskuara mintzatua, herrikoia, jasotzen ahalegindu beharko genuke. Gure arbasoen isilunea bezain negargarria laiteke oraiko ajolagabekeria. Aurrera joan behar dugu, noski, baina milaka urteetako altxorra, eskuararen lekukotasun eta testigutza bakarra eskuara mintzatua izan dela ahantzi gabe.

Garaiz saiatu gaitezen bizirik dagonaren testigutza jasotzen. Gero berandu izango da. Eta guk utzitako hutsunea, batez ere, gure aurrekoena baino zailagoa izango da betetzen, orduan aldatu ez zen bizimodua eta haren lekuko zen hizkuntza elkarrekin batean aldatzera bait datozkigu oraikoan.

HELBURUA

Kinka larri hontaz jabeturik, Euskaltzaindiaren asmoa herriz herri eta eskualde guzietan, herri hizkuntzaren eredu izango den bilketa txukun eta zabala egitea da.

Egin, ordea, gaur gaurko eran. Garai batean hizkuntzaren berri emateko era bakarra idazkia zen. Hitzak haizeak eman ohi ditu, esaten zen, idatzia da gelditzen. Horrexegatik dira hain estimagarri artxiboetako bilduma zaharrak. Famili baten ondasunik aipagarriena paper zaharretan bere izena jasorik egotea izan ohi da.

Mundua, hala ere, aurrera doa; eta munduarekin gure euskara. Gaur bizirik dagoen gure hizkuntzaren jasotzen joateko lana, idazkiz baino gehiago magnetofoiaz egin beharko dugu. Lan errazagoa eta, batez ere, aberatsagoa egiten da. Idazkiaren lekukotasuna oso mugatua gertatuko litzaiguke.

Kontuan izan behar dugu, entzundako hitzaren itzulpena besterik ez dela berri jasotzalearen idazkia. Eta itzulpenak arrisku asko darama berekin, bai entzundakoaren jasotzen, eta berdin ikasitakoaren idazten.

Berriak beste norbaiti jasotzean gerta daiteke gaizki entzutea, edo esan nahia gaizki ulertzea. Batez ere, eskualde ezberdinetakoak direlarik hizlaria eta entzunlea Eta nahiz ongi ikasi bestearengandik entzundakoa, hitzez hitz eta giro berean ematea ez da uste bezain erraza. Gehienetan, punduren bat edo beste bere joskeran eman ohi ditu idazleak, oso erne ibiltzen ez bada. Eta mahiz asko, hutsune larriagoak ere bai. Honen berri badakigu.

Galtze larriena, hala ere, izkuntzaren doinu eta azentu kontuan nabaritzen da, oso zaila bait da belarriz hartzen dena, bat batean paperrean ezartzea.

Magnetofoiak esakera eta doinua, denak hartzen ditu harian, eta ulergaitzak direlarik zenbait pundu, behin eta

berriz entzuteko erraztasuna eskaintzen digu. Euskaltzaindiaren helburua, beraz, euskara herrikoia darabilten giza-emakumeen mintzaira magnetofoiez jasotzen joatea da.

BILKETA

Hizkuntzari buruz egindako azterketa hau ez da, berez, hizkuntzaz egitekoa. Hizkuntzaz zer esan haundirik ez dute izango gehienetan, gure herritarrek. Edozein gai on daiteke heuren euskara jasotzeko.

Hortarako, euskara herrikoian trebe den norbait ezagutzen delarik, berarekin harremanetan sartzea komeni da lehenik. Baliagarri gerta daiteke, 1) hizkuntza aldetik etorri ona duelakotz. 2) Herri jakintza aldetik aberatsa delakotz: ipuin, esames eta kondakizun asko dakielako. 3) Bere bizitzan gertakizun bereziak baldin baditu. 4) Euskara galduxea den lurralde bateko mintzaira baldin badaki, etab.

Giro on batean errazago eta aberatsago da elkar hizketa. Ez da, beraz, guk nahi izatea aski lan ona egiteko; bere egoera da beharrezkoena eta berez ongi datorrenean baliatu behar da.

Noiz. Lana noiz egina den esan behar da. Urtea, ilabetea eta eguna ematea ez da deus gostatzen. Berak, berri emaileak, zenbat urte dituen jakitea ere komeni da. Noiz sortua den. Hasieran ala bukaeran galdetzeak ez du ajolarik.

Nor. Izena eta abizena, edo abizenak, jasoko dizkiogu. Nun jaio den eta nun bizi izan den. Nungoak ziren bere aita amak. Hizkuntzari buruz beharrezkoa izango da mugaketa hau. Lanbideagatik beste eskualde batzuetako jendeekin harremanik izan duen.

Lanbidea. Zer ogibide izan du? Nekazari, artzain, ikazkin, esku zuri (sekretario, maisu, apez, botikario, sendagile), ala beste zerbait? Elkar hizketaren haria hartzeko beharrezkoa gerta laiteke atal hau.

Lanbideari buruz era askotako galderak badira J. M. Barandiaran-ek egina duen 'Etniker' taldeko azterketan (Ikus "Guía para una encuesta etnográfica". Príncipe de Viana, 1975).

Bizitegia. Herria, etxea, borda. Gurasoengandik du ala ezkontzaz sartua da? Familiako gora beherak iturri ona izan ohi dira, askotan, hitzaspertu luze bat egiteko.

Pasaizuak. Bizian izan ohi dira gertakizun bereziak oso barnean sarturik gelditzen direnak. Itsas gizonen arriskuak, kontrabandoko estualdiak, soldautza edo gerra aldiak, indianoen itsas beste aldeko bizitza, etab. Gai hauetako batek bakarrik eman dezake, behin baino gehiagotan, hizbide oso zabala.

Euskara. Mintzatzen da bere herrian? Bere etxean? Galdu bada, noiz eta zergatik uste du galdu dela? Gazte denboran zer giro zegoen herrian? Elizan egiten zen? Eskolarik ikasi zuen? Irakasleak bazekien euskaraz? Laguntzen zieten euskaraz ikasten?

Mitologia. Bada edo izan da herrian sorginik? Nun bizitzen ziren, zer egiten zuten? Beste gizotso, lamin, jentil, tartalo edo antzekorik? Herensuge eta halakorik?

Lekuan lekuko ohiturak aipatzea komenigarria da. Herriko festak, etxeetako festak (artozuritze, egurketa, gaztain mozte, sagar biltze).

OHARRAK

1) Arau nagusi bezala: gai batean sartu eta berriak erraz datozelarik, ez moztu. Lagundu, ahal bada, berari hizketan utziaz.

2) Ulertu ez den zerbait, edo hitz berrien bat sartu baldin badu, gogoan hartu, noizbait pundu horretara itzultzeko. Berari argibidea eskatzea izaten da, batzutan, errazena.

3) Galderak ez dute beti era berean joan beharrik. Edozein gaiekin hasi daiteke eta, berdin, beste edozeinekin bukatu. Galderarik egin gabe ere bete laiteke hari osoa, bi edo hiru lagunen arteko elkar hizketa jasoaz, esate baterako. Orduan komeni da, nun edo han, biltzaleak denen izenak, eguna eta beste berrien batzuk ematea.

4) Bazkal ondoan, mahai inguruan direlarik herriko jendeak sortu ohi dira oso gauza politak. Giroa ere herrikoia izan ohi da, arrotzaren aurrean ez bezala.

Euskaltzaindiak bere asmo hau aurrera ateratzeko bide bat baino gehiago izan ditzake. Esate baterako: 1) Bilketa bere gain hartuz, ala, 2) beste batzuei bilduarazteko eragile izanez.

Bere gain hartzekotan, besterik gabe horretaz arduratuko den norbait izendatu beharko luke. Sariaz beste alde, joan etorriak eta ostatua ordaindu beharra ikusten diot.

Bigarren bidea aukera baleza, biltzaileen gogoa ernaraziko duen zerbait asmatzen ahaleginduko gara. Txapelketa antzeko zerbait, ala kezkatuenen edo ikasien arteko topaketak.

Txapelketa, denok dakigun bezala, sari mailakatuen bidez egin ohi da. Lehenbiziko saria, bigarrena, etab. Era askotako oztopoak sortzen ditu, askotan. Euskaltzaindiak badu horren berri. Besteak beste, bilketa zabalago bat egitea komeni zaigu gainera guri.

Nor berak herri inguruan edo hobekienik ezagutzen duen lekuan lana egiteko deia zabaltzen badu Euskaltzaindiak, uste ez dugularik sortuko zaizkio lankideak. Jendea kilikatuko duen ordainketa mamitsuren bat eskaintzeko kontua izango litzateke. Tresnaren balioa, bidaiak eta ostatua kontuan edukiz, behar bada BI MILLA pta. eskaini lezake 'cassette' bakoitzagatik.

Leihaketaz arduratuko den batzorde bat izendatu behar izanen du. Datozen lanak ikusirik, ontzat emandako guziak jasoko lituzke Euskaltzaindiak eta aukeratuei sari berdina eman. Epai mahaiekoen ustez interes gutxi dutenak edo teknikaz gaizki eginak, egileei itzuliko lizkieke.

Batzorde hau izendatzean eskualki gehienak sartzeko eran egitea komeni da. Batzarkide bakoitza eragile izan beharko du bere lurraldean, eta egin daiteken lanaren programa antzeko zerbait antolatzea ere ez litzateke gaizki egongo.

Leihaketari indar gehiago ematearren, hiru bat urtetik sari berezi bat gertatu daiteke, gehienik ahalegindu denarentzat. Esate baterako 25.000 peztako sarien bat, urte hoietan kaset gehiena ekarri eta on hartu zaizkionarentzat.

Ekintza honek izenen bat behar duela uste dut, herri jakintzan lana egin duen norbaiten izena. Lehenik saiatu zen Azkue jaunaren izena, esate baterako, ongi deritzait.

Proposamen hau ongi hartua izango balitz, leihaketaren izenburu osoa honela izango litzateke:

1) *'Resurrección M. de Azkue', euskara herrikoiaren bilketa.*
2) *'Azkue', herri hizkuntzaren bilketa.*
3) *'Resurrección M. de Azkue' manetofoi bilketa.*

ARTXIBO KONTUA

Bilketa hau egingo bada, ez da hilik egoteko izanen. Gero ta gehiago dira hizkuntza arloan ikasketak egiten ari diren gazteak, eta ikastaroan eskatzen zaizkien azterketak egiteko baliagarri gertatu beharko luke.

Hortarako, metodologia aldetik, helburu batzu behar ditugu. Urterik urte jasotako lanak zenbaturik geldituko dira. Zenbaki horrekilan, fitxa zehatz bat egingo da. Zehatza esatean, gutxienez zein eskualkitako euskara duen, nork bildua, noiz eta nori hartua den esan behar du. Gai nagusia ere aipatu daiteke: nekazari, artzai, olagizon, mariñel, apaiz, legegizon eta abar. Ez dugu ahaztu behar, hizkuntzaz beste alde, etnologi eta beste ikasketa batzuetarako ere on izango dela bilketa.

Leihaketa bakoitzaren berri jasoko duen agiri bat ere egingo da. Hortarako liburu berezi bat eramango da. Batzorde burua, idazkaria, eta bi edo batzordekidek osotuko dute sail berri hau. Aukeratzekoan batzordekoak ez diren beste jaun batzuek ere parte hartu dezakete. Euskaltzaindikoak ez direnak ere bai, hala komeni dela ikusiko balitz.

On hartutako lanak, azpiko ertzak mozturik jasoko dira. Ertza moztea, harian hartutakoa ezeztatu ez dedin izaten da.

Kasetak ez dira inoiz Euskaltzaindiaren etxetik aterako. Arduradunaren gain izango litzateke eta kontu eskatuko zaio.

Azterketa lanetarako gela berezi bat behar beharrezkoa izango du laster Euskaltzaindiak. Etxe berria egiterakoan kontuan eduki behar da pundu hau. Hari bat entzuten duen ikasleak ez du besteen berri jakin beharrik, eta egiten duena beretzat egiteko moduan antolatuko dira gauzak. Isilian, alegia; ikasle bakoitzak bere jarlekuan entzungailu isilak eskura dituela.

Hortara heltzen ez garen bitartean, manetofoi bat behintzat erosi beharko du eta han entzunen dira aurkezten diren lanak. Tresna hori ez da beste eginkizun batzuetarako baliatuko, eta beti bere gelan egotea komeni litzateke.

Euskaltzaindiak ikusiko du, "cassette" hoiek berak utzi behar diren ikasleen eskuetan ala kopiaren batzu izango dituen horretarako. Lehen kopia ez nuke nik inoren eskuetan utziko.

Biderik hoberena, lehen kopia bestelako hari haundira aldatzea izango litzateke. Euskaltzaindiaren artxiboa, "cassette" ez baino beste hari handiko bildumena izan behar luke. Iraupen gehiago omen du eta entzute hobea.

"AZKUE" EUSKARA HERRIKOIAREN I BILKETA OINARRIAK

Gure euskara zaharraren oinarri eta iturri aberatsa herri hizkuntza izan dela jakinik, eta eskualdeka gorde dituen bereiztasun jakingarriak jaso nahiean, Euskaltzaindiak euskara herrikoiaren magnetofoi bilketa eratzen du. Hortarako:

1) Bilketa hau nahi duten guziek egin dezakete, eta edozein euskalkietako hizkuntza herrikoia ontzat hartuko da, euskaraz delarik.

2) Ordu bateko gaia izan ohi duen "cassette 60" izango da, berez, lanaren neurria. 90koa ere onartu daiteke.

3) Epai mahaikoek ontzat emandako "cassette" bakoitzaren egileari bi mila pezta ordainduko zaio bere gastuen sari. Lankide bakoitzak nahi hainbat lan aurkeztu dezake.

4) Hiru urtetik behin, gehienik saiatu denaren ardura ordaintzeko 25.000 peztako sari berezi bat banatuko da, denbora horretan Euskaltzaindiak ontzat eman dituen lanak kontuan hartuta.

5) Lehenbiziko urte honetan bildumak bialtzeko epea abenduaren lehenbiziko egunean amaituko da, eta erabakia urteberri aldera zabalduko da.

6) Aukeratutako elkarrizketa guztiak Euskaltzaindiak beretzat geldituko ditu. Besteak egile bakoitzari itzuliko zaizkio.

7) Lan guztiak Euskaltzaindira bialduko dira, (Ribera kalea 6, Bilbo-5), edo beronen edozein ordezkaritzara.

8) "Cassette" bakoitzarekin, egilearen izen abizen edo deitura eta bizilekua ezarri behar dira horri batean, eta elkarrekin zorro berean sartu.

ORIXE EUSKAL IZKERA-ZALE

(Euskera iaso, ugari, edertu... beti; azkenean batez ere)

O. dar M.

Orixe euskera zale izan zan beti.

Euskera zale izate ortan ba-dagoz mailla batzu. Ba-dira euskera erabilten dutenak, ori bizibiderako bearra zaielako. Ta euskera bear ez ba'dute, beste izkuntzetara laster iotzen dute. Beste batzuk euskera erabiltzen dute, edo euskeraren alde lan egiten dute, nongo ta noizko dan iakin-miñak eragin-da, izkerak elkarren artean duten artu-emana iakiteko, ta lan oriek izen eta ospe ematen dietelako. Olako oriek iakin-miña geiago dute maitasuna baiño.

Orixe ez zan talde auetako izan. Euskeraz lan egin bearrik ez zeukan bizitzeko; euskal-lanak ez zuten aberastu ta bai beartsu egin. Gai askotan, ak zun buru argiz, ak zekin aiña iakin eta beste izkuntzetan idatziz, estu ez lasai baiño ta agian oparo bizitzeko aiña irabaziko zun. Baiñan Orixe ez zan ibilli bide zabal eta eroso ortan.

Aurreko euskal idazleek euskeraz eta euskeraren alde lan egin zuten. Baiña lan asko egin bearra zegon alare euskera iaso, ugaritu ta edertzeko. Ta ori izan zan Orixe'ren lana. Idazti taldetxo bat utzi zigun itz lauz ta itz neurtuz. Asko asko ez ba'dira ere, garrantzi aundien dute euskal-elertian.

Beste norbaitek esango dizue zenbat idazti atera zitun, zer gai duten, itz lauz ala neurtuz, luze ala labur, euskeraz sortuak ala beste izkuntzetatik itzuliak diran, itz batez, nola-ko diran.

Nik beste zerbait esan nai dizuet, ots: arek erabilli zun euskera nolako dan itzetan, ioskeran eta burutapenak erabil-tzeko eran.

Euskal-lanetan erabiltzen zitun itzak, idatziari egoki zitzaizkionak erabiltzen zitun noski, baiñan gaiñera aal ba'zun uler-errezenak. Iñoiz erderazko itzik ba'zerabillen, euskeraz burutapen ori adierazteko ez zegolako edo zegona oso toki gutxitan zekitelako. Alare euskal idazle on eta euskeraiakitun bati, bein gerta zitzaion Euskaldunak olerki bikaiña irakurtzen ari zalarik, zerbait zearo ez ulertzea. Ta ulertu naiean bere amari irakurri zion, ulertzen zun edo galde egiñaz. Ta amak argi adierazi zion zer esan nai zun Orixe'k olerki zati artan. Amak eta Orixe'k zarren gauz, itz eta esakera aek ba-zekizkiten, ta euskal-idazle gazteak ez noski.

Baiñan ori ezin bestean gertatzen zan. Eta bearreko ba'zan, erdal itza erabiltzeak ez zion kezka andirik ematen. Obe da erdal itza erabilli ta euskal-ioskerari kalterik ez egin, beste alde baiño.

Bein apaiz batek gogo-iardunak ematen zitun euskeraz. Oso euskaltzale zan apaiz ori, aal zun guzian euskeraz itz egiten zun, eta ardura aundiz erdel itzik ez esateko. Gogoiardunak arekin egindako bi apaizek au esan zidaten: euskeraz itz egiteko erreztasun aundi dauka, baiñan erdal itzik ez esatekotan —batez ere beste izkuntza batetik itzultzean— euskal-ioskera gertatzen zala galtzaille.

Orrelakorik ez zitzaion gertatzen Orixe'ri. Onen idaztietan itzak euskal-erara lotzen dira, ta garrantzi aundiago daukan itz edo esaera toki nabariagoan ipintzen zun. Euskara ongi idazten ikasteko aukera aukerako dira Orixe'ren idaztiak; arek ematen du erriarengandik ikasitakoa ta irakurri zitun beste idazleen lanetan aurkitu zun euskal-ioskera iatorra.

Garrantzi andiko da idaztietan erabilten diran itzak eta lotzen ditun ioskera, ta bi gauza auek ba-dute erro antzeko bat, ots: burutapenak erabiltzeko era. Alde aundi dago burutapenak era batera edo bestera erabilli gure barnean gero idazteko. Euskaldun iatorrak burutapenak euskal erara bere barnean erabiltzen ditu, euskeraz idazten diardutelarik batez ere; ta besteengandik nolabait artutakoak, eusko erara aztertu, bekaldetu, egosi bezela egiten ditu bere barnean. Ta ordun itzak eta ioskera euskerazko dira. Iñoiz gertatzen da beste izkuntza baten idatzi, izkuntz ortako itzez eta alare, ioskeraz eta burutapenen erabilkeraz, izkuntz ua ez dala bere enda-izkuntza ezagutzea.

Orixe'ek utzi zizkigun idatzietan beti agertzen da euskal-idazle iator. Arek idatzitako *Euskaldunak*, *Barne-muiñetan* eta aldizka ingietan atera zitunak idazle iator dala, ta idazle bakarrik ez, bai idazleen irakasle ere.

Beste izkuntzetatik euskerara itzuli zitun lanetan, ikasbide aundi eman zigun, beste idazleen...(?) lan batzu euskara eder mamitsuan ipiñiz. Ontan ere eredu da Orixe. Aztertu aren lanak, esaterako, Tormes'ko Itsu-mutilla ta Mireio. Ta dasadana egia dala dakuskezute.

Arritzeko zan euskarara itzultzeko erreztasuna. Bein baten Euzkadi egunkariaren irarkolan zegola, Lauaxeta olerkari zana ere an zan, eta elkarren artean itz egiten ari ziran, ta itz egiten ari zala esku artean zeukan lana egiten ziardun: erderazko lerki La Cena (norena ote dan ez naiz oroitzen eta orain ezin ori egiztatu, bañan Menéndez y Pelayo'ren las mejores poesías idaztian dago, ta zuk, arren, ipiñi olerkari orren abizena).

Orra, ba, Orixe euskerazale, euskera maite zulako ta maitasun orrek eraginda utzi zizkigun idazti iator eta bikain oriek, eusko usai ta mamiz eder eta gozoak. Lan oriek euskera len zegon mallatik oso gora iaso zuten, euskera ugariago ta ederrago egiñaz.

Egiz izan zan Orixe euskerazale ta euskerazaleen eredu ta irakasle.

ORIXE

1977-gaŕen urte ontako ilbeltzean uŕetxuaŕ iesulagun ARGARATE ikusten izana naiz. Biok izketan ari eta ari, alakoxe batean Orixe zanaren MIREIO irten zitzaigun. Bertantxe uŕetxuaŕak emen aurkituko duzuten eskutitza erakutsi zidan. Geroxeago eskutitza neretzat beŕ-idatzi nuan eta iñork argitaratu nai balu EUSKERA aldizkarira bialtzea gogoratu zait.

Etxebeŕia'taŕ P. s. j.

Orexa'tik 1933'gaŕ. Oŕilaren 5'gaŕenean

Argarate, Zaitegi et reliquis adiskide onak:

Ez duzu lan makala artu, Argarate, iztegiño oriekin, eta neri ez makalagoa eman. Egun otan beaŕik aŕapatu nazu eŕiko pesta-buru egunetan, utsarteak betetzeko. Itz asko samar daude oker, ta ala bear nai ta nai ez, erderazko (gaztelerazko) itza aldatzentxe bai nun zenbait aldiz, eta euskal-tzari adierazpen zabaltxegoa eman ere bai. Eskeŕik asko. Enun oŕenbesterik ezta gutxigorik merezi. Ta auŕe-aldeko bertsoak? Gaia ta *intzentsua* alde batera dirala, goxoak eta bizkoŕak dira. Mireio presakatxo itzulia dut, ia zalapartan (idatzi beintzat). Ez dut adierazi nai, gogoan ongi erabili gabe egindako lana dudanik, baina oŕaztuagoa atera ziteken. Ontan ari naizela, zure beste idazkia datorkit. Ene! Zer galde egiten didazu? Nere erderazkoak *tomillo* ordez *tobillo* yartzen zula, nik zeren obena daukat? Zuk bezala proventzerazkoa ta prantsesa izan ba'nitu, ez neri olakorik gertatuko. Adiskide batek Oyartzabal'ek esan neri, urtearen erdi aldera, Mistral'en eun urtegaŕena zala ta Mireio euskerara itzultzeko. Euskaltzaindiaren batzaŕean Donostian nintzala esan zida, eta andik Bilbao'ra iristean Lauaxeta'rekin ontaz itzegin eta beronek eman zidan catalan baten gaztererazko itzulpena. Nik besterik ez dut ikusi, Andik urtearen bururako Euskaltzaindiko lan, EUZKADI'ko ta abar, egizu gainera lan ori.

Estuegi artu ninduten. Asmatuz ari beaŕa (traducir por adivinación) Ithuŕalde'k Gure Herria'n eman zun zati ua, erderazko (gaztelerazko) katalan oŕena baino zeatzago arkitu nun, neronek esatea edeŕ ez ba da ere.

Nere poema ondo omen dijoa. Noizbat zerbait bialduko al dizuet.

Orain Zaitegi'rekin naiz. Zureak oro yaso ditut. Eskeŕik'-beroenak zuri. Okeŕ esan, euskarazkoa oraindik etzat eldu. Argarate'k dion bezela, enaiz denbora geiegiren yabe, ta nik ez ditzaket aztertu zuen lanak. Antigone pozik aztertuko dizut alare. Zuei guzioi aholkutxo bat: etzaiteztela izan oi *meologista*. "Kizkiña" delako lan ori ein edeŕean dago, erderaz'ere lenengo *citologia* ulerkaitza baitzan izen beŕi-beaŕez. Itz bat aldatu nion: *lobel, isurki* edo olako beste baten ordainez. Ustez eskubide bai nun ortarako. A. Agiŕe'rekin ortaz len itzeginda. Eskér aunitz beŕiro.

Eskuarki itz okeŕ eragin dizu Argarate'k. *En general* naiz *por lo regular* adierazten du; ez *libremente*. Zegama'n entzuten edo da. Geŕiko'k *eskuarkiro* esaten du.

Euskaltzaindiaren iztegia Editorial Vasca'k du (Bilbao'-koak). "Tipograph" izenezko makina beŕia seŕia ekartzekoa dute, ta aren bidez, laisteŕ botako dute. Nik A ta B bialduak ditut, dena neronek idatzi-beaŕa ta garbitara aldatu-beaŕa baita. Orainarte ez didate argitara-gairik bialdu, irart-okeŕak ere nik zuzendu-beaŕak baitira.

Sarobe, Korta biak, Goenaga biak, Laŕañaga, Ibinaga, t. a., egin lan eta baitipat (batez ere) egin otoitz auŕera ere, euskerak burua yaso dezan eta gure eŕiak Yainkoa maite dezan.

Zuen guzi on menpeko

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK
ACUERDOS Y ACTAS DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
RESOLUTIONS ET ACTES DE L'ACADEMIE ROYALE DE LA LANGUE BASQUE

ADITZ SINTETIKOA

EUSKALTZAINDIAREN BILERA BEREZIA

Donostiako Diputazioaren jauregian bildurik 1977-garreneko abuztuaren 26-an Aita Villasante euskaltzainburua, Haritschelhar buruordea, Davant, Lafitte, Larre, Iratzeder, Mitxelena, Knörr, Satrustegi, Irigoyen eta San Martin euskaltzain jaunak eta Berriatua, Kintana, Intxausti eta Txillardegi laguntzaile eta aditz batzordeko jaunak, eta, baita Letamendia, Muxika, Zearreta eta Lizundia laguntzaile jaunak ere, prestatu den eta esku artean duten aditz sintetikoaren bildumari Euskaltzaindiaren baietza emateaz eta berea bezala aitortzeaz iharduteko, azken oharrak egin ondoan botoetara jotzea erabaki da.

Jean Hiriart Urruty-k Haritschelharri eman dio boterea eta P. Larzabal-ek ere bai.

Honela atera da: 13 boto baietz eta 0 ezetz. Ontzat hartua gelditu da.



EGON

I. 1	nago	nagoke	nagoen	banago	(nagoen)
	hago	hagoke	hagoen	bahago	hago
	dago	dagoke	dagoen	badago	bego
	gaude	gaudeke	gauden	bagaude	(gauden)
	zaude	zaudeke	zauden	bazaude	zaude
	zaudete	zaudekete	zaudeten	bazaudete	zaudete
	daude (1)	daudeke (1)	dauden	badaude	beude
	nengoen	nengoke	nengokeen	banengo	
	hengoen	hengoke	hengokeen	bahengo	
	zegoen	legoke	zegokeen	balego	
	geunden	geundeke	geundekeen	bageunde	
	zeunden	zeundeke	zeundekeen	bazeunde	
	zeundeten	zeundekete	zeundeketen	bazeundete	
	zeuden (2)	leudeke	zeudekeen	baleude	

I. 2	.....	.....	.....	.....
	nagokik/-kin	nagokiake/-kinake	nagokian/-kinan	banagokik/-kin
	nagokio	nagokioke	nagokion	banagokio
	.....	.....	.....	.....
	nagokizu	nagokizuke	nagokizun	banagokizu
	nagokizue	nagokizueke	nagokizuen	banagokizue
	nagokie	nagokieke	nagokien	banagokie
	hagokit	hagokidake	hagokidan	bahagokit
	.....	.....	.....	.....
	hagokio	hagokioke	hagokion	bahagokio
	hagokigu	hagokiguke	hagokigun	bahagokigu
	.....	.....	.....	.....
	.....	.....	.....	.....
	hagokie	hagokieke	hagokien	bahagokie
	dagokit	dagokidake	dagokidan	badagokit
	dagokik/-kin	dagokiake/-kinake	dagokian/-kinan	badagokik/-kin
	dagokio	dagokioke	dagokion	badagokio
	dagokigu	dagokiguke	dagokigun	badagokigu
	dagokizu	dagokizuke	dagokizun	badagokizu
	dagokizue	dagokizueke	dagokizuen	badagokizue
	dagokie	dagokieke	dagokien	badagokie

(1) *gagoz-, zagoz- -te, dagoz-* datiboa hartzen dutenerako soilik onhartzen dira: hots, *gagozkio, zagozkit, zagozkiote, dagozkizu* eta abarretarako.

(2) *gengoz-, zengoz-, zengoz- -te, zegoz-* azkenburuan *-(e)n* dutelarik, noski, datiboa hartzen dutenerako soilik onhartzen dira: hots, *zengozkion, zengozkidan, zengozkieten, zegozkian* eta abarretarako.

.....	.....	.....	.....
gagozkik/-kin	gagozkiake/-kinake	gagozkian/-kinan	bagagozkik/-kin
gagozkio	gagozkioke	gagozkion	bagagozkio
.....	.....	.....	.....
gagozkizu	gagozkizuke	gagozkizun	bagagozkizu
gagozkizue	gagozkizueke	gagozkizuen	bagagozkizue
gagozkie	gagozkieke	gagozkien	bagagozkie

zagozkit	zagozkidake	zagozkidan	bazagozkit
.....	.....	.....	.....
zagozkio	zagozkioke	zagozkion	bazagozkio
zagozkigu	zagozkiguke	zagozkigun	bazagozkigu
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
zagozkie	zagozkieke	zagozkien	bazagozkie

zagozkidate	zagozkidakete	zagozkidaten	bazagozkidate
.....	.....	.....	.....
zagozkiote	zagozkiokete	zagozkioten	bazagozkiote
zagozkigute	zagozkigukete	zagozkiguten	bazagozkigute
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
zagozkiete	zagozkiekete	zagozkieten	bazagozkiete

dagozkit	dagozkidake	dagozkidan	badagozkit
dagozkik/-kin	dagozkiake/-kinake	dagozkian/-kinan	badagozkik/-kin
dagozkio	dagozkioke	dagozkion	badagozkio
dagozkigu	dagozkiguke	dagozkigun	badagozkigu
dagozkizu	dagozkizuke	dagozkizun	badagozkizu
dagozkizue	dagozkizueke	dagozkizuen	badagozkizue
dagozkie	dagozkieke	dagozkien	badagozkie

I. 3

hagokit
.....
hagokio
hagokigu
.....
.....
hagokie

begokit
begokik/-kin
begokio
begokigu
begokizu
begokizue
begokie

zagozkit
.....
zagozkio
zagozkigu
.....
.....
zagozkie

zagozkidate
.....
zagozkiote
zagozkigute
.....
zagozkiete

begozkit
begozkik/-kin
begozkio
begozkigu
begozkizu
begozkizue
begozkie

I. 4	.....	.....	.....	.....
	nengokian/-kinan	nengokiake/-kinake	nengokiakeen/-kinakeen	banengokik/-kin
	nengokion	nengokioke	nengokiokeen	banengokio
	.....	.....	.....	.....
	nengokizun	nengokizuke	nengokizukeen	banengokizu
	nengokizuen	nengokizueke	nengokizuekeen	banengokizue
	nengokien	nengokieke	nengokiekeen	banengokie
	hengokidan	hengokidake	hengokidakeen	bahengokit
	.....	.....	.....	.....
	hengokion	hengokioke	hengokiokeen	bahengokio
	hengokigun	hengokiguke	hengokigukeen	
	.....	.....	.....	.....
	.....	.....	.....	.....
	hengokien	hengokieke	hengokiekeen	bahengokie
	zegokidan	legokidake	zegokidakeen	balegokit
	zegokian/-kinan	legokiake/-kinake	zegokiakeen/-kinakeen	balegokik/-kin
	zegokion	legokioke	zegokiokeen	balegokio
	zegokigun	legokiguke	zegokigukeen	balegokigu
	zegokizun	legokizuke	zegokizukeen	balegokizu
	zegokizuen	legokizueke	zegokizuekeen	balegokizue
	zegokien	legokieke	zegokiekeen	balegokie
	.....	.....	.....	.....
	gengozkian-kinan	gengozkiake-kinake	gengozkiakeen/-kinakeen	bagengozkik/-kin
	gengozkion	gengozkioke	gengozkiokeen	bagengozkio
	.....	.....	.....	.....
	gengozkizun	gengozkizuke	gengozkizukeen	bagengozkizu
	gengozkizuen	gengozkizueke	gengozkizuekeen	bagengozkizue
	gengozkien	gengozkieke	gengozkiekeen	bagengozkie
	zengozkidan	zengozkidake	zengozkidakeen	bazengozkit
	.....	.....	.....	.....
	zengozkion	zengozkioke	zengozkiokeen	bazengozkio
	zengozkigun	zengozkiguke	zengozkigukeen	bazengozkigu
	.....	.....	.....	.....
	.....	.....	.....	.....
	zengozkien	zengozkieke	zengozkiekeen	bazengozkie

zengozkidaten	zengozkidakete	zengozkidaketen	bazengozkidate
.....	.....	.....	.....
zengozkioten	zengozkiokete	zengozkioketen	bazengozkiote
zengozkiguten	zengozkigukete	zengozkiguketen	bazengozkigukete
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
zengozkieten	zengozkiekete	zengozkieketen	bazengozkiete

zegozkidan	legozkidake	zegozkidakeen	balegozkit
zegozkian/-kinan	legozkiake/-kinake	zegozkiakeen/-kinakeen	balegozkik/-kin
zegozkion	legozkioke	zegozkiokeen	balegozkio
zegozkigun	legozkiguke	zegozkigukeen	balegozkigu
zegozkizun	legozkizuke	zegozkizukeen	balegozkizu
zegozkizuen	legozkizueke	zegozkizuekeen	balegozkizue
zegozkien	legozkieke	zegozkiekeen	balegozkie

JOAN

II. 1	noa	noake	noan	banoa	(noan)
	hoa	hoake	hoan	bahoa	hoa
	doa	doake	doan	badoa	bihoa
	goaz	goazke	goazen	bagoaz	(goazen)
	zoaz	zoazke	zoazen	bazoaz	zoaz
	zoazte	zoazkete	zoazten	bazoazte	zoazte
	doaz	doazke	doazen	badoaz	bihoaz
	nindoan	nindoake	nindoakeen	banindoa	
	hindoan	hindoake	hindoakeen	bahindoa	
	zihoan	lihoake	zihoakeen	balihoa	
	gindoazen	gindoazke	gindoazkeen	bagindoaz	
	zindoazen	zindoazke	zindoazkeen	bazindoaz	
	zindoazten	zindoazkete	zindoazketen	bazindoazte	
	zihoazen	lihoazke	zihoazkeen	balihoaz	

II. 2	.....	.....	.....	
	noakik/-kin	noakiake/-kinake	noakian/-kinan	banoakik/-kin
	noakio	noakioke	noakion	banoakio
	.....	.....	.....	.....
	noakizu	noakizuke	noakizun	banoakizu
	noakizue	noakizueke	noakizuen	banoakizue
	noakie	noakieke	noakien	banoakie
	hoakit	hoakidake	hoakidan	bahoakit
	.....	.....	.....	.....
	hoakio	hoakioke	hoakion	bahoakio
	hoakigu	hoakiguke	hoakigun	bahoakigu
	.....	.....	.....	.....
	.....	.....	.....	.....
	hoakie	hoakieke	hoakien	bahoakie
	dihoakit	dihoakidake	dihoakidan	badihoakit
	dihoakik/-kin	dihoakiake/-kinake	dihoakian/-kinan	badihoakik/-kin
	dihoakio	dihoakioke	dihoakion	badihoakio
	dihoakigu	dihoakiguke	dihoakigun	badihoakigu
	dihoakizu	dihoakizuke	dihoakizun	badihoakizu
	dihoakizue	dihoakizueke	dihoakizuen	badihoakizue
	dihoakie	dihoakieke	dihoakien	badihoakie
	doakit	doakidake	doakidan	badoakit
	doakik/-kin	doakiake/-kinake	doakian/-kinan	badoakik/-kin
	doakio	doakioke	doakion	badoakio
	doakigu	doakiguke	doakigun	badoakigu
	doakizu	doakizuke	doakizun	badoakizu
	doakizue	doakizueke	doakizuen	badoakizue
	doakie (3)	doakieke	doakien	badoakie

.....	.....	.....	.....
goazkik/-kin	goazkiake/-kinake	goazkian/-kinan	bagoazkik/-kin
goazkio	goazkioke	goazkion	bagoazkio
.....	.....	.....	.....
goazkizu	goazkizuke	goazkizun	bagoazkizu
goazkizue	goazkizueke	goazkizuen	bagoazkizue
goazkie	goazkieke	goazkien	bagoazkie
zoazkit	zoazkidake	zoazkidan	bazoazkit
.....	.....	.....	.....
zoazkio	zoazkioke	zoazkion	bazoazkio
zoazkigu	zoazkiguke	zoazkigun	bazoazkigu
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
zoazkie	zoazkieke	zoazkien	bazoazkie
zoazkidate	zoazkidakete	zoazkidaten	bazoazkidate
.....	.....	.....	.....
zoazkiote	zoazkiokete	zoazkioten	bazoazkiote
zoazkigute	zoazkigukete	zoazkiguten	bazoazkigute
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
zoazkiete	zoazkiekete	zoazkieten	bazoazkiete
dihoazkit	dihoazkidake	dihoazkidan	badihoazkit
dihoazkik/-kin	dihoazkiake/-kinake	dihoazkian/-kinan	badihoazkik/-kin
dihoazkio	dihoazkioke	dihoazkion	badihoazkio
dihoazkigu	dihoazkiguke	dihoazkigun	badihoazkigu
dihoazkizu	dihoazkizuke	dihoazkizun	badihoazkizu
dihoazkizue	dihoazkizueke	dihoazkizuen	badihoazkizue
dihoazkie	dihoazkieke	dihoazkien	badihoazkie
doazkit	doazkidake	doazkidan	badoazkit
doazkik/-kin	doazkiake/-kinake	doazkian/-kinan	badoazkik/-kin
doazkio	doazkioke	doazkion	badoazkio
doazkigu	doazkiguke	doazkigun	badoazkigu
doazkizu	doazkizuke	doazkizun	badoazkizu
doazkizue	doazkizueke	doazkizuen	badoazkizue
doazkie (3)	doazkieke	doazkien	badoazkie

II. 3

hoakit	
.....	
hoakio	
hoakigu	
.....	
.....	
hoakie	
bihoakit	
bihoakik/-kin	
bihoakio	
bihoakigu	
bihoakizu	
bihoakizue	
bihoakie	

(3) Beraz, hirugarren pertsonetarako, bai *dihoakit* eta *dihoazkit*, bai *doakit* eta *doazkit* gisakoak ere ontzat ematen dira.

zoazkit
.....
zoazkio
zoazkigu
.....
.....
zoazkie

zoazkidate
.....
zoazkiote
zoazkigute
.....
.....
zoazkiete

bihoazkit
bihoazkik/-kin
bihoazkio
bihoazkigu
bihoazkizu
bihoazkizue
bihoazkie

II. 4

.....	.....	.....	.....
nindoakian/-kinan	nindoakiake/-kinake	nindoakiakeen/-kinakeen	banindoakik/-kin
nindoakion	nindoakioke	nindoakiokeen	banindoakio
.....	.....	.....	.....
nindoakizun	nindoakizuke	nindoakizukeen	banindoakizu
nindoakizuen	nindoakizueke	nindoakizuekeen	banindoakizue
nindoakien	nindoakieke	nindoakiekeen	banindoakie

hindoakidan	hindoakidake	hindoakidakeen	bahindoakit
.....	.....	.....	.....
hindoakion	hindoakioke	hindoakiokeen	bahindoakio
hindoakigun	hindoakiguke	hindoakigukeen	bahindoakigu
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
hindoakien	hindoakieke	hindoakiekeen	bahindoakie

zihoakidan	lihoakidake	zihoakidakeen	balihoakit
zihoakian/-kinan	lihoakiake/-kinake	zihoakiakeen/-kinakeen	balihoakik/-kin
zihoakion	lihoakioke	zihoakiokeen	balihoakio
zihoakigun	lihoakiguke	zihoakigukeen	balihoakigu
zihoakizun	lihoakizuke	zihoakizukeen	balihoakizu
zihoakizuen	lihoakizueke	zihoakizuekeen	balihoakizue
zihoakien	lihoakieke	zihoakiekeen	balihoakie

.....	.....	.....	.....
gindoazkian/-kinan	gindoazkiake/-kinake	gindoazkiakeen/-kinakeen	bagindoazkik/-kin
gindoazkion	gindoazkioke	gindoazkiokeen	bagindoazkio
.....	.....	.....	.....
gindoazkizun	gindoazkizuke	gindoazkizukeen	bagindoazkizu
gindoazkizuen	gindoazkizueke	gindoazkizuekeen	bagindoazkizue
gindoazkien	gindoazkieke	gindoazkiekeen	bagindoazkie

zindoazkidan	zindoazkidake	zindoazkidakeen	bazindoazkit
.....	.....	.....	.....
zindoazkion	zindoazkioke	zindoazkiokeen	bazindoazkio
zindoazkigun	zindoazkiguke	zindoazkigukeen	bazindoazkigu
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
zindoazkien	zindoazkieke	zindoazkiekeen	bazindoazkie
zindoazkidaten	zindozkidakete	zindoazkidaketen	bazindoazkidate
.....	.....	.....	.....
zindoazkioten	zindoazkiokete	zindoazkioketen	bazindoazkiote
zindoazkiguten	zindoazkigukete	zindoazkiguketen	bazindoazkigute
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
zindoazkieten	zindoazkiekete	zindoazkieketen	bazindoazkiete
zihoazkidan	lihoazkidake	zihoazkidakeen	balihoazkit
zihoazkian/-kinan	lihoazkiake/-kinake	zihoazkiakeen/-kinakeen	balihoazkik/-kin
zihoazkion	lihoazkioke	zihoazkiokeen	balihoazkio
zihoazkigun	lihoazkiguke	zihoazkigukeen	balihoazkigu
zihoazkizun	lihoazkizuke	zihoazkizukeen	balihoazkizu
zihoazkizuen	lihoazkizueke	zihoazkizuekeen	balihoazkizue
zihoazkien	lihoazkieke	zihoazkiekeen	balihoazkie

ETORRI

III. 1					
	nator	natorke	natorren	banator	(natorren)
	hator	hatorke	hatorren	bahator	hator
	dator	datorke	datorren	badator	betor
	gatoz	gatozke	gatozen	bagatoz	(gatozen)
	zatoz	zatozke	zatozen	bazatoz	zatoz
	zatozte	zatozkete	zatozten	bazatozte	zatozte
	datoz	datozke	datozen	badatoz	betoz
	nentorren	nentorke	nentorkeen	banentor	
	hentorren	hentorke	hentorkeen	bahentor	
	zetorren	letorke	zetorkeen	baletor	
	gentozen	gentozke	gentozkeen	bagentoz	
	zentozen	zentozke	zentozkeen	bazentoz	
	zentozten	zentozkete	zentozketen	bazentozte	
	zetozen	letozke	zetozkeen	baletoz	

III. 2				
	.....	.....	.....	.....
	natorkik/-kin	natorkiake/-kinake	natorkian/-kinan	banatorkik/-kin
	natorkio	natorkioke	natorkion	banatorkio
	.....	.....	.....	.....
	natorkizu	natorkizuke	natorkizun	banatorkizu
	natorkizue	natorkizueke	natorkizuen	banatorkizue
	natorkie	natorkieke	natorkien	banatorkie
	hatorkit	hatorkidake	hatorkidan	bahatorkit
	.....	.....	.....	.....
	hatorkio	hatorkioke	hatorkion	bahatorkio
	hatorkigu	hatorkiguke	hatorkigun	bahatorkigu
	.....	.....	.....	.....
	.....	.....	.....	.....
	hatorkie	hatorkieke	hatorkien	bahatorkie
	datorkit	datorkidake	datorkidan	badatorkit
	datorkik/-kin	datorkiake/-kinake	datorkian/-kinan	badatorkik/-kin
	datorkio	datorkioke	datorkion	badatorkio
	datorkigu	datorkiguke	datorkigun	badatorkigu
	datorkizu	datorkizuke	datorkizun	badatorkizu
	datorkizue	datorkizueke	datorkizuen	badatorkizue
	datorkie	datorkieke	datorkien	badatorkie
	.....	.....	.....	.....
	gatozkik/-kin	gatozkiake/-kinake	gatozkian/-kinan	bagatozkik/-kin
	gatozkio	gatozkioke	gatozkion	bagatozkio
	.....	.....	.....	.....
	gatozkizu	gatozkizuke	gatozkizun	bagatozkizu
Ikus Leizarragaren *erakutsak, erakutsazue, erakustazue...* Eta Oihenarten "Begira etzak jai egunak, Elizak *derakuskunak*" (183).

ERAUNTSI

Ikus Leizarragaren "Hegoak *drauntsanean*" (Lk 12, 55), "Bere bulharrari *zerauntson*" (Lk 18, 13), "Bere buruari harriz *zerauntsala* (Mk 5, 5), "Zihor ukaldiz *zerauntsaten*" (Jn 19, 3), "Aireari *banerauntsa* bezala" (1 Kor 9, 26). Eta Axularren "Ateak ateari *darauntsanean*" (29), "Harri bati kolpeka *darauntsanak...*" (198).

Eta Oihenarten "Zeinuak *derauntsano*, zintzarrotsak joralterano": Atsotitzak, 433).

Hona, beraz, eredu gisa:

.....				
.....				
darauntso	zerauntson	baleraunto	lerauntsoke	berauntso (1)
.....				
.....				
.....				
darauntse	zerauntsen	baleraunte	lerauntseke	berauntse
.....				
.....				
derauntsote	zerauntsoten	baleraunsote	lerauntsokete	berauntsote
.....				
.....				
.....				
derauntsete	zerauntseten	baleraunsete	lerauntsekete	berauntsete

(1) Forma biak ontzat ematen dira: darauntso/-a, derauntsote/derauntsate.

EROAN

daroat	neroan	neroake	.....
daroak/-n	heroan	heroake	eroak/-n
daroa	zeroan	leroake	beroa
daroagu	generoan	generoake	.....
daroazu	zeneroan	zeneroake	eroazu
daroazue	zeneroaten	zeneroakete	eroazue
daroate	zeroaten	leroakete	beroate
daroatzat	neroatzan	neroazke	.....
daroatzak/-n	heroatzan	heroazke	eroaitzak/-n
daroatza	zeroatzan	leroazke	beroatza
daroatzagu	generoatzan	generoazke	.....
daroatzazu	zeneroatzan	zeneroazke	eroaitzazu
daroatzazue	zeneroatzaten	zeneroazkete	eroaitzazue
daroatzate	zeroatzaten	leroazkete	beroatzate

("Egin daroa") eta horien antzekoak "egin ohi da" adierazteko, bizkaitarrek diotenez esateko batipat.

IHARDUN

dihardut	niharduen	banihardu	niharduke	.....
diharduk/-n	hiharduen	bahihardu	hiharduke	iharduk/-n
dihardu	ziharduen	balihardu	liharduke	bihardu
dihardugu	geniharduen	bagenihardu	geniharduke	.....
diharduzu	zeniharduen	bazenihardu	zeniharduke	iharduzu
diharduzue	zeniharduten	bazenihardute	zeniharduketa	iharduzue
dihardute	ziharduten	balihardute	lihardukete	bihardute

IHARDUKI

dihardukat	nihardukan	baniharduka	nihardukake	.....
dihardukak/-n	hihardukan	bahiharduka	hihardukake	ihardukak/-n
diharduka	zihardukan	baliharduka	lihardukake	biharduka
dihardukagu	genihardukan	bageniharduka	genihardukake	.....
dihardukazu	zenihardukan	bazeniharduka	zenihardukake	ihardukazu
dihardukazue	zenihardukaten	bazenihardukate	zenihardukakete	ihardukazue
dihardukate	zihardukaten	balihardukate	lihardukakete	bihardukate

IRAUN

diraut	nirauen	banirau	nirauke	.....
dirauk/-n	hirauen	bahirau	hirauke	irauk/-n
dirau	zirauen	balirau	lirauke	birau
diraugu	genirauen	bagenirau	genirauke	.....
dirauzu	zenirauen	bazenirau	zenirauke	irauzu
dirauzue	zenirauten	bazeniraute	zeniraukete	irauzue
diraute	zirauten	baliraute	liraukete	biraute

IRUDI

dirudit	nirudien	banirudi	nirudike	.....
dirudik/-n	hirudien	bahirudi	hirudike	irudik/-n
dirudi	zirudien	balirudi	lirudike	birudi
dirudigu	genirudien	bagenirudi	genirudike	.....
dirudizu	zenirudien	bazenirudi	zenirudike	irudizu
dirudizue	zeniruditen	bazenirudite	zenirudikete	irudizue
dirudite	ziruditen	balirudite	lirudikete	birudite

EMAN

demadan
emak/-n
bema
demagun
emazu
emazue
bemate

.....
emadak/-n
bemakit
.....
emadazu
emadazue
bemakidate

.....
.....
bemakik/-n
.....
.....
.....
bemakiate/-kinate

.....
emaiok/-n
bemakio
.....
emaiozu
emaiozue
bemakiote

.....
emaguk/-n
bemakigu
.....
emaguzu
emaguzue
bemakigute

.....
.....
bemakizu
.....
.....
.....
bemakizute

dematzadan
emaitzak/-n
bematza
dematzagun
emaitzazu
emaitzazue
bematzate

.....
emazkidak/-n
bemazkit
.....
emazkidazu
emazkidazue
bemazkidate

.....
.....
bemazkik/-n
.....
.....
.....
bemazkiate/-kinate

.....
emazkiok/-n
bemazkio
.....
emazkiozu
emazkiozue
bemazkiote

.....
emazkiguk/-n
bemazkigu
.....
emazkiguzu
emazkiguzue
bemazkigute

.....
.....
bemazkizu
.....
.....
.....
bemazkizute

.....
.....
bemakizue
.....
.....
.....
bemakizuete

.....
emaiek/-n
bemakie
.....
emaiezu
emaiezue
bemakiete

.....
.....
bemazkizue
.....
.....
.....
bemazkizuete

.....
emazkiek/-n
bemazkie
.....
emazkiezu
emazkiezue
bemazkiete

IHARDETSI

.....	.....
ihardetsak/-n	ihardets itzak/-n
.....	.....
ihardetsazu	ihardets itzazu
ihardetsazue	ihardets itzazue
.....	.....
ihardestak/-n	ihardetsazkidak/-n
.....	.....
ihardestazu	ihardetsazkidazu
ihardestazue	ihardetsazkidazue
.....	.....
ihardetsiok/-n	ihardetsazkiok/-n
.....	.....
ihardetsiozu	ihardetsazkiozu
ihardetsiozue	ihardetsazkiozue
.....	.....
ihardeskuk/-n	ihardetsazkiguk/-n
.....	.....
ihardeskuzu	ihardetsazkiguzu
ihardeskuzue	ihardetsazkiguzue
.....	.....
ihardetsiek/-n	ihardetsazkiek/-n
.....	.....
ihardetsiezu	ihardetsazkiezu
ihardetsiezue	ihardetsazkiezue

EROSI

.....
erosak/-n

.....
erosazu
erosazue

.....
erostak/-n

.....
erostazu
erostazue

.....
erosiok/-n

.....
erosiozu
erosiozue

.....
eroskuk/-n

.....
eroskuzu
eroskuzue

.....
erosiek-n

.....
erosiezu
erosiezue

.....
eros itzak/-n

.....
eros itzazu
eros itzazue

.....
erosazkidak/-n

.....
erosazkidazu
erosazkidazue

.....
erosazkiok/-n

.....
erosazkiozu
erosazkiozue

.....
erosazkiguk/-n

.....
erosazkiguzu
erosazkiguzue

.....
erosazkiek/-n

.....
erosazkiezu
erosazkiezue

IGORRI

.....	.....
igork/-na	igor itzak/-n
.....	.....
igorzu	igor itzazu
igorzue	igor itzazue
.....	.....
igordak/-n	igorzkidak/-n
.....	.....
igordazu	igorzkidazu
igordazue	igorzkidazue
.....	.....
igorriok/-n	igorzkiok/-n
.....	.....
igorriozu	igorzkiozu
igorriozue	igorzkiozue
.....	.....
igorguk/-n	igorzkiguk/-n
.....	.....
igorguzu	igorzkiguzu
igorguzue	igorzkiguzue
.....	.....
igorriek/-n	igorzkiek/-n
.....	.....
igorriezu	igorzkiezu
igorriezue	igorzkiezue

UTZI

.....
utzak/-n

.....
utzazu
utzazue

.....
uztak/-n

.....
uztazu
uztazue

.....
utziok/-n

.....
utziozu
utziozue

.....
uzkuk/-n

.....
uzkuzu
uzkuzue

.....
utziek/-n

.....
utziezu
utziezue

.....
utz itzak/-n

.....
utz itzazu
utz itzazue

.....
utzazkidak/-n

.....
utzazkidazu
utzazkidazue

.....
utzazkiok/-n

.....
utzazkiozu
utzazkiozue

.....
utzazkiguk/-n

.....
utzazkiguzu
utzazkiguzue

.....
utzazkiek/-n

.....
utzazkiezu
utzazkiezue

-IRO

dirot	niro	niroen
dirok/-n	hiro	hiroen
diro	liro	ziroen
dirogu	geniro	geniroen
dirozu	zeniro	zeniroen
dirozue	zenirote	zeniroten
dirote	lirote	ziroten

BESTE ZENBAIT ADITZ

Euskal literaturan zehar beste zenbait aditz ere agertzen da forma sintetiko duenik. Aski ez-ezagunak direlako, ordea, eta beren formak oso gutxi agertzen direlako, ez ditugu paradigmak osatu izan, hau Euskaltzaindiaren egitekoa ez baizik gehienez ere gramatikalarien eta euskal idazleena dela iruditzen zaigulako.

Halaz ere, zenbaiten formak, literaturan agertzen direnak, hemen ipintzea erabaki dugu, idazleak nahiz ikasleak jakin dezan nola erabili behar diren.

IZEKI: *Beti zizekan sua* (Lardizabal, Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira, 327-20).

ERAGON: Daragoiot, daragoiok, daragoion, daragoio, daragoiogu, daragoiozu, daragoiozue, daragoioe (Azkue, *Morfologia,* 699). *Edurrari badaragoio (Azkue, Hiztegia). Lanen bateri badaragoiozu* (Añibarro, *Eskuliburua,* 46).

ERASI (EDASI): *Zer ere zugati, nigati bailedaske izterbegiak* (Oihenart, Neurtitzak, 156). Dadasa, dadasate, zadasaten (Leizarraga). *Gurdi kargatuak badarasa* (Axular, Gero, 278).

JAIKI: Horeki datzana daika kukusoeki (Oihenart, Atsotitzak, 882). *Haik* (Axular, Gero).

ERORI: *Thu etxatua zeruan gora, begithartera derora (Oihenart, Atsotitzak, 673) Esteiari izan denari bethi ere, on derorkona hanitz zaio, apur badere* (Oihenart, Atsotitzak, 692).

JAITSI: *Hiri gaitza eztuk net gaitza, hire auzoaren beharrira ezpadaitsa* (Oihenart, Atsotitzak, 239). *Buru ederreko adatsa, laxurik baderatza, ba daitso gerrirano, urhe izpiz aberatsa* (Oihenart, Neurtitzak, 137). *Haitsa* (Leizarraga).

IHARDETSI: *Herenak zihardetsan* (Oihenart, Neurtitzak, 248). *Ihardestazue* (Leizarraga).

ERAUTSI: Diraustazu, dirautsut (Peru Abarka, 68). *Ao batez diraus-kue* (Añibarro, Eskuliburua, 6. Zirautsela (Astarloa, Urteko domekak, 11).

IGORRI: *Hark nigorra, hunen zuri erraitera* (Oihenart, Neurtitzak, 191).

EROSI: *Garaziren gaitza Behorlegik derosa* (Oihenart, Atsotitzak, 180). Erosazue (Leizarraga).

IN (EMAN): *Jainkoak didala behazale bezala adizale* (Oihenart, Atsotitzak, 635). Dit, digu, dizue, deie, deiegu, deiezue, lit, ligu, indak, indan, iguk, eiek, indazue, iguzue, eiezue (Leizarraga). Idak, idan, idazu, idazue (Ithurry, Lafitte). Bitara agertzen dira, dakusazunez: *idazu/indazu...* Guk *-n-* gabeak hobesten ditugu, erregulartasuna dela eta.

IDOKI: *Etxoiloak basoiloa zedokan* (Oihenart, Atsotitzak, 172). *Hipokrita, idokak lehenik gaphirioa eure begitik* (Leizarraga).

EBAKI: *Ganibet berbatek debaka ogia eta erhia* (Oihenart, Atsotitzak, 179).

ERAHATZI: *Gaitza gaitzagoak derahatza* (Oihenart, Atsotitzak, 174).

ETSI: *Otsoak zer baitetsa, otsemak donhetsa* (Oihenart, Atsotitzak, 390). Jainkoak bailetsa... Ailetsa *Jainkoak, hobeak zintezten!*

ERATZAN: Zerk aratza lo? (Ax.), *berzek besoan daratza* (Etxap.) *Buru ederreko adatsa, laxurik baderatza* (Oihenart, Neurtitzak, 137).

IKUZI: *Esku batak dikuzke bertzea, biek begitartea* (Oihenart, Atsotitzak 157).

IMINI/IPINI: Daminda sabela betez, (RS, 99)

JAUGIN: *Herioa dauginean* (Etxap.), *daugin astean* (Zub), *haugi hona, zindiaurizan* (Tartas).

IRAGAN/IGARO: *Digaran artean ez urtegati gasorik esan* (RS, 231).

EUSKERAREN BATASUNARI BURUZKO BATZARREA PRESTATZEAZ

1977 - VII - 29

Fr. L. Villasante

Euskaltzaindiko jaunak:

Arantzazuko batzarrea, euskeraren batasunari buruzkoa, 1968an egin zen. Hango erabakiak hartu zirenean esan zen hamar urtetako epe bat behar zela eman esperimendu gisa, eta hamar urte hoiek igarotakoan beharko zela beste batzarre bat egin esperientzia hunen balantzea egiteko, eta balantze horren arabera euskeraren etorkizunerako on irudituko dena erabakitzeko.

Hamar urteon atarian gaude. Eta Euskaltzaindiaren Zuzendaritza 1977ko uztailaren 14ean bildu da batzarre horren antolaketaz tratatzeko.

Ikusirik, alde batetik, datorren urtea Eleizalde-tar Koldobikaren jaiotzako ehun-urte-burua dela, eta jaun hori izan zela presiski Oinatiko Batzarrean —1918koan— euskeraren batasunaren hauzi hau planteatu zuena, pentsatu da jaun haren omenez eta Bergaren datorren urteko batzarre hori egitea.

Beste aldetik, berriz, hurrengo urtea —1979koa— Altubetar Seber jaunaren ehun-urte-muga ere bada. Jaun horren omenez beste Batzarre bat egingo litzateke Arrasaten urte horretan. Arrasateko Batzarrerako utziko lirateke euskal gramatikako gaiak.

Eleizalderen urteburuko Batzarrean, aldiz, zuzen-zuzenean euskeraren batasunaz zer-ikusi dutenak sartuko dira.

* * *

Orai bada Batzarre hunen antolamena egiteko azpi egitura bat jarri behar da. Batzorde batzuk jarri beharko dira, alegia, lanean has daitezen. Nik proposamen gisa dakart hunera aurre poriekto hau, Zuzendaritzako bilera horretan esan zirenak jasoz.

Zernahi gisaz, Batzarrearen Barne-Erregelak edo Erreglamentua ere egin beharko da, prozedura legeak aldez aurretik jarriz.

Batzarrearen hizkuntza ofiziala euskera soil-soilik izango da. Horrek ez du esan nahi arrotzen bat baletor gai berezi batekin, beste hizkuntza batez mintzatzea utziko ez zaionik.

Batzarrean erabiliko den hizkuntza arazoak badu, ene ustez, lehen kolpean ematen duen baino pisu handiagoa. Sarri gertatu da gure artean erdera besterik erabiltzen ez dutenek euskal gauzetan epaia eman nahi izatea. Hori ez da bidezkoa. Gainera jaun hoiek gehienetan euskerari kanpotik xoilki begiratzen diote, eta euskeraren barneko gauzak euskeraren barnean dagoenak bakarrik ikusten ditu ongi. Hori kontuan hartu ez delako zenbat problema, sasi problema eta oker-aditu ez zaizkigu sortu euskeraren alorrean! Ordua da hunako huntaz kontura gaitezen: euskeraren gauzetan —barneko gauzetan esan nahi dut— euskeraren semeek bakarrik dutela hitza. Zer esango genuke frantsesaren barneko hauziak erabakitzea espainolen edo alemanen menean balego? Horrekin ez dut deus, bistan da, euskaldun berriaren kontra. Euskaldun berria, euskaldundu baldin bada, euskaldun baita, besteak bezalaxe, baina euskerari buruz beti erderaz ari direnak ez dira gehienetan hauzi hauetan haintzat hartzekoak, zeren hauzi hauk euskeraren barnekoak baitira.

Batzarrean ponentziak egongo dira, aldez aurretik enkargatuak, noski. Hoietaz landara komunikazioak ere hartu ahal izango dira, eta Kongresuaren burugoak erabakiko du hoietaz zer egin. Beraz, ez da Forum bat izango, Kongresu bat baizik.

Kongresua, esan dugun bezala, Bergaran egingo da. Egunak ere hautatu dira: 1978ko irailaren 4ean hasi eta ondoko lau egunak.

Batzarrerako deia egingo zaie: a) Euskaltzaindiko guztiei, b) euskal idazleei, c) Ikastoletako irakasleei, Alfabetatze-euskalduntzeko irakasle, Unibertsitate inguruetako euskal katedradun edo euskal irakasleei, komunikabideetakoei; d)

Hoietaz landara entzule gisa nahi duten guztiek izango dute etortzeko eskubidea.

So egile edo gomitatu bezala deituak izango dira euskal kultur erakundeak eta baita politikoak ere, eta Diputazioen ordezkariak, noski.

* * *

Orai, berriz, lan batzordeak izendatu behar dira, prestamenak egiten has daitezen.

Zuzendaritzako bilkura hartan esan zen bezala, hiru batzorde behar dira: 1) Hizkuntz batzordea, 2) Soziologi eta Estadistika batzordea, eta 3) Antolakizun batzordea.

Batzorde hoietako bakoitzak badu bere zeregin propioa: 1) Hizkuntz batzordeari dagokio orai arteko batasun arauak biltzea, birrikustea eta osatzea. 2) Soziologi eta Estadistika batzordeak batasun arazoa ukituko du, baina estadistika edo inkesta aldetik. Alderdi hunek garrantzi handia du hemen, zeren esperimendu gisa hamar urteren epea jarri baldin bazen, hori izan zen hamar urte hoien buruan egindako lanak —bai literaturan, bai aldizkarietan, ikastoletan eta abar— bil eta azter zitezen. Batasun joerak herrian izan duen harrera, fruitu onak eta txarrak, dena beharko da neurtu eta kontutan hartu. Azterketa hunek garrantzirik handiena du batzarre huntan, bada.

3) Antolakizun batzordea Batzarrearen organizazio teknikoaz arduratuko da.

Batzorde bakoitzaren buru euskaltzain oso bat izanen da.

Huna hemen lehen batzorderako —Hizkuntz batzorderako— Zuzendaritzak proposatzen dituen jaunak: Luis Mitxelena, Jean Haritschelhar, Pierre Lafitte, Alfonso Irigoien, Ibon Sarasola, Lino Akesolo, Josu Oregi, Xabier Kintana, Luis M.ª Mugika eta J. A. Letamendia. Batzorde buru: Luis Mitxelena. Idazkari: J. A. Letamendia.

Soziologi eta Estadistika batzorderako, berriz: Buru, Juan San Martin. Idazkari, San Martin berak proposatzen duena, Joseba Intxausti. Eta gero sail bakoitzagatik ordezkari bat, era hunetara: Irakaskuntza sailaren izenean, Xabier Mendiguren. Idazlego sailaren izenean, Joan Mari Torrealdai. Komunikabide sailaren izenean, Martin Ugalde.

Antolakizun Batzorderako: Buru, José M.ª Satrustegi. Idazkari, Jose L. Lizundia. Hoietaz gainera, batzorde hau osatzeko, jaun hauk proposatzen dira: Mikel Lasa, Imanol Laspiur, Gerardo Elortza eta Simón Fernández de Arróyabe.

Hitzerdi bat zor dizuet oraino jaun hauk zergatik proposatzen diren arrazoiak emanez:

1) Hizkuntz batzordekoak.

Buru, Luis Mitxelena. Izan ere Arantzazuko batzarrean, eta Euskaltzaindiaren aginduz, berak aurkeztu zuen batasunaren aitzin asmoa eta asmo horren arabera hartu zituen Euskaltzaindiak batasun arauak. Eta gero ere Euskaltzaindiko batzarre batean erabaki zen (Ikus *Euskera* 1971, 145) batasun gauza guztietan berau buru izatea.

Batzorde idazkari, berriz, J. A. Letamendia jarri da batzorde buru denak berak proposaturik.

Batzordea osatzeko proposatzen diren jaunak arrazoi hauengatik aukeratu dira. Batzuk Unibertsitatean euskal irakasle direlako; beste batzuk euskalki edo jokera desberdinetakoak direlako; eta beste batzuk, azkenik, hiztegigile bezala berriki nabarmendu direlako.

2) Soziologi eta Estadistika batzordekoak.

Batzorde buru proposatzen da Juan San Martin, Euskaltzaindiko Idazkari dena. Arrazoia: Batzorde hunen zeregina, zientifikoa baino areago, positiboa baita, hots: hamar urte huntako lanen xehetasunak biltzea eta sailkaturik eskeintzea. Eta lan positibo hauetarako dituen dohainengatik proposatzen da batzorde burua.

Batzordea osatzen dituzten jaunak aukeratzeko, berriz, kontuan eduki dira euskera presente dagoeneko sail nagusiak: 1) Irakaskuntza, 2) Idazlegoa, 3) Komunikabide saila, sail hoietarik ordezkari bana aukeratuz. Horrek ez du esan nahi hoietako bakoitzak bere sailean beste lankide batzuk har ez ditzakeenik. Irakaskuntzaren sailak, esate baterako, baditu bere azpi-sailak (nolabait esan): Ikastola mundua, Alfabetatzearena, Testugintzarena, Unibertsitate katedra eta ikasgoena, Irakasleak prestatzearena, eta abar.

3) Antolakizun batzordekoak.

Batzorde hunen zeregina izanen da Kongresuaren ibilpide legeak, prozedura-xehetasunak eta organizazio kontuak era-

tzea eta apailatzea. Zeregin handia du, beraz, batzorde hunek, Kongresuaren martxa behar bezalakoa izan dadin.

Hortarako dituzten dohainengatik Jose Maria Satrustegi jauna eta Jose Luis Lizundia proposatzen dira, bata batzorde buru eta bestea batzorde idazkari izan daitezen. Arantzazuko batzarrean ere Satrustegi jauna izan zen bilkuren moderatzaile.

Batzordea osatzeko proposatzen diren beste jaunak aukeratu dira organizazio kontuan trebeak diruditelako –batzuk–, eta Bergaran –non egingo baita Kongresua– bizi edo lan egiten dutelako–beste batzuk–.

Batzorde hunen esku uzten da Batzar Erreglamentuaren lehen asmo edo aitzin asmoa egitea. Gero Euskaltzaindiak berak onartu beharko du Erreglamentu hori.

Azkenik Batzorde Orokor edo Koordinatzaile bat ere beharrezkoa dela ikusten da. Hori Euskaltzainburuak eta hiru batzordeetako buru eta idazkariek osa dezakete.

Guzti hau Euskaltzaindiaren batzarreari proposatzen diogu.

Oharra:

Abuztuko batzarrean Batzordeetako jaun batzuk aldatu ziren, Organigramatik ikus daitekeenez.

EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRA
ELEIZALDEREN MENDEURRENA BERGARAN 1978



EUSKALDUN HUTS-GARBIEN HIZKETA ZINTAN JASOTZEAZ

1977 - 29 - IV

Fr. L. Villasante

Badirudi badela diru zerbait lortzeko esperantza, berariaz eta espresuki xede hunetarako emana.

Orduan Euskaltzaindiak beharko luke sariketa moduko bat antolatu, zenbait baldintza eta oinarri jarriz. Baldintza hoien arabera gaiak magnetofoiz jaso dituztenei zerbait ordaindu, eta jasotako gaiekin bilduma edo artxibo bat egin Euskaltzaindian. Artxibo hau denboraz iturri on bat gerta daiteke euskera bera hobekiago ezagutzeko, toki batzuetako euskeraren berezitasunak zehatzago jakiteko, euskera mintzatuaren ondasunak ikasteko, etab.

Edozeinek daki euskaldun herrietan, batez ere adineko jendearen artean, badirela gizon edo emakume batzuk hiztun onak direnak, etorri handikoak. Hoiekin izandako elkar hizketak jasotzea eta gordetzea: hori izango litzateke sariketa hunen xedea.

Konprenitzen dut nik ez dela bat ere erraza hunelako sariketa bat jartzea, eta batez ere arau edo lege batzuen arabera antolatzea. Beste aldetik beharrezkoa da hori, ordainketak eta sariak emango baldin badira. Eta hoiek ematea ere beharrezkoa da, sari hoien pozaz jendea lan gomendagarri hortara jar dadin. Sari hoiek daudela jakinik, beharbada hunelako bilketak ugaritu egingo dira, eta euskerari uste den baino mesede handiagoa etor dakioke hortik.

Beraz, laguntza eske nator. Nahi nuke, alegia, hortan esperientzia zerbait daukatenek egin dezaten proyekto bat edo, hortik gero Sariketa hunen oinarri legeak ateratzeko.

1977.eko BATZAR AGIRIAK

1977 - I - 28

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko urtarrilaren 28an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. Iriart-Urruti, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; E. Agirretxe, J. L. Alvarez Enparantza, J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, I. Berriatua, J. Garmendia Kortadi, J. Garmendia Larrañaga, S. Garmendia, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, J. M. Iriondo, X. Kintana, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Gorostiaga, A. Irigaray, A. M. Labayen, P. Larzabal, M. Lekuona, J. M. Lojendio eta Z. Zavala jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Abenduko batzar agiria onartu da.

a) HAR-EMANAK:

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren diru laguntzaz urtero eratzen dugun literatura sariketaz, aurten Txomin Agirre deritzan eleberri saria izango da eta lehengo arautegi bera onartu da. Saria diruz gehitzeko ahaleginak egingo dira.

Arabako Foru Diputazioak O. Apraiz euskaltzain ohorezkoaren omenaldirako eta aurtengoz ematen digun 500.000,- pezetako dirulaguntzegatik eskerrak ematea erabaki da.

HARTU DIREN LIBURUAK: Liburuzainak hartu diren liburuen zerrenda irakurri du eta Donostiako Aurrezki Kutxa, Banco de Bilbao, Gero, X. Kintana, L. Villasante, P. Lafitte eta Jakin-ekoei eskerrak ematea erabaki da.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Idazkariak ematen du bilkuraren berri: Goizeko bilkura hortan 11 euskaltzain bildu dira eta beste 3 euskaltzainek beren etorri ezina adiarazi dute.

Euskararen liburu zuriaren argitalpen teknika Martin Ugalde euskaltzain laguntzailearen esku uzten da. Euskarazko edizioa 3.000 alekoa izango da eta erdarazkoa 10.000 alekoa.

A. Arrue euskaltzain zenaren hutsartea betetzeko proposamen epea gaur bukatzen da eta honako bi proposamenok agertu dira: J. Gorostiaga, A. M. Labayen eta M. Lekuona jaunek izenpeturik, A. Zatarain laguntzaile jaunaren aurkezpena; J. Haritschelhar, A. Irigoyen eta J. M. Satrustegi jaunek izenpeturik, E. Knörr laguntzaile jaunaren aurkezpena. Datorren batzarrean izanen dira hauteskundeak.

J. Zaitegi eta Fernando Aire (Xalbador) zena ohorezko izendatzeaz hitz egin da.

Escuela Superior de Técnica Empresarial (ESTE) delakoak bere batzar nagusietan Euskaltzaindiak parte har dezan eskaria egin du. Hizkuntza arazoak dituztenean ordezkaria bidaltzea erabaki da.

Espainiako eta Frantziako gobernueri euskararen ofizialkidetasunaren eskaria egitea erabaki da.

J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak bere esku utzi zen euskal izendegiaren azalpena egin du, lanak eramango duen hitzaurrea irakurriz.

Ondorean Gramatika batzordeko diren I. Berriatua, J. Intxausti, X. Kintana, J. A. Letamendia eta X. Mendiguren jaunekin bildu dira, hauek daramaten lana aztertzeko. Letamendia jaunak eman du egina duten lanaren adiarazpena. Batzorde laguntzaile berrien eskaria egiten du, Patxi Altuna jauna Salamanca-ra joana denez gero. Letamendia eta Intxausti jaunen esku uzten da gramatikazko lehen hautapenak egitea, gero aholkularien artean zabaltzeko.

Idazkari ordezkoak Kazetaritzaz egin denaren berri ematen du, ikastaroak eratzeaz eta titulu baliatzeazko jestioak egiteaz.

d) URTEKO EGUTEGIA ETA AINTZINKONTUAK:

Idazkari ordezkoak irakurri du 1977ko batzar egutegia: Martxoaren 27an izanen da Hazparnen J. Idiart-Urruti jaunaren sarrera hitzaldia, uztailaren 10ean Zalgizen P. Lhande zenaren mendeurrenaren ospatzea, eta irailaren 10ean Bilbon Mateo Zabalaren bigarren mendeurrena bide; gainerako batzar arrunt guziak Donostian eginen dira.

J. J. Zearreta jaunak aintzin kontuen berri eman du. Ihazkoaren arabera, aurten 20.464.000 pezetakoa.

Baita ere euskal irakasle tituluak lortzeko etsaminaz hitz egin du. Gasteizen, "Colegio Universitario de Alava" delakoan, *D* eta *B* mailako etsaminak otsailaren 26an izango dira. Uztailaren eta urriaren lehen partean egingo dira udarako etsaminak.

e) HERRI MAILAKO HIZKUNTZA, ISRAELEKO ESPERIENTZIA:

I. Berriatua jaunaren txostena. X. Kintanaren laguntzaz Israelera egin duen ostera eta handik atera dituen esperientziak agertzen ditu.

Israelen hebraieraren egoera aztertzeaz bat, hizkuntza hau zelan irakasten duten eta herri mailan eta jakintza mailan nola erabiltzen duten. Bertatik euskararentzat probetxugarri izan daitekena da haiek herri-mailarako erabiltzen duten hebraiera arrunta. Herrian zabalkundea izangoduen hizkuntza xumearen beharra ikusten duela, edozein mailatako euskalduna alfabetatzeko eta euskararik ez dakitenek ahalik errazen euskalduntzeko, goragoko maila jakituenentzat utziaz.

J. Intxausti jaunak, maila arrunterako oinarrizko metodua gertatuko duen batzorde bat izendatzea eskatzen du, I. Berriatuaren azterketa lanak eta bere proposamenak eskatzen duenez. Batzorde gisa, lehen ekintzan hasteko, honako izen hauek eman dira: I. Berriatua bera, X. Mendiguren, J. R. Etxebarria eta Iñaki Azkune jaunak. Hitz eta aditz arruntenen maiztasun estudiatzen hasi dezaten, gero metodu bat burutu ahal izateko.

f) NI NAIZ ETA I AIZ:

A. Zatarain jaunaren txostena, "Ni naiz eta i aiz" gaiari buruzko, J. Haritschelhar jaunak irakurria. Ondorean elkarrizketa izanda, zenbait ohar agertuz. Jartzen dituen adibideak ez bai dira era berekoak, A. Zatarain jauna bera etorri ez denez, urrengo berarekin (berak hala nahi baldin balu) elkarrizketa jarraitzea eskatu da.

g) BAKOITZAK DAKARRENETIK:

Bakoitzak dakarrena ekar lezakeanez, X. Kintana jaunak ikurriña ekarri du, eta Zuzendaritzakoei eskaini dio, Euskaltzaindiarentzat erregalatuz. Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - II - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko otsailaren 26an, arratsaldeko lauretan bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, E. Erkiaga, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; X. Aranburu, I. Beobide, I. Berriatua, J. Garmendia Kortadi, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, J. M. Iriondo, X. Kintana, E. Knörr, M. Lasa, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, J. Oregi, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

J. M. Barandiaran, J. L. Davant, X. Diharce, J. Gorostiaga, J. Idiart-Urruti, A. Irigaray, F. Krutwig, A. Labayen, P. Larzabal, M. Lekuona, J. M. Lojendio, L. Mitxelena, M. Olasagarre (A. Damaso Intza-koa), A. Zavala eta A. Zarranz (A. Polikarpo Iraizoz-koa) euskaltzain jaunek ezin etorria adiarazi dute, goizeko batzarrera ere etorri ezinak bozetarako beren poderioak emanaz.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urtarrileko batzar agiria onartu da.

a) HAR-EMANAK:

Herri eta herritarren lehen bi zerrendak EUSKERA aldizkarian argitaratzeaz eta hirugarren zerrenda kontseilarien artean zabaltzeaz kontu eman da. Hirugarren zerrendak eskualde hauk hartzen ditu: Mendebaleko Lautada, Busturia, Urolaldea, Baztan-Bidasoa, eta Elortz-Esteribar.

Barcelona-ko Institut d'Etudis Catalans eta Omnium Cultural elkarteen antolaketaren kontu eman da. Bertako eraketak diruzko laguntza hobeak dituztela, baina erakundeak heurak hemengoen dinamika edo eragin handia falta dutela. Era berean, Congrés de Cultura Catalana delakoa zertan datzan.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du eta Gipuzkoako Saltzaileen Elkarte Ofiziala, L. Mitxelena, P. Lafitte, J. Haritschelhar, Jose Harrieta, Gordailu eta Gero-koei eskerrak ematea erabaki da.

Diruzainak 1976ko Urria-Abendua hilabeetako kontuen berri eman du, zegoen 1.036.586,02, gehitua 1.113.096,20, urritua 1.261,084,24; dagoena 888.597,98.

Arabako Foru Diputazioak euskararen ofizialkidetasuna onartu du eta euskararik gutien egiten den probintzia honetatik izan dugun berri pozgarri honegatik, gure zorionak agertzea erabaki da. Hemendik bide hartuz Alfonso Irigoien euskaltzain jaunak gogoarazten du Gernikako Batzarretan ere, karlisten lehen gerratean, horrelako lege mailatasuna iritsi zuela euskerak, gero horrek segirarik izan ez bazuen ere.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Idazkariak goizean izan diren bi bilkuren berri eman du. 11 euskaltzain bildu dira eta beste 13k beren ezin etorria agertu dute, euskaltzain berria hautatzeko beren poderioak idazkiz bidaliaz.

Lehendabizi, Gobernuko Lehendakariari euskeraren ofizialkidetasunaren eskariz gertatu den gutuna irakurri da eta bizpairu ikuturekin guztiok onarturik bukatu da, berehala bidaltzeko.

1977ko Txomin Agirre eleberri sariaren arautegiko lehen pundua aldatzea erabaki da, "Euskaraz" hutsik utziaz.

A. Arrue zenaren hutsartea betetzeko hauteskundeak egin dira, aurkezturik zeuden bi proposamenen artean. Enrike Knörr jaunak 13 boto eraman ditu eta Anbrosio Zatarain jaunak 10. Beraz, E. Knörr jauna euskaltzain izendatua gelditu da. Ondoren, euskaltzain ohorezko izendatzen dira Jokin Zaitegi eta Fernando Aire "Xalbador" (azkeneko hau berriki hila).

J. L. Davant jaunaren gutuna irakurri da, J. Hiriart-Urruti jaunaren sarrera hitzaldiari buruz. Hazparnen izanen da, martxoaren 27an, eta egun hortarako jartzen da helduden hileko gure batzarra.

Euskara-Kaukaso ikerketak aurrera eramateko Georgia-ko Zientzi Akademiaren eskaintza bat dugu eta langintza honen hastapenetan sartzeko izan den bilkura baten berri eman da. Hizkuntzari dagokion aldetik, Euskaltzaindia ere partaide izanen da.

Ipurbeltz deritzan komika, haurren aldizkarien premia gorria ikusirik, baimen kontuak lortzeko babestea erabaki da.

Bigarren bilkuran, euskaltzainak, oinarrizko euskara finkatzen hasteko izendatu zen batzordekoekin elkartu dira. Lanaren plangintzari buruz mintzatu ondorean, Imanol Berriatua jauna izendatu da batzorde honen buru, eta J. J. Zearreta idazkari. Gainera, batzordeari beste honako hauek gehitzea pentsatu da, Ikastolen Federazioko bat (berek hautatzen dutena, testugintzan ibili direnetarik), "Egin"en arduradun den Donato Unanue eta Donostiako Herri Irratiko Iñaki Zubizarreta jaunak.

d) 1977-1978 URTEBIKOARI BEGIRA:

Euskaltzainburuaren txostena, egoera, lanak, asmoak eta helburuak adiaraziaz honako pundu hauetan banatu du bere agerpena: Legezko nortasuna, politika giroaren aldatzeaz, euskararen ofizialkidetasunaz, diru egoeraz, etxe berriaz, Oinatiko "Olakua" torretxeaz, Mitxelenaren Hiztegiaz, Hiztegi Arau Emaile eta Entziklopedikoaz, Euskararen Liburu Zuria, Euskaltzaindiaren liburu saila, "Euskera" aldizkaria, Euskaltzaindiaren liburutegia, Donostiako Ordezkaritza eta Bulegoa, beste Ordezkaritzak, Hiztegi espezializatuak bultzatzeaz, Etxegintza batzordearen egoera, pertsona izendegia, aditz batzordearen egoera, Herri eta herritarren izendegia, Oinarrizko euskara, Iker eta Jagon saileko lan batzuen beharraz eta Batzar txostenari buruz.

Txosten hau, Euskaltzaindiaren ekintzarako hain premiazkoa denez gero, serokopiaturik Euskaltzaindiko lankide guztien artean kopia bana zabaltzea erabaki da.

Gai beraren jarraipenez, Mikel Lasa jaunak, epe luzerako eta epe laburrerako plangintzazko proposamenez, txosten labur bat irakurri du.

e) ITZULPEN ZERBITZUAZ:

Rikardo Badiola jaunaren txostena, Euskaltzaindiaren bulegoan orain arte egin dituen itzulpenen berri ematen du. Erabili dituen oinarriak zer izan diren, aurkitu dituen eragozpenak eta atera dituen esperientziak adiarazten ditu.

f) 1976 URTEAN BATZARRETARA ETORRI ZIRENEN ZERRENDA:

Idazkariak irakurri duen txostena. 1976an, euskaltzain osoetatik batzarretara agertuak, guztiz, 16; eta etorri ezina adiarazi dutenak, 3. Ohorezko euskaltzainak, 1. Batzarretara agertu diren euskaltzain laguntzaileak, guztiz, 55.

Barne-Erregelen 43. artikuluak agintzen duenaren arabera, etorri diren euskaltzainen artean, maiztasunari begiratuta, 1977. urterako dekanotza P. Lafitte jaunari ematen zaio, 13 batzarretara agertu denez gero.

g) BANKA HIZTEGIGINTZAren kontu ematea egin du idazkari-ordezkoak. Eta J. M. Iriondo jaunak bere eginkizunaren berri eman du, lankideak nortzuk diren agertuaz. Donostian lanean diharduen taldean Euskaltzaindiaren ordezkari baitago. Beste aldetik istilu zerbait sortu da "Banco de Bilbao"k agenda bat argitara nahi duelako, Euskaltzaindiaren itzulpen zerbitzuak prestatua. Beraz, prozedura bikoizkeriak ez daitezen sor, akademi onartze gradutapen mailak argitzeko eta lan guzti hauk nolabait Euskaltzaindiaren izenean egiten direnez gero, argi gelditu behar du agenda horrek ez duela Euskaltzaindiaren onartze ofizialik, baina bestalde argitaratzea ere ezin dezake gel araz.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - III - 27

Hazparnen, elkar-mezaren ondorean, herriko frontoi berrian bildu dira batzar irekian: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, P. Larzabal euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, M. Atxaga, I. Beobide, R. Camblong, J. Camino, J. M. Iriondo, M. Labeguerie, E. Salaberry eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Herriko agintarien partetik J. P. Larramendy auzapez-ordea mahainean eta jende andana polita entzule.

Lehendabizi Larramendy jauna mintzatu da, guziei herriaren ongietorria agertuz eta Hazparnen euskaltzaletasuna adiaraziz.

Ondoren, euskaltzain buruak lehengo hazpandar euskal idazleak goretsi ditu eta azkenik, egungo bilera zertan den adiaraziaz, Jean Hiriart-Urruty euskaltzain berria ongi-etorriz agurtuaz. Eta, Euskaltzaindiko batzarretan ohi den bezala, bertako lagunetarik norbait hiltzen delarik, Ixaka Lopez-Mendizabal ohorezko euskaltzainaren hil-berria aditzera eman du.

Ondorean, Larre eta San Martin jaunak lagundurik sartu da Hiriart-Urruty jauna sarrera-hitzaldia egitera. Bilduak txaloz egin diote ongietorria. Eta mahaira igotzeaz, dantzari batek ohorezko aurrezkuz agurtu du.

Biltzarkideak agurtu ondorean hasi zuen Hiriart-Urruty jaunak bere hitzaldia. Euskaltzaindian berak beteko duen hutsunea utzi zuen Louis Dassace zenaren goresmenak egin ditu lehen partean. Euskaltzale eta pilotazale zen euskaltzaina Eskualtzale Biltzarraren lehendakari izana zen eta Euskalduna, Gure Herria eta Herria aldizkarietan euskaraz anitz izkribatua. Oroimen honen ondotik Hazparneko euskaltzale handiez mintzatu da, bereziki hemeretzigarren mendeko bertsulari eta herriko kantu egileez: Galerianoaren kantuaren ondotik, Durruty, Chetre lehena, Petti Irigoin eta Mendiage. Kanta horien historia kontatuala, bertsurik hoberenak Cassain eta Loyatho, herriko kantariek kantatu dituzte.

Jean Louis Davant euskaltzain jaunak eman dio ihardespena. Charritton eta Hiriart-Urrutyri zor zitzaien hezikuntzaz eta euskaltzaletasunaz mintzatu zen lehenik; gero, Hiriart-Urruty jaunak Uztaritzen, Baionan eta Erroman bete zituen ikasketaz. Euskaldun Gazteriako omonier ohia, apez gisa, baita ere gizon eta euskaltzale bezala, esanaz horregatik hiru gauza horik elkarretarik ezin bereziak direla. Gainera, Gazte, Etchea, Herria eta Gure Herria aldizkarietan idatzi izan duela. Gaur egun Baionako apezpikuaren ordezko orokorra eta bikario generala dena.

J. Hiriart-Urruty jaunak diploma jaso du euskaltzainburuaren eskutik eta Lafitte jauna makila eman dio Herria astekariko adiskideen izenean.

Bi hizlariak txalo beroak jaso dituzte. Eta bukatzean Herriko Etxeak aperitiba eskaini die biltzarkideei. Eta, azkenik, Trinketean naitasunezko bazkaria.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - IV - 29

Donostian, Gipuzkoa Diputazio jauregian, 1977ko apirilaren 29an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru ordezko, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, X. Aranburu, M. Atxaga, J. Berriatua, J. Estornes Lasa, J. Fernandez Setien, S. Garmendia, X. Kintana, M. Lasa, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, J. San Martin idazkari dela.

Davant, Diharce, Hiriart-Urruty, Irigaray, Larre eta Larzabal eta Oregi jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Otsaileko eta martxoko batzar agiriak onartu dira.

a) HAR-EMANAK:

Argitara berri den EUSKERA, XXI (1976) zenbakia aurkeztu da.

Arantzazun, hil honen 22an, eskuarteko lanetaz zuzendaritzakoak egin zuten bileran erabili zituzten eginkizunezko gaien berri eman da: Arabako Diputazioak euskararen ofizialkidetasuna onartuz gero beste Diputazioetara jokaera bera nola zabaldu behar zen estudiatu zen. Mitxelenari aspaldi eskatua genion Hiztegigintza nola aurrera eraman edo hortarako urratu beharrezko bideak begiratu ziren. Oinatiko Olakua torreetxea bulego eta artxibotzat berriztatzeko jestioak. Euskararen liburu zuriaren finantziaketaren baldintzak. Piarres Charritton laguntzailea magnetofonazko bilketa lanerako Canada-tik Euskal Herrira ekartzeaz. Eta azkenik, Mikel Lasa laguntzaileak epe luzerako gertatu duen plangintza ikusi zen.

Diru laguntza eman diguten Udaletxeen zerrenda irakurri da: Gasteiz, Urretxu, Aretxabaleta, Igorre, Azkoitia, Azpeitia, Leitza, Lemoa, Zestoa, Aramaio, Legutiano, Baztan eta Muxika.

Diruzainaren etorri ezinaz J. L. Lizundiak eman du berri.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du. Emaile diren L. P. Peña Santiago, A Manzanares, J. Allieres, A. Irigoyen, E. Bozas Urrutia, K. Otegi, Bco. Bilbao eta J. de Juan B.-ri eskerrak ematea erabaki da.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Goizeko bilkuran Villasante, Haritschelhar, Irigaray, Irigoyen, Knörr, Lafitte, San Martin, Satrustegi eta Zavala euskaltzain jaunak bil du dira.

Villasante euskaltzain buru jaunak eman du lehen partearen berri: 1977 (XXII) EUSKERA zenbakiaren programaketaz, gai nagusien arteko Davanten sarrera hitzaldia eta Larzabalen erantzuna; Aditz sintetikoa; Justo Garateren lan bat; eta behar bada, denboraz heltzen baldin bada, Julio Caro Barojak eskainia digun lan bat. Ondorean, ohi den bezala, batzar txostenak, Euskaltzaindiaren agiriak, batzar agiriak eta gure hilak.

San Martin idazkariak, "Euskaltzaindia" izena Jose Ignacio Egurrola Madaria, Euskerazaleak elkartearen idazkari denak, Registro de la Propiedad Industrial-ean (Ikus, B.O. 1 de marzo 1977, reg. n.º 835.277) 16. klasean bere izenean jartzeko eskaria egin du, editorial, aldizkari, egutegi eta beste zenbait publikazio eta propagandetan erabiltzeko. Errejistro honetan behin onartua denak eskubide osoak hartzen ditu gero beste inork ez erabiltzeko, eta gure Euskaltzaindiaren juridiko nortasuna Gobernuak eman ondoren, zorionez, beste zenbait lotu beharren artean "Euskaltzaindia" izena ere erregistratu zen. Honegatik, orain, inpugnazioa egin zaio, eskari hori atzera botatzeko.

Ondotik aditz batzordeko diren I. Berriatua, X. Kintana, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta ere bildu dira, euskaltzainekin batean. A. Irigoyen jaunak eman du azken parte honen berri; bertan aztertu denez, A. Irigoyen bera gelditu da txosten bat idaztekotan, gero batzordekoen artean zabalduko dena. Ekaineko batzarrean azken orraztapena emango zaio.

J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak gertatu duen *Euskal Izendegia* zenbaki berriaren aurkezpena Bilbon, Gasteizen, Donostian, Baionan eta Iruñan egingo da.

d) BIRREZTAPEN BAT: "HIKETA" ETA "ZUKETA":

Josu Oregi jaunak, ondoezik dagoelako, bere etorri ezina agertu du. Honegatik, txosten interesgarri honen kopiak atera dira batzarkide guzien artean zabaltzeko.

e) "ANDRE" ETA "ANDRA":

Zatarain'dar Anbrosi-ren txostena. Lehenik *andre* zena *andrea*-ra nola igaro zen eta *andrea*-tik berriz *andra*-ra, labur eta xehetasun handiz agertu du.

f) A. Irigoyenek, Zatarain jaunak urtarrileko batzarrean irakurri zuen Ikakoari buruzko erantzunez mintzo da.

L. Villasante jaunak izkribu labur bat irakurri du, "Euskaldun hutsgarbien hizketa zintan jasotzeaz".

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Idazkari ordez*
LUIS VILLASANTE — *E. Knörr*

1977 - V - 27

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko maiatzaren 27an, arratsaldeko 4retan, bildu dira: L. Villasante buru, E. Erkiaga, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Satrustegi, euskaltzain jaunak; F. Artola, M. Atxaga, J. Fz. Setien, X. Garmendia, J. Garmendia Larrañaga, I. Laspiur, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, J. A. Retolaza, A. Zatarain, euskaltzain laguntzaileak.

Davant, Diharce, Haritschelhar, Hiriart-Urruty, Larzabal eta San Martin jaunak ezin etorria adierazi dute.

E. Knörr idazkari bezala aritu da, J. San Martin elbarriturik dagoelako.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Apirileko batzar agiria onartu da.

a) HAR-EMANAK:

Zuzendaritzak erabaki zuen J. B. Merino Urrutia errioxar euskaltzain ohorezkoaren *"El vascuence en la Rioja y Burgos* liburua, agortua denez gero, berriz argitaratzea, jaun honen Errioxa eta euskarari buruzko beste lan batzuekin batean. Edizio berri hau Euskaltzaindiak eta "Instituto de Estudios Riojanos" delakoaren artean egitea birresten da.

Euskaltzainei jakinerazi zaie bi dei jaso direla: bata, Montrealen ospatuko den Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Nazioarteko Biltzarrerako, eta bestea, Upsalan eingo den Nazioarteko Elebitasun Sinposiumerako, bietara gure Elkargoa gomitatuaz.

J. J. Zearreta, ekonomi eragileak, etorri diren diru laguntzen berri eman du: Iruineko Udalak, 250.000 pezeta eman ditu; Bergarakoak, 100.000; eta beste xumeago batzuk, Amurrio, Laudio, Eskoriatza, Usurbil eta Auritzekoak; Heziera eta Jakintzako Ministeritzak, 200.000 pezeta; Zenbait industri koperatibak ere dirua eman dute: Ampo, Ulma eta Comek. Baita ere Euskal Herriko Arkitekto Kolegio Ofizialak.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Bilkura berezi bat egin da goizean, euskaltzain oso guztientzat eta joan den Urrian Euskaltzaindiari zuzendu zitzaion idazki bat izenpetu zutenentzat. Hiru puntu zituen idazkiak batipat: Idaz lehiaketak, euskalkien erabilera, eta bi grafia onartzea palatalizazio eta arnasgoran. Bi erantzun jaso ziren sasoiz, Villasanterena bata, eta Irigoyenena bestea. Azken honek erabaki proposamen bat zuen palatalizazioaz. Baita berriki jaso da San Martin eta Villasanteren gutun bana.

Eztabaidatu egin da luzaz, eta hona zer erabaki den: garai batez erabaki zena dagoen dagoenean utzi eta heldu den urtean —Arantzazuko Biltzarraren hamar urtekari— beste biltzarre batetan gai hori zehazki.aztertzea.

d) "AHAIDEGO HITZAK":

J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak txosten bat irakurri du ahaidego hitzez, egunoro erabiltzen direnez eta testu zaharretan ageri direnez. Burunda eta Luzaideko lekukotasunak ematen ditu batez ere.

e) "HERRI ETA LUR":

J. L. Lizundia idazkari-ordeak bere txostena irakurri du, "herri" eta "lur" hitzez. Erderazko "tierra" hitzak dituen adiera batzuk euskeraz "herri"rekin esan behar direla, eta ez "lur"ekin adierazi zuen. Adibide ugariak aipatu zituen: "Estelleri", "Deiherri", "Txoriherri", "Beterri"; Nafarroa, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako "Ergoienak"; Bizkai eta Nafarroako "Erbera" eta "Erribera"k; Bizkaiko eta Gipuzkoako "Goiherri"ak; "Herriberri", "Marinerri", "Baserri", etab.

f) "BIRRAZTERPEN BAT: "HIKETA" ETA "ZUKETA":

Josu Oregi euskaltzain laguntzaileak joan den hileko batzarrean irakurtzerik izan ez zuen bere txostena, irakurri zuen oraingoan. Kopiak atereak eta zabalduak zirenez gero batzarkideek beren eritziak emateko aukera ona izan dute.

GAITIK KANPORA:

Imanol Laspiur euskaltzain laguntzaileak, Eibar eta Elgoibarko Institutoetan euskararen egoera azaldu du. Haren ustez, Euskaltzaindiak eskatu behar du gure hizkuntza gero eta gehiago sar dadila programetan, gaur ezer gutxi eten bait da.

"EUSKAL IZENDEGIA" DONOSTIAN AURKEZTEA:

Azkenik, eta bilera ireki moduan, *Euskal Izendegia*ren aurkezpena egin du Satrustegi, batzorde arduradunak, gipuzkoarren aurrean, lehenago Bilbon eta Gasteizen egin zen bezala. Bihar Iruinean egingo da.

Besterik gabe, bukatzen da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - VI - 24

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko ekainaren 24an, arratsaldeko 4retan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, I. Berriatua, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, M. Ruiz Urrestarazu, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Diharce, Irigaray, Larzabal eta Lojendio jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra. Ondorean, euskaltzainburuak Joanes izeneko euskaltzain guziak zorionduaz.

a) HAR-EMANAK:

Basauriko Udalaren gutuna irakurri da, euskararen alde hartu dituzten erabakien berri emanez. Agiriak euskaratzeko, euskarazko gutuneri erantzuteko eta euskararen irakaskintzarako Socorro Mateos Gonzalez andereñoa jartzen dute arduradun, 30.000,– pezeta hileroko alogerarekin. Erabaki hoiegatik gure zorionik beroenak agertzea erabaki da.

Hartu diren diru laguntzen berri eman da: Arabako Foru Diputazioak 250.000,– pezeta, Gipuzkoako Ibarrako Udaletxeak 2.000,–, Elgoibarkoak 30.000,–, Mondragoeko Ularco S. Coop. enpresak 500.000,– eta Amat S. Coop. delakoak 75.000,–. Guztiei eskerrak ematea erabaki da.

J. J. Zearreta jaunak aurtengo udarako euskara ikastaroak nola eta non eratzen direnaren berri eman du: Deustuko Unibertsitatean; Lutxana-Barakaldon; Santurtzen; Bergarako Unibertsitatean; Mundaizko E. U. T. G.n; Donostiako Klaret-tarren etxean; Lazkaoko Beneditarretan; Oinatiko Laterandarretan; Gasteizko Olabide ikastolan; Haguraingo E. S. B.an; Lekarozko Lizenziatuen kolejioan; Iruineko Campion akademian; Bilbon, berriz, "Asociación de Mestros" delakoan, Euskaltegin, Ipes, Errekaldeberri eta Deustuko Zubibarrin.

J. M. Satrustegi jaunak Arabako Foru Diputazioko lehendakariarekin izan ditugun elkarrizketen berri eman du. Haurrei euskaraz irakasteko erakunde handi bat gertatu nahi dutela eta erakunde horren burutzarako irakasle baten proposamena egin beharra duela. Batzarkideek E. Knörr euskaltzain eta Arabako ordezkaritzaren buru dena proposatzea erabaki dute.

P. Uribarren eta J. A. Letamendiak –Irakaslegoaren prestaketarako Bilbo eta Donostiako Unibertsital Eskoletan irakasle direnak– informake-

ta bat eman dute eskola hoietan euskal katedrak sortzeari buruz. Informaketa hori entzun ondoan Euskaltzaindiak Heziera eta Jakintzako Ministeriora jotzea erabaki du unibertsital barruti bakarra eskatuz, lau probintzietako eskolen artean behar den normaleztapena eta koordinaketa lor dadin.

Sitges-en Elebitasunari buruz egin den Symposium-aren berri eman du idazkari ordezkoak.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du. Beren artean, Rikardo Badiolak bertsolaritzari buruz egin duen tesinaren kopia bat.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Idazkariak eman du goizean euskaltzain osoak izan duten bileraren berri.

Esku-liburu batean Arautegiaren argitalpen berri bat egitea erabaki da.

Arautegiaren azken artikuluak eskatzen duenaren araberaz, barne erregelez osatzeaz, Alfabetatze eta Euskalduntze erregelen aurreproietoa zabaldu da, hilabeteko epean ohar idatziak ekartzeko.

EUSKERA aldizkaria sortu zenetik orain arteko aurkibidea egitea da bigarren bilera. Orain arte egin denaren historia labur bat eta aurrerako markatu den idearen berri eman da. J. J. Zearretak agertu du nola eramanaren plangintza, batzordeko idazkaria den aldetik.

Uztailaren 10ean, Zuberoako Zalgizen, Piarres Lhanderen mendeurrena ospatuko da: 12etan meza, eta ondorean P. Lafitte eta J. L. Davantén hitzaldiak P. Lhande zenari buruz. Bazkaria Atharratzen izanen da eta bertara joan nahi duenak denboraz eman dezala bere izena.

Baita ere, kontu eman da, uztailaren 24an, Euskaltzaindiko laguntzaile den Iruriko Etxahun (Piarres Bordaçarre) pasturalgileari omenaldia egingo zaiola Atharratzen, inork joan nahi baldin badu.

d) EUSKARA HERRIKOIAREN MAGNETOFOI BILKETAZ:

J. M. Satrustegi jaunaren txostena, ahozko hizkera eta literatura jasotzeko zelako urratsak eman behar diren eta aldez aurretik antolakizun orokorra nola behar den.

e) JOANES LEIZARRAGA-REN LANEZ:

E. Larre jaunak irakurtzen du P. Lafitte jaunaren txostena. Nekez eskura ditezke Leizarragaren lanak eta behar litazke berriz argitaratu. Eta argitaratze berriak nola behar duen adiarazi du. Faksimilez eta azkenean orri eta lerro aipamenez oharrak jarriaz.

Lafitte jaun beraren esku uzten da ohar horiek gertatzea, *Testamentu Berria*-ren argitalpen baterako, honek emango dion lana ordainduaz. Hala erabaki da.

f) EUSKERAZ, EUSKERAZAZ, EUSKERATZAZ, EUSKEREAZ:

A. Zatarain jaunaren txostena, euskera beraren *-az, -zaz, -tzaz* atzizkien aldakuntza aztertzen duena, adibide anitzez agertua.

Batzarraren bukaeran, aditzera eman da, uztaileko batzarra Iruinean izango dela, Colegio Mayor Larraona delakoan Udako Euskal Unibertsitatearen inguruan.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - VII - 29

Iruñan, "Colegio Mayor Larraona"ko gela nagusian, 1977ko uztailaren 29an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasanta buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. L. Davant, J. Iriart-Urruty, A. Irigaray, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, M. Olasagarre (A. Damaso Intzakoa), J. San Martin eta J. M. Satrustegi jaun euskaltzainak; J. L. Alvarez Enparantza, M. Atxaga, J. Basterretxea, I. Berriatua, P. Charritton, M. Garde, J. Intxausti, J. M. Iriondo, J. L. Lizundia, I. Sarasola, P. Uribarren, F. Zabaleta eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak. V. Udako Euskal Unibertsitateko ikasleez gela beterik dela.

Diharce eta Larzabal jaunek ezin etorria adarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Ekaineko batzar agiria onartzean, J. M. Satrustegi jaunak aditzera ematen du, Arabako Foru Diputazioaren inguruan egin zituen jestio kontu haietan bi gauza zirela haurrei euskaraz irakasteko plangintza eta Colegio Universitariorako proposamena, eta ez agirian agertzen den bezala, biak batean nahasturik. Beraz, E. Knörr jaunaren proposamena Colegio Universitario-rena zela. Gainerakoan, agiria, onartzen da.

Euskaltzainburuak Gabriel Manterola euskaltzain ohorezkoaren hilberria eman du, eta idazkariak Manterola zenaren bizitzaz eta lanez zertzelada batzuk.

a) HAR-EMANAK:

Txomin Agirre eleberri sariketarako epai-mahaiko jaun hauek izendatzen dira: P. Charritton, J. Intxausti eta I. Sarasola.

Diru laguntza eman digutenen zerrenda berria; Udaletxeak: Galdakao, 50.000,— pezeta; Getxo, 50.000,—; Luzaide, 1.000,—; Ordizia, 6.000,—; Villabona, 1.000,—; Belauntza 2.000,—; Leaburu-Gaztelu, 3.500,—; eta Maldearrekako Urrotz, 5.000,—. Elkarteak: Irizar S. C. I. delakoak 10.000,— pezeta.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Euskaltzainburuak aditzera ematen du, 1968an Arantzazuko Batzarretan, euskararen batasunari buruzko bideak gomendatzean, hamar urteko epean jokabideak aztertzeaz hitz egin zela, eta orain dela ordua, helduden urtean (1978) Luis Eleizalde Euskaltzaindiaren sortzaileetakoa eta lehen euskaltzaineko bat zenaren ehunurteburua ospatzean bere jaio-

terri den Bergaran batzartzeko. Batzarrak lau egun iraungo dute eta 10 urte hauetako lana aztertzeko eta batzarrak antolatzeko, hiru batzorde izendatzen dira: Hizkuntza batzordea, soziologi eta estadistika batzordea eta antolakizun batzordea. Eta hauek osatzeko arau nagusiak eta euskaltzaindikoen izenak eman dira: 1) Hizkuntz batzordeari dagokio orain arteko batasun arauak biltzea, berrikustea eta osatzea. Zuzendaritzak jaun hauek proposatzen ditu batzorde honetarako: Luis Mitxelena, batzorde buru, J. A. Letamendia idazkari eta Haritschelhar, Lafitte, Irigoyen, Sarasola, Akesolo, Oregi, Kintana eta L. M. Mujika batzordekide. 2) Soziologi eta estadistika batzordeak batasun joerak herrian izan duen harrera, fruitu onak eta txarrak, dena beharko du neurtu eta kontuan hartu. Buru J. San Martin, idazkari J. Intxausti, batzordekide, irakaskuntza sailetik Xabier Mendiguren, idazleen aldetik Joan Mari Torrealday, komunikabideetatik Martin Ugalde. 3) Antolakizun batzorderako, buru J. M. Satrustegi, idazkari J. L. Lizundia, batzordekide Mikel Lasa, Imanol Laspiur, Gerardo Elorza eta Simon de Arroyabe. Proposamenak onartzen dira eta batzordeak izendatuak gelditzen dira. Bakarrik, A. Irigaray jaunaren eskariz, lehen batzordea, alegia, hizkuntzarena, irekirik gelditzen da, hurrengo bilerararte, norbaitek gehiago proposatzeko aukera emanaz. Batzarreak 1978ko irailaren 4tik 9ra bitartean izango dira. Hurrengo urtean 1979an Seber Altube zenaren ehunurteburua izango denez, Arrasaten egingo da beste Batzarre Nagusi bat, baina euskal gramatikari loturik zuzenean.

Ana Maria Etxaide Itharte andereñoak, Euskaltzaindiaren babespean Nafarroako Unibertsitatea "Erizkizundi irukoitza" guzia argitaratzeko gertu dagoela, Ana Maria beraren aurkezpenezko sarrera batekin. Ontzat hartu da.

Alfabetatze-Euskalduntze Batzordearen Erregela Bereziak probisionalki onartu dira, helduden batzarrean birrespena ematekotan.

d) EUSKARA HERRIKOIAREN MAGNETOFOI BILKETAZ (jarraipena):

J. M. Satrustegi jaunaren txostena, ekainekoaren jarraipenez. Bere txostenean pundu hauek azpimarkatzen ditu: Magnetofoiak era askotako ekintzak antolatzeko duen ahalmena eta hasteko gertatu duen plangintza, euskara herrikoia biltzeko. Magnetofoiz idatziz baino hobeto jasotzen bai dira hizkuntzaren azentu eta doinuak. Biltze lana egiteko arauak eta jaso daitezken gaiak adiarazten ditu.

"Azkue, euskara herrikoiaren I. bilketa"rako honako arautegi hau onartzen da:

1. Bilketa hau nahi duten guziak egin dezakete, eta edozein euskalkitako hizkuntza herrikoia ontzat hartuko da, euskaraz delarik.

2. Ordu beteko gai izan ohi duen "cassette 60" izango da, berez, lanaren neurria, 90ekoa ere onartu daiteke.

3. Epai-mahaikoek ontzat emandako "cassette" bakoitzaren egileari bi mila pezeta ordainduko zaio bere gastuen sari. Lankide bakoitzak nahi hainbat lan aurkeztu dezake.

4. Hiru urtetik behin, gehienik saiatu denaren ardura ordaintzeko 25.000 pezetako sari berezi bat banatuko da, denbora horretan Euskaltzaindiak ontzat eman dituen lanak kontutan hartuta.

5. Lehenbiziko urte honetan bildumak bidaltzeko Urteberri aldera zabalduko da.

6. Aukeratutako elkarrizketa guztiak Euskaltzaindiak beretzat gordeko ditu. Besteak egile bakoitzari itzuliko zaizkio.

7. Lan guztiak Euskaltzaindira bialduko dira, (Ribera kalea, 6, Bilbo-5) edo beronen edozein ordezkaritzara.

8. "Cassette" bakoitzarekin batera, egilearen izen deiturak, eta bizilekua ezarri behar dira orri batean, eta elkarrekin zorro batean sartu.

e) EUSKAL ARTEAZ ETA ARTE HIZTEGIAZ:

J. San Martinen txostena. V. Udako Euskal Unibertsitatea, abuztuan izateko zena, uztailera aurreratzeaz bere etorri ezina agertu du, Artez eman behar zuen ikastaroa. U. E. U.ren lehen urteetan eman zuen ikastaroaren adibide batzuk agertu ondoren, arte inbentariogintzaz eta herritar artea aztertzeaz zenbait ohar azaldu ditu, eta, azkenik, arte lan hauek euskaraz eramateko hain beharrezkoa den hiztegiaz mintzatu da. Hasteko, gertatu dituen zortzirehunen bat fitxaren berri eman du. Hiztegi hau artez euskaraz idatzi duten J. Altuna, R. M. Azkue, J. M. Barandiaran, Euskaltzaindia ("Zortzi urte arteko Ikastola hiztegia"), E. Kortadi, M. Lekuona, L. Mitxelena, A. Valverde eta bere lanetatik atereak dira.

f) "A" ORGANIKOAZ AMAITUTAKO HITZEN DEKLINAZIOAZ:

J. Basterretxea jaunaren txostena. A organikoaren erabilkeraz zenbait adiarazten agertu ditu, eta A hori gordetzearen premia. A-rekin berez bukatzen diren hitzak, inoz *-ia* edo *-ea*-ran aldatzen direnak, behar bada hobe direla *-aa* bi bokal berdinez jartzea. Honen adibideak agertu ditu, batez ere pluralean jartzean nolako erak hartzen diren aditzera emanez.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

OROTARIK:

Idazkari-ordeak zeraren kontu ematen du: azken batzarrean, erabaki bezala, Euskaltzaindiak Heziera eta Jakintza Ministergoari Euskal Unibertsital Barrutia eskatuz zuzenduriko gutunarena, eta berau, hemendik, Iruinetik bidaliko zaiola.

Iragarri du, baita, hurrengo bi bileren berri; hots, abuztukoa, azken ostiralean, Donostian, hileroko arrunta izanen dena, bertan aditz sintetikoaren onhartzea amaitzeko, eta irailekoa, Bilbon, 24ean, Juan Mateo Zabala euskal idazle bilbotarraren berreungarren urteburua ospatuz.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - VIII - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko abuztuaren 26an, arratsaldeko 4retan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, J. San Martin, eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, J. M. Aranlde, M. Atxaga, I. Berriatua, P. Charritton, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, J. M. Lekuona, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, L. M. Mujika, I. Sarasola, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Uztaileko batzar agiria onartu da.

a) HARREMANAK:

Gipuzkoako Diputazioaren gutun bat irakurri da, herri ta herritarrei buruz egin ditugun lanegatik eskerrak emanaz eta EUSKERA, XXI, 1976-ko zenbakiaren separata gehiago eskatuz.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du. Emaile diren argital-etxeeri eskerrak ematea erabaki da. Hartu diren liburuen artean, aipamen berezia merezi dute U. E. U. (Udako Euskal Unibertsitateak) atera dituenak.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Parlamentarien deiari erantzunaz, elebitasunari buruz, berekin egin diren bileren berri eman da.

Alfabetatze barne erregelak, titulua eta Alfabetatze-Euskalduntze batzordearen proposamena, dagoen dagoenean onartzen da.

Hezierako ministro jaunarekin izandako bileraren berri eman da.

Mitxelenaren exzedentziaz hitz egin da, baina ber berak eskatu du oraingoz guk gure aldetik ezer ez egitea.

Mitxelenaren hiztegiaz ere mintzatu da eta irailaren lehen partean zuzendaritzakoak Mitxelena berarekin batzar bat egitekotan gelditu dira.

Nafarroako Ikastola Federazioari Euskaltzaindiaren babesa ematen zaio, legeztatze jestiorako eta hizkuntzarekiko diren arazoetan.

Bigarren bilkuran, aditz sintetikoa onartzeaz, euskaltzainekin batu dira aditz batzordeko eta laguntzaile jaun hauek: Alvarez Enparantza, Berriatua, Intxausti, Kintana, Letamendia, Lizundia, L. M. Mujika eta

Zearreta. Jasotako oharrak aztertu dira. Eta euskaltzainburu jaunak eskerrak eta zorionak ematen ditu batzordekoentzat.

Azkenik, datorren urtean Bergaran egingo diren biltzarretarako Hizkuntz batzordea osatzeaz. Ez da etorri proposamenik eta batzartuak lehengoez gainera, honako lau berri hauk jartzea erabaki dute: Aita P. Iraizoz, A. Irigaray, J. A. Loidi eta M. Zarate jaunak. Eta, biltzar eratzaileen batzorderako, Fz. Arroyaberen ordez beste bergarar bat izendatuko da.

d) UZEI Euskal Unibertsitatearentzat aurregitura batez:

Joseba Intxaustiren txostena, UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) deritzan elkartea sortzeaz eta dituen asmoak zer diren. Euskal Herriko Unibertsitate batean euskara erabiltzeko eta euskaraz irakasteko beharko den tresneria nola antolatu eta abar.

Lanak aurrera eramaten laguntzeko Euskaltzaindiaren onespena premiagarritzat jotzen du eta babesa ematea erabaki da.

e) GABIRIA-REN ETIMOLOGIAZ:

Xabier Kintanaren txostena. Gabe-iria = Villafranca itzulpenez izan daiteken iritzia agertzen du, zenbait argudioren ondorean.

Ondorengo elkarrizketan, Olazaharretatik edo pertsona izenetik etor daiteken iritzia ere agertu da.

f) EUSKAL IZENDEGIARI BURUZ AGERPENA:

J. M. Satrustegiren txostena. Euskal izendegiaz jarraitu zuen aburua eta lan prozedura agertuaz, eta aldizkarien bidez A. Irigoyen jaunagandik jaso dituen kritikak adiaraziz.

Irigoyen jaunak bere arrazoiak agertu ditu. Eta idazkariak, gure barneko gauzak gure artean eztabaidatzea eskatzen du, kazeten bidez kanpora begira jardun gabe.

Euskal izendegia eramateko prozedura eztabaidatu da. Batzuen ustez hiztegiekin jarraitzen den bide bera jarraitu behar da, baina beste batzuen ustez, izendegiak ez du hainbeste ikustekorik hizkuntzaren funtsarekin eta ez da hain beharrezko bide bera eramatea, batez ere lanak bizkortuko badira.

g) OINARRIZKO EUSKARARI BURUZ ZENBAIT OHAR:

Ifarraldekoen literaturan agertzen diren *ahal izan* eta *ezin izan* aditzen erabilkeraz zenbait ohar adiarazi ditu I. Berriatua jaunak, eta hontaz beharrezkoa den paradigma egiteaz guzien laguntza eskatzen du.

h) EUSKARAREN ERABILKERARI BURUZKO OHAR BATEZ:

X. Kintana jaunak aditzera ematen du, Euskal Herriko parlamentariak Madrid-en agertu duten aburuz, gure hizkuntza, "lengua complicada" omen da. Hontaz, hil honen 24ko "Deia" kazetak agertu duenari Euskaltzaindiaren erantzuna eskatzen du, eta helduden astean Euskaltzaindikoak parlamentariekin egingo duten bileran gure harridura agertzea eskatzen du.

i) IRAILEKO BILTZAR IDEKIA, BILBON, J. M. ZABALAREN OMENEZ:

Urrengo batzarra, Irailaren 24ean, Bilbon izango da Juan Mateo Zabala euskal idazle zenaren gorazarrez. Bilkura hau Bidebarrieta kaleko Udal Liburutegian izango da, hiru hitzaldi laburrez: A. Agustin Biain jaunak Juan Mateo Zabalaren bizitzaz; A. Lino Akesolo jaunak, Juan Mateo Zabala euskal idazle; eta A. Irigoyen jaunak, Bilbo eta euskara. Bukaeran, aurtengo euskal irakasle tituludunei agiriak banatzea.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkari orde
E. Knörr

JUAN MATEO ZABALA EUSKAL IDAZLEAREN BERREUNGARREN URTEBURUA OSPATUZ

1977 - IX - 24

Bilbon, 1977eko irailaren 24ean, Udal Liburutegian, Bidebarrieta kaleko "El Sitio"n, eguerdiko 12etan bildu dira: Bilboko alkate den Berasategi jauna, L. Villasante euskaltzain burua, A. Agustin Biain hizlari jauna, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; L. Akesolo, N. Alzola,, M. A. Astiz, I. Berriatua, P. Charritton, J. A. Etxebarria, K. Etxenagusia, X. Gereño, J. Intxausti, J. M. Iriondo, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. Oleaga, S. Onaindia, J. Oregi, J. A. Retolaza, J. M. Torrealday, P. Uribarren, M. Zarate, eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak; irakasle titulua hartzera datozenak eta sala bete hiritar bildu dira.

Berasategi alkate jaunak ireki du batzarra Juan Mateo Zabala bilbotar euskal idazlearen gorazarrez mintzatuko direnei hitza emanez. Ondorean euskaltzainburu den A. Luis Villasante jauna mintzatu da, biltzarkideak agurtuaz eta Bilbo eta bilbotarren euskaltzaletasunez.

A. Agustin Biain frantziskotarra, Zarauzko komentuko nagusi denak, xehetasunez eman ditu Juan Mateo Zabalaren bizitzari buruzko berriak.

A. Lino Akesolo jaunak, Juan Mateo Zabala euskal idazle zen aldetik bere lanen eta idazle dohainen berri eman du. Azkenez, Zabalaren atal batzuk irakurri ditu.

A. Irigoyen jauna, J. M. Zabala zenaren ohorez, Bilbo eta euskara gaiaz mintzatu da, agiri zaharretako berrietatik gaur arte.

Azkenik, J. M. Satrustegi jauna mintzatu da, euskaltzain eta nafar bezala, Nafarroa Euskal Unibertsitateko Distritotik landa uzteaz, bidegabekeri hau salatuz.

Bukatzeran, aurtengo irakasle tituludunei agiriak banatu zaizkie.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkari ordez
E. Knörr

1977 - X - 28

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977.eko urriaren 28an, arratsaldeko 4retan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Irigarai, A. Irigoien, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzainak; J. L. Alvarez Enparantza, J. M. Aranalde, M. Atxaga, J. R. Beloki, I. Berriatua, J. Fz. Setien, J. Garmendia, P. Irizar, X. Kintana, I. Laspiur, J. M. Lekuona, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, L. M. Muxika, K. Santamaria, P. Xarritton, J. Zearreta, J. M. Zumalabe, E. Knörr idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta J. San Martin jaunak bere ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

a) HARREMANAK:

Azken batzar agiri biak onartzerakoan, A. Irigoien jaunak xuxenketa bat eskatu du abuztuko batzarrekoan. Ontzat eman da esaldi bat kentzea.

Diaz de Ulzurrun apez jaun eta euskaltzain laguntzailearen heriotzaren berri eman da. Satrustegi jaunak goraipatu ditu haren merezimenduak, haurrentzat idatz lehiaketak antolatzean, batipat.

Madeleine Jauregiberri euskaltzain ohorezko andereñoaren heriotzaren berri ere eman da. Haritschelhar jaunak Davant jaunaren gutun bat irakurri du: bertan proposatzen du Jauregiberri andereñoari omenaldi bat egitea, heldu den urtean, Zuberoan.

Sariketak:

Ondoren, Txomin Agirre Sariaren irabazle iragarri da: Gotzon Garate jauna, "Elizondoko eskutitzak" deritzan elaberriagatik. Mahaiburukoak Xarritton, Intxausti eta Sarasola jaunak izan dira.

Andima Ibiñagabeitia Sariaren irabazleak ere iragarri dira. Saiakera sailean, Julian Alustiza gertatu da irabazle, "Lihoak lorea hurdin" deritzan etnografia lanagatik. Sari hau 1.000 $ekoa da, Caracas-eko Euskera Lagunen Elkarteak emanik, mahaiburukoak Uribarren, Kintana eta Irigoien zirela. Iker sailean, berriz, "Shocka" deritzan lana hoberena gertatu da. Lan hau Joseba Urkiaga, Joseba Badiola, Ximon Gurrutxaga, Jesus Arzubiaga eta Patxi Letamendiren medikuena da. 500 $ irabazi dute, Caracasko Emakume Abertzale Batzak emanik.

Z. Argia aldizkariak antolatu Xalbador Sariaren irabazleak ere gaur jakinerazi dira: 1. Rufino Iraola, 2. Jose Aierbe, 3. Donapaleuko Itxaro.

Ondoren, Aita Villasantek ospakizun baten berri ematen du, Frantziskotarrak Donostiara etorri zirenetik 50. urteburukari, zenbait hitzaldi egingo dira, baita Salbatore Mitxelena zenaren lanak argitaratuko. Ospakizunak azaroaren 11.ean hasiko dira.

Euskaltzaindira etorri diren diru-laguntzak ezagutarazten dira. Hona: 1. Arabako Diputazioa eta Bilbo, Usurbil, Etxebarri, Berriz, Laudio eta Berrobiko udalak.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du. Haien artean, Txillardegiren "Oinarri bila" liburua.

b) GOIZEKO BILKUREN BERRI:

J. San Martinen ordez idazkari jardun duen E. Knörr-ek goizeko bilkuraren berri eman du.

Lehendabizi, euskaltzain osoak bildu dira eta J. L. Lizundia idazkari ordeak txosten bat irakurri du, "Akademia-onartze maila desberdinez". Bertan, berezi behar-beharreko lau maila proposatu dira, Euskaltzaindiak eskatu edo Euskaltzaindira heldu diren txostenentzat:

1. Onartze akademiko osoa: hizkuntz arazo nagusiez, batipat.

2. Akademi batzorde lana: Euskaltzaindiak ontzat ematen du, baina ez hitz edo forma guztiak nahi eta nahiez (izendegiak esaterako).

3. Oneritzia, Euskaltzaindiarekin harremanetan egindako lanak.

4. Zuzenespena: testu-liburuen euskara, adibidez.

Batzarkide guziek beren oneritzia adierazi dute. Ondoren, "Banka Hiztegia"-n aritu diren jaunak sartu dira: Jose Mari Iriondo euskaltzain laguntzailea; Jose Antonio Arrieta (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa); Kepa Joseba Egiguren (Gipuzkoako Industri Bankoa); Jose Antonio Azpiroz (Donostiako Aurrezki Kutxa); Xabier Elizondo (Lankide Aurrezkia) eta Jose Ramon Beloki (Bco. Hispano-Americano). Baita I. Sarasola, I. Berriatua eta X. Kintana jaunak.

Oso gutxi izan dira oharrak egin dizkiotenak. Idatzirik, Erkiaga euskaltzainarenak etorri dira. Haritschelhar euskaltzainak zenbait ohar egin dio ere eta Kintana euskaltzain laguntzaileak ere. Denbora ezagatik, Haritschelharrenak soilik ikusi dira. Jaun honek koska bat ekarri du solasera: zer egin behar dugun, frantsesak gogoeta bat berezten duenean eta gaztelaniak ez, edo alderantziz? Adibidez, "transferir" eta "traspasar" bereztu du gaztelaniak Banka alorrean, eta frantsesak ez. Lizundiak esan du hori oso maiz gertatzen dela Administralgo hizkeran. Sarasola jaunak esan du ez dela aski hitz hutsak hiztegian ezartzea, esaldietan elkarri josirik beharko lukete agertu. Jose Mari Iriondok lanaren metodologia azaldu du: euskal eta erdal hiztegiak aztertuak izan direla, ekonomista eta gainerako espezialisten laguntzaz baliaturik. X. Kintanak esku bat baino gehiago ikusi du hiztegian. Baietz esan dute langileek. Elizondok esan du, zoritxarrez ez dela iparraldekorik batzarreetara etortzen eta makur hori nolabait konpontzeko frantses hiztegia kontsultatzen dela. Aho batez esan da lan ona egin dela. E Knörr-ek esan du gaur ez zirela guzien ohar guziak

aztertzerik eta Haritschelharrenak soilik ikustea proposatu du, gainerakoak beste egun batetarako utzirik. Aita Villasantek E. Erkiagaren eritzia aipatu du, hots, egin den lanaren % 90 ontzat ematen duela. Haritschelharren oharrak ikusi dira, hortaz, eta gainerakoak hurrengo ostiralean, Arrasaten ikustekoak ziren. "Banka Hiztegi" honi Euskaltzaindiak bere oneritzi orokorra ematen dio eta zuzenketak egiteko eskubidea Arrasaten bilduko direnek izango dute.

d) GEORGIAREKIKO HARREMANEZ

Ondoren X. Kintanak bere txostena irakurri du; Georgiako irakasleekin truke-projektu batez. Projektu horren arabera, bidaiaren gastuak bidaltzen dituen Herrialdearen kontura izango lirateke, eta egoitza-gastuak, berriz, hartzen dituen Herrialdearen kontura.

e) "AHAL IZAN" ETA "EZIN IZAN":

Imanol Berriatua mintzatu da hurrengo, "ahal izan" eta "Ezin izan" aditzez. Zenbait eritzi jaso dira eta I. Berriatuak esan du galdesail batzu banatuko dituela nahi dutenen artean.

f) MATEMATIKA HIZTEGIA:

Azkenik, K. Santamaria jaunak "Matematika Hiztegia" aurkeztu du, multikopia-aleak euskaltzainen artean banatuz, hauen oharrak jasotzearren. Erdiko bidea hartu du Elhuyar Taldeak hiztegi hau egitean, esan du: hitz berri gehiegi ez greko-latin gehiegirik. Bi hilabeteko ohar-zuzenketa epea jarri da.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - XI - 25

Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977.eko azaroaren 25ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, M. Atxaga, J. Fdez. Setien, S. Garmendia, J. M. Iriondo, I. Laspiur, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza, I. Sarasola, P. Xarritton, F. Zabaleta, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak.

Davant, Larzabal eta Lojendio jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urrileko batzar agiria onartu da.

a) HARREMANAK:

Hartu diren dirulaguntzen artean, 20.000 pezeta Hondarribiako udalak, 15.000,— Gasteizko URSSA enpresak eta 2.000,— Eufemia Gerediaga andereak (Nikolas Alzolaren ama).

Liburuzainak hartu direnen berri eman du, Luis M.ª Mujika, *Diccionario General Técnico* (I-Castellano-Vasco); I. Sarasola, *Euskal Hiztegi arauemailea* (bigarren zatia) eta *Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes en vasco.*

A. Irigoyen jaunak Donemiliaga Kukullan gazteleraren omenez egin den batzarraren berri eman du. Batzar hontara gomitatua izan zen euskaltzain burua eta honek izendatu zituen ordezko A. Irigoyen eta J. B. Merino Urrutia euskaltzainak. Han, Alarcos jaunak egin zuen mintzaldiaz mindurik gelditu omen ziren katalának eta gaillegoak, eta era berean gure ordezkariak ere, Espainian gaztelera ez direnentzat esan zituanagatik.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Urrengo EUSKERA aldizkaria eratzeaz, gai nagusien arteko honako hauek hautatu dira: Hiriart-Urrutyren sarrera hitzaldia eta Davanten erantzuna; A. Tovar-en "Comparaciones tipológicas del euskera"; Sytzar, "Sobre el pasivo vasco"; Txillardegiren "Euskara eta Kaukaso hizkuntzen berezkuntzaz" eta behar bada Orixe eta Oiarzabal jaunen lan bat. Ohi den bezala, Euskaltzaindiaren agiriak eta batzar txostenak, baina hauek sailketa berezia eginaz agertuko dira: I-Ospaketak, 2-Hiztegia, 3-Izendegia, 4-Fonetika eta Fonología, 5-Gramatika eta 6-Literatura. Batzar agiriak eta Berriak.

Alvarez-Enparantza "Txillardegi"k agertu du inprimategirako gerturik jarri den aditz sintetikoaren lana.

Euskaltzaindiak Mitxelenari eskatua duen Hiztegigintzaren lanak aurrera eramateko Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialakin finanziaketa eta ondorean Hiztegia argitaratzea elkar lotzeko euskaltzainburuari ematen zaio behar liratekeen agiriak izenpetzeko eskubidea.

Euskara irakasle titulua emateko izendatua den batzordea bildu da: B eta D mailak, ahaltasun eta irakasle mailatzat jarri. Baina asmo guziak erabagi edo bideratu ez dituztenez, urrengorako uzten dira berrien xehetasunak.

J. J. Zearretak, euskararen irakaskintza lanak zertan diren agertu du.

Urrengo esaminak Donostian, urtarrilaren 21ean izango dira.

d) GURE HIZKUNTZARI EUSKALDUNOK DERITZAGUN IZENAZ:

A. Irigoyenen txostena. Euskara eta Euskalherriari bere sustraiz eta bere atzizkiz aintzinatik honera ezagutu denaren berri anitz eman du.

e) EUSKAL ZUZENBIDE HITZEJ BURUZ:

Patxi Zabaletaren txostena. Gure geure legeen beharra agertu du lehenik, hitzok zientzia gisan erabiltzeko era eredugarriak, erderetatik ditugun desberdintasunak eta abar.

Euskaltzainburuak, batzarkideen eskerrak agertu dizkio P. Zabaletari, lehen aldiz batzarrera etortzeaz eta gai hau bideratzeaz.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

BERRIAK
NUEVAS
NOUVELLES

EUSKARAREN LIBURU ZURIA

Martín Ugalde

Jaun andereak, arratsalde on:

Gaur hemen aurkezten ari garen EUSKARAREN LIBURU ZURIA-ren berri nolabait emateko hizketaldi honen bi zati berezi nahi nituzke:

1. *Zergatik* eta *nola* idatzi izandu den, eta
2. Liburu honen *mami ezaugarriena* zein den.

Lehenengo zatiari buruz: *zergaitia* eta *nola*.

Gure herriak, milaka urtez egoera guztiz zailak bizi izan ditu. Eta bizi ditu. Herri honen kulturak batez ere; eta kultura hontatik, batez ere *hizkuntzak*. Hala, EUSKARA gaia dela, hiru liburu argitaratzeko asmoa hartu zen: 1. EUSKARA-ren iragana; 2. EUSKARA-ren oraina, eta 3. EUSKARA-ren etorkizuna.

Gauza asko idatzi izan dira EUSKARA gaia dela, baina oraindik ez dugu ahalegin guztia egin. Ez dut uste, egiten ari garen honekin ere bukatu dugunik; baina pauso bat da, eta nire ustez, pauso handi bat.

EUSKARA-ren *orainaz*, bigarren liburuaz, Iñaki Larrañagak emango ditu aurrerapen batzu, eta *geroaz*, egingo denarenaz ere, hitz bat esango du, noski, oraindik lehen pausotan badator ere. Hiru azterketa eta aurreproiekto hoiek politikoei, gure herrietako arduradunei, irakasleei, gure herriaren administrazioa eskuetan dutenei eta euskaldun eta erdaldun izan eta EUSKARA-ren berri zuzenki jakin nahi duten guztiei izango zaie beharrezko.

Hau da liburu hau argitaltzearen *zergaitia*.

Noan orain *nola* egin izan den berri ematera:

Espezialistek idatzi dute; lan batzu, gero laburtu egin dira, eta nolabait liburuari osotasun bat ematen ahalegindu gara; hala, ekipo batek egina bezalako kutsu bat hartu du lan honek; hala ere, azkenean, behar ziren egileen azken puntuak

errespetatu, eta egile bakoitzaren ikuspegia eta hitza geratu da nagusi. Behar den bezala. Esperientzia bat izan da, eta uste dut bila gabiltzan zerbaitetara heldu direla liburu honen eragile eta laguntzaile izan direnak: *Euskaltzaindia, SIADECO* eta azterketa honetarako dirua jarri duen *Lankide Aurrezkia.*

Hoik esan eta gero, aipatu behintzat egin behar ditut idazleen eta beste laguntzaileen izenak, eta liburuan agertzen diren ordena berean: Koldo Mitxelena, Manuel Pagola, Paulo Agirrebaltzategi, Joseba Intxausti, Luis Villasante, Juan Mari Lekuona, Koldo Larrañaga, Joxe Migel Barandiaran, José María Satrustegi, Gregorio Monreal, Margarita Rica, José Urrutia, José Manuel Castells, José Antonio Obieta, José Luis Alvarez Enparanza, María José Azurmendi, José Luis Lizundia, Xabier Albistur, Mikel Lasa, Xabier Agirre, Iñaki Larrañaga, Rikardo Badiola eta neroni.

Hara EUSKARAREN LIBURU ZURIA *zergatik* eta *nola* idatzia izan den laburki adierazi; eta noan orain nire bigarren puntura: liburu honen mami ezaugarriena zein den esatera:

Hiru liburu hoietatik lehengoa den EUSKARAREN LIBURU ZURIA, gure hizkuntzak planteaturik dituen iraupen problemak aztertu, eta arrazoizko eta modu berean lanerakoak, borrokakoak egin behar diren lanei oinarrizko lanak biltzen ditu.

LEHEN ZATIAN, sarrera teoriko bat egiten da hizkuntzari buruz, beronen alderdi *linguistiko, antropologiko* eta *politikoak* hartuz.

Hizkuntza, gizarteko elkar komunikabide sistema miresgarri bat da. Baina arazoa, ordea, hau da: munduan komunikaziorako 2.500etik gora hizkuntza sailkatu direla; eta, batzutan, hoietako batzu besteak menderatzeko borrokan hasten direnean, komunikazio-bide ordez, konkflikto-bide gertatzen direla.

Euskarak zailtasun berezi bat du berekin: ahaiderik ez izatea, ezta pobre bat ere; Malmberg hizkuntzalariak, 2.500 hizkuntza hoiekin egin duen talde nagusiak 20 dira; ba, 20 hizkuntz-familia hoietatik bat, bakar bat, EUSKARA da. Honez gainera, euskaraz hitzegiten dugunok gutxi gara. Beste bat: babes lezaken Estatu-rik ez duela, gainontzeko hizkuntza

gehienek, txiki eta handi, duten bezala. Gehiago oraindik: bi Estaturen artean zatiturik dago; eta historian zehar biak ahalegindu dira zapaltzen, ia betiko izkutatzen, hiltzen den.

Modu hontan, aspaldidanik behar luke hila egon; baina ez, bizi da oraindik! Bizi nahi izatearen kasu berezia.

Hemen ez du gure elitista izateko gogorik jokatu; ez gara honela, guk honela, gure gogoz, nahi izan dugulako, gizonaren historiaren frutu bat baizik. Gutxi gora-behera Kristoren aurretiko 600 urte arte Europan hitzegiten ziren hizkuntza pre-indoeuroparretik gelditu den bakarra da. Eta bistan da: euskaldunok ezin dugu orain, etorkizunaren ate-atean, inola etsi, ezin gara errenditu. Gure lur hontan gutxienez 6.000 urtean iraun duen hizkuntza, eta oraindik gure herriaren ahoan eta gogoan hain biziki dagoen gure hizkuntza ezin dugu orain galdu.

Hemen dugu, beraz, euskararen iraupenaren problema.

Bada hizkuntzaren balio adierazgarri hori dudan ipintzen duenik.

Hizkuntza, gizakiaren pentsa ahalmenaren iturrian dago; probato du zientziak, gizona ez dela hitzaren laguntzarik gabe pentsatzeko gauza. Humboldt-ek dionez: gizona, hizkuntza dela merio da *gizon*; eta esan daiteke, gainera, hizkuntzak diren hainbat ikusmolde direla mundu hontan. Hizkuntza, bestalde, kulturaren ibilgailu eta bilgailu naturala da, eta *gizartea* halako baldin bada, hizkuntzagatik da.

Zaila da premisa honi arrazoirik ukatzea; batez ere, nork bere hizkuntza baldin badauka buruan, ez hauzokoarena.

Baina, hain oinarrizko den hizkuntza hau *ez da batetik bestera biologiaz pasatzen,* gorputz azalaren kolorea edo aurpegi ezaugarriak edo izakera bezala: *gizartebidez heredatzen du, sozialki.* Datu hau erro-erroka du gure problema aditu nahi duenak. Gure zirkunstantzia kultural eta politiko guztia honi, ekintza honi, lotuta dago: hizkuntza batek, bizirik iraungo badu, irekiak behar ditu erakundeturiko bide sozialak: eskola, Unibertsitatea, administrazioa eta gizarte komunikabideak.

Eta bide hoik, bistan da, politikoak direla.

Jakina, kontu handiarekin izkutatu ohi da izaera politiko eta asimilatzaile hau. Baina zientziak ez diete hoiei, asimili-

tzaile eta kolonialista hoiei, argudiorik emango; zientziako argudioek hau dute salatzen soil-soilik; bere helburu, extralinguistikoa, inperialista, hizkuntz-herri batek duen indar demografiko edo harmatuaren menperapen bat dela.

Ezin garbiago dator puntu hau liburuaren lehen zati hontan.

Noan orain, aurrerakoa gazteleraz esatea:

La SEGUNDA PARTE del libro se sale del estudio teórico de la lengua para ocuparse de *la historia externa de la lengua vasca y su literatura, tanto oral como escrita.*

Hay un fundamento de nuestra nacionalidad que llama mucho la atención: es precisamente un elemento cultural el que le ha dado esta conciencia de pueblo. Los vascos se llaman a sí mismos: *euskaldunak* (los que hablan euskara) y han llamado a su país: *Euskal Herria* (el pueblo que habla euskara).

Los demás nos han llamado "Vasconia", "Vascones", pero esta voz interior de la lengua con que nos hemos definido como pueblo es lo que somos realmente por dentro.

Y vasco y *eusko*, como lo quería Sabino de Arana y también Unamuno, pueden estar relacionados por la latinización de *eusko*: "vasco"; y "Vasconia" puede muy bien tener el mismo sentido que tuvieron Hispania, Brittania y Sardinia.

Sea lo que fuere, ésta es la lengua que está en las antiquísimas raíces de los vascos.

El retroceso más importante de esta lengua en la Edad Moderna ocurre en el siglo XVIII en Alava, y el XIX en Navarra. Antes de estas pérdidas dramáticas, el euskara se hablaba en casi toda la geografía del País, excepto en la Ribera, donde entró la lengua de Roma muy temprano. A pesar de estas pérdidas, el año 1867 los vascófonos de todo el País ascendían a 471.000, el 52 % de la población. Después han ocurrido las inmigraciones masivas, y el euskara no ha tenido el instrumento institucional, político, que necesitaba para defenderse con la administración, la escuela y la Universidad.

Sin embargo, se ha venido aferrando a esta tierra y sus hombres esforzadamente a pesar de que le han querido descalificar para la vida muchas veces.

La TERCERA PARTE del libro se refiere a la *incidencia socio-económica y étnico-cultural* que se ha producido sobre el euskara, *los factores político-administrativos y jurídico-legales* que han estado en el origen de su restricción, y también *los remedios que se han ido proponiendo* para su defensa en los distintos proyectos de Estatuto elaborados hasta ahora.

Es de destacar el hecho de que en los siglos XI-XIII, y por el impulso de un auge demográfico que es común a toda Europa, se produce, por una parte, una corriente de gente hacia las tierras que abandonaron los musulmanes, y, por otra, la dirigida a revitalizar villas vascas sobre los núcleos antiguos de población que corren el riesgo de vaciarse hacia otros lugares "de repoblación extraños". Todo esto en medio de los grandes cambios que se están produciendo en lo social, en lo económico y en lo administrativo. Como se ve, los movimientos de población de que somos testigos hoy no son una novedad; es el flujo y reflujo constante de hombres y de pueblos que han fabricado este tejido que, a la vez que inestable, frágil y también movedizo, tiene esa adaptabilidad resistente con la que se viste esta tierra de humanidad.

El euskara se resiente en estos tiempos profundamente. La lengua oficial de la Corte de Navarra, como las de otras monarquías europeas, pasa del latín, que es ajeno a la mayor parte del pueblo vasco, al romance, que también le es en gran parte ajeno. Esta doble inadecuación o desajuste en el área vascófona determina un desequilibrio brutal, porque esta adecuación simultánea de lengua-oficial y lengua-hablada que viven los demás pueblos peninsulares está ocurriendo a costa de nuestra repetida discrepancia y desarticulación cultural.

Aquí es donde hay que buscar la raíz del drama que vive nuestra lengua, y con ella nuestro pueblo.

Pero para resumir los elementos que más han incidido en esta constante degradación a que ha estado sometida nuestra lengua, vamos a mencionar los siguientes puntos:

1. Mientras los demás pueblos peninsulares pasan de su lengua latina oficial, que es la que hablan, a los diferentes romances en que va derivando por evolución natural, y por tanto muy lenta, el pueblo vasco pasa de tener una lengua oficial latina, que es distinta de la que habla mayoritariamente,

a otra de romance castellano, que es también distinta del que habla en su mayoría; de modo que el divorcio entre lengua oficial y lengua hablada en nuestro país ha sido permanente desde la Edad Media, con sus catastróficas consecuencias para su desarrollo cultural. Los demás pueblos peninsulares no han pasado por este calvario, porque el latín, la lengua de la cultura más importante de Europa, ha ido pasando su cultura, y con su cultura, su jurisprudencia y sus letras, a sus derivados a medida que se ha ido transformando lentamente en los romances europeos: castellano, francés, catalán, italiano y el galáico-portugués. La frontera de esta ventaja es clara, porque mientras tanto *el euskara se ha ido quedando aislado, cercado, asediado, reducido a su posición de agredida sin defensa,* por el azar histórico de ser la única lengua preindoeuropea y, por tanto, al margen del latín, que queda viva en el continente. Por eso dice Lacarra que "al historiar la Edad Media del País Vasco nos asalta constantemente la preocupación de estar reconstruyendo el pasado que se expresa por escrito en un idioma que no es el que habla, y que el suyo se le escapa a través de los documentos".

2. El *desequilibrio demográfico* de nuestro país es importante: 300.000 habitantes frente a los 7.000.000 de Castilla.

3. *La vinculación de la nobleza vasca a Castilla* por el peso del prestigio que ejerce la Corte (que es el centro de decisiones importantes de un imperio rico) y su lengua en esta entidad monárquica plural; también por la atracción que ejercen las tierras que distribuyen en el Sur recién conquistado, y la prestigiosa empresa de América.

4. Los *lazos orgánicos políticos* de la Corona de Castilla se establecen en lengua castellana a través de sus representantes en estos pueblos: los Virreyes, los Merinos y los Corregidores, porque la lengua de estos delegados de la Corona lo condiciona todo.

5. El hecho de que *todo desarrollo cultural haya estado canalizado por la Corte* y las universidades en castellano, y además fuera del País.

6. El nombramiento de *vascos en la administración de la Corte* fue un instrumento colonial, y esta intención es fácilmente advertible en la alta proporción de secretarios del rey

que son de origen vasco; aquí funciona el cauce de promoción social y económica de todos los demás regímenes coloniales.

Ante estos elementos de promoción del castellano, las instituciones político-administrativas vascas que funcionaron hasta 1839, y ya muy limitadamente después, hasta 1867 han sido las que han protegido en la vida administrativa interior al euskara.

Aunque, claro es, en medida muy insuficiente.

Después del despojo institucional de que fue objeto Euskal Herria con sus derrotas militares, la lengua vasca fue borrada de las escuelas, perseguida, no sólo en su uso coloquial por los niños entre ellos, sino también en los maestros que la usasen en sus esfuerzos por comunicarse con los alumnos, castigando en ambos casos las transgresiones con una dureza auténticamente colonial; ahí están los decretos-leyes y los artículos de la Ley de Educación; también prohibiendo poner nombres euskéricos a los establecimientos comerciales e industriales, a los barcos, a las personas aún después de muertas, en los cementerios, muchas de cuyas piedras fueron rotas por la autoridad; el euskara estuvo ausente de todos los planes de estudio, lo que incluyen muchas lenguas extranjeras, hasta el sánscrito, y a veces el catalán y el gallego, pero *nunca* el euskara; está ausente también toda referencia a nuestra literatura, en contra de lo que ocurre con la gallega y la catalana, que tienen alguna presencia en los cursos que se dictan en las Universidades de Barcelona y Santiago. Universidad, nosotros no tenemos ninguna, a pesar de llenar con nuestros hijos las de otros pueblos del Estado español. Y también ocurre con la lengua vasca en sus primera letras, que niños, sí tenemos, pero contradiciendo gravemente los principios psicológicos y pedagógicos más elementales, no reciben ninguna instrucción en su lengua, más bien parece burlarse el gobierno de los muchos fracasos que son evidentes en la historia cultural de nuestro País.

Sólo hace muy poco, y por presiones socio-políticas inevitables (cuando toda la jurisprudencia cultural internacional: la Declaración Universal de los Derechos Humanos de 1948, la Convención Europea de Salvaguardia de los Derechos del Hombre firmado en Roma en 1950, la Convención de París de 1970, además de la valiosa obra de Juan XXIII) se ha comen-

zado a dar alguna, muy escasa, atención paternalista en momentos en que la lengua se encuentra en condiciones gravísimas.

En la CUARTA PARTE se estudia *la manera en que se han ocupado las institucines internacionales* de los problemas de los pueblos y las minorías étnicas y lingüísticas, y luego *el tratamiento que se ha dado a los problemas lingüísticos como el nuestro en otros países,* tanto los de Occidente como los del Este.

Todos estos estudios se hacen para llegar a la conclusión de que: 1) desde 1945 está adquiriendo importancia creciente el problema de las minorías en la comunidad internacional, la que reconoce a los pueblos un conjunto de derechos irrenunciables que se reconocen oficialmente y a nivel internacional a la cultura, y, por tanto, a la lengua de cada pueblo; 2) la sombra de la Soberanía Nacional puesta como excusa imperialista tiende a reducirse y a dejar paso a la solidaridad natural de los pueblos que han superado esos límites que la violencia institucionalizada ha ido fijando a través de las guerras que no han resuelto nada; las tensiones internacionales que los problemas minoritarios suscitan cada vez con más frecuencia y fuerza están empujando a la comunidad internacional a afrontarlos de una vez en toda su amplitud universal.

Por primera vez en la historia del hombre se empieza a reconocer este problema y darle solución de forma sistemática y global.

De aquí nuestra esperanza de justicia.

Por fin, la PARTE CINCO se ocupa de hacer un estudio técnico del problema del Bilingüismo.

El objetivo es el de la *normalización* de la lengua vasca en su uso. Esto significa, sin embargo, que ésta de la lengua tiene que producirse a través de una normalización social que la condiciona. Porque la normalización no significa sólo el hecho de dar normas lingüísticas, establecer una gramática razonable, una fonética aceptada y un léxico, sino de poner una lengua a nivel normal, situarla en pie de igualdad con respecto a las demás lenguas que habla una comunidad, lo que significa que hay que poner a nivel normal una *cultura entera.*

Habrá que pasar para esto por caminos intermedios de bilingüismo cuidadosamente estudiado de acuerdo con las experiencias que hay, algunas de las cuales se describen en este libro, pero se trata de salir de un proceso asimilacionista que está ya en proceso muy avanzado, y entrar rotundamente en una política de normalización.

HERRI MAILAKO HIZKUNTZA
Israeleko esperientzia

1977 - I - 28

I. Berriatua

Dakizuenez, Israelen izan naiz hiru hilabetetan. Joan den abenduan bihurtu naiz handik. Gauza asko ikusi eta ikasi dut lurralde hartan. Batez ere, hurre hurretik aztertu ahal izan dut hebraieraren egoera. Hizkuntza zahar-berri horri dagokion aldetik behinik behin, pozik nago neure esperientziaz. Mesedegarri izan dela uste dut.

Txosten hontan, neure esperientzia horren alderdi bat edo beste azalduko dizuet.

Baina, hori egin orduko, aspaldi luzeon Euskal Herrian bizi izan dudan beste esperientzia bat ere jakin erazi behar dizuet, bi esperientziok –Israelekoa eta hemengoa– elkarren osogarri dira eta.

Beharbada, nire azalpen bikoitz hontan agertzen den errealitatea, ez da guztiz egiazkoa. Beharbada, batzutan haunditu egiten ditut gauzak, eta beste batzutan ttipitu. Baina azalpena bera egiazkoa da zeharo. Nik neure esperientzia diotsuet. Ikusi eta sentitu ditudan moduan azaltzen dizkizuet gauzak.

Hara! Beti uste izan dut, euskal idazleok gauza guztien gainetik kontutan hartu behar dugula, ea nori idazten diogun. Euskal Herrian, gaur egun, seiehun mila edo dira, euskaraz hitz egiten dutenak. Horietariko gehienak pertsona nagusiak dira; eta ez dira inoiz euskarazko eskolara joan eta beharbada ez dira inoiz joango, hizkuntza hobeto ezagutzeko, euskara lantzeko eta bere osotasunean menperatzeko. Horiek dakiten euskara, herri mailako euskara da. Bestelako euskara dakitenak, proportzioz oso gutxi dira. Pertsona nagusiez ari naiz;

eta pertsona nagusi horiek batez ere osotzen dute gaurko euskaldungoa.

Euskal idazleok egiten ditugun liburuak eta aldizkariak, horientzat idazten ditugu gehienbat. Baina zein euskara erabiltzen dugu, herri mailakoa ala maila hortaz goragokoa? Idazle gehienok, dudarik gabe, minoriaren euskara erabiltzen dugu, maioriarentzat idatzi nahi dugunean ere. Hortaz esperientzia luzea dut, urte askotan ANAITASUNA aldizkariko idazlan guztiak nire eskuetatik pasatu dira eta. Behin, berrogei ta hamar izarño ezarri nizkion idazlan bati, egileak erabiltzen zituen hitzek eta aditzek zer esan nahi zuten adierazteko, nik neuk ere nekez ulertzen bainuen. Eta idazle harek, ez dut uste, minoriarentzat bakarrik idatzi gure zuenik.

Bestalde, Euskal Herrian, gaur egun, bi milioi dira gutxi gorabehera, euskaraz ez dakitenak. Horien artean ere, pertsona nagusiak dira gehienak. Pertsona horik euskaldundu egin behar ditugu, baldin euskarak irautea eta Euskadi Euskal Herri izatea gura badugu. Pertsona nagusi horiek, nola edo hala, ikasi egin beharko dute euskara. Baina, segur nago hortaz, pertsona nagusi horietariko gehienek ikasiko duten euskara, nahi eta nahi ez, herri mailakoa izango da, bestelako euskara ikasteko ez baitute ez astirik ez dirurik ez gogorik ez gaitasunik ez beharrizanik izango.

Nik neuk gero eta argiago ikusten eta sentitzen nuen, herri mailako euskara hori, bestea utzi gabe, serioskiago hartu behar genukeela, eta jaramon gehiago egin, maila hortan mugitzen den eta oraindik urte askotan mugituko den gaurko eta biharko euskal irakurleen maioriari.

Zer egin hortarako? Zer egin, pertsona nagusi horiek gure liburuak eta aldizkariak gustura irakurtzeko? Zer egin, Euskal Herrira milaka eta milaka etorri diren eta etorriko diren kanpotarrak hainbat arinen geure kultura idatzian integra erazteko?

Nik ba nekien zerbait, juduek hebraiera birpizteko egin duten lan miragarriaz. Ba nekien, azken hogei ta hamar urteotan mundu guztitik Israelera joan diren juduak, izugarriro asko izan direla, eta gaur egun denek edo ia denek hebraieraz hitz egiten dutela. Ba nekien, halaber, judu berriontzat aldizkari eta liburuetan herri mailako hebraiera erabiltzen zela. Baina, zehatz-mehatz, ez nekien ezer. Horre-

gatik, hara joatea erabaki nuen: herri mailako hebraiera hori zernolakoa den jakiteko, hizkuntza berezi hortan lan egiten duten kazetari eta idazleekin berba egiteko, zer teknika erabiltzen duten ikusteko, Israeleko Gobernu sozialistak eta hango Akademiak arazo hortan zer parte hartzen duten ezagutzeko, gero guk ere hemengoentzat —bereziki, eskolara joateko adinean ez dauden hiztunentzat eta euskara ikasten ari diren eta ari izango diren pertsona nagusientzat— holako zerbait egiteko.

"Guk ere holako zerbait" esan dut. Baina nor gara gu? Ni bakarrik ez behintzat. Ni zaharra naiz, idazle, kazetari eta euskaltzain kaxkarra, eta gainera apeza. Gutxienez beste lagun bat eraman behar nuen nirekin Israelera. Lagun gazte bat, idazle eta kazetari trebea, euskaltzain jakintsua, eta politikaren aldetik sozialista, herri xehe eta langilea haintzat hartzen duen alderdikoa, Euskal Herrian maioria den jende horren beharrizanei lehentasuna eman nahi dion partidukoa. Nire lagun hori denok ezagutzen duzue, eta beragaz joan nintzen Israelera.

Israelen, Gobernu sozialistaren babespean eta Akademiaren laguntzaz, lau erakunde berezi daude, judu berrien kultur integrazioa eta judu zaharren alfabetatzea xedetzat dituztenak: herri mailako kazetaritza, herri mailako irrati-telebista, *ulpan* eta *ulpanit* deitzen diren herri mailako ikastetxeak, eta herri mailako liburugintza.

Herri mailako kazetaritzan, hiru agerkari publikatzen dira: bata egunero, eta beste biak astero. Hiruretan "ivrit qalá" edo herri mailako hebraiera erabiltzen da. Bakoitzak bere arlo berezia du, alfabetatze eta kulturtze lan hontan. Hiruretarik irakurterrezena eta hizkuntza ondo menperatzen ez dutenentzako egokiena, "Lamathil" izeneko astekaria da. Izen honek "Hasten denarentzat" esan nahi du. Astekari honen zuzendariagaz izan ginen, eta beregandik interes haunditako informazioa jaso genuen.

Agerkari honek, gaur egun, hogei mila ale banatzen ditu astero. Ez da gutxi. Ez dugu ahanztu behar, beraren antzeko, berrogei mila aletako beste astekari bat ere eta hamar mila aletako egunkari bat ere argitaratzen direla. Bestalde, gaur egun, Israelen, hiru milioi judu bizi diren lurralde ttipi hortan, gero eta gehiago dira, geldi geldika hebraiera normalean

idatzitako egunkarietara pasatzen diren irakurleak, eta hizkuntza normal hortan beraientzat publikatzen den guztia ulertzeko gai direnak. Baina, hala ere, irakurle horietariko askok nahiago dute herri mailako hizkuntza; eta beste askori —batez ere Israelera etorri berriak diren juduei — beharbeharrezkoa zaie hizkuntz molde hori, orain eta urte askotan.

"Lamathil" astekariak zortzi horrialde haundi samar ditu. Fotografia asko. Letra haundia. Lerro arteko zuriune lasaiak. Artikulu laburrak: berrogei ta hamar, ehun, berrehun, hirurehun berbatakoak. Artikulu luzerik bat ere ez. Esaldi sinpleak. Esaldi konposaturik oso gutxi. Eguneroko bizitzan eta *ulpan* eta *ulpanit* deitzen diren ikastetxeetan erabiltzen diren berbak. Hitz ezezagunak gutxi. Holako hitzek izarño bat daramate, eta haien esannahia artikuluaren azpian adierazten da. Hitz internazionalak asko, eta haien alboan noizean behin hebraierazko hitza parentesi artean. Kazetal teknika oso ongi pentsatua. Idazleek, hizkuntzaren aldetik, astekariaren arauak gorde behar dituzte. Zuzendariak eskubide osoa du, artikuluak zuzentzeko eta aipatu arauok gorde erazteko. Jokabide hau onhartzen ez duen idazleak, utzi egin behar du bere lana. "Hobe da idazle bat galtzea —esan zigun zuzendariak— irakurle bat galtzea baino". Astekaria oso merkea da, Gobernu sozialistak ordaintzen baitu gastu guztien erdia. *Ulpan* eta *ulpanit* deitu ikastetxeetara dohainik bidaltzen da, eta eskola horietako ikasleek irakur eta ikasgaitzat erabiltzen dute.

Orain zertxobait esango dizuet, herri mailako irratitelebistaz. Israeleko irratiak egun guztiez ematen ditu "ivrit qalá" delako hortan eguneko berriak, hamabost minutuz goizean eta beste hamabost minutuz arratsean. Beharbada emanaldi luzeagoak ez dira hain beharrezkoak gaur egun, herriaren kultur integrazioa aspaldikoa baino askoz haundiagoa da eta. Hala ere, asko omen dira, emanaldi hedatuagoak pozik entzungo lituzketen entzuleak. Irratiko berriok, gero, magnetofonoz errepikatzen dira *ulpan* eta *ulpanit* deitu eskoletan, ikasleen artean hizkuntz ariketak egiteko.

Telebistan, judu berriek ordu erditako ikustaldi bi dituzte, bata goizean eta bestea —goizeko bera— arratsean, herri mailako hebraiera ikasteko. Telebistegileek inportantzia haundia ematen diote irakaspide honi. Ihaztik, hamabost telebistaldi

desberdin ematen hasi dira, hiru astero, errepika eta errepika urtean zehar. Ikuslea laguntzeko, hiru tomotako telegidaliburu bat argitaratu dute. Milaka dira, telebistaldiok beren etxeetan segitzen dituztenak. Eta *ulpan* eta *ulpanit* deitu eskoletan, irakasmolde hau urte osoko programan sartzen da.

Sarritan aipatu ditut hemen, *ulpan* eta *ulpanit* deitzen diren ikastetxeak. Zer dira? Nolakoak dira? Hara! Bai ulpanak eta bai ulpanitak, pertsona nagusiei hebraiera irakasteko eskola bereziak dira. Ulpanetan egun osoan irakasten da; ulpanitetan, berriz, arratsean eta gauean bakarrik, egunero, ordu pare batez gutxi gorabehera. Herritarrentzat, eskola hauk oso merkeak dira, Gobernu sozialistak ordaintzen baitie irakasleei. Israeleko herri, herrixka eta hauzategi guztietan aurkitzen dira. Muga ondoko tokietan, badaezpada, soldaduak dira irakasle. Oso irakas metodo modernoak erabiltzen dira. Irakasleak guztiz ondo preparaturik daude. Han ez da ezer inprobisatzen. Ikasleei eguneroko hizkuntza irakasten zaie. Kalean, lantokian, kafetegian erabiltzen dena. Gizarteko bizitzan norbera polito konpontzeko behar dena. Herri mailako agerkariak eta liburuak irakurri ahal izateko aski dena. Hortik gorako hizkuntza ez zaie irakasten. Hebraiera normala, hebraiera landua eta aitzinatua, haurren eta gazteen eta unibertsitarien ikastetxeetan irakasten eta estudiatzen da. Eta sakonki gainera. Gero berauk izango dira, gurasoei eta etxekoei hebraiera normala irakatsiko dietenak. Sei aste egon nintzen holako ulpan batetan, hebraiera ikasten eta bide batez hango irakas moldeak estudiatzen. Zuzendariak esan zidanez, aski dira bost hilabete, herri mailako hebraiera hori polito menperatzeko. Egia da; eta hola konprenitzen da, kanpotarrez beteriko Israel osoa nola hain denbora laburretan judutu den.

Neure esperientzia honen azken puntua geratzen zait azaltzeko: herri mailako liburugintza. "Ivrit qalá" bakarrik dakitenek, maila hortan idatzitako liburuak behar dituzte, egunkari eta aldizkariez gainera, baldin analfabetuen antzera bizi nahi ez badute. Eta holako literatura ematen ez bazaie, atzerriko hizkuntzetan idatziriko liburu eta aldizkarietara joko dute, nahi eta nahi ez. Kontutan eduki, Israelera etorri berri diren askok, herbesteko hizkuntza bat baino gehiago dakitela, eta Israeleko edozein liburu dendatan munduko liburu eta aldizkaririk onenak erosi ahal dituztela.

Herriko hizkuntza alde batera uzteko arrisku hori zeharo galerazi da Israelen. Nola? Populuari herri mailako literatura oparo bat emanez. Hebraiera normalean liburu inportante bat argitaratzen denean, haren edizio laburrago bat ere publikatzen da herri mailako hizkuntzan. Liburu asko argitaratzen dira "ivrit qalá" hortan. Gehienetan, azalean bertan agertzen da berba bikote hori: "Ivrit qalá".

Baina zer da "ivrit qalá" hori? Zertan datza herri mailako hebraiera hori? galdetuko didazue. Galde hori berori egin nien nik ere bertako askori. Egia esan, ez daukate hortarako idaztarau finkaturik. Gehienetan, senak berak esaten die nola idatzi behar duten herriarentzat. Ba dakite, hiztegi mugatu bat erabili behar dutela, esaldi laburrak egin eta adizkera zailak baztertu behar dituztela. Gauza konkretu konkreturik ez zidaten erantzun. Baina egia hauxe da: Herri mailako literatura oparo bat dutela, eta literatura hori, herbestetik etorri den jende uholdea Israeleko kulturan integratzeko bide egokienetarikoa izan dela.

Amaitu dut neure txostena. Beraren bidez, gauza bat adierazi gura izan dizuet: Hebraieraren birpizkundean herri mailako hizkuntzak izugarrizko inportantzia izan duela, eta guk ere hemen holako zerbait egin behar genukeela, baldin euskara gure herri osoaren hizkuntza izatea nahi badugu. Gogoan eduki, Bizkaian bakarrik, euskaraz ez dakiten pertsona nagusiak, gutxienez zortziehun mila direla —Ibaizabalen alderdi bietako ia langileria osoa—, eta herri mailako hizkuntza horren bitartez bakarrik euskaldundu ahal izango ditugula. Euskara mota hau denon artean moldatu behar genuke. Euskara batua izango da, noski, eta jatorra. Hortaz ez dugu dudarik egiten. Ni neu euskara hortan idazten saiatu naiz, txosten hau egin dudanean. Beharbada ez zarete konturatu; baina idazlantxo hontan ez ditut behin ere *edin* eta *ezan* aditz laguntzaileak erabili, eta baztertu egin ditut erabat potentzialeko eta subjuntiboko adizkerak.

Herri mailako euskararen beharrizan gorri hontaz denok behar genuke kontzientziatuak izan: euskaltzainok, idazleek, kazetariek, politikariek eta bestek. Hau ez da txantxetako gauza.

Akademia honen babespean, Alfabetatze Batzorde batek lan egiten du. Ez litzateke posible izango, erakunde horri

indar berri bat ematea, jokabide zabalago eta euskal errealitatean errotuago batetan abia eraztea? Ez litzateke posible izango, haren barruan nahiz alboan beste batzordeño bat eratzea, herri mailako euskararen arazo hau aztertzeko, estudiatzeko eta aurrera eramateko?

Hauxe da, adiskideok, Israeletik etorri eta gero, jakin erazi gura izan dizuedana.

EUSKARAREN ETA KAUKASO-KO HIZKUNTZEN BEREZKUNEAZ

1977-XI-4

Txillardegi

Lehengo eguneko biltzarrean puntu hau aipatzeko parada izan nuen; eta biltzarraren ondoren jaso ditudan oharrek idarokitzen didatenez, EUSKARA eta KAUKASO-ko HIZKUNTZAK noiz berezi ote ziren delako arazoari buruz lerro hauek egitea egoki gertatuko bide da.

Jakina:

1/ Hemen erabiliko dudan azterpidea (Swadesh-ena) ez da inondik ere "azken hitza". Egia *baldin* bada, alegia, halako batez Euskara eta Kaukasokoak berezi egin zirela, orduan Swadesh-en legeak berezkune horri buruzko kalkulu bat eskaintzen du.

2/ Swadesh-en hitz-lerrokada horiek (hiruek, egia esan; baina lehenengo biek bereziki) kritika-olatu bat sortu dute. Hemen emango den ondorioa, hortaz, ongi dakit, *gutxi gorabeherako ideia bat* besterik ez da.

3/ Hitz "cognate" delakoen finkaerak ere ba ditu lanak; eta Lafon-ek berak aipatzen ditu oinarritzat hartua dugun bere lan hartan berak zituen *zalantzak.*

Ohar hauek eginda, hortaz, ikus dezagun Swadesh-en legeak zer dioen euskarari buruz.

Hitz "cognate"en bilaketan LAFON hartu dugu gidari: "Etudes Basques et Caucasiques", Salamanca, 1952.

Swadesh-en Legeari dagokionez, berriz:

$$d = \frac{\log c}{2. \quad \log r}$$

haren HIRUGARREN hitz-lerrokada erabiltzen dugu (lehenengoak urte gutxiago ematen du; baina Swadesh-ek berak utzia du hirugarren honen truke).

Hirugarren hitz-lerrokada erabiliz gero, Swadesh-ek balio hau proposatzen du *r* -ri buruz:

$$r = 0{,}854 \pm 0{,}004$$

Hortaz: $r_1 = 0{,}858$; eta $r_2 = 0{,}850$.

c berriz ("cognate" edo hitz jatorrikideen kopurua, zati hirugarren oinarri-kopurua, 100 alegia) = n/100.

n hau Lafon-en lanetik hartzen dugu; eta *6*-tatik *9*-tara har daiteke; erdibidean $c = 0{,}075$ hartzen dugularik. $(= (6 + 9)/(2 \times 100)$

Lafon-ek aurkitu uste zituen hitz jatorrikideak hauek dira:

1 — SU (='fire', Sw.)
2 — GOGO (= 'heart', Sw.)
3 — EGU- (= 'sun', Sw.)
4 — GU (= 'we', Sw.)
5 — ZER (= 'what', Sw.)
6 — ASE (= 'full', Sw.)

Sei "cognate" horiek ziurtzat jotzen baditugu ere, ondoko hauek, irakurleak soma dezakeenez, zalantzan jar daitezke, edo aurreko hauen kide direla esan:

7 — ASKI, ASKO (= 'many', Sw.)
8 — BIDE (= 'path', Sw.; baina alderaketa bitxi batzuen bitartez lortua)
9 — GOI (= 'mountain', Sw.)

Hau dela-ta, ez *6* eta ez *9* hartuz gero, *7,5* hartuko dugu hemen; eta, hortaz, c = 7,5/100 = *0,075*.

Oinarritzat r = *0,858* / mila urteko, hartuz gero:

$$\log 0{,}075 = \bar{2}{,}874 = -1{,}126$$
$$\log 0{,}858 = \bar{1}{,}933 = -0{,}067$$

eta $d_1 = \dfrac{-1{,}126}{-2.\,0{,}067} = 8{,}4$; eta hortaz 8.400 urte berezkunetik.

Oinarritzat r = *0,850* hartuz gero:

$$d_2 = \frac{-1,126}{-2 \quad 0,071} = 7,95;$$ hortaz 7.950 urte berezkunetik hona.

Bien arteko kopurua hartuz gero, berezkunea Kristo aurretikako **–6.200 urtean** jar daiteke.

Ohargarri da honi buruz Pedro de Yrizar-ek berezkune hurbilago bat eman zuela gogoraztea ("Julio de Urquijo" urtekarian, "principios del III milenario" aipatzen zuelarik).

Egia esan, eta Swadesh-en arabera beti, ba dirudi 8.200 urte horiek *goitikako* epe bat dela. Eta berezkunea (Kaukasotikako etorrera, edo abar) berrixeago izan litekeela.

Aski da *r* hori txikixeago hartzea (alegia, hitz-bahitura gehixeago gertatu dela pentsatzea); pitin bat bederen 215 hitzen lerrokada erabiltzeko Swadesh-ek berak proposatzen zuen *handiena* bederen (r = 0,83) eta hau dugu:

$$d = \frac{-1,126}{-2. \ 0,08} = 7,05$$

Kalkulu honen arabera, hortaz, berezkunea Kristo aurretikako *5.000 urtean* jarri behar litzateke.

Ba dirudi, beraz, beti Swadesh-en hipotesiaren arabera, euskara eta Kaukaso-ko hizkuntzen berezkunea *urrutienik* Kristo aurretikako SEIGARREN MILAURTEAREN HASTAPENEAN jar daitekeela.

Interesgarri izan liteke, agian, dato hau Georgia-ko aztertzaileei jakin eraztea.

SOBRE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA EUSKALTZAINDIA

Tal es el título de un hermoso volumen profusamente ilustrado, con texto bilingüe castellano-vasco. Se editó en la Imprenta Industrial de Bilbao en 1976 bajo los auspicios del Ministerio de Educación y Ciencia.

Dicho Ministerio manifestó a la Academia su deseo de editar un libro en que se hiciera una breve historia de la misma, de sus trabajos, etc., conmemorando de ese modo el Decreto por el que S. M. el Rey ha reconocido a esta institución. El texto del libro fue preparado por el presidente Fr. Luis Villasante, y la selección de ilustraciones fue hecha por el secretario Sr. Juan San Martín. Desgraciadamente, a falta de una cuidadosa corrección de pruebas —que ni siquiera se presentaron al autor—, el texto, sobre todo euskérico, aparece deslucido con numerosas erratas. Por lo demás, es una exposición sucinta y repleta de datos de la historia de la Academia, de sus actividades, trabajos y objetivos.

El libro comprende el Decreto de reconocimiento de Euskaltzaindia, los Estatutos de ésta, la prehistoria —por así decir— e historia de la Academia y de sus trabajos en cinco breves capítulos, y, por fin, el elenco completo de los miembros de la Corporación, así de los actuales como de los finados. Las ilustraciones son de alto valor documental: portadas de libros clásicos vascos, fotografías de personas vinculadas a la Academia, de bersolaris, etc.

Está de venta en las librerías.

SALBATORE MITXELENA (1919-1965) ZENAREN OMENEZ

Haren idazlan guztiak argitaratzearekin batean 1977ko Azaroan Donostian zenbait ospaketa egin dira frantziskotar olerkari eta idazle hunen omenez.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren aretoan egin dira ospaketa hauk. Azaroaren 14ean mahai inguru bat, Salbatore-ren pertsona gai bezala hartuz. Mahai inguru huntan parte hartu zuten L. Villasante, J. Azurmendi, E. Agirretxe, Basarri, Bordari, D. Manuel Lekuona, Karmelo Iturria, N. Etxaniz, J. Elgarresta eta I. Unzurrunzagak. Azaroaren 16an beste mahai inguru bat, Mitxelena idazle bezala aztertzeko. Bertan hitz egin zuten J. A. Mujika, J. Azurmendi, J. A. Gandarias, B. Gandiaga, I. Sarasola, J. M. Lekuona, J. San Martin, Txillardegik, etab. Azaroaren 18an, berriz, *Idazlan Guztiak* edizio berriaren aurkezpena. Edizio hau bi tomotan da, baina egun hortan lehenbizikoa bakarrik aurkeztu zen.

Mitxelena Zarautzen jaio zen. Donostiako Frantziskotarren komentuan hamar bat urtez (1945-1954) bizi ondoren, euskal kulturarentzat orduan zeuden traba eta eragozpenak ezin jasanez, Ameriketara jo zuen eta gero Suizara, eta han hil. Haren obra nagusiak: *Arantzazu, euskal sinismenaren poema* (1949), *Ama-Semeak Arantzazuko kondairan* (1951), *Unamuno ta Abendats* (1958), *Euskal Herriaren Guruzbidea*, etab.

Gerra ondoko egoera iluneko testigurik nabarmenena agian. Herri kutsuzko olerki bidearen aitzindaria. Euskaltzain laguntzailea zen.

ALFABETATZE EUSKALDUNTZE BATZORDEA

1977-78ikasturteko ikasle-irakasle argitasunak

Euskaltzaindiko Euskalduntze Batzordearen erregela bereziak uztailako batzarrean onhartu ziren, hain zuzen, Euskaltzaindiak Iruñan egin zuena. Aurretik eta handik hona, hainbat lan egin dugu elkar eratze eta bateratze bidean. Oraindik ditugun hutsuneak kontutan edukiz ere, esan beharra dago aurrera pausu ederrak eman ditugula. Hala ere, guztiori beste batetarako utziko dugu. Gaur eskeiniko dizkizuegu soilik.

Hemen dituzue. Baina ongi ulertzeko aurretik bi ohar bederen:

1. Datuok herrialdez bildu ditugu eta kasu honetan, biltze lanean ez dira beti erizpe berdinak erabili.
2. Hemen argitaratzen diren datuak Alfabetatze Euskalduntze Batzordearen ardura pean daudenen datuak dituzu. Eta kriterio nagusi bezela, irakaskuntza maila guztietan euskalduntzen eta alfabetatzen daudenak ez ditugu kontutan hartzen.

GIPUZKOA

BIDASOA		HERNANIALDEA	
Alfab.	108	Alfab.	54
Eusk.	486	Eusk.	295
denetara	594	denetara	349
Irakasleak	55	Irakasleak	35
DONOSTIALDEA		TOLOSALDEA	
Alfab.	125	Alfab.	152
Eusk.	2.175	Eesk.	688
denetara	2.300	denetara	840
Irakasleak	148	Irakasleak	62

GOIHERRI

Alfab.	119
Eusk.	702
denetara	821
Irakasleak	46

UROLA GARAIA

Alfab.	70
Eusk.	571
denetara	641
Irakasleak	30

LENITZ

Alfab.	224
Eusk.	1.272
denetara	1.497
Irakasleak	200

EIBARRALDEA

Alfab.	108
Eusk.	451
denetara	559
Irakasleak	40

UROLA

Alfab.	125
Eusk.	110
denetara	235
Irakasleak	30

KOSTALDEA

Alfab.	97
Eusk.	322
denetara	419
Irakasleak	39

ERRENTERIALDEA

Alfab.	110
Eusk.	1.699
denetara	1.809
Irakasleak	109

DENETARA

Alfab.	1.289
Eusk.	8.737
denetara	10.036
Irakasleak	784

BIZKAIA

BUSTURIALDEA

Alfab.	52
Eusk.	130
denetara	182
Irakasleak	13

HEGO URIBE

Alfab.	26
Eusk.	1.207
denetara	1.233
Irakasleak	72

URIBE KOSTA

Alfab.	50
Eusk.	1.702
denetara	1.752
Irakasleak	110

URIBE BUTROE

Alfab.	62
Eusk.	84
denetara	146
Irakasleak	13

BILBO

Alfab.	337
Eusk.....	4.560
denetara	4.897
Irakasleak	357

IBARREZKERRA

Eusk.....	2.468
Irakasleak	102

ARRATIA

Alfab.	50
Eusk.....	20
denetara	70
Irakasleak	5

TXORIHERRI

Alfab.	52
Eusk.....	227
denetara	279
Irakasleak	22

LEA ARTIBAI

Alfab.	208
Eusk.....	42
denetara	250
Irakasleak	22

DURANGALDEA

Alfab.	135
Eusk.....	664
denetara	799
Irakasleak	75

BIZKAIA DENETARA

Alfab.	972
Eusk.....	11.104
denetara	12.076
Irakasleak	796

NAFARROA

IRUÑAKO MERINALDEA

Alfab.	250
Eusk.....	3.900
denetara	4.150

TUTERAKO MERINALDEA

Eusk.....	80

OLITEKO MERINALDEA

Eusk.....	110

ESTELLAKO MERINALDEA

Eusk.....	100

AOIZKO MERINALDEA

Eusk.....	200

NAFARROA

denetara	4.770

ARABA

GASTEIZ

Alfab	25
Eusk.....	1.541
denetara ...	1.566
Irakasleak .	82

MURGIA-IZARRA 2 talde 32
LEGUTIO ..... 2 talde 28
AGURAIN ..... 3 talde 46
KANPEZU ..... 1 talde 14
ARAIA..... 2 talde 29
denetara 189

ARABA

denetara ...	1.755

HEGO EUSKAL HERRIAN

Alfab	2.536
Eusk.....	26.991
denetara ...	29.527

B MAILAKO IRAKASLE TITULUDUNAK

(1977. urtea)

30. Arregi Goenaga, Mikel
31. Garmendia Lasa, M.ª Carmen
    Lizarraga Eikanoko "Jesucristoren Evangelio Sandua Juanec dacarren guisara" liburuko aditz laguntzailea.
32. Azkarate Arregi, Xabier
    "Hika, zuka eta berorika."
33. Sudupe Sudupe, Juan Ignacio
    "Irakurketa Irakasbide Globalak. Decroly Hendrixen irakasbide global analytikoa."
34. Pontesta Garmendia, Agustina
35. Lizarralde Altuna, Joxe
36. Aingeru Haranburu Oiharbide, Mikel
    "Hypophysia."
37. Azkune Mendia, Iñaki
    "Teknologia Mekanikoaren hastapenak."
38. Urkizu Sarasua, Patri
39. Elorza Gabilondo, José M.ª
40. Agirresarobe Etxeberria, Joxe Mari
41. Aleman Amundarain, Gotzon
42. Anduaga Anduaga, Paulo
43. Ansorena Miner, Joxe Inazio
44. Apalategi Begiristain, Joxe Martin
45. Arsuaga Etxebeste, Antxon
46. Artola Cornu, M.ª Guadalupe
    "Mitxelenaren FONETICA HISTORICA VASCA-tik hartutako zenbait ikastohar, behenafarrera, lapurtera eta xuberoari buruz."
47. Arzelus Okariz, Begoña
48. Arzelus Okariz, Miren Koruko
49. Arregi Urrutia, Manuel
50. Arruti Oiarzabal, Xabier

51. Astigarraga Aburruza, Joseba Andoni
52. Asurabarrena Zubiarrain, M.ª Gertrudis
53. Ayastui Elorza, Joxe Ramon
54. Azkune Sudupe, Lázaro
55. Borja Alvarez, Joxe Dimas
56. Díez de Ulzurrun Sagala, Pedro
57. Elorza Biain, Angel
58. Erzibengoa Otaegi, Joshe
    "Euskara Mailaka."
59. Esnaola Garmendia, Anastasio
60. Eskisabel Sukia, Andoni
61. Etxeberria Zubeldia, Jaxinto
62. Galdos Irizar, M.ª Carmen
63. Gárate Aizpurua, Elu
64. Garaizar Pujana, Angel Mari
65. Goenaga Mendizabal, Patxi
66. Gurrutxaga Etxezarreta, Gabriel
67. Igerabide Sarasola, Juan Cruz
    "Xabier Lizardiren olerkia."
68. Ijurra Larraza, Benito
69. Iñurrieta Labaien, Iñaki
70. Izagirre Soraluze, Txomin
71. Lasa Jauregi, Patxi
72. Legarreta Iragorri, Pedro María
73. Lizaso Rezabal, Gotzon
74. Loinaz Beristain, Mikel
75. Moñux Etxaniz, Joxe Mikel
76. Murua Mujika, Maite
77. Okina Latorre, Santos
78. Olaizola, Jesús M.ª
    "Euskal aditza nola irakatsi."
79. Onaindia Astorkia, José Luis
80. Pérez Urraza, Kepa
81. Pikabea Burunza, José Ignacio
82. Sarriegi Eskisabel, Andoni
    "Ataungo hizketa eta euskara batua."
83. Ugarteburu Meabe-Basterretxea, Angel
84. Urteaga Elzo, Isabel
85. Usabiaga Sukia, Iñaki
86. Aranberri Agirre, Angel
87. Egaña Goya, Miren

88. Etxeberria Canàles, Asier
89. González de Txabarri Miranda, Joxe Juan
90. Kamino Ubegon, Martin
91. Larrea Mujika, Txema
92. Mujika Casares, José Antonio
93. Sarriegi Eskisabel, Arantza
94. Unzurrunzaga Goikoetxea, Imanol
95. Zuazo Zelaieta, Koldo

D MAILAKO IRAKASLE TITULUDUNAK

(1977. urtea)

745. Aldalur Arozena, Jon
746. Aranzabal Balzategi, Bitor
747. Aizpuru Zubizarreta, Olatz
748. Akizu Gaztañaga, Elisabeth
749. Alba Orbegozo, Jasone
751. Aldanondo Eskisabel, José Antonio
752. Alustiza Urkia, Jose Luis
753. Amondarain Esnaola, Antton
754. Agirre Begiristain, Xabier
755. Agirre Odriozola, Ignacio Cruz
756. Agirre Uranga, M.ª Luisa 757. Amundarain Otegi, Juanita
758. Arregi Gordoa, Iñaki
759. Arrizabalaga Urbieta, Jose M.ª
760. Agirretxe Agirre, Eugenio
761. Aldanondo Eskisabel, Luis María
762. Almandoz Oyaneder, Lander
763. Arrieta Genua, Elena
764. Bereziartua Unanue, Mertxe
765. Buldain Mikeo, M.ª Milagros
766. Berridi Puy, Uxue
767. Barandiaran Furundarena, Bakartxo
768. Cazabon Amigorena, Antonio
769. Cazabon Amigorena, Bernardina
770. Dorronsoro Arostegi, Maritxu
771. Esnaola Oilakindia, Demetrio
772. Erkizia Aizpurua, Josune
773. Etxeberria Aranburu, Esteban
774. Eskisabel Urrestarazu, Ana
775. Etxeberria Ugalde, Guillermo
776. Etxeberria Zubeldia, Jaxinto
777. Elorza Dierez, M.ª Karmen

778. Etxeberria Agirretxe, Miren Gurutze
779. Erguin Valenciano, Eduardo
780. Etxabarri Urrosolo, Ana Isabel
781. Esnaola Garmendia, Anastasio
782. Fernández Aizpuru, Mikel
783. Fernández Iturrioz, José M.ª César
784. Galarza Zulueta, Edurne
785. Garijo Igareta, Fernando
786. Guridi Zabaleta, Francisca
787. Harrizabalaga Pikabea, Mikel
788. Hergueta Erdocia, Juan Ignacio
789. Ibisate Lozares, Angel
790. Idiaquez Corta, M.ª Rosario
791. Igerabide Sarasola, Juan Cruz
792. Insausti Elizondo, Gurutze
793. Insunza Lejarcegi, Juan Mari
794. Iñurritegi Galdos, José Luis
795. Irazabal Bolinaga, M.ª Eugenia
796. Iriondo Iturrioz, Mikel
797. Iturbe Beobide, Jesús Martín
798. Iztueta Azkue, Angeles
799. Kobeaga Akaiturri, Alicia
800. Larrañaga Mendiola, M.ª Asunción
801. Larrañaga Zubizarreta, Urrategi
802. Larrea Mujika, José M.ª
803. Lasa Zinkunegi, Joxe Mari
804. Lasarte Dorronsoro, M.ª Carmen
805. Leibar Ania, Koldo
806. Mendia Landa, Kepa
807. Mendieta Lasarte, Ana Isabel
808. Mendiboure Elissalde, Maite
809. Nazabal Dorronsoro, M.ª Milagros
810. Nazabal Irastorza, Ramón
811. Odriozola Unanue, Rosa
812. Otxotorena Sorondo, M.ª Josune
813. Oiharbide Aiherbe, M.ª Karmen
814. Orbegozo Teran, Iñaki
815. Oregi Goñi, Eneko
816. Oregi Goñi, Uxue
817. Ostolaza Linazasoro, Joxe
818. Otegi Atorrasagasti, Ana

819. Otegi Mendizabal, Koro
820. Otegi Mendizabal, Lore
821. Otermin Arrizurieta, Andrés
822. Fernández de Retana Ortiz de Zárate, Sorne
823. Sagastume Etxeberria, Nekane
824. Salinas Gutiérrez, Koldo
825. San Sebastián Zubillaga, Maritxu
826. Saralegi Amundarain, Josefa
827. Tejeria Eizmendi, Martín
828. Telleria Lezeta, Maixabel
829. Trifol Madrazo, Tomás
830. Ugarte Epelde, M.ª Dolores
831. Uranga Arakistain, Kandido
832. Urdanpilleta Zugasti, Nekane
833. Valverde Lamsfus, Maria José
834. Zabaleta Galarraga, Iñaki
835. Díaz de Tuesta Martínez, José Félix
836. Agirre Agirre, Arantza
837. Agirre Alonso, Edorta
838. Agirre Azkorra, Fco. José M.ª
839. Agirre Erostegi, Nekane
840. Agirre Eskisabel, Joxe María
841. Agirre Unamuno, Sebastián
842. Agirregoikoa Goti, Alberto
843. Agorreta Arangoa, Fco. Javier
844. Agote Ugartemendia, Koro
845. Agote Ugartemendia, M.ª Carmen
846. Aizkorbe Salaberria, Joxe Jabier
847. Aizpurua Arruti, Arantza
848. Aizpurua Biurrarena, Ana M.ª
849. Aizpurua Irigoyen, M.ª José
850. Ajuria Duñabeitia, Dioni
851. Alberdi Artetxe, Justo
852. Alberdi Barrenetxea, Itziar
853. Alberdi Izagirre, Lourdes
854. Albisu Mendarte, Iñaki
855. Albizu Apaolaza, Patxi
856. Aldasoro Aldasoro, José
857. Alkain Domínguez, M.ª Jesús
858. Alkorta Eizagirre, Margari
859. Alkorta Eizagirre, Miren Koro

860. Altuna Esteibar, Belén
861. Altuna Gorrotxategi, Ana Jesús
862. Altuna Letamendi, Karmelo
863. Alustiza Zubiarrain, M.ª Carmen
864. Alvarez Alonso, Carlos
865. Amiano Amundarain, Luis M.ª
866. Amundarain Otegi, M.ª Jesús
867. Angoitia Kanpo, Karmele
868. Ansorena Miner, Joxe Inazio
869. Apalategi Mintegi, Vicente
870. Apalategi Mintegi, M.ª Victoria
871. Apaolaza Bernedo, José Antonio
872. Apaolaza Elosegi, Isabel
873. Apaolaza Garmendia, José Ignacio
874. Aperribay Madinabeitia, José Luis
875. Aramendi Arteaga, José Luis
876. Aramendi Arteaga, Juan Manuel
877. Aramendi Arteaga, Mikel
878. Arana Garmendia, Miguel Angel
879. Aranberri Mendizabal, José Ignacio
880. Aranberri Iriondo, José Mari
881. Aranburu Agirre, M.ª Jesus
882. Aranburu Basail, Nati
883. Aranburu Karrera, Arantza
884. Aranburu Lopetegi, M.ª Angeles
885. Aranburu Lopetegi, M.ª Teresa
886. Aranburu Orbegozo, M.ª Jesús
887. Arandia Murgiondo, Angel
888. Arandia Murgiondo, Jesusa
889. Aranzabe Goenaga, Pilar
890. Arazosa Gangoiti, Miren Tere
891. Arin Arrieta, Iñaki
892. Arin Letamendia, Nekane
893. Aristimuño Alustiza, Inmaculada
894. Ariznabarreta Zubero, Abel
895. Ariznabarreta Zubero, Jesús Mari
896. Artetxe D'Arpont, Bakarne
897. Artetxe Elorrieta, Begoña
898. Artola Zubillaga, Xabier
899. Arza Martínez, Antxon
900. Arzelus Larrañaga, Edurne

901. Arrate Iparragirre, Begoña
902. Arregi Bidaurre, Ana María
903. Arrieta Barinagarrementeria, Mila
904. Arrieta Etxaniz, M.ª Tere
905. Arrizibita Ansorena, Jon
906. Arriolabengoa Zabala, Ana
907. Arrizabalaga Etxeberria, Arantza
908. Arruti Egibar, M.ª Teresa
909. Aseginolaza Badiola, Amaia
910. Astigarraga Aburruza, Joseba Andoni
911. Aurre Arteagabeitia, Joxe Mari
912. Aurrekoetxea Olabarri, Gotzon
913. Aurrekoetxea Gurtuben, Itziar
914. Azkarate Billar, Lore
915. Azkune Segurola, Iñaki
916. Azpiazu Aranburu, Amaia
917. Azpiazu Elorza, José Antonio
918. Azpillaga Goenaga, José Luis
919. Azpiroz Salegi, Itziar
920. Barandiaran Forcada, Elixabete
921. Barinaga Osiñalde, Ramón
922. Barriola Zabaleta, Joseba
923. Barriola Otaegi, Izaskun
924. Beitia Villar, Mari Asun
925. Beitia Villar, Mila
926. Belar Mendia, Begoña
927. Beldarrain Delbarrio, M.ª Begoña
928. Bengoa Larrakoetxea, M.ª Begoña
929. Berasategi Arrieta, Hilario
930. Berasategi Arrizabalaga, Mertxe
931. Berasategi Lardizabal, M.ª Inés
932. Berasategi Mendizabal, Arantza
933. Bereciartu Urkola, Carlos
934. Bergara Etxabe, Itziar
935. Berriozabal Azpitarte, Román
936. Borja Alvarez, Joxe Dimas
937. Buldain Mikeo, M.ª Carmen
938. Bustindui Zelaia, M.ª Carmen
939. Carrascal Platas, Begoña
940. Castillo Aranburu, M.ª Carmen
941. Cinkunegi Artola, Mikel

942. Cobreros Mendazona, Edorta
943. Del Campo Serrano, Antonio
944. Egiguren Rekalde, Rafael
945. Eguren Galparsoro, Inocencia
946. Eizagirre Longarte, Juan José
947. Eizagirre Ugalde, Begoña
948. Eizmendi Olaberria, Iñaki
949. Elorrieta Mendiola, Miren Jone
950. Elorza Biain, Angel
951. Elorza Berasategi, Inés
952. Elorza Mujika Joseba, Xabier
953. Elorza Unanue, Jesús
954. Elosegi Alaba, Myriam
955. Elustondo Etxeberria, Iñaki
956. Elustondo Etxeberria, Mikel G.
957. Emaldi Atutxa, Luis María
958. Endemaño Arostegi, José María
959. Errasti Iriarte, Juan Ignacio
960. Errazti Olartekoetxea Urtsa, José Iñaki
961. Errezola Saizar, Fco. Javier
962. Erviti Trecu, Juana
963. Esnaola Garmendia, Joxe Miguel
964. Esparte Soloeta, Iñaki
965. Espinosa Zarrabe, Arantza
966. Esteban Galarza, María Jesús
967. Esteban Galarza, María Luz
968. Etxaburu Arrasate, Amagoia
969. Etxebarria Etxebarria, Xabier
970. Galarraga Artola, Juli
971. Gandariasbeitia Zubizarreta, Idoia
972. Garay Uribe-Etxebarria, M.ª Asun
973. Garamendi Azkorra, Arene
974. García Lertxundi, Maite
975. Garikano Cirolalde, José Eustaquio
976. Garmendia Altuna, M.ª Jesús
977. Garmendia Etxenike, Miren
978. Garmendia Garmendia, María
979. Garmendia Zunzunegi, Juan Joxe
980. Gartzia Azurmendi, Rodrigo
981. Gaztañaga Txintxurreta, Iñaki
982. Gaztañaga Gorria, Javier

983. Gaztañaga Txintxurreta, José Ramón
984. Gesalaga Alkorta, José Antonio
985. Goia Alustiza, Ximon
986. Goikoetxea Etxeberria, Iluminada
987. Goikoetxea Jauregi, Joxe
988. Golzarri Orue, Gentzane
989. Gónzalez de Chavarri, Alcorta
990. Goñi Ezeiza, Iñaki
991. Gorriño Oar-Arteta, José Félix
992. Gorrotxategi Ezeiza, Olatz
993. Goti Arginano, M.ª Dolores
994. Gurutzeaga Zubillaga, Arantza
995. Haramendi Valdivielso, Miren Lore
996. Haranburu Agirre, Judith
997. Haizpurua Barandiaran, Juan
998. Haranburu Karrera, Edurne
999. Haranburu Karrera, Imanol
1000. Hernández Ezeiza, Belén
1001. Herriondo Korostela, Lore
1002. Huizi Petrikorena, Pello
1003. Ibarbia Garmendia, Guadalupe
1004. Ibarlucea Maurolagoitia, Jesús M.ª
1005. Ibarrondo Uriarte, Pedro M.ª
1006. Illarramendi Apaolaza, Esteban
1007. Imaz Ugalde, Karmele
1008. Insausti Albisu, M.ª Carmen
1009. Insausti Mendizabal, José Antonio
1010. Intxausti Sarriegi, M.ª Jesús
1011. Iñigo Ariztegi, Andrés
1012. Iraola Garmendia, Rufino
1013. Iriarte Aizarna, M.ª Carmen
1014. Iriarte Okiñena, Maialen
1015. Irigaray Urrutia, Xabier
1016. Irusta Mallea, David
1017. Ituarte Tellaetxe, Begoña
1018. Iturrazpe Atxurra, Edurne
1019. Iturriotz Lauzirika, Ander
1020. Iza Yurrebaso, M.ª Isabel
1021. Izagirre Casado, Pablo
1022. Iztueta Irisarri, Koldo
1023. Izuzkiza Goitia, Juan José

1024. Jaio Gallano, Agurtzane
1025. Jauregi Artetxe, Itziar
1026. Jauregi Garmendia, Karmele
1027. Jauregi Sarasola, Mateo
1028. Juaristi Linacero, Jon
1029. Karra Martínez, Carlos
1030. Kerejeta Rekalde, M.ª Antonia
1031. Kuende Arriola, Rosa Mari
1032. Kruzeta Olañeta, Odile
1033. Labaca Arruabarrena, Miren
1034. Laborda Otadui, Arantza
1035. Laborda Otaduy, Itziar
1036. Laca Ligos, Arturo
1037. Lakalle Arregi, Joxe Anjel
1038. Lafuente Ledesma, Loly
1039. Lampreabe Segura, Pontxi
1040. Landeta Regil, Enrike
1041. Lamsfus Arrien, Karmen
1042. Larburu Agirre, Mila
1043. Larrañaga Elorza, Koldo
1044. Larrañaga Mendizabal, Eusebio
1045. Larrañaga Unanue, Maitere
1046. Larratxe, Juan Ramón
1047. Larreta Amundarain, Lourdes
1048. Larrinaga Telleria, Karmele
1049. Lasa Arin, Jesús
1050. Lasa Garmendia, Elixabete
1051. Lasa Garikano, Isabel
1052. Lasa Otsoteko, Cristina
1053. Laskurain Etxabe, Amaia
1054. Lasuen Gabilondo, Francisco
1055. Lazcano Irazola, Ana
1056. Lazkano Irazola, Blanca
1057. Lekunberri Atela, José Miguel
1058. Lekunberri Arrieta, Juan Luis
1059. Legarda Mendizabal, Margaret
1060. Lejardi Gallarraga, Agurtzane
1061. Leunda Artola, M.ª Dolores
1062. Lizardi Camarero-Nuñez, Imanol
1063. Loinaz Beristain, Mikel
1064. Lopategi Basterretxea, Itziar

1065. Lopetegi Jaca, Feliciana
1066. Lopez Armendariz, Jon
1067. Matxain Amundarain, Begoña
1068. Madina Alzola, Bitor
1069. Maiz Egiguren, M.ª Angeles
1070. Mallea Madariaga, Antonio
1071. Manterola Martija, Joxe Mari
1072. Markuerkiaga Badiola, Pilare
1073. Martínez de Luna Pérez de Arriba, Iñaki
1074. Martorell Gago, Eusebio
1075. Matxain Amundarain, José M.ª
1076. Mendia Uriarte, José Mari
1077. Mendialdua Elorza, M.ª Blanca
1078. Mendinueta Ijurra, M.ª Lourdes
1079. Mendiluce Goñi, Antonio
1080. Merikaetxebarria Zabalandikoetxea, Angel M.ª
1081. Miangolarra Ibarzabal, Amaia
1082. Mujika Aranbarri, M.ª Jesús
1083. Mujika Lardizabal, Isabel
1084. Mujika Lasa, Karmen
1085. Munduate Arruabarrena, Joxe
1086. Muniozguren Txurruka, M.ª Isabel
1087. Muñoz Goikoetxea, Casilda
1088. Murua Azkue, Nekane
1089. Murua Jauregi, Nekane
1090. Muxika Arteagoitia, Karmele
1091. Nazabal Etxeberria, Juan Luis
1092. Nebreda Gambra, Irene M.ª
1093. Odriozola Agirre, Pedro
1094. Odriozola Zumeta, Belén
1095. Odriozola Muxika, José Miguel
1096. Oiharbide Iturrioz, Ana M.ª
1097. Olabarria Laka, Pedro
1098. Olano Jauregi, Xabier
1099. Olarte Lasa, Iñaki
1100. Orbegozo Alberdi, Maialen
1101. Ormazabal Berasategi, Belén
1102. Ortiz Pikabea, Sorkunde
1103. Otaegi Orbegozo, Benantxio
1104. Otaegi Arizmendi, Kike
1105. Otaegi Imaz, Lourdes

1106. Otamendi Egiguren, Martxel
1107. Otsoa de Chinchetru, Ibernalo
1108. Palacios Linaza, Fátima
1109. Perez Urraza, Kepa
1110. Plazaola Rezola, Arantza
1111. Redin Erro, Iñaki
1112. Rekondo Andueza, Edurne
1113. Sainz Osinaga, M.ª Mercedes
1114. Saizar Matxinea, Tomás
1115. Salaberria Gorrotxategi; M.ª Angeles
1116. Sanmiguel Etxaburu; Estibalitz
1117. Santos Mugika; Pedro M.ª
1118. Saralegi Goldaracena, Maite
1119. Sarasola Errazkin, Olatz
1120. Sarrionandia Uribelarrea, Jose Angel
1121. Solaegi Iriondo, Begoña
1122. Solbes Uranga, Maripi
1123. Sudupe Elorza, Fco. José
1124. Sustatxa Egina, M.ª Begoña
1125. Ugalde Ugarte, Iñaki
1126. Ugarte Ilundain, Julián
1127. Ugarte Oria, Izaskun
1128. Ulla Abalo, M.ª Luisa
1129. Unanue Urdanpilleta, M.ª Soledad
1130. Uranga Pagaldai, David
1131. Uranga Urdapilleta, Axun
1132. Urbistondo Aristi, M.ª Luisa
1133. Urdanpilleta Ormaetxea, Juani
1134. Uria Martiarena, Itziar
1135. Uria Zubiarrain, Edorta
1136. Uriarte Agirreazkuenaga, Itziar
1137. Uriarte Landa, Resu
1138. Uriarte Yurrebaso, Patxi
1139. Uribarren Axpe, Gurutze
1140. Uribarri Azkueta, M.ª Lourdes
1141. Uribarri Azkueta, M.ª Pilar
1142. Urizar Azkarraga, Ane Maite
1143. Urkizu Arbelaiz, Bonifacio
1144. Urrestila Garin, Mertxe
1145. Urretabizkaia Usabiaga, M.ª Pilar
1146. Usabiaga Sukia, Iñaki

1147. Uzin Alberdi, Esteban
1148. Uzkudun Loitegi, Ina
1149. Bergara Etxabe, Begoña
1150. Yarnoz Yaben, M.ª Delia
1151. Yarza Beitia, Elixabete
1152. Zabala Argintxona, Jone
1153. Zabala Larrea, Patxi
1154. Zabala Lizarribar, Nekane
1155. Zabala Lizaso, Fernando
1156. Zabaleta Galarraga, M.ª Consuelo
1157. Zabaljauregi Arizmendi, Mikel
1158. Zabalo Erostegi, Axun
1159. Zeberio Sukia, Xabier
1160. Zuazua Iriondo, Alberto
1161. Zubeldia Arandia, Koldo
1162. Zubeldia Etxeberria, Izaskun
1163. Zubelzu Tapia, Pako
1164. Zubiagirre Uriarte, Joxe Mari
1165. Zubilaga Uribesalgi, Itziar
1166. Zubiri Mendinueta, M.ª Teresa
1167. Mendia Zufiria, Joseba
1168. Zubizarreta Arenaza, Xabier
1169. Zubizarreta Salzedo, Arantza
1170. Zumalabe Goenaga, Koro
1171. Zurimendi Abraldes, Ana Isabel
1172. Peña Larrañaga, Joxe Mari
1173. Irigoyen Agirre, Fernando
1174. Abasolo Galdeano, Eukeni
1175. Aboitiz Atxurra, Miren Bego
1176. Agirre Urrutia, Mari Eli
1177. Alberdi Etxabe, M.ª Angeles
1178. Alberro Goñi, Koro
1179. Alcelay Mendia, Aitor
1180. Aldanondo Arregi, Koro
1181. Altuna Urresti, Gorka
1182. Amezaga Mendizabal, Izaskun
1183. Amias Aboitiz, Eduardo
1184. Amuriza Sarrionandia, Imanol
1185. Antigüedad Auzmendi, Iñaki
1186. Apalategi Lasa, Gema
1187. Apalategi Lasa, Jon Iñaki

1188. Arakues Mazizior, M.ª José
1189. Aramendi Gallardo, José Ignacio
1190. Arandia Murgiondo, M.ª Concepción
1191. Arbe Soloeta, José Ramón
1192. Arregi Zubizarreta, M.ª Carmen
1193. Arrieta Egiguren, Joxe Agustin
1194. Arrizubieta Etxeberria, M.ª Jesús
1195. Atutxa Egiluz, Pedro María
1196. Aurre Urzaa, Alazne
1197. Aurrekoetxea Gurtubai, Errose
1198. Aurtenetxe Marco, Juan José
1199. Azkarate Eizagirre, Mikel
1200. Balparda Otaola, Josu Iñaki
1201. Barrenetxea Arregi, Tere
1202. Barreña Agirrebeitia, Andoni
1203. Barriola Etxeberria, Mertxe
1204. Bastarrika Arrieta, Julian
1205. Basterra Arza, Joseba
1206. Berasain Nuin, Martin
1207. Berastegi Razkin, Rosario
1208. Bereziartua Arozena, Mirari
1209. Berriozabal Urkiza, Joseba
1210. Bilbao Otaola, Mari Pili
1211. Buldain Mikeo, Maixabel
1212. Calvo Aldasoro, Xabier
1213. Carbonell Oiarzabal, Arantza
1214. Duoandikoetxea Zuazo, Prantzisko Xabier
1215. Eceiza Arsuaga, Mertxe
1216. Egaña Goya, Miren
1217. Eiguren Goitia, Elbi
1218. Eizmendi Tapia, Ana Isabel
1219. Elexpe Uriarte, Xabier
1220. Elizegi Alberdi, Miren Jose
1221. Elortza Ugarte, M.ª Angeles
1222. Elosegi Urbieta, Itziar
1223. Erro Jauregi, Conchi
1224. Espinosa Zarrabe, Rikardo
1225. Etxabe Garitazelaia, Jon
1226. Etxebarria Bidasolo, Itziar
1227. Etxebarria Etxebarria, Felipe
1228. Etxebarria Etxeita, Mikel

1229. Etxebeste Mutuberria, Mikel
1230. Etxegia Sagastibelza, M.ª Jesús
1231. Ezkerra Lekuona, Endika Joseba
1232. Ezkurdia Erniaga, Edurne
1233. Ezkurdia Mujika, Garbiñe
1234. Ezkurdia Mujika, Jaione
1235. Fernández Garitano, M.ª Pilar
1236. Galatas Etxeberria, Mikel
1237. Galdos Erriondo, Sebasten
1238. Garaizabal Aizpurua, Joxe
1239. García Garmendia, Juan
1240. Garin Casares, Segundo
1241. Gastesi Zubeldia, Izaskun
1242. Gaztelumendi Uribarren, Jon
1243. Genua Martínez, Lupe
1244. Gezala Oiarbide, Arrate
1245. Goikoetxea Ormazabal, Joxe
1246. Guarrotxena Uskola, Rikardo
1247. Guridi Biain, Isabel
1248. Hierro-Olabarria Etxebarria, Marina
1249. Imaz Insausti, Gurutze
1250. Intxausti Goti, José María
1251. Iñarra Salegi, Pepita
1252. Iradi Gorrotxategi, M.ª Lourdes
1253. Irusta Mallea, Esteban
1254. Iza Dorronsoro, Luis
1255. Izagirre Casado, Jon
1256. Jauregi Portu, Fausti
1257. Korral Ansa, Lourdes
1258. Landa Orue, Ana María
1259. Larrazabal Bengoetxea, Lucía
1260. Lasa Iguain, Iñaki Xabier
1261. Leanizbarrutia Bizkarra-Legorra, Lorea
1262. Leibar Guridi, M.ª Carmen
1263. Lekunberri Rodríguez, M.ª Cruz
1264. Lete Lombardero, Isabel
1265. Letona Badiola, Pablo
1266. Madariaga Arbe, Jose Luis
1267. Madinabeitia Barrio, Karmele
1268. Mateos González, Socorro
1269. Matxain Amundarain, Rosa Mari

1270. Mendizabal Cristobal, Mikel
1271. Mitxelena Illarramendi, M.ª Carmen
1272. Mitxelena Lakarra, Miren Lourdes
1273. Montorio Uribarren, Begoña
1274. Mugica Ezponda, Begoña
1275. Olariaga Egaña, María
1276. Olazabal Gorospe, Maite
1277. Olazabal Peñagarikano, Arantza
1278. Otaegi Otaegi, Jokin
1279. Peñagarikano Goiburu, Maite
1280. Pikabea Torrano, Josu
1281. Salinas Hernando, Karlos
1282. Sarriegi Urretabizkaia, Pello
1283. Sistiaga Toledo, Karmele
1284. Sukia Arizmendi, Juan Bautista
1285. Txurruka Usobiaga, Beatriz
1286. Ugarteburu Gastañares, Iñaki
1287. Ugartemendia Beobide, M.ª Milagros
1288. Unzurrunzaga Goikoetxea, Imanol
1289. Uriarte Aio, Ziriako
1290. Usabiaga Sukia, Patxi
1291. Zenigaonaindia Aspiazu, Jaione
1292. Zubelzu Jaka, Ixabel
1293. Zubieta Aldai, Javier
1294. Zurimendi Abraldes, M.ª Begoña
1295. Llona Arano, Joseba
1296. Urkiza Arrasate, Koldo
1297. Alvarez Yeregi, Mikel
1298. Oñatibia Bagües, Xabier
1299. Arbelbide, Cyprien
1300. Albizu Ugartemendia, Victoria
1301. Bravo Albizu, Bittori
1302. Muniozguren, Fernando
1303. Gueçainburu, Pantxika
1304. Elizetxe, Ana Mari

UZEI: EUSKAL UNIBERTSITATEARENTZAT AURREGITURA BATEZ

Joseba Intxausti

Jaun euskaltzainok:

Euskaltzaindiaren Idazkaritzatik hartutako deiak esaten duenez, *"UZEI: Euskal Unibertitatearentzat aurregitura batez"* hitzegin behar dut. Ez naiz, beraz, orain bero-bero dabilen Unibertsitateaz jardungo, zuzenean bederen.

Eskuartean dugun Aurreplangintza bati buruz mintzatuko naiz. Beroni UZEI deitzen diogu, hau da: *Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea.*

Zer da, ba, UZEI hau?

ZER DA UZEI?

Hemen euskal Unibertsitatea aipatzen, inoiz sortu beharko dugun euskarazko Unibertsitatea esan nahi dut, ez besterik. Euskal Herriko gizarte elebidunak erdarazkoa ere behar du, noski baino noskiago, orain eta urte askotan. Gu ez gara arazo horretan zuzenean sartzen.

Euskal Herriko Distritua, erdal Unibertsitateetako euskal lana, etab., gure asmotik kanpo geratzen dira berez. Behin baino gehiagotan, guk ere geure bultzadatxoa eman beharko dugu arazo horietan; baina UZEIko gure ogibidea beste zerbaitetan emango da. Zertan?

Unibertsital kultura euskaldundu nahi dugu. Horretarako Instituzio bat sortzera goaz, bere lantegi eta langile ordainduekin, ikasketa eta irakaskuntza bat eskainiz, idazlan eta ikerketak eginez, eta batez ere Univertsitate baterako jende euskaldundua eta goialfabetatua prestatuz.

Ez dugu Linguistika Fakultate bat egin nahi, ez eta Letretako edo beste edozein Unibertsitate Fakultaterik sortu nahi. Ez da hori gure asmoa.

Denok dakigu, gure kulturaren arazo nagusiei politikatik eman beharko zaiela beren irtenbidea; baina, inondik ere, hainbat lanetarako gizonak eta tresnak beharko ditu politikak ere. Ez dago horik gabe gauzak aurrera aterako dituen gobernu autonomikorik. Ebidentzia horren gain prestatu dugu Aurreproiektua.

UZEI hiru alor nagusitan banatu dugu: a) Goi-alfabetakuntza, b) Ikerkuntza, c) Informakuntza. Ez dute hirurok hazkuntza bera eramango, baina, diruaren arabera, saiatu beharko dugu alor bakoitzari abiadarik bizkorrena ematen.

1) *Goi-alfabetakuntza*. Ezaguna da Euskal Herriko Unibertsitateak zein euskaltasun eskasa duen. Ikastetxe horietan bada jende trebaturik franko; baina dena erdaraz egin ohi da. Hutsune nabarmen hori bete ez, baina piska bat sistematikoki arintzen hasteko izango da UZEIren alor hau. Plangintza bat egin beharko da, lehenik, eta ikastaroak eratu, gero. Hiru sail aipatzen ditugu, posible bezala, Alfabetakuntzaren alorrean: a) linguistika (orokorra, euskal gramatika eta literatura), b) Hizkera teknikoa (arazo orokorrak eta euskarari dagozkionak), c) itzulpena. Goi-alfabetakuntza honek, pentsa litekeenez, euskaraz hitzegin, irakurri eta idazten dakienari goi-prestaketa bat eman nahiko lioke.

2) *Ikerkuntza* da bigarren alorra. Ez dugu noski CSIC bat egin nahi, baina Ikerketarako, lehenengo laguntzarik oinarrizkoenak eskaini litezkeela uste dugu. Beharbada, metodologi arazoetan gidatuz, eta euskal lanean lagunduz baitipat. Lehenengo eskema bezala, hiru sail ematen ditugu hemen ere: a) ikerketarako harremanak, b) mintegiak, c) Ikaskuntza (metodologiak, etab.).

3)*Informakuntza*ren alorra, euskal goi-kulturaren lanabesak prestatzeko izango litzateke. Beronen barnean bi sail aipatzen dira: a) informabideak (liburutegia, Jakingordairua), eta b) argitalpenak (hiztegiak, ikas-liburuak, iker-liburuak, aldizkari berezituak). Informakuntzaren alorra, nolabait, lehendik dator: hiztegien plangintza bat egina zegoen "Jakin"-en barnean, baina asmoa haunditxoa zen

argitaletxe horrentzat, berak bakarrik bultzatzeko. Dakikezuenez, argitara emana dago "Natur Zientziak" deitua; bukatu samarturik "Fisika eta Kimika", eta atzetik datozenak bizkortu nahi dira orain UZEIren barruan, beronen eskuetara pasako baita hiztegi hauen plangintza osoa (politika, ekonomia, teologia, psikologia, historia, soziologia, midikuntza, etab.).

Hau da, bere lerrorik larrienetan, gure asmoa: gizonak prestatu, lanabesak sortu. Zeuok, eta beste euskaltzale askok, egiten duzuen lanaren osagarri gertatuko ahal da.

ZENBAIT XEHETASUN ARGIGARRI

Euskaltzain adiskideoi Aurreproiektuaren aurkezpen hau egitean, asmoari etorkizunerako segurtasun batzuk bilatu nahi izan dizkiogu. Asmoak ederrak, eta ederregiak ere, izan baitaitezke eta agian egintzetara eramateko errorik gabeak. Egintzetarako posibilitate horien bila ibili gara orain artean, eta izango dugu oraindik ere lanik franko. Aurreproiektuari zutoinak ematen. Dena dela, dagoeneko ditugun errealitateekin baikor izan gaitezkeela pentsatuta, ausartzen gara Aurreproiektua zuen aurrera ekartzen.

Aurreproiektua "Jakin" kultur taldeak landu du; baina Euskal Herriarentzat erabat irekita bultzatu nahi du. Alde aurretik esaten dugu, kultur talderik indartsuenak ere ez dezake UZEIren antzeko Aurreproiektu bat bakarrik egintzetaratu. Gehientsuenon oniritzi eta lankidetzarekin egingo da, ala ez da inoiz egingo.

Orain, halabeharrez, instituzio pribatu bat bezala jaiota ere, ahalik lasterren instituzio publikoa izatera iritsi beharko luke. Euskal Herri osoaren ordezkari politikoek erabaki beharko lukete UZEIrekin zer egin eta nola joka, nahiz eta edozein kultur instituziori legokiokeen autonomiaz hornitua izan.

Beste zerbait ere esan beharra dago. Aurreproiektu hau ez da zerbait hitsia. Aurreproiektua da bakarrik: galdera bat bezala aurkezten da, Euskal Unibertsitatearen arazoaz ardura daitezkeenek beren iritziak eman ditzaten eta iradokizunak egin. Oso pozik jasoko ditugu zuen ideiak eta kritikak,

beharrezkoak ere baditugu eta. Prest gaude, gure bulegoan, nahi dituzuen xehetasunak emateko eta zabal-zabalik entzuteko.

